

J. I. Albizu
Gillermo Albizu

Biotzetik senti dedana

Bertsoak eta prosa

Auspoa Liburutegia

318

ALBIZU, Jose Inazio (1915-1972)

Biotzetik senti dedana : bertsoak eta prosa / J. I. Albizu, Guillermo Albizu ; edizioa, Joxemari Iriondo ; [sarrera, Mikel Atxaga]. - [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2010.

286 or. : argk. ; 20 cm. - (Auspoa Liburutegia ; 318)

Aurkibidea

LG SS 1167-2010. - ISBN 978-84-7907-642-9

I. Albizu, Guillermo (1917-1996). II. Iriondo, Joxemari (1938-). III. Atxaga, Mikel (1932-2009). IV. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera. V. Izenburua. VI. Saila.

821.361-1"19"

821.361-3"19"

Edizioa: Joxemari Iriondo

© edizio honena: AUSPOA Argitaletxea
Gipuzkoako Foru Aldundia

400 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-642-9

Legezko Gordailua: S.S. 1167/2010

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

J. I. Albizu
Gillermo Albizu

Biotzetik senti dedana

Bertsoak eta prosa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Kultura eta Euskara Departamentua
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2010

Aurkibidea

Albizutarrak	11
Kulpa geiena dutenak libre dabilta	17
Nere maitearentzat	20
Jainkoak gorde ditzala	22
Aduanak nai luke...	24
Milagrosentzat	26
Jose Ramon Zubillagari Arjentinara	28
Ur-potzu zabal urdiña	30
Txakurkume bati	32
Euskerari buruz	34
Nere sortzetik beasaindarra...	36
Pernando Amezketarra	38
Esne biltzallia eta baserritarra	42
Lau bertsolari	44
Tomasen apustu sonatua	46
Izazu nitzaz kupira	49
<i>Galtzaundi</i> liburua	51
<i>Gaztetxo</i> liburu berria	53
Arkume mutur pinttoari	55
Andres eta Karmen neska-mutillen izketaldia	58
Manuel Lasarteri	60
Erri bateko alaba	63
Jaungoiko laztana	65
Orixe ta Ama Euskerari	70
Izar bi	73
San Jose langillia	75
Txantxangorria ixpillu	79

Gaixorik	81
Ai zer ibillera!	83
Atxeangatik	86
Errei beren izkuntzan	89
Euskera mingaiñean eta biotzean	91
Pedro Maria Otaño	93
Bertsolari txapelketa	95
Ondoeza	98
Nere izeba Joxpanttoniri	100
Jose Artetxeri	102
Arbola eta euskera	105
50 urte Euskaltzaindiak	107
Maite zagun euskaldunak	110
Puntua jarrita	112
Nere ametsa	114
Xenpelar il da eun urtera...	116
Izazpi-ri erantzuna	121
Biak zaindu itzazu	123
Bertso Berriak	125
Langillearen kezkak	128
Ondo bizi zaitez!	130
Kukua eta txantxangorria	132
Nik ez daukatu emazterik	134
Batzuk aditu nai ez beraren izenik	136
Lagunari	138
Itzala izan deiogun	139
Aita Santua datorrela ta	140
Barandiaranek soiña du	141
Udaberria, zoragarria, maitagarria	144
Eguzkia udaran	145
1983an San Ferminak	146

Gerra santuaren itza	147
Egunerokoa?	148
Biotzetikan zer senti detan	149
Uliamendiko kontrabandoa eta abar - Kontaerak	152
JOSE INAZIO ALBIZU	245
Gerratea, familia, andregaia	247
Isabeli	265
Gerratea	267
Amets bat	277
Xenpelar zanari	280
Ibillaldia	282
Nere maiteari	284

ALBIZUTARRAK

Albizutarrak eta Atxagatarrak urte gutxiren aldeaz etorri ziren, batzuk Goiburuko Goibieta baserrira eta besteak Lategi-ko Etzabalzar baserrira. Auzo-auzoak ginen eta mugakideak zenbait belaze eta sororekin. Hamaika melokotoi eder harripatu genien Eduardok eta biok bazkalondoetan. Halako gozorik ez dut gehiago jan. Gu baino zaharxeagoak ziren adinez. Haien azkeneko hiruak eta gure aurreneko beste hiruak ziren adin bertukoak.

Gure hirugarrengo senideak, Erramunek, eta beraien gazteenak, Mielek, elkarrekin egin zuten soldaduska, teniente baten zerbitzari, oso oker ez banago. Miel gure arreba Iñaxirekin ezkondu eta seme-alabak izan eta hazi dituzte.

Beasaingo Garindik etorri ziren Albizu Lasa familia Urnietara. Garingo Bazterretxe-behekoa baserrian Joxemari Albizu Odriozola eta Itsasoko Mikela Lasa Garin senar-emazteek izanak zituzten bost mutil, Grabiél, Joxe Joakin, Joxinixio, Gillermo eta Anizeto. Urnietan jaio ziren azkeneko hiruak, Frantzisko, Bartolo eta Miel. Mutil formalak denak ere. Gure amarentzat gure ispilu garbiak. “Horiek isilik konpontzen dituk. Zuek beti sesioan zabiltzate. Horiek amari etxeko lanetan laguntzen ziotek. Bakoitzak bere oinetakoak garbitzen dizkik”.

Gu ere zortzi izanak ginen –lau mutil eta lau neska– baina bikietako neska bat txikitan hil zenez, zazpi bizi ginen; lau mutil eta hiru neska, aita, ama, amona eta izebarekin batera. Sei emakume zeuden etxean. Gizonezkook ez geunden emakumezkoen lanak egiteko, jakina. Hala ere, Goibietako mutilak ziren eredu gure amarentzat: elkar maiteak, elizkoiak, otoitzerako eta elizkizunetarako nagirik gabeak, Luistar zintzoak. Bartolo, gainera, Gipuzkoako Luistarren buru izan zen eta eliz ekintza askotan hartu ohi zuen parte.

Joxe Joakinek garbi erakutsi zituen bere gizatasuna eta ontasuna gerra denboran. Bi eskola lagunok, Joxe Joakin Albizuk eta Iñaki Alkainek, alde banatara jo zuten. Azpeitiko

arkupetan agurtu zuten elkar, inoiz topo egiten bazuten elkarri ez erasotzekotan. Joxe Joakin bere osaba eta lehengusuen etxera joana zen, Urnietako gerra lerrotik urruntzeko eta Azpeitiko ahaideak agurtzeko, noski. Iñaki Alkain, Berrasoeta baserriko maiorazkoa, berriz, Eusko Gudarostean izena emateko eta Loiolan gudaritzarako trebatzeko.

Eta hain zuzen, Artxandan aurkitu zuen Joxe Joakinek Iñaki, bere lagun mina zen Joxinixio Etxeberria, “Merdillei” bertsolaria, saihetsetik baioneta sartu eta hil ziotelako, negarrez zotinka, erabat lur jota. Frankisten tanke bat igaro zitzaion ondotik. Iñaki sor eta lor geratu zen inork erasorik egin ez ziolako. Alkain gudaria atxilotu eta Francoren aldeko soldadu bihurtu zuten. Medina de Rioseco, Valladolid eta abarretatik barrena, katalanen betiko Lleida herrira eta espaiñolen eta frankisten Leridara heldu zen. Gero, Guadalajaran, Madrilen, Kuenkan, Valentzian, Alakanten eta abarretan ibili zen.

Hona bi urnietarrek Artxandakoaz Lleidan duten elkarrizketa, Alkainek *Gerrako ibilerak III* liburuan jasotzen duenaren arabera. Ez da Iñakiren ametsa, ez da lauso aldian irudikortutako irudipen zoroa. “Halaxe gertatu zen. Egia da”, aitortu eta egiaztatu zigun Joxe Joakinek berak Atxagatarroi Urnietara egin zuen txangoan. Honela eskertzen dio Alkainek:

Ibilketa aietako gorabera guziak ez dago liburu batean jartzerik.

Bañan Leridan gertatu zitzaidana bai; ori idatzi bear det emen.

Ordurako bagenituen amabost bat egun Leridan geundela.

Guk, euskaldunak, leku eta erri guzietan taberna bat aukeratzen genduan beti.

Geienetan, jakiña, ardorik onena zegoan tokia, eta zer moduzko nagusi, etxeoandre, neskatxa eta abar begiratuta.

Lau edo bost bagiñan an kantatzen bikain xamarra, eta beste euskaldun geienak andik eta emendik jakiten zuten, gu non eta nola eta zer lekutan alkartzen giñan.

Eta, jakiña, jendea alaitasuna eta jatortasuna dagoan lekura joaten da beti.

Guk aukeratzen genduan tabernak izaten zuan mesede ederrik. Gauetan, geienetan beteta.

Ala, beintzat, gu tabernan geunden, eta une artan ni bertotan ari nintzan.

Eta, artean nere bertsoa bukatzeko neukala, or eltzen dit batek bere besoekin lepo-lepotik, eta ura lepo-estuketa!

Besarkada estuak artu ditut bat baño geiago nere denboran. Baña alakorik ez iñungo lekutan. Ura zan estutua, ura!

Eta zein izango eta Joxe Joakin Albizu, nere erritarra, eskola-laguna eta oso adiskide aundia beti.

Joxe Joakin Albizu euskaldun jator au gaur Ameriketara bizi da. Bere gogoz joan zan aruntza, eta badakit oso ongi bizi dala¹.

Ni ez naiz batere arritzen gizon biotz zabaleko bat ongi bititzeaz, eta Albizu ori baño biotz zabalagokoa izaten oso zailla izango da beti ere.

Mutil koxkorretatik oso adiskide onak izan giñan biok.

Eskolan, eta nunai eta beti, apaltasun aundikoa zan berez, eta ikasten zuana errez. Bein ere etzan izan ni naizen bezin itz-jarioa.

Gutxi ariko zan berrikeretan; baiñan, arek itz egiten zuanean, oiñarri zabaleko itza esango zuan beti.

Españaiko gerra zikin artan Francoren aldetik ibili zan. Baiña onek ez du neretzat garrantzirik ezertxo ere.

Neretzat, garrantzirik aundiena, gizatasunarentzat biotz sakon eta zabalekoa izatean dago. Eta gaur ere onen bear ederra badaukagu alajañetan, baldin ongi begiratzen badegu.

Arek lendik nere abotsaren berri ongi zekian, eta, Leridako taberna artan sartu zanean, bereala ezagutu zuan ni nintzala; eta orregatik etorri zitzaidan besarkada anaikor ura ematera, onela esanaz:

¹ Kordoban (Argentina) hil zen, 1996an. Alargundutakoan sorterrira itzultzeko gogoia erakutsi zuen, baina ez zuen aukerarik izan.

–Iñaki, Iñaki! Bizi al aiz, motell? Ikusi ez baintut, ez nian sinistuko.

Iru lagun ziran berak, eta goiz ezkerer ia ezer jan gabe omen zeuden eta, Gandesatik baitzetozen, oso nekatuak arkitzen ziran.

Ala, Leridara aillegatu ziranean, bereala apaltzeko leku billa.

Orrelako goraberak esaten jardun zitzaidan aurrena.

Aiek iru lagun ziran eta gu bost, zortzi, eta danok euskaldunak; batera apaldu genduan ostatu artan bertan.

Apaltzen asi orduko eta ni Albizu orren ondoan nintzala, or galdetzen dit alako batean berak:

–Aizak, Iñaki; zer nola ibilli intzan Bilbaoko Artxanda mendigañean?

–Motell, Joxe Joakin, oso gaizki! Lagunik aundierna baionetaz il zidateken; eta gero, ura ilda, an ibilli ninduan atzera eta aurrera, zer egin ez nekiala, bi tankeren tartean. Baiñan zergatik galdetzen didak ori?

–Zergatik galdetuko diat, bada, Iñaki! Aurreneko tankean ni nintzalako, eta, i ezagutu eta nola enbilen ikusita, atzeko tankeari nik abixatu nitxioken iri ez tiratzeko tirorik, nere oso laguna intzala eta. Orregatik egon ginduan an geldituta, ik zer egiteko asmo uan. Gero, zauritu bat bizkarrean uala eta beste lagun batekin, pake-pakean pasatzen utzi zindutegun. Gaur orregatik diat nik sekulan izan dedan pozik aundierna, i emen bizirik eta kantari arkituta.

Altxa nintzan, eta, aurrena berak lepo gañetik eldu eta estutu ederrak izan banituan, gero, nik emanda, izan zituan berak ere eder askoak.

Albizu ori gurekin Azpeitiraño etorria zan. Orregatik, ondoren onela esan zidan:

–Badakik ongi asko Azpeitiko arkupe eta kontzeju azpian nola despeditu giñan, bat alde batera eta bestea bestera, ik onela esanaz: “Joxe, norberak norbere buruarekin agintzeko orduetan gaituk; eta, ik emen gelditzea nai badek, gelditu adi.

Alaz guziaz ere, gerra ontan alkarren aurrean gertatzen bagera, nik ez diat iri inñolaz ere tirorik tirako. Ik ere neri beste orrenbeste egin zaidak, eta kito!” Inñaki, itz oiek ik esanda sakabanatu ginduan biok Azpeitin, eta ara ostera biok alkarrekin.

Zein en gauza zoragarri eta pozgarri dan bi adiskide zar gerra batean topo egitea!

Neretzat etzan apari gozoagorik izan gerra garaian²

Gerrako legearen arabera bere bizia jokatu zuen Joxe Joakinek, lagunarena salbatzeagatik. Militar buruek jakin izan balute eta auzipetu, bere gain zukeen heriotza zigorra. Baina horrelako burutazioetarako ez zen denborarik. Ez zuen lagunari tiro egiteko odolik izan.

Baserriaz gainera, zaharrenak eta gazteenak etxez etxeko esne salmentan zuten ogibidea. Joxe Joakin eta Gillermo Donostiako udaltzain izan ziren alditxo batean. Joxe Joakin Argentinako Kordobara joan zen 1945ean, 31 urterekin, osaba batek, aitaren anaia batek, tentaturik. Joxinixiok taberna jarri zuen elizaren ondoan. Tabernariaz gainera, herriko “Argizalea” ere bazen, bere burua doi-doi erakusten zuten bonbila haietako ipurtargien kobrantzaren eta argindarraren ardura zuelako. Bere izaera alaiagatik eta bere lanbideagatik ere senideetan herrikoiena bazen Joxinixio. Beldur handirik gabe joan ohi ginen bere dendara paxientxi bila. Gabonetako Jaiotza jartzeko lapur baten beharra genuen elizan. Bitan pentsatu gabe joan ginen Joxinixio argizalearengana don Joan Aierbe bikarioak aginduta. Baina harri eta zur utzi gintuen erantzunak: arra ala emea behar duzue? Orduan ikasi nuen argiaren entxufeak arrak eta emeak zirela. Baina nola eman apaizgai gazteak bikario xaharrari, estuasunik gabe, argizalearen erantzunren berri? Ez zuen barre gaizki egiten Joxinixiok gu inñuxenteon kontura.

Gillermok, kontrabandoan harrapatu eta Martuteneko espetxean alditxo bat egin ondoren, oilategi bat jarri zuen Gaztelun. Hantxe eginak ditu neskatxa lirain bati ezkontzeko asmoa agertuz ondutako bertsoak. Azkenik, Iruñeko Berrio-

² *Gerrateko ibillerak III, Inñaki Alkain, Auspoa 150-161 orriak.*

zar auzunean jarri zen bizitzen, kanpo eta barru animaliaz inguraturik, Noeren Kutxa zirudien etxean. Euskara idatzian trebatua, *Zeruko Argia* astekariko akatsak zuzentzen zituen kaputxinoen moldiztegian. Euskaraz ez zekienak berunez idatzitako testuan ugariak izaten baitziren akatsak. Baina aldizkariak Euskaltzaindiaren gomendioak eta erabakiak hartzea erabaki zuenean utzi zion lan horri. Frantziskok Champa kafetegia ipini zuen Donostiako Loiola kalean. Anizeto Hernaniko Galarreta auzoan bizi izan zen. Bartolo, Donostian, lan arin xamar. Mielek etxez etxeko esne-salmentari jarraitu zion, almazen bateko ardo banaketarekin batera.

Albizutarrak, jende ona, atsegina eta adeitsua izateaz gainera, hiztun eta kontalari egokiak eta bertsozale handiak ziren. Tartean bertsolaritzarako taxua zuenik ere bazen. Eta tartean bada niri eta nik aspaldi idatzitako eta zenbait puntutan berehalaxe barregarri bihurtutako *Gaztetxo* liburuari eskainitako sorta. Gizatasunerako, kontalaritarako eta bertsotarako dohain horien fruitu eta emaitza dugu Joxinixio eta Gillermo anaien liburu hau.

Aspalditik nekien lan hauen berri. Behin eta berriz aipatu ohi zidan aita Antonio Zavala jesulagunak. Joxinixioren ateraldi bat gogorarazten zidan aldioro. Inoiz ez, eta gerra denboran gutxiago, soldaduska ez zen gozoa. Etxera etorri zeneko batean amak galdetu omen zion: “Seme, zer moduz, bada?”. Joxinixioren erantzuna: “Oso ondo, ama”. Eta horrela amaitzen du bertsoa: “Gezurra esanda begira nola zerua irabazten zan”.

Liburua argitaratzeko udaletxearen laguntza nahi zuen Antonio Zavalak. Plazido Mujikari bere mendeurrenean, 2006an, egin zitzaion omenaldikoan izan zuen Florentino Ugalde orduko alkatearekin mintzatzeko aukera. Laguntza izango zuelakoan geratu ziren. Baina osasun arazoek eta eskuarteko lanek ez zioten denborarik eman. Hala ere, oinordeko onak utzi zituen eta hona *Auspoa* Liburutegian bi urnietar hauen ale mardula.

Auzoak auzoari, adeitsu eta esker onez.

Mikel Atxaga
2009ko ekaina

Kulpa geiena dutenak libre dabilta

Endaia eta Biarritz
jiratu ditut bi aldiz,
xendarmiak txanpain edanaz
egunez eta gauerdiz.
Españiako aldetik, berriz,
bildurrak aidian gabiltz,
urrutitikan begiratuaz
beti zomorrun itzuliz.

Beobira ta Iruna
zania gau illuna,
zenbait alditan juañaden
ni eta laguna.
Gero andikan urrena
Ondarrabian barrena
San Juandeluza batzutan eta
bestietan Baiona.

Guk Prantziatik ekarri
lendik esanda alkarri
nola eguna argitzerako
biar zan etorri.
Gauetz pasata igari,
egin digute igarri,
bestela iñola ezin ziteken
gertatu gauz ori.

Nikela eta kobria
aberasteko pobria,
orri utzita billatu biagu
beste lantegi obia.
Olako arrisku gabia
eguneroko ogia
saiatu eta irabazteko
toki geiago badia.

Puntilla eta nailona,
ekartzen gendun gai ona,
oiek biakin egiten gendun
lanikan geiena,
Asko zania naiena,
orain kartzelan nauena,
ez dakit zeñi kontua eskatu
emengo egun auena.

Genduen pagatua
aurrez eginda tratua,
bein onuntza ekarri ezker
bazegon zeñek artua.
Ustu zania barkua,
kamiotikan gertua,
diru gabeko jabia pranko
bazan agertua.

Karabinero berriak
gordeta zeuden jarriak,
alper-alperrik egin ditugu
alako korriak.
Erakutsiaz gorriak
auts'izkigute gerriak;
ez dakit nundik etorri diran
olako makilkariak.

Buruzaia aurrian jarrita,
bazekin ango berri-ta,
berrogeita sei armadun zeuden
gugana etorrita.
Bi eskuak ezarrita,
lotuta atzera jarrita,
lau urterako utzi gaituzte
kartzela ekarrita

Lagun itxuran txibato,
iñork etzekin obeto,
esate'omen zun: «Etorriko'ia
ez badira ito».
Iritxi orduko «Alto!»,
batzuek putzura salto;
iñorkin ez do piatutzerik,
gaur jende gaiztua baito.

Aundia giñan koadrilla,
bat an gelditu zan illa,
ogei eta lau urte beteak
zituen mutilla,
langillia ta umilla,
bizkarketari abilla.
Nere partetik desio diot
zeruan gerta dedilla.

Ogei eta amar mutil,
aurrekua tiroz jo ta il;
gizajuaren andregaia orain
nagarrez or dabil,
malko samiñetan ixil,
beltzez jantzia ain xotil.
Beste bat artu nai izanda're
berdiñik billatzen zail.

Baneukan emaztegaia
gaztia eta alaiya,
aguro asko jartzen zuena
jatekuan maiya.
Saltzen zuana eraiya,
onuzkero aztu zera iya.
Gu berriz alkar ikusterako
izango'a garaiya.

Diru askoren jabia,
ostatu ere beria;
nik emendikan irtetzerako
galdua daukat neria.
Joan biarko det peria
erostera iri paria,
gero aiekin lanera itzantza
lotzeko gauza badia.

Gero astian itzantza,
bada irabazi motx antza,
danak utzita mandozaiakin
basora morrontza.
Itsasora igual arrantza,
badaukat naiko zalantza;
Ameriketa joatia onena,
bestela artzantza.

Nun izan leiken obeki
ori ezin erabaki;
andria artuta osasunakin
bizi liteke ederki.
Emendik irtenda aurki,
naiz milloiyik ez eduki,
bizi-moduko martxa nola dan
bertsolariak badaki.

Noiz joango gera etxera
amari lepotik eltzera,
aspaldi ontan urruti egonda
pixka bat gozatzuzera?
Lengo tokira atzera,
bear bezela oitzera,
lana eginda zintzo ibilliz
dirua aurreratuzera.

Lenago kontrabanduan
alegiña egin genduan.
orain lan danak utzi eta jai
aberatsaren moduan.
Alproja zarren moduan
dagonak, zenbat lan duan!
Kulpa geiena dutenak libre
dabiltza munduan.

Bertso auek Gillermo Albizuren eskutik jasotako makinaz idatzitako orri batetik ditugu. Leen esan degunez, Gillermo eta lagunak kontrabandoan ibiliak ziran, baiña bai guardiak arrapatu eta espetxera eramanak ere. Ala, bertso auek giltzapean zala jarriak dira.

Nere maitearentzat

Nere maitearentzat
dozena bat bertso,
galdetuaz: Zergatik
ez nazu egin kaso?
Aztu egin al zera
neretzako oso,
edo sentimentuaz
geratua gaxo,
ekarri nautelako
kartzelara preso?

Nola kontrabanduan
ibiltzen baintzan,
dirua irabazteko
lan oberik etzan;
gozo-samin guziak
baditut bizitzan,
zugandik aldentzia
etorri baizitzan,
betiko alkarrekin
nai gendunak izan.

Erraztun urrezkua
zendun beatzian,
malkuak ixuriaz
nik begiratzian;
orrek ikuitzen ziran
neri biotzian,
onera etortzeko
bezpera-illuntzian
itza pranko egin gendun
denbora gutxian.

Gure gozotasuna
denbora gutxiko,
orain puska batian
ez gera ikusiko;
berriz ere gu biok
gerade asiko
zuk esaten banazu
baietz lenbiziko.
Orduantxen etzaitut
beñere utziko.

Orduan saiatu ta
zintzo jokatuaz.
aurrez aurre sarritan
argi beiratuaz,
pozik biziko gera
alkar maitatuaz,
orain pasa zaiguna
gero kontatuaz,
deguna jan da edan
eta kantatuaz.

Oker aundia ezta
nik egin detena,
lau urterako preso
ekarri nautena,
giltzapian bakarrik
emen naukatena,
edatekua ura
ta gutxi jatena.
Eskerrak pazientzi
pixkat daukatena.

Egun santu guztian
eta arratsian,
pentsamentua beti
nork bere etxian;
utsa au baldin balitz
sarraldi motxian,
baño egon bearra
nago emen itxian,
lau urtean irtengo
ez naizela etsian.

Lau pareten erdian
onen bakarrian,
oinpeko umedadiaz
busti bearrian,
eser-lekurik gabe,
lo berriz lurrian,
arin tapatua ta
azpi gogorrian.
Erreuma sendatzeko
paraje ederrian.

Kanpo aldera dago
leio bat altuan,
bertara ezin iritxi
liteke saltuan;
burni-erreja asko
nola baidituan,
iñor pasa ez dedin
jarriak estuan,
egunez sartutzen da
argia justuan.

Eguzkiak jotzen du
pixka bat goizian,
bertan ez da egoten
denbora luzian;
itzalpe illunian
gero egun guztian,
bero usayik gabe
neguko otzian,
ezta giro izaten
emen ilbeltzian.

Giltza aundi batekin
burnizko atia,
aiziak ez du bela
utziko botia;
ezin litekena da
iges egitia,
lasai jarrita obe
bertan egotia,
denborarekin danak
pasako baitia.

Alai biziaz jardun
gogotsu lanian,
txarrak onduan badu
ona geienian.
Auxe esaten dizut
orain azkenian:
Ezkonduko gerade
kariño onian,
bein ni ateratzian,
zuk nai dezunian».

Albizuren eskutik jaso eta makinaz idatzitako orri batetik.

Jainkoak gorde ditzala

Adiskide bat gerturatu zait
erreguka ta arrenez,
bere erritar aide orrekin
prantses izketan erranez.
Begiratuan gizon gaiztua
ez du ematen barrenez,
noizik beiñian pipa aundiyai
tira batzuek egiñez.

Zu lapurditar prantsesa zera,
ni emengo euskalduna,
gertari bat da ezagutzeko
gu biok izan deguna.
Pazientzia artzia degu
gauzarikan ederrena,
denborarekin iritxiko da
ondoren bear deguna.

Prantziatikan kobriarekin
kotxe bat ekarri det nik,
danak kenduta utzia naute
ezer ere gabetanik.
Ustegabian au gertatzia
nork ez du artuko penik?
Ez nun pentsatzen nik Espaiñian
olako legerik zanik.

Nola Espaiñian izandu gendun
gerrate itun garratza,
urte askora erantsi zigun
gosetearen morrontza.
Erbestetikan ekarrizkeo
bear deguna onuntza,
gau illunian loak utzi ta
al dan moduan gabiltza.

Gerrate orrek utzi zizkigun
ondo goguangarriak:
illak palta ta mantendu bear
bizi diran elbarriak.
Zorrrak gailen da bestek eraman
emengo urre gorriak,
ogei urteok ez dira izan
guztiz osasungarriak.

Agintaritzan buru daudenak
ortarako aukeratuak,
pamelidunak jarri dituzte
puntuakin sarituak.
Ez kongai utsak opor eiteko
nola dauden bildurduak,
bere lanera juan bear zintzo
danak buru makurtuak.

Makinariak ugaldtu dira
baztar guztiak betian,
aste guztiko lana zuanak
bukatzen du ordu betian.
Neke gutxikin asko egitia
ezta inoren kaltian,
danen mesere besterik ez da
denbora gutxi botian.

Aurrerapenak ekarri digu
orrenbeste gauza ear,
alde guztita begiratuta
kale ta baserri zear.
Langille batek egin nai badu
izardi patsetan lear,
lan gogo ona iduki arren
zeñekin jarduna bear.

Lagundi batek langilleakin
badu fabrika betea,
lanik ez do ta ezin lezake
nolanai itxi atea.
Bizi lekuan zenbat bear dan,
gero jantzi ta jaztea,
nagusi asko beartu dira
kontrabandora juatea.

Nagusi danak nai baldin badu
langillia bizitzia,
beartua dago derriorrian
orrela ibillitzia.
Gaiaren billa juaten bada
Alemani edo Prantzia,
iritxi orduko arrixkatzen du
dakarkin dana kentzia.

Gaia ugari egonagatik
urrutietan naikuan,
Españiari gutxi ematen
diote bere kupuan.
Nunbaitetikan bear da berriz
lena bukatutakuan,
gauean juaan da ekarri bear
menditik edo barkuan.

Balio duna ordaindu eta
naiz etxerako ekarri,
berak jabetzen dira azkar da
gaiñera munta ezarri.
Ez baldin bada azkar pagatzen
lau urteko itzala sarri.
Ez dakit nungo erlijioak
erakutsiko dun ori.

Lenguan batek esaten zidan
kendu'iotela etxia,
eta beste bik eraman naute
bakoitzak beren kotxia,
Arrantzale bat negarrez dago
barkurik gabe utzia,
ta orain emen egon bearra
lau urterako etsia.

Oraintxe dala bi urte inguru
giltzaperatu ninduten,
eta nik orain kanpo lanera
al bada nai nuke irten.
Auxe da gauza samingarriya,
ez naute utzi nai juaten,
ez dakienak galdetuko du
gizonen bat il al deten.

Ixildu egin bearra daukat
geio esango nukiala,
baiña menturaz gerta liteke
gu barrenean gaudela.
Agintzearren ixuriaziaik
millaka askon odola,
esan liteke utzi bearra
laister gaiñean duala.

Txomiñenetik aldamera
Martuteneko kartzela,
oraindik urte gutxiz onuztik
badakigu emen etzala.
Kontrabandistai eman digute
pixka bateko itzala,
ezjakiñian dabiltzan oiek
Jainkuak gorde ditzala.

Bertso auek ere Gillermo Albizuren eskutik jasoak ditugu. Makinaz idatzitako orri bat da. Kartzelan moldatu zituen, 1956 urte inguruan, bostgarren bertsoak gerra bukaturik ogei urte dirala esaten baitu.

Aduanak nai luke...

Aduanak nai luke
diru asko kendu,
langillien kontura
alperrak mantendu;
gure bizkarretikan
amaikak jaten du,
oinbeste kobratzia
gaizki egiten du.
«Ori geiegia da»
askok esaten du.

Ezta lapurreta ta
iñori artzia,
Prantzian erosi ta
gauza ekartzia,
emen urri dagona
aukeran jartzia,
naiko ez balitz bezela
daukana kentzia.
Ondo egiña al dago
kartzelan sartzia?

Kulpanteak bezela
gu gaude jasoak,
aztu dira aideak,
lagun ta auzoak;
betetzen diranean
emengo plazoak,
iges aldera ega
egingo du usoak.
Alperrik izango'ira
orduko abisoak.

Barrendikan ez dago
esaterik itzik,
gaudelako mundutik
baztarrera utzik.
Iñorreri ez diot
opatutzen gaitzik,
batzun-batzuek emen
ikustia baizik.
«Erori dana or konpon»
esate'uten guzik.

Erori liteke bat
milla aldetara,
begiratuagatik
toki danetara.
Urrutiko ixpiak
badatoz bertara,
besterik salatzeko
jarriak ortara.
Negargarria ez al da
olako gertaera?

Berak libre dutena
bestei galerazi,
alde orretara gaur
asko dira bizi.
Danen buru dagona
aipatuz lenbizi,
orrela dabillega
kuadrilla ta guzi.
Ixilik utzitzerik
ez dute merezi.

Ondo jan eta jantzi
eta kutiziak,
jolas toki onenak
dauzke bereziak.
Jendia zurikatzen
daude ikasiak,
zer aztarren dakarten
gaude ikusiak.
Zurruapatuko ituzte
inguru guztiak.

Izenez ezin esan,
au da nere pena,
bildurra bait dadukat
galduko nautena.
Egiten ari dira
berak nai dutena,
eunetikan larogei
aspertu dutena,
igarritzen zaiote
ondo dakitena.

Bere jatorriz nola
baitan gaillegua,
baliyuake emendik
milla bat legua.
Begititik kentzeko
badago gogua.
Ez al do jarritzerik
oi baiño obegua?
Nai eta ezin bota,
or dago negua.

Asitako guztiak
badu akabera,
goien dagona azkar
jetxi leike bera.
Nazio baterako
au al da tankera?
Besterik neurtutzeko
gu iñor ez gera;
baiña datorrela azkar
onen bukaera.

Bertso auek Gillermo Albizuren eskutik jasoak dira, makinaz idatzitako orri batean. Sail au ere kartzelan jarria izango da.

Milagrosentzat

Nere begiyak egun batian
izandu zuten poz ura,
biotzak berdin esaten zidan
beretzat artu nai zula.
Suertez edo milagro
ezagunak, Milagros,
noiztik goatzen al zera?
Zu ikustiak nauka bizirik
urak arraia bezela.

Nork bere egin bearrarekin
bizimoduko lanian,
denborarekin ez dauka batek
artzerik nai duanian.
Alaz ta guztiz ere,
noizian bein bada're,
egokira detanian,
alde bat danak utzitzen ditut
zuregan nijuanian.

Noizik beiñetan ikustiakin
gelditutzen naiz aseta,
minutu batzuk patxara onez
zure onduan pasata.
Egon arren urruti
orra esan aurreti
ez jarritzeko etsita.
Ontaz aurrera sarriyagotan
gingo dizut bisita.

Berrogeiren bat kilometrora
bizi gerade aparte,
bitarte ortan ikusten dira
millaka leio ta ate.
Maitetasun egarriz
ezagunak arpegiz,
ai, zenbat neskatxa gazte!
Alare nere biotzak ez
zu aiña besterik maite.

Zedorrek ondo badakizu ta
biotzak eztru tranparik,
engaiñatzeko bere txokotik,
ez baitu ikusten kanporik.
Biyontzat dalako obe
garaia iritxi gabe
ez nuke jo nai kanpairik;
janketa on bat egingo degu
azitzen badet kapoirik.

Egi batera biurto leike
gertatua ametsetan,
begiyak lotan dauden garaian
biotzaren arnasetan;
alkarrekin onduan
nai dutenak munduan
egunez ta arratsetan;
eta gu zertan ez gera biltzen
igande arratsaldetan?

Nai dan bezela itz egitia
ezta beti izaten errez,
orretarako ondo prestatu
eta ez badago aurrez.
Jartzen dizut bidia
izateko neria,
esan zaidazu meserez
aur batek biyok gurasotzerik
ia nai dezun ala ez.

Zere gogua azaldutzeko
bildurrikan ez eduki,
zuk esandako guztiya neri
iruditzen zait egoki;
maite dutenak alkar
lenbailen eta azkar
eztaiak egin obeki;
egun eder bat aukeratzeko
noiz nai dezun erabaki.

Ai, nik bi ego baldin baneuzka
aidian ibillitzeko,
zu bizi zeran kabiyan bertan
egunero ikusitzeko!
Ez nuke jan bearrik,
zure itzakin bakarrik
naikua det asetzeko,
eta zurekin ezkonduzia
zorionez bizitzeko.

Bertso auek Guillermo Albizuk berak eman zizkidan, makinaz idatzitako orri batean.

Jainko altsuak egin ote zun
zure antz dun aingerurik,
betikotasun guztin etzedin
illundu bere ingururik?
Doai guztik dituna,
ain zaitut nik kutuna!
Esan gabe geiagorik,
biyok alkartzen baldin bagera
ezta alako zerurik.

Zu goraltzeko moduko itzak
nabil asmatu eziñik,
ta ez nuke esango orain baiño len
entzun gabia zeranik.
Jaungoiko beran Ama
izateko din fama
emango nizkitzuke nik,
baldin ez bazan etorri izan
mundura Amabirjiñik.

Bertso batzuek zuri jartzeko
zedorrek esan zidazun,
ez dezu usteko baiña nik ere
agertu nai bainizkitzun.
Kantatzeko moduan
zer nedukan goguan
orain nola baitakizun,
ni ere zai egongo naiz eta
nai dezunian erantzun.

Jose Ramon Zubillagari Arjentinara

Zure arreban seme bat oso
lagun det aspalditikan,
beti aiñ ondo konpondu gera
ezagutu ezkerotikan.
Gure jardunak izaten dira
euskal izkuntzagatikan;
mingaiñaz iñork mintza al lezake
au baiño garbiyorikan?
Nai izan arren onekin zail da
esaten biraurikan.

Zeure izeneko illoba Erramun
onetxek esan ziraden
Lardasketa-ren egillia zu
nola osaba zeraden.
Ainbeste urtian or bizigatik
orren euskera ederren,
nik oso pozik irakurri det
ulertuz mami ta barren.
Zentzurik duen euskaldunentzat
zeiñen ederki datorren.

Malkuak aixa ixurtzen zaizkit
nola detan biotz aula,
jakin biezu zure esan batek
ondo ikuitu nauela:
“Mendiyak zutik diraun artean
mintzo au gorde zatela”.
Aolku ederra ematen dezu
aita on batek bezela;
beste izkuntzakin naspildu gabe
soillian iraun dezala.

Jaunak sortua, bere gorantzan
eskerrak eman deiogun,
au dakigunok beste iñork baiño
zor geio nola diyogun.
Nere mingaiña eztiyak eztu
jartzen onek bezin legun,
Egille onak mintzo ederrena
guri nola eman zigun,
ainbeste gozo duen izkuntza
biotzez maita dezagun.

Basoko piztik bakoitzak beren
kantua dute oparo,
berezkua dan bezelakorik
ikasitikan eztago;
Europak mintzaerik zarrena
euskerara duen ezkeru,
mundua mundu dan arte ezta
au galduko unuzkeru.
Estraiñekua ta ederrena
len, orain eta gero.

Landare batek muttegi ona
beti du bearrezkua,
euskerarentzat orain artian
ala izan da Gipuzkua;
Ameriketara bere frutua
eman du itxurazkua.
Lardasketa ori, ai Joxe Erramun,
ez dago nolanaikua,
ortik ale bat bialtziakin
zuk egin dezu naikua.

Onako sei bertso aukeratuak Gillermo Albizuren eskuetatik jasotako eta makinaz idatzitako paper batetik kopiatuak ditugu.

Emen aitatzen dan Jose Ramon Zubillaga dalako ori Bedaion jaioa zan eta Argentinan bizi izana. Liburu eder-mardul bat idatzi zuen *Lardasketa* izenarekin, bere bitzta kontatuz. Auspoa Liburutegiak argitaratu zuen 1964 urtean, Auspoa 40-41 zenbakiarekin.

Ur-putzu zabal urdiña

Ur-putzu zabal urdiña,
zeruko margo berdiña,
gure kabiai musu emanaz
daukazu bizi gordiña;
ludiko zati aundiña,
baretzen zaitzunen gaiña
zerade begik ikus lezaten
gauzarik arrigarriña.

Zu zera Paradisoa,
au burutapen gozoa,
eder ta garbi gaiñezka neurriz
ikusten zaitut auzoa;
aundia izanik osoa
gordallu asko jasoa,
bai al dakizu zeiniek izena
jarri zizun itsasoa?

Izan omen zan Jainkoa,
izen guztiz gaiñekoa,
iturri danak batu zitezen,
itxura badu naikoa;
ibaia da tartekoa,
ibillera batekoa,
irixten zaizkan tantotaraiño
ixurtzen zuri dijoa.

Torizu esanaz zuretzat,
txitxardin txikitxuentzat,
txangurruk aziz goitik ordaiña
trukean etorritzen zat;
txukatu artean beintzat
trumoi guztiak zuretzat,
txango batean alik eta len
txokora dijoaz pozak.

Xamurtasunez zuk danak,
xaltakari diradenak,
xaltxaturikan jartzen dituzu
xalapartan datozenak;
xaboiak ditun almenak,
xoxikan gabe nai dunak,
xuxper gaitezen ur garbi ortan
xenide eta lagunak.

Azkarki eta ain guri
azaltzen dira ugari.
aitortutzero esker onakin
an ibilliak igari.
Ain zera gozo ta gazi,
ainbat biztanlen nagusi,
ametssetako loxin gozoan
artutzen gaituzu naasi.

Seaska baten antzean,
samindunak biotzean
saiatzen bada zu ikustera
saria badu geienean;
sua datorren unean
sartutzen naiz barrenean,
salgai daukazun garbitasunan
semea izan naiean.

Ondare orixe nai dut
onetsiz betetzen zaitut,
otarra billa sarri nabil da
otoitzuz eskatzen dizut,
ogibide ori baidut,
ortatikan bizia guk,
ontzi sendo bat zeuri gaiñean
oraingoz jarria ditzut.

Arrantzarako batela,
asmo bat artu detela.
arraz betea nolatan zauden
alako baidet sabela;
ainbeste mota daudela,
azi gaberik gibela
ase artean jan litezkenak,
alperrik dira bestela.

Urditza maitagarria,
guretzako ongarria
zu zeradela aspalditikan
ongi nago igarria.
Zera lilluragarria,
zuri begira jarria,
begik zabalik asper eziñez
daukazu Euskalerria.

Bertso auek Guillermo Albizuk emandako eskuidatzi batetik artu ditugu.
Bitxikeri bat badute: 3-garrenetik 9-garreneariñoko bertsoen leen letra
artu eta goitik beera irakurrita, *Itsasoa* idatzita dagoela ikusiko degu.

Txakurkume bati

Txakur bat galdu zaigu,
izena du Lagun,
beran billaka nabil
ni gau eta egun;
aztarrenikan ezin
atera det inun;
ez dakit ura gabe
zer egin biagun.

Bildurturikan egin
lezaken kaltiaz,
lotuta edukitzen
genduen katiatz.
Al zanik ondoena
sabela betiaz,
ez geunden asperturik
jaten ematiatz.

Begiratzen genion
esan detan gisan,
etxia zaindutzeko
aproposa baitzan.
Errespeto onekua
berez etorri zan,
beste lanik etzuen:
Jan, edan da etzan.

Zein etzun ikaratzen
zan txakur aliak,
ta askatzian egiten
zitun zaldaliak?
Zaunkaz uxatzen zitun
toriatzailliak;
garbi esango ditut
dauzkan siñaliak.

Muturzabal nabarra,
beso anak gorrik;
isatsa kendua ta
moztuak belarrik;
narruzko jantzi beltza,
bi begiyak argik,
letagiñak okerrak,
ditu ezaugarrik.

Ama presakua du,
aita alemana,
ijituari tratu
txar asko emana;
burrukari guztien
nagusi dagona,
beartzian badaki
agertzen kemena.

Oietatik sortu zan
gure Lagun beltza,
inork ez dakiela
egin digu martxa.
Orrela pamilirik
ezin leike altxa,
obe nuan gizendu
banuen bildotsa.

Jaio zala zituen
lau bat illabete,
bostik etzitun beintzat
oraindikan bete.
Gurekin aspertuba
zegon nolabaite...
Argatik alde egingo
zuan norabaite.

Etzeguan argala,
ezta ere astuna,
ni gabe billatu du
bere erostuna.
Norbaitek erantsiko
zizon eraztuna;
daukanak badaki ura
beria eztuna.

Zortzi egun baditu
etxetik galduta,
onuzkero jarri da
gosiak aulduta;
beretzat jaso dunak
zarpatik elduta,
mesedez ekar zala
jabia badu-ta.

Bateonbatak badu
nunbait ikusiya,
edo besten bateri
zerbait ikasiya,
ekartzen dianari
arren notiziya,
berari emango diyot
sari bereziya.

Orduantxen egingo
gerade lagunak,
alkarri mesediak
zor diozkagunak.
Txakurkume batentzat
bertso auek danak,
ala ere billatziak
emango'izkit lanak.

Naiz ez egonagarren
len zan bezin gizen,
bata bestiarekin
konpondu gaitezen.
Bide galtzerik gabe
etortzeko zuzen,
beriala esango det
non bizitzen naizen.

Alde aundia dago
txarretik prestura,
itz eiogun alkarri
gizonen postura.
Agindutako dana
artzeko eskura,
etorri Tolosako
Txoko ostatura.

Eskuidatzia, egillearen eskutik jaso.

–Bertso-papera, *Imprenta – Ayestaran -Tolosa*, egillearen eskutik jaso.

–*La Voz de España*, 1971, 04.06.

–*Príncipe de Viana*, 1976. IX.

Euskerari buruz

Danok euskaldunak izan da bai ote dago oraindik naparrentzat alako politika-usaizko kutsu txarren bat?

«Zer berri dek, naparra?»
galdetzen didate.

«Naparren aztarrenik
etzekiyat bate;
jaio nitzan erririk
ez al detan maite?
Kentzen ez dan talanta
jarriya daukate.

Abertzalia bada,
berdin da karlista,
errepublikanua
edo sozialista,
militarra, apaiza,
naiz-ta komunista.
Euskal Errin euskera
bezin onik ezta.

Ustez dakiten batzuk
ala esan dute:

Naparra izandua
naizela orain arte.
Egirik sinisten ez,
berentzako kalte,
nerekin dabilzanak
ezagutzen naute.

Orra aurrian jarri
zazpi izakera,
iritxitzeko alkar
maite izatera;
oso aaztu baiño len
erriko izkera,
danok itz egin bear
genduke euskera.
Etorri zaizkit galdetzera:
–Zerez bertsolaria al zera?

Beste batzuk diote kantatzia baiño errezago dala bertsoak jartzia, beren iritiz. Nik erantzun diet: Zuk egin al dezu aprobarik?

«Ez, baiña...». Orain nik galdetzen det zer dan errezago ez dakien baten-tzat: Txirringan, bizikletan ibiltzia ala beraren gaiñian geldirik egotia; edo goi-ontzi oietan izar tartean ibiltzia ala illargian gelditza.

Ez dakinantzat danak berdin. Bizikletan lendabizi ibiltzen ikastia errexago. Izar tarte ortan ez dute oraindik egoten ikasi. Bertsoak kantatzen ikastia, bearrekua, jartzen jakingo badu, bertsoan kantatzen ikastia bearrekua; jartzen jakingo badu, bertsoan ikasi egin bear; bestela, luma artu utsarekin ez du ezer asko egingo.

Arantza ere udarak
betetzen du lorez,
iñor ez da sortzetik
bertsolaia berez.
Ikasi egin bear
gazteik edo zarrez,
batzuentzako zail da,
bestientzat errez;
ez dakinai zer egin
orra esan aurrez.

Lurretik illargira
dira abituak,
nagusi nai dute an
legez jabetuak;
abailla izugarrian
juan da inguratuak,
oraindak ikuitzeko
dabiltz bildurtoak,
lana ematen diye
ezin geldituak.

Okerrik gabe dabil
bide zuzenian,
jarri zunak agindu
ziyon esanian;
goi ortan ikasitzen
badute egonian,
salto eginda ondora
etortzen danian,
ez dago zailla jartzen
beraren gaiñian.

Euskaldunak duan bertsoarako doai ori ez da gure enda edo arrazarena; ez da gure odolian datorren euskotarrona, baizik euskerak duan egokitasunarena, gauzak bide motzetik aiñ apaindurik eta ez-titsu adierazteko.

Andaluzak balekitez euskeraz, millatetik bat ez litzake izango bertsolari ez litzakenik; alakoxe berritsu eta zelebriak diralako eta kopetan azal lodikuak.

Esaten ari dira Albazetekuak plazetara irtetzen ekin diotela, eta emengo asko obiaki aieri entzuten.

Ortara asi ezker, oso errega da bertsoa asmatzen, nola edo alakua. Euskerak mordoskaka baidauzka itz berdiñak edo berdintsuak, sorta asko egin litezkenak; biltzen jakin bear. Baita berdiñak ere, gerok mingaiñian dabilzkigunak, eta gauza ezberdiña esan nai dutenak: astia, zazpi egunekua; astia, denbora; astia, aurreneko lana; aztia, azitzia; aztia, aztutzia; aztia, sorgiña; eltzia, babarrunak egostekua; eltzia, sagarra jateko moduan; eltzia, sube batek; eta beste olako pillaka asko.

Nere sortzetik beasaindarra...

Nere sortzetik beasaindarra,
bizi naiz Euskal Errian,
abizenaren etorburua
lazkaotarren lurrian;
egokiyena itz egiten det
bertako euskera zarrian.
Naiko lan bada oni eutsitzen
oraingo mundu berrian,
urte gutxiko aldakuntzakin
zertaraño etorri'an.

Emen jaiua, bertan biztanle
Gipuzkoa probintzian,
pozaldi alaiak aztuta askotan
naigabiak etortzian;
Españi geintsu zanpatua det,
iñoiz sartu ere Prantzian,
goi maillatikan ez naiz ibiltzen
janian eta jantzian,
ogi-sariya irabazten det
langille baten antzian.

Ez naiz oso gaztia eta
ez naiz oraindik txit zarra,
ez naiz arrunt ezjakiña ta
ez naiz bizi azkarra;
ez naiz langille purrukatua,
ez naiz ordia alperra,
ez naiz aberats itxurakua,
ez naiz beartsu zakarra,
ez naiz lodiya eta sendua,
ez naiz aula ta miarra.

Txakurkume bat galdu zala ta
sortu diran komeriak,
liburuetan datozte orain
zabaldutako berriak.
Iñundik ez da agiri oraindik,
ai zer nere alderdiak!
Arkin batera nik ateriak
iñork badauzka gordiak,
azken bertsuan antxe jarritzen
nituan zuzenbidiak.

Bat baiño geio izandu dira
neregana etorriyak,
esan nayian beren barrengo
sentimentuan berriyak;
agertutako bertso oriyek
ez dirala nik jarriyak,
plazetara iñoiz bear dula irten
olako bertsolariyak.
Erantzun niyon ez niñuela
poztutzen arrokeriyak.

Arrokeriya ez da gauz ori
baizik bakoitzan graziya,
ta komeni da zabaldutzia
euskal izkuntzan aziya;
bestela laixter galduko zaigu,
dago erkintzen asiya.
Au gertakizun negargarriya
geren begiz ikusiya,
baserritaiño sartua dago
euskal gaizto itsusiya.

Komeni da ori zuztarretikan
atera eta kentzia,
gutxieneko etxian beintzat
abots garbiya sartzia;
danentzat ondo zail da etortzen
bakarraren iritzia,
iñoiz alditan gertatu izan da
zerbait geiegi jartzia.
Ni ere baleike besterik gabe
pena orrekin galtzia.

Zu jesuita Zabalatarra,
on Antonio izenez,
lan ikuskarrik ari zerade
egiten euskeran onez.
Iñork ez dakin bidietatik
zabiltza guztiyen gainez,
ia itzaliyan dagon txinparta
piztu nai zenduke ziñez.
Nik opa dizut urte askuan
jarraitzia osasunez.

Egillearen eskuz idatzitako orri batetik



Albizu Lasa: gurasoak, zortzi seme eta erraina.

Pernando Amezketarra

Milla ta bederatzireun da
irurogei ta lauian,
Amezketako errian giñan
agorrillaren seyian.
Pernando zana jaiorik aurten
berreun urte urrian,
meza nausi bat eskeñi zaio
San Bartolomen aurrian.

Ongi etorri agurra zuten
etxe guziyak agiri,
leiotegitan pake zapiyak
zabaldurikan aiñ txuri.
Erriya zegon txit apaindua
ta bazan kristau ugari,
bizi geraden arte egun ura
etzaigu aztuko guri.

Pernando, zuri eskatzen dizut,
baldin bazaude zeruan,
argi pixka bat artuko nuke
zuk izan zendun moduan.
Illuntasunak eskubiderik
etzuan zure buruan,
izpirik iñun ikasi ez ta
ze jakinduri zenduan!

On Antonio Pagoaga dan
jaun guztiz agurgarriyak
artzai leialaz agertu zitun
aiñ gauza maitagarriyak.
Oso goi maillan jardun ziraden
dantzari ta izlariyak,
Pernando beran erreztasuna
zeukaten bertsolariyak.

Itzaltzen eztan argi biziya
piztu zenduna zu zera,
gerozkuakin egin liteke
berebiziko illara.
Mordo aundiya litzake danak
bildu ezkeroz pillara;
bertsolaritza errexa baiña
ona izaten zailla da.

Euskaldun danen buruan dago
Pernando Amezketarra;
ardiyak zaintzen ibilli oi zan
Azintziñeko maiztarra.
Ikasi danak zapaltzen zitun
naiz izan basarritarra,
alde guztitan gailendutzen zan
berez zalako azkarra.

Jakintsu usteak asiagatik
gizajo ziñalakuan,
iñon aolku bearrikan zuk
etzenduen alakuan.
Arkaitz ondoko kamamillu ta
garo usaidun lekuan,
letradu danak zezintzeko din
gatz bazenduan kolkuan.

Artian etzun iñork usteko
euskera aiñ ederra zanik;
ark esango zun: "Nik auxe dakit
ainbeste izkuntza izanik".
Gure izkera aztua zegon
ta etzun izango izenik,
Alar ondoko Txindoki azpin
sortu ez bazuan zaiñnik.

Diruz txiroa izanagatik
bazuan alaitasuna,
mendiko aize asko artua,
etzan izandu lizuna.
Guztiantzako ixpillu dago,
bete zun eginkizuna;
ainbeste aurren aita izatia
ez al da edertasuna?

Guraso berri asko daude gaur
asmo okerrak artuta,
sendi aundiyak ondoren txarrak
ekartzeko bildurtuta.
Ori dan bidez seme-alabik
ez dute nai sortu ta
orregatikan dago ainbeste
atzerrikua sartuta.

Arrokeriyik izan zuanik
oraindik ez det aditu,
seme-alaba asko ditunak
eskerrak merezi ditu.
Mintzo garbi au dagon tokiyan
ezin ziteken kabitu,
Euskalerriko aita guziyak
alakuak bagenitu.

Par'erañazten saiatua zan
bere bizitza osuan,
aserretikan pakeratuak
asko zituan auzuan;
guzientzako erantzumenak
asmatuz era gozuan;
gose asko ta diru gutxikin
gure Pernandok oi zuan.

Garai artako guda ondoren
zegen gosete larriya,
jatenik ez ta gorroto beltza,
danak pake egarriya.
Nola zan biotz oneko eta
adimenetik argiya,
par-itsasora biurtu zuen
goibel zeguen erriya.

Epailari ta bertsotarako
asko aldiz otsegiña,
itz zakarrikan etzenduena,
leiala ta atsegiña;
ateraldin bat bazendun beti,
nun-nai ondo itz egiña.
Gerozko bertsolari taldeak
zuan ikusten du muiña.

Tamalez gutxi entzuten dira
zuriak garbi diranak,
egitazkuak bakar batzuek
autik batetan irtenak.
Zerbait jakin da edertu naiez
moldakaiztuak bai onak,
barka zaiguzu ez bait gerade
zure antzekuak danak.

Arrazoiaren bide zuzenak
agertzen dute nor ziñan,
ezti lagunak kutsu gozua
bazegon zure mingaiñan.
Samintasunak uxatuazten
jardun zendun alegiñan;
zeruak sariz eman zizuna
eskeintzen ibilli ziñan.

Galdetu ezkeroz zein izandu dan
gizonikan aundiena,
erantzuteko, nik dakitenez,
Jesukristo da aurrena.
Ezbairik gabe esango nuke
Pernando bere urrena,
izan zalako artzai umil da
iztunikan abillena.

Zeru ta lurren Jabe izanda
Belengo estalpe artaxe
berri onakin etorriya zan
txiroena bezelaxe.
Aren antzeko apaltasunez
sor-leku *Ixil-saletxe*,
artzai argiyak izandu zuan
Amezketan orretantxe.

Nere begiyak busti ziraden
poz iturriko malkuaz,
gogoraturik ze alde dagon
ura zan bezelakuaz.
Aren jakintza arrigarri ta
ain mailla apalekuaz,
lilluratua gelditu nintzan
bera jaio zan lekuaz.

Zein beetikin duten asera
aundienaren sustraiak,
ori ikusita laineza asko
artu oi dute etsaiak.
Jakinduriyak biotz ta burun
dauzka aginte lasaiak,
oien eskura jartzen zalako
dana bazekin artzaiak.

Gaur zenbat gazte nabaitzen diran
izkuntza berriyan zale,
berak nai duten gaillurreraño
iritxi eziñik ale.
Leenguak badu biderik asko
ibilli ezkeroz trebe;
Pernando ara ze goien dagon
euskera besterik gabe.

Neronek ere eskola aundirik
ez det oraindik ikasi,
detan apurra asko ez da ta
bear det adierazi,
danak bezela aberastia
ta iñola ezin iritxi.
Apaltasuna dala onena
esango nuke lenbizi.

Ez det esan nai ikasitziak
kalterikan dakarrenik,
geiegi dakin damutan ezta
gelditu izan azkarrenik.
Euskaldun gerok ikusten gera
ulertu ezinda alkarrenik,
asko ta gaizki baiño obe da
ondo mintzatu bat benik.

Txikitatikan asi ta zure
ipuiak ditugu entzun,
jaio mugatik berreun urtera
nai izan degu erantzun.
Aaztu eziñezko oroigarri asko
nola utzi zizkigutzun,
Jainko Altsuak bakarrik daki
zenbat on egin ziguzun.

Beatzi seme-alaba eta
andria zeren onduan,
diruan orde z goi maitasunak
doaz ornitu zinduan.
Danen biotzak poztu zenitun
ta eriotzako orduan
euskal baratz au lore ederrez
beteta utzi zenduan.

Bertsolariyak egun autua
beste askoren antzian,
bear luteke urtian bein
uztaillan bederatzian.
Pernando egun orretan illa
nola dan gogoratzian,
Amezketara juteko naia
sortutzen zait biotzian.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea.

1964ko agorillean

Esne biltzallia eta baserritarra

Esne-biltzailea

Zai jarrita... emen nagola
esne marmitan onduan,
zuri esateko gauza berri bat
neri sortu zait buruan.
Naiko ebiya eginda nola
jatena asko daguan,
beiak esnia ematen dute
iturriyaren moduan.
Neurrik etziran ola betetzen
azkena juan zan neguan.

Baserritarra

Egun sentiya baño lenago
jaikita nabil esnairik,
goiz argiyari eltzen diyonak
ez du geroko damurik.
Gabeko intzik etzegoen ta
ekarri ditut janarik,
zuk diyozuna entzunarekin
jarri nazu esan nairik,
ez al dakizun iturritikan
ez dala etortzen esnerik.

Esne

Iturririkan ez baldin bada
esnia ematen dunik,
lenaz gaiñera zerbait geiago
orain pentsatutzen det nik.
Kanilletikan artzeko oitura
zenbait etxetan izanik,
leporaiño ontzik betiaz datoz
batzuk gaiñezka egiñik,
esne utsakin kimikuentzat
bestela ez litzake lanik.

Base

Iñoiz edo bein baserritikan
datorren esne miari
aitzakiyarik ezin leike eman
iñork bota'ion urari.
Txukun jetzita baldin badakar
ustez ona ta ugari,
bere gradutan iritxi gabe
bear dan ainbeste lori.
Ezia asko jaten dun baiiek
ematen duna da ori.

Esne

Ondo diyozu, lagun prestua,
eziak berak du ura,
orregatikan pentsuarekin
jarri bear da ardura.
Ez da naikua begiratzia
datorren esne mordura,
eta arekin gero eskuak
bete artzen dan dirura.
Kalian bizi diraden oiek
ere senideak dira.

Base

Baserrikuak urte batzutan
naikua lan izaten du,
ta kaletarren laguntzarikan
ez du oraindik izandu.
Bolara oietan esne askorik
beiairi ezin, ba, kendu.
Legorte eta izoztietan
gaxuak nola gizendu?
Gosiak dagon abelgorriyai
illia nundik legundu?

Esne

Goien dagona jetxi liteke
urte batetik bestera,
lenago berak eraman zuna
askok ekartzen ostera.
Merke daguen garaian saldu,
garestiyan erostera.
Gordetziak zer baliyo duen
orretantxe ikusten da;
argatik bear dira onian
txarreko kontuk atera.

Base

Urte onian naiko lanakin
eta txarran geiegiz,
baserritarrok ez gaitulako
iñork ikusi nai begiz.
Gure lan ori ez al da ondo
bedeinkatua izardiz?
Egun guztiyan lurrai begira,
gaba lo gutxikin berriz,
ta kalekuak ze jango luke
nekazariyik ez balitz?

Esne

Aurrerapenai begiratze'io
baserritar jakintsuak,
orregatikan datozte txekor
eta txerri mamitsuak,
oillaxko gizen eta oilluak
arraultzaz ugaritsuak;
aguro esneberritzen dira
naiz beiak egon antzuak.
Oiek guztiyak egiten ditu
Panderiyako pentsuak.

Base

Ain ona bada luzatu gabe
jun bear det Panderia,
ia lenbailen egiten detan
ekarritzeko bidia.
Aziendantzat sortu badute
orlako jangai berria,
guk ere bear genduan noizbait
zerbaiteren alderdia.
Oraindik gogoz saia gindezke
oiek orrela badia.

Esne

Bere tankeran jardun ezkerok
erdi ordutan lanian,
bizimodua atera eziñik
ez da gaurko egunian,
Ta etxerako esandakotik
ekarri nai dezunian,
zakuarekin juaten bazera
kalera zuazenian,
bear dezuna emango'izute
erriko almazenganian.

Base

Urrutikuak ez du jakiten
gauza askoren berririk,
aste osuan beingoz bestetan
ez degu ikusten erririk.
Neke azpiyan emen gabiltza
altxatu gabe gerririk,
ganaduk miak, oillo kaxkarrak
ta ezin gizenduz txerririk.
Ontaz aurrera ezta baserrian
bizi eziñan larririk.

Bertso-papera, *Gráficas San Marcial* – Irún. Egillearen eskutik jaso.

Lau bertsolari

Pernando

Guretarretan izandu danik
argi eta azkarrena,
Pernando Amezketarra degu
lengo danetan aurrena.
Jaiaren aitzakiyan
nora juan bazekiyan;
aurreko zarrei entzuna.
Letradu danen gaiñetik zegon
eskolarikan etzuna.

Garai artako ikastunakin
iñoiz izketan jarririk,
ain gauza zaillak galdetu arren
etzuen artzen larririk.
Toki danetan trebe,
bere buruan jabe,
naikua bazan bakarrik;
euskeraz ondo zeki-elako
etzuen besten biarrik.

Bere bertso ta epai danetan
zuzena eta garbia,
berialaxe asmatzen zuan
bear zan erabakia.
Bukatzeke itz biyan,
Txindokiko azpiyan
iñork berdindu gabia,
Ama Euskeraren baratzatikan
sortu ziñaden loria.

Txirrita

Ura ezkeroz agertu danik
gizonik aipatuena,
bere denboran ezin konta al
bertso jarri zituana.
Erriko izkera garbiz,
orain etorko balitz
au esango lukiana:
Iya zergatik baztertu degun
aren izkuntza kuttuna.

Aren mingaiñak ezin esan zun
kalterako zan itzikan,
jakintsuenai erantzuteko
etzuen bate lotsikan.
Anaitasun gozuan,
Euskalerra osuan,
iñori egin be gaitzikan,
zekien dana adierazten
ibilli oi zan pozikan.

Erririk erri jaiak alaitzen,
gero sagardotegian,
gazte-gazterik asi ta jardun
ziñaden bizi guztian.
Baserriko langintzan
eta gero argintzan
al zenduen ainbestian.
Zure lanak or ikusten dira
batian eta bestian.

Toki askotan mintzatu oi zan
lengo oitura zarretaz,
iñor nastuba geldi etzedin
sasi gaiztoko larretaz.
Bildurrak egon gabe
Ama Euskeran alde
itz egiten zun arretaz;
ikasmen auxe gerontzat artu
bear genduke aretaz.

Denbora aietan etzan eskolik
gaur eguneko moduan,
ala ere bertso eder askuak
bota oi zituzten orduan.
Alkarrena biltzian,
onenak aditzian,
artzen zituzten buruan.
Berarengandik entzundakuak
ortxe daude liburuan.

Euskalerriko onenan aurka
larogei urte ingurun,
Donosti urin gelditu ziñan
bertsolariyen txapeldun.
Itz neurtuak jarrita,
Joxe Manuel Txirrita,
jaio ziñana Ereñozun,
ernanitarrok omenaldi bat
orregatik zor genizun.

Moldiztegi-izenik gabeko bertso-papera.

Uztapide

Bertso bakar bat bere eskuaz
oraindik jarri eztuna,
eskolarikan ez dula baiña
ori da ori iztuna.
Manuel Uztapide,
danakin adiskide,
gustatzen zaion gizona;
bere sor leku zu izan ziñan,
zorioneko Zestona.

Mendi-baserri bateko seme
leial ta txalogarriya,
mundu guztiko txapeldun zeran
euskaldun bertsolariya.
Zedorrek dakizuna,
buruan daukazuna
merezitako sariya;
ain goi mallara iyotziakin
poztu dezu Euskalerriya.

Basarri

Urte askotan erantzi gabe
berekin ibilli duna,
bertsolariyan egin bearra
zer dan agertu diguna,
izandu da Basarri,
danok dakigu ori,
maixurikan jatorrena;
goguan artu bear genduke
orregandik datorrena.

Tomasen apustu sonatua

Euskaldunen arraza
onera nundikan
etorriya dakinik
ezta oraindikan.
Kabitzako autua
auxe du lendikan,
sortuak geradenak
gu berangandikan.
Ain pozik amilkan
edo ukabilkan
ezta besterikan
gure berdiñikan,
pakezko burrukaren
zale danikan.

Inun ezta egiten
emen aiña burruk,
eta edaritikan
ainbeste zurrut;
asko irintsitzen dunak
azkenian purrut;
ezertako ez dirala
jexten ditu arrunt,
kixkalduaz barruk,
urdaillan enporruk,
bizkortuz diabruk
ta nolako erruk;
zenbaitek aspertutzen
ditu inguruk.

Ardua irakiñez
asten bada tripan,
arin joko dizkitzu,
ai, zenbait kanpan;
mingaiñetik juana
gero ezin arrapan,
gizonaren indarra
ez dago arropan;
zurrutaren kulpan,
alkarri ezin opan,
saltsan eta tranpan
or dabilza tronpan.
Ez nuke sartu nai
olakuen tropan.

Nola ez dakiyela
gain bera iraulka,
geiegi edatian
jira-biraka;
daukan berotasunez
asten da birauka,
itzikan baldin badu
Jaungoikuak barka...
Naiz egon errenka
joko du erronka,
loietan arraunka
dabilzki lau anka,
aspertutzen dan arte
lurrari muinka.

Irtetzen zaizkan itzak
alakoen batez,
gaiñez egiten diyo
geitxo edatez.
Ortaratu baiño len
konturatu zaitetz
orain entzungo dezun
arrazoi on batez:
Ardo utsan partez,
ura naasin botez,
naiz txarrua betez,
ez da zure kaltez;
bestela obe da zu
lotzia katez.

Ankak moteldu eta
burua arindu,
bear bezela itz bat
esan ezin du.
Denbora junda gero
damua artzen du,
obe zan lenagotik
pentsatu bazendu.
Amaikak esan du:
Barrendikan min du,
zertako samindu?
Ondo esamindu,
jokatzen dakiyenak
egin izan du.

Esan dan itxurakin
noizik bein aldizka,
desapiyoka bati
etorri zaizka;
engaiñuan ziriya
orri sartzen gaizta,
sarritan berarekin
gertatua naiz ta.
Mutill txarra ezta,
euskaldunen kasta:
Lana egin latz ta
parranda iñoiz ta.
Orrekin konpondutzen
oso errez ta.

Ugartemendiatar
Tomas du izena,
luzia ta zimela,
ezta gizena;
urrillaren laurian
apustua izana,
bere kontrariyua
ustez geio zana.
Egin zuan lana,
berak al zuana,
nai ta ezin juna,
oker au zun dana:
Bentaja ematia
bear etzuna.

Tomasek neke lanez
du irabaziya,
argatikan zebillen
ala jantziya.
Ardo dexenterekin
betia ontziya,
baiña bere buruai
etzegon utziya;
korrika eziya,
jeniyo biziya,
badu maliziya,
orrek du graziya,
plazan egin baitzuen
nai zun guziya.

Luzuriagan jaiua,
tolosarra berez,
korrikan irabazi
duana errez;
zeukan abildadia
ibilli da gordez,
garayian agertu
egiña du legez;
bazekiyen aurrez
miñutuan bidez
ainbestian baietz.
Nai zun ainbat trabes
jaso zitun da iñork
zer esanik ez.

Sortaka belarretan
ibilliya etxetik,
etorrita etzuan
atera txintik;
emandako itzari
eutsi ziyon zutik,
bere lana egiten
asi zan unetik;
iñalan kolpetik,
alako kopetik,
izardi koipetik
bota zun gogotik.
Apustu ederra zan,
ez baitzan tranpik.

Miatuko balira
gaztetatik danak,
lan askotan irtengo
lirake onak;
tokiyetan badira
oraindik gizonak,
zer egin lezateken
iñork eztakinak.
Baserrin daudenak
dirade geienak;
dauzkaten kemenak
ta beren almenak
agertzia lotsatzen
diran onenak.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea.

Izazu nitzaz kupira

Euskera zale purrukatu dan
goi maillako idazlariak,
ainbesteraño biotzmindu nau
egin diran eskariak:
Iñoiz bada ta ixtillu txarrak
dauzkala Euskal Erriak,
denok batera bildutzen geran
jartzeko bertso berriak.

Lendabiziko esan bear det
dadukatena buruan:
erri txikiak aunditu dira
denbora gutxin barruan.
Gure antzikan ez duten asko
daduzkagu inguruan;
gorroto gabe artu ditzagun
gizakiaren moduan.

Erakutsiaz emen bertako
oiturak eta fedea,
ortik aurrera egin dezala
gero bakoitzak berea.
Nere ustetan danen gaiñetik
degu Jaunaren legea,
maitasun eta bildurrik gabe,
ezta neretzat ohea.

Geronen gisa maitatu bear
degula lagun urkoa.
besterik ezer jakin ezta're
orixe bada naikoa.
Guk aspalditik ikasi gendun,
ori ezta atzokoa,
alkarren aurka ibillitzea
bai dala azkenekoa.

Arraza danak dituzte beren
sentimen da pentsakerak,
aurrekotatik oiñarrituak
antz, irudi ta tankerak;
beren jenio, beren joera,
bakoitzak beren izkerak.
Nortasunikan aundina guri
ematen digu euskerak.

Esan diteke euskera dala
izkuntzarik garbiena,
gure odolana gisa goizeko
intz bera dirudiena.
Mintza erreza, xamur da ezta,
idatziz egokiena,
otsik gabeko izki premia
zer danik ez dakiena.

Gure mingaiñak esana azkar
artzen du belarri mintzak,
zeiñentzat dira izki mutuaz
idatzita dauden itzak?
Soiñuarekin datorren ura
besterik ez du izkuntzak,
guretzat ezta hkaitzerik (sic)
eta argirik itsuntzat.

Mutu antzera zertan jardun gu
mingain sanua izanda,
esate'ez degun izkia jartzen
gogoak ala emanda?
Idazki dana ederrago da
daukan guztia esanda;
betegarrizko uts lan orretan
denbora alperrik galtzen da.

Euskal Erriak lendik emanak
baditu seme azkarrak,
gure aurretik jundako asko
ta bizi diran bakarrak.
Esaten degun itz guziari
kentzeko izki alperrak;
izketan ez dakinak bakarrik
egin lezazke okerrak.

Lendabiziko nola mintzatu
bear genduke ikasi,
eta ondoren esaten degun
bezela idazten asi.
Euskeraz garbi egindakoai
ez kendu ta ez erantsi,
eta ondoen dakieneri
danok txapela erantzi.

Bertsolariak zein en ederki
dakiten beren mintzuan,
pozgarria da ikusitzea
olako arreta zintzuan.
Pena artzen det idazle batzuk
ez erortzea zentzuan,
Xenpelar zanak bertsoan nola
atxerik jartzen etzuan.

Esan zituan itzak or daude
jatortasunez beteak,
bera mintzatu oi zan bezela
oso-osoan boteak.
Guk ere berd in egin dezagun
alkartuz borondateak.
Orretarako lagun deigula
danon Egille maiteak.

Gillermo Albizuren eskutik jasotako eta makinaz idatzitako orri batetik.

Galtzaundi liburua

Gizon jakitun buru argi bat
inguratu da nigana,
lagun zar gera ta kontu berrik
ekartzera datorrena.
Izkuntza danen gaiñetik lenen
euskera maite duena:
On Antonio Labaien bera
izen deiturak dituna;
garbiak asko ikusi ditut
baiña ori da iztuna!

Aurrena ikasi gendun izkuntza
nola dijoan galdutzen,
an eta emen laguntzailleak
asi dira azaldutzen.
Oietako bat jesuita da,
bertso guziak bildutzen
eta bertako gertakizunak
liburuetan bildutzen:
Aita Zabala, ondo dakigu
zer lan zailletan zabilten.

Oraindik eun bat urte inguru
bizi ziran euskaldunak,
jarri zituzten bertso-paperak
asko dira ta aiñ onak!
Itz neurtu gutxiz ezin ditezke
azaldu danen izenak,
onen artean txit bereziak
badira batzuk izanak.
Orain eztago olakorikan,
aiek ziraden gizonak!

Esan didate tolosatar bat
aipatu al banezake,
bere erritar geradenontzat
txit poz aundia litzake.
Liburutxo bat Galtzaundi izenez
daritzaiona nakarte,
ta dauzkan bertso oien egille
dala Ramos Azkarate.
Oroitarrri bat berai jartzea
aurten erabaki dute.

Bere bertsoei ikusten zaie
daukaten bizitasuna,
gai guziera billatzen zien
bear zuten erantzuna.
Naiz izan iñauteriak edo
kezketan maitetasuna,
emengo seme ausarditsuak
goratzen ditu urrena,
animak bideratzea egin
zuen lanik ederrena

Bizi bearran lokarri ortan
guziok gaude loturik,
bakoitzak bere ogibideai
jarraitzera bearturik.
Orregatikan iñork eztezan
batere izan tristurik.
Galtzaundi-rekin alaitu zitun
Tolosako iñauterik;
ainbeste urte ta oik kantatzeko
ezta galdutzen oiturik.

Aiñ aundia nik ikusitzen det
on Ramos aren itzala,
esan nioten bere gorantz
jartzeko din ez nintzala.
Irurogei ta bat urte dira
martxuan ura il zala.
Konbertituta adierazten du
karlista jatorra zala...
Euskalerrriak olako seme
asko ekarri ditzala!

Doai ugariz apaindua zan
zure biotzan jazkera,
danen gaiñetik maitatzen zendun
jaioterriko izkera.
Udara agor gau izartsuan
loreak intza bezela,
zenbat itz ezti ibili zendun,
gu ezertxo ere ez gera.
Zein ederra zan garai artako
tolosatarren euskera!

Bigarreanean agertzen zera
zeure barrengo kezakakin,
argitu egin nai ziñulako
orduko zenbait ezjakin.
Aurrena alako maite-miñetan
ta pelotari neskakin,
urrena berriz azpeitiarrak
zuen santuzko pestakin.
Unamuno're astindu zendun
San Inazion martxakin.

Mundu aurrean sona aundiko
ainbat euskaldun izanik,
aipatzeakin ezterizkiot
gaizkirik egin zendunik.
Bertso oietxek bai sakon, goxo!
Eztaukate berazunik;
iñork eskeiñi baldin badizu
zeretzat bear dezunik,
goikoen mallan zu jarritzeko
gaurtikan eskatzen det nik.

Eta azkenik liburu ortako
bertso bilduma lanari,
bukaera ola ipiñia du
erakusteko danori.
Pake onean obe dalako
gorroto gabe alkarri,
Jesukristoren gurutz-bidea
itz neurtutan zuna jarri.
Zapateroan orde z obispo
bat izan zala dirudi.

Euskera aurrena, gero Fueroak,
Tolosa ta probintzia,
lau gauz oietan jarria zeukan
bere sentimen guzia.
Bertako seme askorentzat or
badago zer ikasia,
izkuntza samur berdingabe au
zenbatek daukan utzia,
birau zikiñez lizundurikan
Ama Euskeran jantzia.

Zeruko Argia, 1965.06.20

Gaztetxo liburu berria

Liburutegi apain batean,
usterik gutxienean,
idaztitxo bat arkitua det
Atxagaren izenean.
Gaztetxoentzat itz egiten du
ain jarduera onean.
Orrelakorik etzan izaten
gu txikiak giñanean,
San Juan sura inguratuta
saltoka genbiltzanean.

Naiz utzi bear izanagatik
sor-leku maitagarria,
zure burutik artu zenduen
erabaki bat berria.
Gazte-gazterik aukeraturik
zeruko bide garbia,
ikaskintza asko egin ondoren
ase zendun egarria,
euskaldunentzat gaur azalduarik
liburu zoragarria.

Aurtzaro aldia igaro eta
giza-ertzera iristean,
zer egin bear duen eztaki
bat gaztetxo dan artean.
Ikasteko ezer gutxi izan da
oraindaiño bitartean,
aita ta ama lotuak berriz
eginkizunen tartean.
Guzia garbi jarri diezu
eusker a eder batean.

Izugarrizko aldea dala
zorionetik txarrera,
nai izan dezu ikas dezaten
danak era xamurrera.
Gogorrago zan garai bateko
erakusleen jarrera;
laiño azpian osin artera
egin eztezan sarrera.
Arkumetxoak bide onetik
artu dituzu larrera.

Irakurgaiei izenburutzat
jarri diozu Gaztetxo,
bizi ontako udaberrian
badalako zenbait lantxo.
Batzuek nekez esnatzen dira
eta beste batzuk lentxo.
Azkarregia kalterako da,
ezer gutxi dator manto;
zure lan ortan bear eztanik
ezta agiri ezertxo.

Aizarna errin egiten dezu
erretorean itzala,
bazenekien gaztetxoentzat
liburu bat palta zala.
Guziz garbiro esango dizut
ikustez poztu nintzala,
orriak egi mamitsuz eta
txuri, beltz, gorri azala.
Urte askoan jarrai olaxe
artzai idazle bezela.

Mixiolari euskaldun asko
urruti jun izan dira
Jesukristoren lege santua
eraman naiean ara.
Bertan askotan aita on oien
premian izaten gera.
Asi gaitezen utziak geran
idazkieri begira,
zerbait letuta maitasun geio
sar dedin Euskalerrira.

On Migel jauna, agurtutzeko
auxe bea'izut eskatu,
oin lokarriak lotzeko're ez naiz
baiña itz ontaz oroitu:
Aizarnatikan artu dituzun
asmo oneri jarraitu.
Orretarako dezun argia
ez bedi illun gelditu;
gaur edo biar Zeruko Aitak
ondo sarituko zaitu.

Zeruko Argia, 1965.06.27.



Garin (Beasain).

Arkume mutur pinttoari

Arkume mutur pintto
anka beltzekua,
ille kixkur txuridun
adar motzekua,
animali txiki bat
gure etzekua,
jale purrukatua,
espa gutxikua,
askorik ez det bete
arkin poltxikua.

Sabela betetzian
bertantxe etzana,
nagikeriz askotan
altxatzen etzana;
ixilla ta lotia,
umill da otsana,
berari begiraka
gozatzen nitzana,
azi alan igesten
gero asi zitzana.

Izardian purioz
bi ardi erosi,
beste axuritxo bat
nioten erantsi,
eta bien esniak
ari eranazi.
Bazka aukeran jarriz
pentsuakin nasi,
artalde bat osatzen
ola nintzan asi.

Barruti txikiak du
iñorena gertu,
eta ezin diteke
bestenera sartu.
Lotuaz etsi arte
bear zuen urtu,
nere buruan auxe
egin zitzan sortu:
Ama biak etxian
nola euki lortu.

Auek dirade berak
zeuzkan alderdiak,
esnez asetzen zuten
ugatz ama biak.
Beretzat inguruko
landare berriak,
gaiñez gain, punttaz punta
nasten belardiak,
ankapian zapalduz
aik zilipurdiak!

Gazterikan egin zan
kutizien jabe,
ezin egonaz ango
sailleta jun gabe.
Bertan naikua zula
urrutira alde...
Jarri baiño lenago
danakin asarre,
pentsatu nun saltzia
nuala askoz obe.

Aragiz ornitu zan
ixtar eta magal,
ondo betia zego
saiets eta egal;
arrunt borobildua,
luze aiña zabal.
Guziz jan zitekien
ezur, mami ta azal,
baiñan erostun onik
etzitzatan azal.

Bi artzai gustaturik,
Santos eta Patxi,
beria eskeintzera
etziran iritxi.
Arren gure ziranak
bertan berriz gutxi,
geiago ikusi gabe
nik nolatan etsi?
Edozeñen eskutan
ez nuen nai utzi.

Gertatu naiz suertez
ezagun batekin,
beti ondo konponduk
giñan alkarrekin.
Galdetu ziran ia
zer nuen nerekin,
bere opiziuua
nola dun arakin.
Beriala tratua
egin nun arekin.

Nik esan nion garbi
gertakizun dana:
«Ta badakizu lendik
lagunak gerana;
konpianza badegu
guk alkarrengana,
zenbat izango da, ba,
uskeri orrena?
Egingo degu beraz
korritzen duena».

Ekarri nun sokatik
artuta kalera,
pixatzera eramanik
baskula batera.
Zertsu egin lezaken
ildakon galera,
memoriz kontuk azkar
nituen atera:
Emezortzitik sein bat
gutxi gora-bera.

Kulpa geiago gabe
gaxua iltzera,
kutxillo zorrotzakin
zefonan etxera.
Ia eraman nuen
damututa atzera,
pena sartu zitzaidan
nere biotzera.
Argatik ez nintzan jun
bere eriotzera.

Odola kendu zion
ta gero larrutu,
nik alde egiñarekin
asko etzan larritu.
Orain gibel arraiez
etzaiak baditu.
Sebo ta barrunbiak
zearo garbitu,
ojala ez banitzan
iñora abitu.

Urrengo egunian
bera abixatzera:
jiratzeko zer pixu
zun ikusitzera.
Diximulo guztian
ziria sartzera,
santu papera egiñaz
Judasen antzera.
Orrela bazabiltza
zu laixter an zera.

Etzekien bizirik
pixatu nuanik,
ta gaur artzairik iñor
lotan ez dagonik;
sei kilo ta seireun
garbian emanik.
Emezortzi zanantzat
gutxi deritzait nik.
Nererikan ez dezu
geigo jaten lanik.

Egillearen eskuidatzi batetik.

Zeruko Argia 1965.08.08, 10-garrena ez beste danak.

Andres eta Karmen neska-mutillen izketaldia

Andres

Neskatxak mutillentzat
duten kariñua,
mutillak neskatxeri
baiño ariñua.
Aditzen dutenian
dantzako soiñua,
begietan jarritzen
zaiote laiñua,
eta ezin jun dira
bakarrik iñua.

Karmen

Mutilla ibiltzen da
pozik pasiatzen,
baldin neskatxak uzten
badio laguntzen.
Eta gero atzetik
bera maxiatzen,
ostatun da jokuan
xox danak gastatzen.
Olako senargairik
ez neri gustatzen.

Andres

Zertan ari biegu
alkar minberatzen,
parra egingo dute
daudenak aditzen.
Aspalditikan nago
zurekin arritzen,
ikusirikan nola
bakarrik zabiltzen.
Egitan nai dizunik
ez al da urbiltzen?

Karmen

Erantzuna emango
dizut bereala,
jakin dezazun nik'e
norbait nai dedala.
Mutillen bat jatorra
etortzen bada ala,
esan diteke ziur
batuko gerala.
Badakizu lendikan
pronto nagoala.

Andres

Zedozer banekien,
ez orrenbestetik,
argatik ez nuen nai
iñorkin asterik.
Ezta neretzat beste
neskatxa gazterik,
ainbeste maitatuko
dedan emazterik.
Zu ikuste utsakin
jartzen naiz pozturik.

Karmen

Esaten didate maiz
aitak eta amak
ez sinisteko mutil
askoren esanak.
Ezkontzen diran guzik
eztirala onak,
eta beretzat bear
bein artzen duanak...
Zu ikusi orduko
azten zaizkit danak.

Andres

Gurasoen esanak
entzun bear dira,
obe litzake beti
egingo balira.
Bi gazte maitasunez
jartzean begira,
iñorentzat bai al da
onekin galera,
zu ta ni alkarrekin
konforme bagera?

Karmen

Len goibel nenguen
jarri nazu pozez,
ezin azturik nago
esan dezun gauzez.
Beti oroituko naiz
Karmen egun goizez,
alkarri zorionan
egarri au asez.
Kaira jungo al gera,
biotzeko Andres?

Andres

Nola nik ezetz esan,
ertzizko loria?
Dezu arros garbian
usaiz koloria.
Zeruko pitxi eder
dizdiratzaillia,
zu zerade neretzat
izar gidaria.
Nere biotza dago
zugan eroria.

Karmen

Gelditu etzaitezen
dezunikan gabe,
lenbizi egin zaite
neriaren jabe.
Biok bateratzia
ez al degu obe?
Itsas-eskiñak oso
alaituak daude...
Danak badijoaz ta
jun gaitezen gu're.

Andres

Meza entzun dezagun
Ama Birjiñaren
aurrian belauniko,
lagun deigun, arren!
Gure sari au nola
zerutik datorren,
kuttun gera ta maite
izanaz alkarren,
orrelaxe nai nuke
nik zurekin, Karmen.

Karmen

Uztaillak amasei
ditun egunian,
ekaitzikan gabeko
denbora onian,
Karmengo Ama Birjiñan
eleiz barrenian,
otoitz eginda biok
apaltasunian,
alkarri itza emanak
guaz azkenian.

Zeruko Argia, 1965.08.29.

Manuel Lasarteri

Bertsozko jolasean
noa asitzera,
ez nator, ez, nere
burua azitzera,
lagun bertsolari
zerbait aipatzera.
Neretzako gaiztoa
izana etzera;
itzetik ortzera
zu aritzen zera,
belarri ertzera,
gizonan antzera.
Arrazoiakin zertan
egin atzera?

Atzo gu Amezketan³
euskaldun jaiean
izan giñan eguna
pasa naiean;
zurekin bildu nintzan,
jan gendun maiean.
itz egin gendun oso
modu alaiean;
orduko gaiean,
bertso-lan zaillean,
euskera soillean,
guziak saillean
ipiñi nai dizkitzut
gaur ixillean.

Uztapide, Basarri
ta zu, iru jaunak,
bertsoak kantatzera
ziñaten junak;
ondora bildu giñan
gu, lengo lagunak.
Gure alkarrizketak
oi dirade leunak;
orain nere lumak
dauzka naiko lanak
ondo jartzen danak,
nai nituzkeanak,
Lasartek bazkalondo
esan zizkidanak.

Pernandon enparantzan,
ganbara batian,
iru bertsolari oiek
egoartian
jardun ziran bertsoan
alkarren artian.
Guk txalotu giñuzen
poztasun betian;
gero jan tartian,
pelotatokian,
umorez, pakian,
danok egoki an.
Paradisoa zala
esan zeikian.

³ Fernando Amezketarra jaio zaneko berreungarren urte-mugako ospakizunetan, 1964.09.6an. Makiña bat bertso papereratu du geroztik Lasarterek, eta bai eunka orri prosaz bete ere.

Saioa bukatuta
etorri zanian,
Lasarte exeri zan
aldamenian.
«Albizu –esan zidan
laguntasunian–,
gu bertsoak kantatzen
ari geranian,
zaude egoniam,
belarri ernian,
sartzen barrenian
ta buruz lanian,
guri ikasten jartzeko
al dezunian».

Itz oiekin etzidan,
ez, galdu patxarik,
esan nion: «Gauz orrek
ez du itxurik;
nerezkoak baditut
lenago ixurik.
Nik beztuak badira
bertsoz paper txurik;
etzaude itxurik,
letzera iritxirik,
aiek ikusirik,
buruz ikasirik.
Ez al dezu atera
ezer protxurik?

Zuek botatakoak
dijoaz aizetan.
neroni're jarduten
naiz iñoizetan:
Arratsalde, gabea,
berdin zait goizetan;
gero paper zabaltzen
alderdi guzitan;
nola ikusitan,
bertso ikasitan,
maitale bixitan,
euskaldun bizitan,
nik jarriak kantatzen
ta zer grazitan!

Auxe da biotzetik
dijoakizuna,
bukatutzeko nere
eginkizuna.
Badakit zuk askozaz
geio dakizuna,
zeure bertsoz zoratzen
neti naukazuna;
egokitasuna
da zuk daukazuna,
ta erreztasuna,
plazan zu maixuna,
baiña bertso-paper bat
bete ez dezuna.

Orregatik nai zaitut
pixkat zirikatu;
ez gera asarretuko,
ez ikaratu.
Zuk jarriei nai diet
ondo begiratu,
argirik saskipean
ez dedin gelditu.
Itz auek aditu:
Biezu saiatu,
orra nik giatu
nola zuk jarraitu.
Bakoitzak bestek ez dun
doaiak ditu.

Orra nik antolatu
nere burutikan,
ez dira ikasiak
liburutikan;
zuk asmatzen badezu
auentzat bueltikan,
poztuko ninduzuke
egiz gogotikan;
badezu gaitikan,
naiz asi goitikan;
nere aldetikan
artzen ba'et betikan,
etzaizu paltako zeïnek
botarikan.

Zeruko Argia, 1965.10.31.

Apal bateri egin
diot desapio,
berak itz bat esana
zula merio;
orregatik etzera
jarriko serio,
orain bilduko gera
len baiño sarrio;
geroz ezarrio,
ta zeïni zer dio?
Nago itz-jario;
nun dagon Orio
badakit eta jungo
nazu propio.

Lasarte, lagun maite,
orain azkenian
konfiantza eduki
nere esanian;
zurekin ibiltzen naiz
bromik gozorian.
Laguntzarikan iñoiz
bear dezunian,
atoz zuzenian,
ni nago lenian,
jardunaz lanian,
gizatasunian.
Mintzatuko gerade
nai dezunian.

Erri bateko alaba

Gipuzku ontan goientsuneko
erri bateko alaba,
bere izenik ziur ez dakit:
Urkizu ala Aldaba.
Gain orietan aingerutxoak
sortzeko toki al da ba?
Emen, kalean, argien bidez
egun biurtzen da gaba,
baiña illunik ez da nabaitzen
ori iñoiz jeixten bada.

Ibiltegiak alaitzen dira
ori etorri orduko,
alako zeru usai eder bat
ekarritzen dualako.
Arrosak berak inbiri duten
modukoa zeralako.
gai daudenak zu ikusitzean
txoratutzen diralako...
Danen biotzak pozez jartzeko
bakarrik bazera naiko.

Biotzak poztu, begiz alaitu,
txoriak ere kantari,
oietaz kanpo esan ditezke
ez dakit zenbat mirari.
Zuaitzak beren jantzi-osteoak
nai dizkitzute ixuri.
Alaz guztiaz beren azpian
ezpailuke nai exeri.
Par-irri egiñaz olaxe dabil
guztien maite-miñari.

Ama Birjiñan antz berekoa,
aingeruzko ibilia,
ezer gutxikin apain errexa,
amets ezti-iturria.
Mundua zeru biurtutzer
zera onuntz etorria,
uste ez dezun makiña batek
erreparoa jarria.
Trixtura danak kentzen dituzun
kutuntxo maitagarria.

Gaurko oiturako kurkuillarekin
buruko illez jantzia,
gaztain kolore, arre, argia,
arrunt alkarri josia.
Ain dizdirasu dauzkatzun begik
ikusten duten guzia,
berenganatzen dute eztiro
mutillaren lei gosia,
ta zuk zeñentzat zauden oraindik
erabaki ezin auzia.

Aste osoan goitako aize
garbia artu ondoren,
igandietan jetxitzen zera
pixka bat jolastearren.
Lagun maitenak bixitatzer
joaten zerade zu aurren,
guzientzako ain gogozkoa
zu nolatan bait zeraden,
alde egiten ez dizute uzten,
ai, zedorrek nai baiño len.

Kaleak beian trankill utzita
kea juaten dan eran,
basoak zear gorantza zoaz
“uso txuritxo bat egan”
balitz bezela, igo ezinda;
gu pentsatzen berriz zugan,
uste gabean miru gaiztoak
agertzen diran tankeran,
bide oietan eiztariren bat
azalduko ez ote dan.

Mingaiñez ezin leike esan garbi
zenbat gaituzun poztutzen,
unerik txikienean ere
zutaz ez gera aztutzen.
Ain maitetasun beroa bada
oso zailla da oztutzen;
zeuk jakin gabe olaxe zabiltz
danon biotzak ostutzen.
Obe zenduke bat aukeratu
asi baiño len estutzen.

Aukeratzeak estutasunik
oraindikan ez ematen,
gerta diteke gogoratzea
itz auekin egun baten.
Gazte zerala zalantzarekin
baldin bazera egoten,
ez da errez gero orain dauzkatzun
komentenziak izaten.
Au esaten det ez dakitenak
nola dan jakin dezaten.

Askotxo aldiz ibilia naiz
zu sortu ziñan kabira,
ingurutako tontorretatik
ikusitzen dan begira,
esanaz: «Nere biotzan kargak
pixkat ustuko balira,
bakarrik baiño bien artean
aixo eramaten dira.
Or bizitzea zuk nai badezu
gogoz joango naiz mendira».

Ai, gazte eder, biotz samur bat
zerekin daramazuna,
berriro esan bear dizut nik
lendik ondo dakizuna.
Nola zeraden ia burutik
zoraturia naukazuna,
galdu baiño len zentzua eta
ondorean osasuna,
adierazi nai izan dizut
dizudan maitetasuna.

Zeure guraso eta senidez
bizi zeraden etxean,
baserri txuri paketsu ortan,
menditxo baten ertzean,
otoitz beroak sarri egiñaz
kristau jatorren antzean,
izkuntz goretsi apain onetan
alkargana bildutzean,
txistua irentsiz egon izan naiz
zuen euskera aditzean.

Zeruko Argia, 1965.12.26.

Jaungoiko laztana

Gure Jaungoiko laztana,
leku aundi bat utsikan zegon
zerbait jarri zitekena,
eguzkiaren txinparta izan zan
beretzat jabetu zana;
ibilketari an eman zion
bide berritik barrena,
bitarte ortan denbora askoz
etzan geldikan egona,
ta nabarmentzen asi ziraden
argia eta illuna.
Guk oiri ola deitzen diogu:
Gau arratsa ta eguna;
bizigarria sortzeko da bat
oi gabe geldi gaudena,
nekatu danak itxogitea
du berriz gauz bearrena;
bizitzeko're naitaezkoa
indar berrituz kemena,
bata dan bezin onuragarri
bestia ere zaiguna,
izadiaren egintza dala
dago ondo ezaguna.
Pixkabanaka ozten zijuan
lenago berua zana,
guk degun mintza-bide garbian
ludia degu izena.
Txingar itzali gauden onetan
agertu zanian jana,
ordun gizona ornitu zun da
berari utzirik dana.
arretarekin zaintzen zeguen
guztiak egin zituna,
nola da gure izatiaren
eskerra merezi duna.
Esan ezin dan ainbat ongina

zedukalako gugana,
bere orduan ase bear zun
luzaroan zai egona,
maitasunaren arantza baitzan
bera zulatutzen zuna,
ta eskuetan bait zeukan berak
egitia nai zuana.
Galdezka ezta asi bearrik
zein dan ori lezakena.
Gauza guzien asiera ta
izakien iraumena,
bera da dana dakiena ta
bakarrik alguztiduna,
ontasuneko emaitza asko
guri jarri dizkiguna,
donetasunan etorburuak
akabatze etzaizkiona,
geran bakoitzai berea dana
ondo sarituko'iona,
burua pixkat askatu ezkeroz
guk esan bear: «Ze ona!...».
Bere garaian bete baitzuan
agindurikan zegona,
negartegi au poztera jetxiz
baizekin malkoz geundena,
otz gogorrenaz jantzirik gabe
egillerik aundiena.
Izanagarren Jaun da Jabea
guztien gaiñetikona,
komeni zala erabaki zun
anai biurtuz geurena,
bizialdi au bukatutzean
juan gindezen berana,
nola baituan biotz bat iñork
izan lezaken berana,
etorri zan da emen zabalduz
bere abotsan gardena,
gurutzari josita gero
berazunakin barrena,

gozatutzeko izandu zuen
alaipiderik onena,
on egiñaren esker txarreko
pozoia zuan edana.
Oraindik askoz mingarrigoa
egiten zaion obena,
ta barkatua utzi izandu
damutzian okerrena,
naiz izan birau zitalarekin
beraren aurka jarduna,
mizto lizunan narraskeriaz
zikindurik garbiena,
mingaiña baita kalte aundinak
ekarri lezazkeana,
era orretan asi ezkeroz
gizona da zakarrena,
ez oroitzea gaiñean dala
bizitza onen azkena,
jaiotzetikan il arteraiño
ordu apurrak dauztena,
arnas bakoitzan oiñez bezela
amaitzera guaztena,
bide beretik aurreratuz
onena eta gaiztona,
danok dakigu orain artian
iñor gelditu eztana,
oiek guztiak garbi ikusita
nolabaitian gailtzana,
jakinda alare nola begira
dagon gugatik il zana,
gure ardura zer dan jakiñik
eginkizun da itzena,
urtero ola etorritzen da
oar dedin bizi dana,
ura jaio zan gau on aretaz
abenduko illarena,
aurten milla ta beatzireun
iruroi ta boskarrena,
diruduna arro, ez duna beian

batasunez alkarrena,
ez al litzake askoz ohea
konpontzea al dan ondona,
ikusirikan errian erdik
goseak iltzen daudena?
Gizonak alkar artze'ez dulako
gertatutzen da au dena,
aize bolara bezelatsu da
gure emengo almena,
gaur zerbait geran ustean gabiltz,
biarko guztia juna,
izan geraden arrasto gabe
berdin txiroa ta jauna,
esku utsean jun bearko du
aundi ta aberatsena,
iltzean ezta txikiagoa
inun dan beartsuena,
ta bitartean oinbeste kontu,
zer da gure itsumena?
Auxe bakarria nik esango det
junda Jesus Aurrangana,
belaunikatuz muiñ egiteko
aitortuaz sinismena:
«O Aurtxo maite zoragarria,
eguzkirik argiena,
Zu zera gure Egillea ta
seaskatxoan etzana!
Zure eskutan jartzen det nere
biziaren luzamena;
itxaropen bat daukat neregan
lendik zedorrek emana:
Norbera artaratutzen danak
babesa izango duna;
orregatikan auspezturikan
urbilldutzen naiz Belena,
eskertu eta eskatzearren
animaren ondasuna,
mesede orren ordaingarritzat
nik eman dezakeana.

Nere biotz au ar zazu eta
egin zazu nai dezuna,
alkar baturik igaro zagu
danok betikotasuna.
Orretarako onetsi, arren!,
izkitan jaulki zaitana.
Beste ezetxon bearrik ez det,
gure Jaungoiko laztana...

Onako au ere Gillermo Albizuren eskutik jaso genuen, eskuidatzi ba-
tean.

Ondoren beste orri bat zekarren, onela diona: «Emen dijoan larogei pun-
tuko bertso bakar onekin nai dezuna egin. Nai badezu, Zeruko Argian jarri;
ta nai badezu, puskatu. Au egin det batez ere, nik esan nai nukena ager-
tzeko. Larogei osatu ditut eta ez naiz gelditu geiago asmatu ezinda; izpa-
rringi bat bete leikela derizkiot artutako bukaera “na” orrekin. Nik ez bate
ikasi eta nerez gutxi jakin, da artutako “na” orren atzetik dagon itz iturri
amai eziñezkoa ikusten badet, zenbat itz joskin ote dauzka euskera onek?
Orretxengatik da onekin bertsoan errez, beste iñork ez dun egokitasuna
dulako.

Nik esan bear banu, beste diran mintzabide guziak bat eginda, onen
ondoan erkin edo zepa ta gai urriagokoak dirala. Ez dago danok azter-
tzen asi bearrik. Ezaugarri bat naikoa da.

Lengoak idatzi ez bazuten da gure mingaiñak ez badaki galduta dauden
itzen berririk, ori ezta euskeraren errua, ta eztakitenena ere, baizik eus-
kaldunok ortarako ardurarik jarri ezarena, demarako ta lanerako ta beste
gauz batzuetarako bezela.

Tamalgarria benetan. Gure izkuntza eder onetan mintzatzen gera aixa,
alkar aiteak bata besteaz konpondutzen diran gisa.

1965eko abenduan. Albizuk

Asko daude utzita,
gauza ori ikusita
ni ez naiz egoten lasa,
zergatikan dan zeruko aingeruk
ekarritako arnasa.

Orixe ta Ama Euskerari

Tolosakuak beti izan du
euskaldun garbiyan sona,
oraindik ere ez du galduba
lenago beria zuna.
Euskal Erriko biotza au da
orain artian izana,
emen euskerai uztiak dakar
guztiontzat ondarena,
bera dalako mintzabide bat
ederragorik ez dana.

Agor illian San Migel goi-
-aingeruaren eguna,
Orixe zanan oroipengarriz
aukeratua zegona.
Bildu geraden anai-arreboi
gogoratuko zaiguna,
ondo dakigu emen gaudenok
ari zorretan gaudena,
biotzetikan agertu baizun
euskera maite zuena.

Euskalduna zan ta euskera maite
zuan biotz guztitikan,
bera juanda ere nai izan zuan
iraun zezala zutikan;
ordu onetan begira egongo
zerade zeru goitikan,
Jaungoikuari eskariyen bat
egiñaz guregatikan.
Ordain eskerra artu zaiguzu
eskeñi zaitzun jaitikan.

Zuk aspalditik ikusi zendun
eta igarriya zeunden,
guri jarduna ixillazteko
zer arraskuetan geunden;
gogoz ta sutsu ekin zenion
berpiztu zedin lenbailen,
argi ta garbi erakutsiyaz
au degula onena aurren.
Geroz da obeto jakingo degu
zu nor izandu zeraden.

Guraso batzuk daude erderaz
oso gutxi dakitenak,
seme ta alabak berriz euskerik
aditu nai ez dutenak;
sendi batian bizi diranak
odol berekuak danak,
sukaldietan izkuntza au egin
bezate aita ta amak.
Arrazoi aundiz esan oi zuan
Orixe Nikolas jaunak.

Aitak eta amak biaute izan
beste danen gidariak,
ondorenguak jakin ditzaten
dauzkaten eskubidiak.
Mirabe diran eta aurren zai
dabiltzaden iñuriak,
txikitandikan asi ezitzen
eskutako landariak,
garai dan arte saia gaitezen,
bestela egin du guriak.

Garai batian zeinek uste zun
jetxitzia orrenbesterik?
Erriko seme askotxo daude
arropuztuak gazterik,
aditu ere nai ez dutela
len bertan dagon izkerik,
atzerritarren birau zikiñez
mingaiña puzoiz nasturik.
Alegindu arren ez dago oieri
gauz onik erakusterik.

Ain zoritxarrez ikusitzen da
Euskal Erri barrenian,
nola gutxina itz egiten dan
erririk aundienian;
oso galtzera dijualako
tokirik ederrenian,
guztiyok alkar artu ta ekin
bear diyogu lanian,
oraintxe premiz dago ta saia
gaitezen alegiñian.

Itz auen bidez ez degu iñor
apurtu edo autsiko,
zenbait bezela gogorkeriyan
ez baigerade asiko.
Ama Euskerak bildurra artu du
emen ez dala biziko,
ainbeste irain egin ezkeru
zeinek ez luke etsiko?
Nere mingaiña dabillen arte
nik etzaitut zu utziko.

Agintariyak bear luteke
aurrena bidia errextu,
ikastoletan askatasuna
eta ez orain bezin estu:
Aurrak ikasi bear dutena
beren gurasuen esku,
euskera zeinen aberatsa dan
askok ez du nai sinistu.
Bera dakinak urrian billa
joan bearrikan eztu.

Zenbait alditan gertatu naizen
urrutitara juatia,
toki danetan agertu naute
biotza asmo onez betia.
Al dan guztiyan gustatutzen zait
gauza garbi esatia:
Mundu guztiyak artuko luke
jatorriz gure izatia,
alde guztitan euskaldunari
zabaltzen zaio atia.

Uri aundiko etxietatik
ari dira gu uxatzen,
jauregitikan mendi aldeko
basomortura baztertzen;
negar samiñez urtutzen,
urte askotan egon zerana
lurralde auek edertzen.
Bear dan modun zuri eskerrik
ez dizu iñork agertzen.

Alargunduta bakarrik zaude,
semiak dizute alde,
zerbait ere nai al dezunikan
iñortxok ez dizu galde!
Gauza aundiren bat egiña duten
irudipeneta daude,
gu euskaldunok euskerik gabe
obetogo al gerade?
Beste guztiyen loxintza baiño
amarena ez al da obe?

Auzoko dana gerontzat artu
zu bidaliz urrutira,
oraindik ara iñor iritxi
izandu ez dan tokira;
azken orduan egin bearra
batera edo bestera...
Danok batian juango bagiña
zureganaiño eskera,
len baiño ere poz geiagokin
emen ziñake oster.

Oiñaze miñez beteta dabil,
ez du pozikan arkitzen,
bere etxian erbestekuak
geiago dute agintzen;
bera izaki bertakua ta
etzaio ondo begiratzen,
lorian ordez ibilli bear
genduna ezpaiñak apaintzen.
Geren arnasan lurrin beruaz
asi gaitezen laguntzen.

Munduak ditun bost alderditan
ari zerade zabaltzen,
ikusitzen da zure billaka
zenbateraiño dabiltzen;
euskeran gaiaz liburu asko
asi dirade betetzen.
Gu berriz emen zuri utzita
bestiak geio maitatzen.
Il arteraiño nik eutsiko'izut,
lenago ez banaiz mututzen.

Gillermo Albizuren eskutik eta eskuz idatzitako orri batetik jasotako bertsoak.

Izar bi

Bi andereño daude erri ontan
diruditenak izar bi,
aiek berendu nai dituztenak
ibili ditezke argi.
Jabe diranen ustekoentzat
eztet esan nai geiegi.
Bietatikan politen orrek
maite naula badirudi.

Arbol berean sortuak dira
kabi batean bi aizpa,
iñola al bada asarretzerik
ez nuke naiko baezpa.
Bietatik bat oso xuabe
asia daukat galdezka...
Orrek neretzat bear du izan
gero mudatutzen ezpa.

Aingeru baten aurpegia du,
soiña xuxen da liraiña,
iztun goxoa, begiz argia
eta ibiliz ariña.
Danen artean politena zu,
nolaz zerade egiña?
Politak asko dirade baiña
zu guzien erregiña

«Politena zu zera neretzat»
esaten diot nik bati,
bestea geio mintzatzen dala
ezin kendu det buruti.
Begaratuan antz eman diot
berak ez esanagati;
biok bakarrik gauden garaian
ezin da joan ondoti.

Iñoiz biekin egon izan naiz,
itz batzuk egin parrezka;
nai al diodan batek esan dit,
nik erantzuna baiezka.
Zeru urdin orren azpian zure
berdiñekorikan ezta,
bate mutilla dana zurekin
maite-beratzen errez da.

Uste ez gendula begira alkarri
gendun begian erdia,
nere irudia nini barrenen
ikusi nion gordia,
berari esanaz: «Baiña, maitea,
nola diteke ordia?».
«Nere biotzak oraindik badu
zuretzat toki obia».

Ixilik egon zaite, mesedez,
etzazu esan oinbeste,
poz aundigiak ondo samiñak
ekarri izan dituzte.
Nere biotza, bi aizpatxoak,
zeon esku daukazute,
besterik ezta nai dizutenik
zuek merezi ainbeste.

Batek itz egin eta bestean
begiratuan indarrez,
biotz guzia kixkaltzen daukat
maitasunaren su-garrez,
bolkan aundi bat balitz bezela
gaia daukan arte errez.
Zuek zerate itzaltzeko din
eta besterik iñor ez.

Batera eta bestera dabil
olatuaren moduan,
arnasa duen arte nai luke
maite dunaren onduan.
Eskuarekin estutuz nabil
iñolaz ezin zainduan,
kolpe bakoitzez adierazten du
bere kuttuna zein duan.

Biak maite ta nai eta nai ez
batekin izan bearra,
poza ta miñak begietara
ekartzen naute negarra.
Gurutz-arpegi egin dezagun
zeiñentzat izan sagarra,
andik aurrera laztandutzeko
nere izartxo bakarra.

Zuengatikan aitzera onak
entzuna nintzan lendikan,
inguru ontan etzeguela
ola saltzen zan dendikan.
Jende geiegi etorri eztedin
eztet jartzen izenikan;
mailla ortako neskatxentzako
ezta palta gizonikan.

Itxi-ireki ezta gelditzen
alde bateko atia,
mutil askori gustatzen zaio
aren ondotik joatia.
Barrena askotan ikusitzen da
erostunekin betia;
duten guzia emango lukie,
alakoxiak baitia!

Eskua azkar erasten zaio
usai gozoko mendari,
atia askok ola billatzen
diote zuen dendari.
Urrutitikan asita onuntz
galdezka datoz: «Nun da ori?».
Galai gaztiak baita zalantzan
nai dutenak or zaindari.

Bear eztanik zuen kaltetan
nere ustez eztet jarri,
guzia jolasketa bat zala
danok badakigu ori.
Aurrera ere len bezelaxe
abegi ona elkarri.
Nere laguntza bear dezuten
guzian lasai etorri.

Zeruko Argia, 1966.02.13.

San Jose langillia

San Joserren izena
betea da oso.
orregatik nai nuke
al dedana jaso.
Izan zituen zazpi
oiñaze ta gozo,
guraso batentzako
ainbeste eraso.
Lurrean etzan bizi
izandu eroso.

Gure jatortasunez
bizitzeko eran,
esaten dute nola
ibilia zeran.
Irakurri nai dunak
artzeko aukeran,
dakien guzientzat
emengo izkeran
abesteko jartzea
nai nuke euskeran.

Orretarako bear
dedan ainbat argi,
arren, bial zaidazu,
jar dezadan garbi.
Zuretzako artuta
ordu bat edo bi,
aste santu onetan
al dan ainbat egi.
Naita're ezin esan
nezake geiegi.

Langille bat izan zan
asia gazterik,
zintzogorik etzegon
iñun ikusterik.
Beti ibili oi zan
umil da presturik,
etzerizkion ondo
opor egiterik.
Antzekorikan ezta
izandu besterik.

Lan-saria irabazten
zuen arotzean,
betiko zer egiña
bazuen etxean.
Estuasunarekin
iñor etortzean,
danak zuten laguntza
artaz beartzean;
berdin saiatutzen zan
toki arrotzean.

Zitun eginbearrak
ain ondo beterik,
garbitasuna etzun
nai izan uzterik.
Bere erlijio
legea austerik,
eztet nik okerrikan
egin zun usterik;
urteak aurrera ta
etzun emazterik.

Berarekin eraman
zuen lore ua,
garbitasunak berez
duen liriua.
Santurik aundiienen
maillara iua,
Belengo uri artan
izan zan jaiua,
guztiontzat ixpillu
degun judiua.

Iñor gabe zeguen
asieran Jauna,
bururatu zitzaion
bear zula ama.
Argatik egin zuen
lenengo gizona,
bizitzeko lurralde
guzia emana.
Alare etzun bete
berari esana.

Ixildu ziranean
alkar-izketatik,
abereak zituen
alde guztitatik.
Nunai agertutzen da
txar bat askotatik,
galdu giñan sugeak
zion izketatik.
Baiña Jaunak ez zindun
utzi eskutatik.

Orduan esan zion:
«Suge deabrua,
asmatu dit nolatan
zanpatu burua.
Emakume batengan
jarririk gogua,
ostera berentzeko
egin zun modua.
Nai degunok orain jun
gindezke zerua.

Jaunak ala nai izan
zuen miraria:
Neskatxa bat sortu zan
errurik gabia.
Jatorrizko obenan
kutsutik gordia,
ikusitzen dan argi
au bezin garbia.
Bere izena jarri
zioten Maria.

«Iritxi nai badezu
ama izatera
–aingerua jetxia
zuen esatera–,
Jaunak bialia nau
zuri galdetzera.
Orra, nik eman dizut
nere aditzera...
Andre guztin artean
onetsia zera».

Amasei urterekin
ain zegon gaztia,
erantzuna izan zan
samin da tristia:
«Senar gabe ezin ni
izan emaztia,
komeni bada geldi
dedilla betia
nereganako Jaunak
dun borondatia».

Mandatarian bidez
neskatx gazte baten
asi zan doairikan
aundiñak ematen.
Espiritu Santuan
lana da ikusten;
or agiri da guri
zenbat nai diguten.
Jaungoikoan Semia
ekarri ziguten.

Guztia dezakenan
almenez egiña,
sinismenaren egiz
ikusten da baiña,
gu ezkerade zuzen
esateko diña.
Zu besterikan ezta
Ama ta Birjiña,
guretzat babesa ta
goiko Erregiña.

Ama ta Seme ona
zaindutzeko emen
gizonik apalena
billatua zuen.
Arrokerizko gaitzik
berekin etzuen,
aingeruen esanak
egiten zituen.
Jaunak okerrak nola
zuzentzen dituen!

Bere Andre Maria
eta Jesuseri,
alako erreparorik
ez beste ezeri.
Ainbestetan ziraden
onduan exeri,
igesteko garaian
etsaien jasari,
jarraitutzen zioten
biak San Joseri.

Zeru-lurren Jabea
ilko zuten larriz,
lorik egin gabeko
gabak zenbat aldiz!
Asto bat artu eta
aldaturik erriz,
jango bazuten lana
egiten zun berriz,
bere arpegi dana
bustirik izardiz.

Maiatzeko illa da
Birjiñ Amarena,
zuretzat gordetzen du
asten dan eguna,
lanian gabiltzanok
jai artzen deguna.
Guretzako zu zera
zaindari onena,
San Jose langillia
izandu ziñana.

Ogeigarren bertsoan
orain azkenian,
eztet ixildu bear
erdi esanian,
eskatu gabe kristau
danen izenian,
banan-banan emendik
gu goazenian.
Arren, oroitu zaitetz
eriotz unian.

Zeruko Argia, 1966.05.8 eta 15.



Gillermo, lagun arte batean.

Txantxangorria xpillu

Zeruko Argi onbidetsu au
arturik nere eskutan,
exerlekuan atsedenduaz
irakurtzeko asmotan,
asi nintzan da txantxangorria
nabaitu nuan maiñetan.
Leioz kanpotik nola ari zan
barrura sartu naietan.

Ogi apurrak bota nizkion
zeukan gosea kentzeko.
Aiek jan zitun, baiña etzeukan
gogorikan ibiltzeko.
Mutil koskorrak atzetik estu
zebiltzan bera iltzeko,
larri bizian eskatu zidan
nere ondoan artzeko.

Igerririkan begi itunen
bustitasun garratzari,
ta egun otzen ondorenean
neguak dun arratsari,
elurra eta kazkabarrakin
tximist ta trumoi otsari,
atea ireki nion esanaz:
Sartu zaita, gaixo ori.

Ain ibillera baldarrarekin
lotsatzen balitz bezela,
zegan lekutik etzan aldentzen
txori txiki polit ura.
Bertan utzita itzuli nintzan
lenago negon aldera;
txirulioka an etorri zan
neronen aldamenera.

Begirunez ta pozez beterik
ain egalari biguiña,
txotx puntta baten kukildurikan
gure iñude apaiña.
Luzatu gabe asi zun bere
doiñuzko abesti piña...
Txoritxo onek agertutzen du
danetan biotz aundiña.

Eztiro, xamur eraso zion
ain apalki abestutzen,
arek besteri mesede egiñak
nola zaizkaten aztutzen,
kolko gorriko samin ontzia
moko txikitik ustutzen.
Iñor entzuten jartzen bazaizu
etzera gutxi poztutzen.

Esker umillak biurtzen ditu
jatorriz duan izkuntzan,
erreparaoan jarritzen danak
antzemango dion gisan.
Udaran nekez eta neguan
gosez otzak ibili zan,
nik entzuteagatik guziak
aguro zizkidan esan.

Udaberrian egun argitzez
kukuak gogoz jotzen du,
bere abotsan oiartzun eztiz
Euskalerra alaitzen du.
Jan bear du ta gero kantatu,
lanbide asko artzen du;
bere semea zaindu dezala
txantxangorria jartzen du.

Au nola baitan emen sortua,
bertan bizi izan dana,
ama on baten biotz kupitsu
kabu gabea duana,
luma artean ondo berotuz
arnasa indartu diona,
ixil-ixilik ain maitekiro
au da esaten diona:

«Aundia egiten zeradenean
indarrarekin jo kuku,
jaio ziñaden lurreko izkuntz
garbi onekin jarraitu».
Geiago itzik egin ezinda
gelditzen dan arte mutu,
bere amatxon esan guztiak
ondo bete izan ditu.

O, euskaldunok, bear dan bezin
zentsudunak bagiñake,
au ikusita zer ikasia
naikoa bagendukake.
Emen izandu ziran asabak
berpiztuko balirake,
gertatzen danaz lotsaturikan
berealala ilko lirake.

O, txantxangorri iztun laburra,
egintzetan zera luze,
garai bateko euskaldun aiek
izan ziran bezelaxe.
Beti negarrez ortxe zabilta,
guregantikan zedoze
egin naiean, eta nola ez
guk zu maitatu berriz'e?

Zerbait geiago aditu arren,
aideko iñude apala,
emengoxea zerade eta
ezin zuk alde iñola.
Aurrera ere lengo oituran
saia zaitetz egiñala,
geroko danak jakin dezaten
ondo konpontzen giñala.

Ai, agertzeak lertutzen dizu
negar-samin ziñezkoa,
sentimenakin egiten dezun
txori maitale gaixoa.
Orren kuttuna degun izkuntzak
laister dula beia joa,
eskergabien zabarkeriaz
amilbidean dijoa.

Gizonarentzat sarri izan da
erakusle egazkua,
zu sortu ziñan aita ta amaren
antz-irudi berezkua.
Bular gaiñean daramakizu
seiñale bat gorritzua,
adieraziz euskerak daukan
galdutzeko arrixkua.

Zeruko Argia, 1966.09.4-11.

Gaixorik

Eskutitz atsegin bat
det artu berria,
bidali al baneza
nere irudia.
Bolara ontan nago
erdi elbarria,
jokatu gabetandik
naiko loteria,
nere bizkar gaiñera
bada eroria.

Egun batez nintzaden
oso izerditu,
akordatutzerako
oztuta gelditu.
Nik ibili egin nai
ta ezin mugitu,
gizonak oso almen
urriak baititu.
Neukan osasuna ara
azkar erdibitu.

Arnasbide guziak
zitzaizkidan itxi,
zutik doi-doia nintzan
gelara iritxi.
Eman didan jipoiak
ederki enau utzi,
gogorrena izanda're
batek bear etsi,
larri ibilita baiña
oraindik naiz bizi.

Iñork eztu ikusten
bestek daukan miñik,
ezta medikurikan
ta ori dakiñik.
Esan arren enien
sinistuazi nik.
Askoren oiñazea
zenbat dan jakiñik,
berritan elegoke
sendatu eziñik.

Neri sendagai batzuk
eman zizkidaten,
baita saiatu ere
aginduk egiten.
Artzeko nagikeriz
ni enaiz egoten,
kontuz ibili arren
lanean da jaten,
etorri bezin aixa
gaitza ezta joaten.

Miatu nautenean
“rayos ekisekin”,
sari ederra arkitu
didate nerekin.
Aurrenetik nola asi
ezpaizuten jakin,
au eztago kentzerik
gatza ta urakin.
Oiean egon bear
daukaten pleurakin.

Soiñu beldurgarriak
dauzkat saietsian,
kutxa minberatzen zait
arnasa artzian.
Indiziuua sarri
dator orratzian,
mojatxuak dabilta
erlien antzian,
jartzeko toki billa
nere gorputzian.

Bururik ezin jaso,
ankak berriz narrats,
eten gabeko antsiz
egun eta arrats.
Oĩñazez dagoana
beti dago garratz,
sartu baiño lenago
orrenbeste orratz,
kasik bukatu obe
luke batek, orratx!

Arnasik ezin artu,
barrendikan miña,
morkotsakin bezela
zulatua zaiña.
Olako egoera
ezta atsegiña;
neretzat gurutze au
astuna da baiña
pazientziz eraman
nai det alegiña.

Guzion Ama zeran
Birjiña Maria,
maitasunezko itsaso
ondorik gabia,
Semia dezu zeru-
-lurreko Jabia:
Eskeñitzen dizutet
nere naigabia,
luzatu gabe goruntz
nai nuke abia.

Ezur eta mamizko
degun soin ergela.
iñoiz iruditzen da
zerbait bagerala.
Ezkatatu bearra
degu bereala,
eze dagon ostoa
laister da orbela:
Gure bizia ere
dijoa orrela.

Usterik gutxiñean
badator ozkia,
kaltegarri zait otza,
berdin eguzkia.
Jankaia aragi erre
eta barazkia...
Ontan pasako balitz
daukaten gaizkia,
aterako det nola
nagon argazkia

Zeruko Argia, 1966.10.09.

Ai zer ibillera!

Len ere eman ditu
gure Gipuzkuak
pelotari jatorrak
eta tajuzkuak;
esatera nijua
gauza premizkuak,
edari piñak edan
janaz ollaxkuak.
Alai jostatuz dabiltz
gazte lorezkuak.

Une bateko pozak
ondorian pena,
nolatan ibilli aiz,
Inazio Altuna?
Txanponak kastatuta
buruzbide ona,
eskerrak bazegola
onduan laguna,
gizon errespetoko
eta ezaguna.

Geroko etorkizuna
ikusirik aurrez,
lagundu zian diru
mordoska bat gordez;
irekin egun artan
etzegoken errez,
jostatutzeko prestu
lotarako ordez.
Zer egin bear uan
joan ez balitz Andres?

Etzetik irten intzan
automobillera,
gero Ondarrabitik
airez Madrillera.
An ez itzaden bildu
bestien saillera...
Mutil gazte batentzat,
ai, zer ibillera!
Erantsi bear ko zaik
lepotik koillara.

Parrandan zebillela
tankera alayian,
tristetu zan xoxikan
etzun garayian;
goiz aldera artian
sartu gabe oyian,
ondo dakigu ori
nola ibilli'an.
Zeiñen diruakin jua
aiz abioyian?

Altuna jeiki baiño
lenago oietik,
egazkiña zijuan
lainuaz gaiñetik.
Orduba iritxiya
juateko Espaiñetik,
ametsetan irtena
bere mingaiñetik:
«Abioia galdu dit,
diruik ez bestetik».

Etziyon onik egin
gauko serenuak,
lotan zegola alde
aireoplanuak;
izan balitu eskuan
beraren prenuak,
ixildueraziko
ziyozkan soñuak.
Etzituan ain errez
iyoko lainuak.

Lagunari izketan
ekin ziyon gozo:
Egiña damutua
zeguela oso.
Garbi esaten diat,
Andres Orbegozo,
inbusteri egiñaz
orrenbeste lazo,
merezi uken orduan
sartutzia preso.

Gaztetan ikasiya
aiz kolejiyuan
txantxarikan ez dala
gure erlijiyuan;
abitzerako amari
ik esan iyuan,
urrutietaraño
nola bai ijuan,
portatuko intzala
ire lejiuan.

Gaztiak berdintsuak
dituk geienian,
etziok begiraten
diruai dunian.
Kapaz aiz jardutzeko
gau ta egun lanian.
uskeriyan kastatu
danak azkenian.
Ortarako alperrik
abil or Danian.

Irudituagatik
zail ta seriyua,
gauza guztiyak badik
erremeriyua.
Izattia nai badek
millonariyua,
poltsari itxi akiyok
daukan jariyua,
bestela zertako aiz
Lejionariyua?

Pelotaritzarako
gure alderdiak,
inguru guztietan
dauzka arrobiak.
Amerikan zaudeten
euskaldun anaiak,
batez ere tolosar
lagun zar aundiak:
Zori onez igaro
Eguarri jaiak.

Guztiya esaten dit
borondate onez,
akordatu txanpaina
egin gabe gainez,
gaueko amabiyetan
lagun Julianez,
aurtengo urte ontan
azkeneko egunez,
mats alian tokiyan
babarruna janez.

Oharra: Bertso auek ere Guillermo Albizuren eskutik jaso genituen, eskuz idatzitako orri batean. Bertsoen atzetik lerro auek ditu, Gillermok berak idatzita: «Julian deritzan ezagun batek, azkeneko Eguarri auen aurretik zer asmo zuan bere lagun pelotari batentzat, errita egiñaz errespeto pixka bat sartzeko agertu zidan. Berak kantatuta bertso batzuekin zinta bat bete eta babarrun pixka baten tartian Dania-ra bidali. Nik korrika antzian urrengo egunerako amalau bertso auek moldatu nizkiyon».

Eta beste orritxo batean onela esaten da:

«Asunto: Ignacio, pelotari puntista, salió de Tolosa a Madrid con el objeto de tomar el avión que le conduciría a Dania; por causas que sabemos, “juerga”, se durmió y perdió el avión. A consecuencia de ello y por haber gastado toda la moneda española, al día siguiente se encontró sin dinero y tenía que pedirlo, cosa que lo hizo a D. Andrés Orbegozo.

A Ignacio Altuna, pelotari, le llaman Legionario, y también quiero otro verso que les dedique a todos los pelotaris de Dania y en especial a los de Tolosa. Felices Pascuas. Yo, Julián».

Zarra ondo bukatu,
berriya obeto asi,
ez dezala diruak
eskutik igesi.
Zurra ez izan baiña
lenguari eutsi,
bakoitza da norberak
egiñan nagusi.
Agur, ikusi arte;
danok ondo bizi.

Atxeangatik

Atxeangatik noa
izketan astera,
ortatik etorri bait
gindezke nastera.
Garaiz kontuak ondo
ditzagun atera,
eta bildu gaitezen
guziok batera:
Nere iritziz H au
guretzat kalte da.

Zertan jarri esaten
eztegun izkirik?
Neroni etzait beintzat
gustatzen izpirik.
Izkuntza onek badu
berez itz ezirik,
marrazkiz kutsututzen
ez galdu astirik.
Gipuzkoan geurea
daukagu bizirik!

Arrazoi aundiakin
lengo idazlarik
eztituzte onartzen
gaurko berrikerik.
Zarpailkeri oiekin
dana lardasturik,
itzik osoenari
“atxea” sarturik.
Uskeriak jartzen du
oso itsusturik.

İñorreri eztiot
aditu izan nik
euskeraz atxe orrek
zer esan nai dunik.
Ainbeste jarraikera
izkuntzan egonik,
auzoko osakai billa
eztago zer junik.
Berez danak edertzen
bai al dauka lanik?

Mintzaturik idazten
eztakin batekin,
artxek emango digu
nai ainbat ikaskin.
Berea besterikan
nola ezpaitakin,
atxe bearrik eztu
dabizkin itzekin,
mingaiñez du euskera
ta ez biatzekin.

Euskaldun berrientzat
gaurko idazkeraz,
degun jardunbidia
eztago aberats.
Arkitutzen diote
makiña bat akats,
guk berriz beroiei
dabilten euskeraz.
Lendabizi izketan
ikas zagun, beraz.

Mitxeleta urbiltzen dan
antzera argira,
arazo ariñetan
murgiltzen bagera,
egoak erretzean
abiadaz beera;
beste izkuntzetara
jartzeaz begira,
euskeran kalte danak
etorriko dira.

Kendu bear giñuzke
idazlan narratsak,
leguntasunik eztu
beñere garratzak.
Gozo ta dotoriak
eta aberatsak,
lore asko daukazki
gure euskal baratzak.
Oiek billa ditzagun
utzirik arrotzak.

Gogoa duanantzat
bada nork giatu,
iztegi berrietan
dituzte pillatu.
Ikasi nai duenak
lezake miatu,
arretarekin errez
litezke billatu;
euskerik garbiñean
biegu saiatu.

Arren, gure eztanari
alde bat utzita,
naspildu nai dutenei
ateak itxita,
euskera maite dunak
bera ikasita,
dioguna bakarrik
jarriz idatzita,
laister bear dun mailla
litzake iritxita.

Nunbait batzuk euskera
daukate berritatzat,
nik au jarriko nuke
guztien arritatzat.
Aurren aserakua
dala baiteritatzat,
Jaungoikoak Adani
emana guretzat.
Beste argibiderik
eztaukagu beintzat.

Bere Egilleakin
gizona oroitzean,
zenbat doai ezarri
zizkan biotzean.
Eskertu nai badu're
egun da arratsean,
egin lezake aixe
euskera utsean
denborarik alperrik
galdu be atxean.

Edozein aldetako
gorri edo zuri.
euskaldunok euskeraz
bear degu ari.
Al dunak geio ikasi,
ondo dago ori,
mintzaera guztiak
jakin al baledi,
orbanik ezarri be
garbi dagonari.

Oraindikan euskera
dago gordiñian,
nunai agertutzen da
sasoi bikaiñian.
Iraun lezake lengo
oitura apaiñian;
eraskiñen bearrrik
eztauka soiñian,
edertasunez bada
edozein añian.

Nik auxen eskatuko
nieke daneri,
euskeraz idazkirik
jarri nai dunari:
Uzteko mingaiñantzat
alperrik danari,
ta jarrai dezaiola
gogotsu lanari.
Aintza eman zaiogun
guztion Jaunari.

Zeruko Argia, 1967.01.01.

Erriei beren izkuntzan

Izugarrizko gaxotasuna
arindu ondorenian.
oraindikan aul xamar nagola
asi baiño len lanian,
ainbat luzatu diran oporraz
asperturik egoniam,
ta pozik nere anken gaiñian
zutik jartzen naizenian.
Irakurtzeko zerbaiten billa
juan nintzaden zuzenian.

Gustatutzen zait iñoren itzei
arretaz begiratzia,
orregatikan ain det gogozko
liburuk irakurtzia.
Esana aiziak eramaten du,
betiko da idatzia,
atsegiña da batzuk adimen
sakondua ausnartzia.
Andoni, auxe eskatzen dizut:
Diotana onartzia.

Kale ertzeko kantoi bat kristal
garbi apalak dituna,
ezin ukatu aurren pausuak
bertara eman nituna.
Begi pozgarri bat antxe zegon
itz eder auek zituna:
Arrateko Amaren altzotik,
eusker a garbi kuttuna,
tolesgabe ta apain zabiltza,
utzi dezu lo astuna.

Maite diraden bikote batek
txakurra artuz lagun gixa,
irudia dun liburutxoai
dario zeruko intza.
Euskaldun askon zalantzak dira
gaur mendia eta eiza,
paraje onen ixpillu berriz
arbolarekin ez iza.
Egilleari esan lezaio
egizko euskal apaiza.

Irrati bidez len zabaldua
Oiartzabal dar Andonik
agertu digun itzaldi sorta
irakurri det ondo nik.
Aitortu bear ezertxo gaizki
eztagola an dagonik,
erdiko euskera gozoa dauka
ikutu gabe be-goinik.
Orretzek bai on egingo dula
iñork balezake onik.

Abendutikan ekiten dio
itzaurre baten ondoren,
lurreko gauzei begira zertan
ainbat itsutzen geraden.
Eztitan ito nai ezpadegu
zeru tren a artu baiño len,
amets gozoak utzi bearra
dadukagula lenbaitlen,
doaizko jantziz prestatutzeko
Jesus nola bait datorren.

Guztiz alaitu gaitezen danok
astean beingo igandean,
biotzeratzen diran arantzak
edukitzeko mendean.
Zorigarriz zenbait alditan
emen ibilitzen gean,
errenditutzen baldin bagera
Jaungoikoaren legean,
berak jarriko gaitu geronek
nai baiño era obean.

Ortik aurrera jakin nai dunak
liburua irakurriz,
askoz obeto ikusiko du
bakoitzak norbere begiz.
Asieratikan azkeneraiño
ain dago betea egiz,
Euskalerrriak irauñ dagian
antziñako oitura garbiz.
Arrateko Amak guziok lotu
gaitzala maite lokarriz.

Ezta amaren losintx txikiñak
xamurtzen eztun biotzik,
sortu ninduna juañ zan eta
argatik nabil ni otzik.
Eguzkirikan gabeko lurra
beti ospel da laiotzik,
alaz ta guztiz jakin biegu
ez gaudezela billutsik.
Beko biziak mingotz asko du
gora begiratu ezik.

Zeruko Argia, 1967.01.15.

Zeñen gogotsu entzungo ditun
sinismendunen artean
euskerazko otoitz ta errezoak
biotzetik egitean!
Birjin Maria zai egongo da
aingeru danen tartean,
deitzen dunari esku emateko
zeruetako atean.
Tokirik bada nik ere sartu
nai nuke egunen batean.

Jesukristoren ordezkariak
goi eskubidez beteak,
errespetozko sotan beltzakin
ainbeste urte boteak.
Lenak utzita bide berriak
artzen ai dira gazteak,
enau arritzen gaur apaiz jaunak
galtza txurikin jazteak.
Baiña bai pena emango likit
bati euskera azteak.

Batikanoko azken batzarrak
frutu onak eman ditzan,
seigarren Paulo Aita Santuak
zer dion kristau bizitzan:
Espirituaz ornitu ziran
apostolu aien gixan,
zintzo ta gartsu jarrai nai dunak
Eleiz Amaren laguntzan,
onena dala itz egitea
erriei beren izkuntzan.

Euskera mingaiñean eta biotzean

Mintzaira eztsua
zu nola baitzeran,
dedan ezagueran,
jartzera nua begiz
nai zaitunak eran.
Aita ta amari ikasi
genion izkeran,
ara argazkia ere
ikusteko eran,
jendeak jakin dezan
nolakoak geran.

Bertsoak bialduaz
Zeruko Argi-ra,
ain leku garbira,
Basarrin Bordatxoak
daukan atarira,
oitura auen berri
zabalduz lurbira;
abiatu diranak
gu gauden errira,
izkuntz onen jakitun
egin bear dira.

Bururatu zan zerbait
egiten astia,
auxe da ustia,
nik dakidan apurra
itz bitan uztia.
Dana bukatzerako
jungo da astia,
beste zenbaitek aiña
baneuka astia,
esango nuke zer dan
emengo nastia.

Jaiak artuz udaran
datoz lanetatik,
ixkin danetatik,
zuriak eta beltzak
diradenetatik.
Au diot asteroko
eder onetatik,
eztegu atera bear
geren onetatik,
gaurko batzuk bezela
beren gonetatik.

Asi naizen lanari
bear diot eldu,
nola ez ugaldu,
ainbeste atzeritar
baldin bada eldu?
Naiz aurten babarrunen
erdirik ez eldu,
onez datorrenikan
zertako bialdu?
Euskalerrriak orain
izena Babel du.

Danak iritxi nairik
gaindiko torrera,
txukun, dotorera,
arritzekoa onuntz
dagon etorrera.
Beti ezerik zauden
erri jatorrera,
bildu nai dun guztia
Kantauritarrera,
euskaldun biurtzeko
azkar betor era.

Ingurumai ontara
agertzen diranak,
asko edo geienak,
beste edozein bezela
izan leizke onak.
Bere izkera ibiltzia
ala nai duenak,
lendik erabakia
dauka goiko Jaunak,
geurerik eztezagun
galdu euskaldunak.

Samingarri latzena
bailitzake ori,
bailitzake ori,
etorri bear duna
ezpagabiltz argi.
Ziurrik lur au degu
izkuntzen sort-kabi,
Babiloniko kondai
zarraren irudi,
gertatu zan arren mintz
ber-bera dirudi.

Gure aurreko aien
kabi autatua,
zaitut maitatua;
zenbat amets egillek
zeran aitatua!
Pizti asko gelditzen
zaizu kokatua;
asi baiño lenago
norbere kantua,
eduki bear luke
nun dagon kontua.

Aldekoak librerik
nai badute bizi,
zertan galerazi?
Beren jardun miñian
ala adierazi.
Egin izan digute
ainbat gauz berezi,
kukuaren otsa da
guztien nagusi,
Euskalerrin euskerak
bear zun lenbizi.

Garairen batean, bai,
ala zan izango,
nork eztu esango?
Aurrera ikasia da
guretzat lenengo.
Iñork eztu orretan
aurkarik egingo,
danok batu gaitezen
orko ta emengo,
Amari ez al diogu
poz ori emango?

Euskera kanpoan da
euskera etxean,
arnas bakoitzean,
euskerarekin mintza
begik zabaltzean.
Berdin dio lanean
edo otoitzean,
euskal mezak entzunaz
eleizaratzean,
euskera mingaiñean
eta biotzean.

Zeruko Argia, 1967.03.19.

Pedro Maria Otaño

Gipuzkuko erritxo
Zizurkil onetan,
Pedro Mari jaio zan
Errekalde ortan.
Bere omen egunez
iritxi naiz bertan,
biotza pozez eta
begiak malkotan.
Oinbesterik eztitut
ikusi askotan.

Zizurkill, adi zazu
nere aitormena,
au ez esateakin
izango nun pena.
Itz gutxirekin ezin
nik agertu dena,
baiña bai biotzetik
zein dedan naiena:
Bertsoak jarri zitun
bertsolariena.

Gauza bat zebilkizun
buru-biotzetan,
beti sorterriakin
ziñan ametsetan.
Urritzen bait zijoan
euskera itzetan,
emengo baso, zelai,
mendi ta arkaitzetan,
zure bearra bazan
bere ekaitzetan.

Bertsoak jarri ziñun
gozo ta miñakin,
biozkadak jaulkiaz
zentzuz mingaiñakin.
Ezin ixildurikan
zeure samiñakin,
uraz beste aldeko
erresumiñakin,
irrikitzen bait zeunden
etorri eziñakin.

Zenbat altxa zenduen
gure izkuntz zarra,
euskaldun danok ortan
badaukagu zorra.
Zer egin bear degun
badakigu sobra,
zuk aurretikan bixtan
jarri iguzu obra,
zure izenik gero
ezin leike obra.

Biotza zendukazun
beti su eta gar,
argatikan ainbeste
bertso zenduen jar.
Guri animaraiño
egin zaizkigu sar,
miaturikan danak
nola berri ta zar.
Oiekin bestek ezin
egin lezake par.

Daukaten mami goxo
ta beren joskera
ikusita, gu nola
poztuko ez gera?
Ondo begiratuta
doaitsua zera,
artutako gaietan,
ai, ori izkera!
Zuk bai egitan maite
zendula euskera.

Iñor izandu bada
maitatu duanik,
zuk baiño geiago ez
esango nuke nik.
Ain urrutitaraño
emendikan junik,
bera aipatu gabe
etzenduan onik,
gabak ere zuretzat
etzuten illunik.

Berdin sinisten zendun
begik itxita're.
orren uste onakin
gaur ain gutxi daude.
Euskerarik etzala
galduko iñola're
sarritan esana zu,
ziñetan ala're.
Zerutarra dalako
du ainbat ondare.

Auxe da zoritxarra
etorri zaiguna:
atzerritarrez bete
Euskalerra dana.
Ikasiko balute
guk mintza deguna,
lurralde au izango
litzake ederrena;
euskerak orixe du
gauzik bearrena.

Egilleak etzigun
bizi lurrik neurtu,
kanpotar danak ondo
beaitugu artu.
Maitasuna eskeiñi
eta ez zigortu,
alde egitera iñor
ez leike beartu,
gu bezela euskaldun
nai duna biurtu.

Bertako asko daude
mintzo au aztuta,
aidean nola ibili
egoak moztuta?
Arnasa jun ezkerro
ez leike piztu ta
iltzen utzi duanak
ardurik ezta-ta.
Orretxengatik dago
Ama zapuztuta.

Zeruko Argia, 1967.05.14.

Bertsolari txapelketa

Milla beatzireun da
iruroi ta zazpi,
garagar illak gaur
amaika dauzki.
Egualdi ederrez
jo degu Donosti,
Anotan bertsolarin
billera izaki.
Bete da gain, azpi,
an zanak badaki,
ainbeste aitzakia,
nola dagon gaizki
gizon bat artutzea
orren garrazki.

Bertan neurtuak dira
amar bertsolari,
lenengo saria eman
Uztapideri.
Bigarrena prantsesai,
Xalbador jaun orri,
bizkaitarra irugarren
degu Lopategi;
gero Lazkaori
ta Gorrotxategi,
Arozamenari,
ondoren Berrobi,
Mattin, Madariagaz
da Mugartegi.

Bederatzitik batek
bear zun aurrena,
berezitzen zailla zan
zein zen onena.
Norbait irten bearra
txapeldunarena,
aukeratutakoa
ez bera txarrena.
Len ainbat emana,
batzuk zuten pena,
an lertu zan dena,
beren itsumena.
Uraxe txistu otsa
jendearena!

Prantzian Urepelgo
semea Xalbador,
zuregana biotza
daukat maitekor.
Berekoi batzuek
egin zuten gogor,
aize-ots aiek ia
jarri ginduzten gor.
Baiña zu beti nor,
gaitzetsi gabe iñor,
agertu ziñan or
ausardiz ta jator.
Azkenerako danak
zizuten aitor.

Borondate on batez
zu beti kantuan
asten zerade iñork
esandakuan,
etxean bazeundeke
bezela kanpuan
gizatasunarekin
zabiltzan lekuan,
oraindaiñokuan;
ze modu gaiztuan,
ainbeste txistu an,
ain trantze estuan.
Portatu ziñan oso
era prestuan.

Asi baziran asi
txistu ta oiuka,
lerdo batzuek jardun
ziran orruka.
Jesukristok egiñan
itxura badauka:
Maitasuna eskeintzea
isekaren truka.
Etzendula kulpa
bertso batez topa,
erantzuna tapa,
gero danak opa.
Merezia zenduen
sari ta kopa.

Bertsoa sartzen bada
emandako gaira,
zorrotz bezin giartsu
bere neurrira,
al dana erantsiaz
izkuntza garbira,
biotz doaiak ere
agertuko dira.
Dauden alderdira
jar gaitzan begira,
gero iztegira,
ikusi argira,
nun-naiko euskal itzak
datoz arira.

Zergaitik geio gabe
samingarri dana
ezin eraman ori
prantsesangana?
Dalako Bidasoaz
auztikan dagona,
emendik deituzean
etortzen zaiguna.
Au da dakiguna:
Dala euskalduna,
barneko laguna,
izkuntza kuttuna,
erritarrak bezela
mintzatzen duna.

Euskera aspaldian
ain dago lotua,
erri bakoitza bere
kera oitua.
Guretarren lur ori
naiz egon gertua,
alkarrekin txit urri
degu itz-tratua.
Ezin ulertua
daukagu sortua,
baratz loretua
sasi biurtua...
Donostian eman du
bere frutua.

Len zegoen tokian
txapela gelditu,
ainbeste aizerekin
ezta aidatu.
Gogor eutsi ezkeroz
ezin ba egatu,
zarrena ta onena
bera da gertatu.
Nai dunak aditu,
guztiok alaitu
gu egiñak gaitu,
berezkua baitu;
Mañuel orrek badu
naiko meritu.

Zeruko Argia, 1967.08.13.

Mañuel, oraindikan
etzaituzte autsi.
al dan arte guztian
zuk orri eutsi.
Al bada lengo iruri
beste bat erantsi.
dadukazuna ain errez
etzazu erantzi.
Naiz milla erauntsi
bazaitzu iritxi,
guztiak irentsi,
biotzez onetsi;
sasoi daukazu ta ez
nolanai etsi.

Biotza jartzen dezu
samur da zabala,
kopeta illuneko
gizon apala;
pozez ase beterik
danak beriala,
Jainkoak urte askoz
gorde zaitzala.
Osasuna dala
eta sariz ala
ondo zabiltzala
zera serbitzala.
Guztion premizko da
zure itzala.

Ondoeza

Urteak ainbetsu gaitz
banaiz ikusia,
ondoezaren berri
nago ikasia.
Ez edukiagatik
nai detan guzia,
Jainkoari eskerrak
badaukat bizia.

Gaixoen egoeraz
kupi naiz gogotik,
baiña ez gaude iñor
libre danik ortik.
Usterik gutxinean
guk ez naiagatik,
agintari ixilla
jartzen da gaiñetik.

Noiz etorriko danik
ertz abixatzen,
zenbait alditan oso
zailla da uxatzen.
Bere almena aintzat
ertzua artzen,
aliek eta azkarren
beera da bidaltzen.

Sudurrean gordeta
dagon katarrua,
zenbat eta luzego
eta txarragua.
Egun batzutan izan
zan aize arrua,
aretxek sartu ziran
geiago barrua

Illargia berritzez
nuan otz ikaran,
gora larriarekin
gorputza dardaran.
Buru ta belarriko
miñaren bolaran,
oiñazean astuna
badakit nola dan.

Iñori ez dizkiot
nik opa nereak,
menturaz besten batek
ez dauzka obeak.
Erabakia dauka
guztion Jabeak
pasa bear ditula
bakoitzak bereak.

Ikusirikan ondo
lepoz goia argiz,
plaketan ezarria
didate bi aldiz.
Osasuna danean
konforme ez gabiltz,
eta galtzen danean
billatuko balitz...

Auxe esan ziraden
miaturik astiz:
Ez nadilla ibilli
otzak eta bustiz.
Sendagille on eta
prestua da guztiz,
garbitu diradena
neukan sinusitis.

Don Jabier Etxarri,
Larraungoa bera,
ezpaiñetan eztitu
dabilki euskera.
Etortzen zaizkan asko
osasun eskera,
sendatuta bidaltzen
badaki etxera.

Senti dunean batek
eldu zaion gaitza,
kentzeko alegiñak
azkar egin bitza.
Ondo pentsatzen bada,
gaixoan bizitza
batetik luzea da,
bestetikan motza.

Zeruko Argia, 1967.12.17.

Batean au dalako
ta bestean ura,
geienean badegu
zerbait errenkura.
Garaiean artzen ez
bazaio ardura,
berak eramango du
eriotz ordura.

Gizon, andre ta ume,
mutil da neskatxa,
xoxikan ez duena
bezela aberatsa,
argia illundu ta
ixiltzean otsa,
gorputza zerraldoan
betiko illotza.

Nere izeba Joxpanttoniri

Lo zorrotikan esna berri dan
aur txiki baten antzera,
gaurko onetan abiatu naiz
bertso batzuek jartzera.
Amets zakarran malko samiñak
pixka bat txukatutzera;
izebak deitu ziraden eta
joan nintzan bere etxera.

Nere izeba Joxepanttoni,
amatxi maitagarria,
ona zuk jasotako illoba
ikustera etorria.
Bizkor zabiltza, gazte bat bezin
alaia eta argia,
larogei urte zurekin eta
ain zaude muxu gorria!

Urrutiratze guztiak beti
aztubidea sortzen du,
zenbat gutxigo itz egin eta
ordun da geio atzendu.
Nai zaion ura ikusitzean
nornaik poza artzen du.
Agindu nizun bezela, izeba,
ara nik itza mantendu.

Izeba-illobok joan dan aspaldin
ez gendun egin itzikan:
«Eztaukazu nik besoz ibili
zintudaneko antzikan.
Pasatu danak aztutzen dira
ezpaldin bada gaitzikan,
zuk jarritako bertso guztiak
leitzen ditugu pozikan».

Itz oien bidez txiki garaiak
dizkidatzu gogarazi,
nola magalen artzen ninduzun
egiñaz milla kutizi.
Eskupeko ta goxo sarikin
zenbat “paatxo” ta igurtzi,
oraindik ere bere kilimak
ez naute bakarrik utzi.

Bi besoetan ni artu eta
bataiatzeko orduan,
nere izenean otoitz guzitan
euskera ibili zenduan.
Piztu zenidan su txinparta ark
biotz-berotu ninduan,
argatik diot onen berdiñik
eztagoala munduan.

Ikusten degu urte gutxian
zer beerako dun egiña,
ala're ziur nago mendin ez
diola artuko iñork gaiña.
Kale aldean oso bazterten
askok ari dute baiña,
basetxe zuri banatuetan
bada zeñek itz egiña!

Ormaiztegitik aldamenera
erri txiki bat Itsaso,
pakezalea danarentzako
aukerakoa da oso.
Itze deritzan baserriara
Alegitikan bi pauso,
egun bat antxe igarota naiz
zoriontsu eta gozo.

Or agiri da len-jatorrian
ereduzko arbasoa,
Goierritarren adimen argi,
ugaria ta osoa.
Lurra emankor, etekintsua,
erria apain jaso,
gardenik, bare, mintzaira onez
iraxkiñen itsasoa.

Idazkiz alegindutzen gera
geren barrua usteko,
degun izkuntza ta oitureri
al dan zutien eusteko.
Guk arnastuak egan dabilta
batekotikan besteko.
Izebak danak gordetzen dizkit
jutean erakusteko.

Ama-puntako piñikan bada
nerea bai dala piña,
gaztetandikan ondo ikasia
Jesukristoren dotriña.
Iñori kalte egiteakin
orrek artzen duan miña!
Gerra aundirik ez gendukake
aren antzeko bagiña.

Biotz ona ta esku zabala
beti izan da neretzat,
duan guzia eskeintzen daki
utzi gabe ezer beretzat.
Batzuri geio izanagatik
borondatea danentzat,
ezpairik gabe aundin-aundiña
besotakoa dunantzat.

Zugandik gogoz ni gertu nago
naiz soiñez bizi aparte,
berriz ere gu alkartutzeko
izango al da ainbat tarte.
Jakín beazu geroz ta geio
nik zaitudala zu maite.
Laztan batekin agurtzen zaitut.
Izeba, ikusi arte!

Zeruko Argia, 1968.02.04.

Jose Artetxeri

Lengo asteko *Zeruko Argia*
ikusi ta al zan azkarren,
izenburuta begiratu nun
ia zer ote zetorren.
Gure utsak zeukan uraxe
irakurriaz lenbaitlen,
kristau zintzo ta liburu-egille
goienekoa izan arren,
Artetxe idazle maixu aundian
garrazkeri bat zekarren.

Gizona bero jarri zan nunbait
oso asarrez beteta.
Onera zaitez eta etzazu
ainbeste beztu kopeta.
Zenbat sendiko puska aldatu
zaizkitzu Ameriketa
beren lanera, ibili gabe
batzuk ainbat berriketa?
Barkatu baiña gogortxo da
egin dezun idazketa.

Robert Kennedy-n berri itunak
ni goibel utzi ninduan,
baita zuk ere, Artetxe maite,
kolpea artuko zenduan.
Uste gabeko estrapozaok
noiznai dauzkagu munduan.
Adiskiderik aundiña uste ta
etsaia askotan onduan,
gu euskaldunok joko irrikiz
Jaunak oretu ginduan.

Ez det pentsatzen bertso sorta onek
naigabetuko zaitunik,
mintzeagatik ezpaitizut gaur
ipiñiko itz astunik.
Pakezale naiz eta asarrea
ez nuke naiko piztu nik.
Baiña bai azkar apustu egin
munduko gizon prestunik,
oraindik iñor eztala izan
ezer akatsik eztunik.

Aitortuko det iñoren miñak
asko kupitzen nautela,
eta zer esanik ez Kennedy
ikusteaz il zutela.
Geigo entzunik guretarak an
gogozkoa etzutela;
bai eta ere beste gauz batez
poz aundia artu detela,
jakiteakin apustu-zale
purrukatuak daudela.

Jainkoak daki noiztik datorren
norgeiagokaren leia,
Adan da Ebaren semetan batek
argatik il zun anaia.
Euskaldun biotz garbitan ezta
sortu oi olako naia,
iñorentzako inbiri gabe
norbera dunakin saia.
Daukan guzia ematean bat
gelditzen baita lasaia.

Gurasotatik badatorkio
arrazan odol garbia,
jaio orduko nabari zaio
ibili jostalaria.
Ori txiki dan arte ta gero,
eltzean aundi garaia,
beregán nagusitzen ezpada
geiegi arrokeria,
euskaldun kasta beti izan da
pakezko burrukaria.

Uts txikienik eztu neretzat
Euskal-jolasen goguak,
zenbat da geio dakiten oiek
baitituzte maiteguak.
Kolkuan daude Amerikako
Ipar, Erdi ta Eguak,
eta ezpáñetan gure izkuntza
an Gobernuko buruak,
muin egitera jungo nintzake
baldin banitu eguak.

Artetxe, nere esan guziei
zuk errez antza emango,
buru-austen zu jarritzekotan
itzik ez nuen esango.
Guzia ondo artzen degunik
ez gera iñor izango,
ordea euskaldun dana euskaldun
bai ango ta bai emengo.
Lur ontan danok anaiak baiña
odolekoak lenengo.

Zeruko Argia, 1968.07.28.

Arbolak eta euskera

Jose Artetxe, zure itzak nik
gogoz ditut irakurtzen.
nere biotzen sartzen dan zerbait
beti dezulako jartzen.
Oraingoan arbolak,
kiskalduta odolak
asi zaizkit irakiten.
Aldi ontako mendi soilketak
ez baidit onik egiten.

Gaur amabost zuk agertu zendun
oso idazlan txukuna,
zure luma orri ixurtzen zaio
gaiñezka maitetasuna.
Zintzilika iltzetan,
bere azken itzetan
da erakutsi ziguna,
zeru lurreko Jabe ta Jaunak
zuk askotan diozuna.

Agidanean ikusi dezu,
altxarik gora besoak,
aizkora artuta mutil bikain bat
botatzen gure basoak.
Ark jarri zaitu penaz,
berak egin dun lanaz
moztutzen enbor osoak;
begira ez daude oiek ipintzen
jardundako gurasoak!

Indarra dunak sarritan ditu
laiñezan egon eziñak,
aize arroan antzeko baztar
guzik puskatzeko griñak.
Kontu danak egoki
bear ditu eduki
zuaitz txiki ta aundiñak,
nagutsitza dun agintariak
ezerik dauden guziñak.

Nolanaitan ezin diteke
edozeiñi baimendu ta,
bakarran onak iñoiz askoren
kaltea ekartzen du-ta.
Bota nai duen zura
markatutako ura
baiña egitan zinduta.
Basoak berak luke mesede
era orretan zainduta.

Dirua dunak irixten ditu
nai ditun eskubideak,
derizkiona eginda libre
ardurarikan gabeak.
Aundi bezela txiki
arruntean ebaki
nola baiditun bereak;
ola al ziran Euskal Erriko
garai bateko legeak?

Bidasoaren onuzkoairi
ego aldetik agintzen,
orregatikan ari dirade
lur ok landarez arintzen.
Zarrak ia bukatu,
berririk ez aldatu
piñu ori izan ezen;
antxiña ziran bertako oiturak
zertako ez gorde zuzen?

Zenbait aitona zarrengandikan
egin izan det aditu,
garai batean bat bota zunak
bi bear zitula sartu.
Jartzen zuten segira
geroari begira,
orra arretaz jokatu;
gaur ere zergatikan ez zazpi
aldeak berdin osatu?

Batasunaren bear gerala
askok diote itzero,
nik ikusten det gu alkarrekin
gaudela geroz ta atzero.
Bata besteai aituz,
guztiok alkar artuz,
zerbait liteke espero,
zure biotzan kolpean otsak
Madril-dik entzun ezkeru.

Zeruko Argia, 1969.01.05.

Iparragirre sonatuaren
kantarik aberatsena,
nere iritziz jarri zunetan,
Gernikako arbolarena.
Oroitu utsarekin
an dagon aitzarekin
alaitutzen da barrena;
baiña pentsatzen asi gaitezen
zer dan bere ondorena.

Orain ogei ta amar bat urte
egin nai ziguten apur,
zaiñak moztuta eraman naian
bazan makiña bat lapur.
Ala ere ezkillu
egon bedi ixilla,
bestela bizkarra egur;
ez ote gera geldituko aurki
ez aritz eta ez ezkur?

Artetxe, zuri eskerrak ara
bertso berriak atera.
zorioneko erri-min onek
bildutzen gaitu batera.
Sagar da intxaurpean,
txiki nintzan artean,
au ikasi nun izkera.
Ordu ezkeroz maiteak ditut
arbolak eta euskera.

50 urte Euskaltzaindiak

Aurten berrogei eta amar urte
omen dirade beteak,
Euskaltzaindiak gure izkuntzari
zabaldurikan ateak.
Ikusteakin egoera artan
sortu zitzaizkan kateak,
norgereztako dakar mesede
iñori on egiteak,
merezi dana ordaintzen du ta
Jaunaren borondateak.

Atzerritarren izkuntza asko
jartzen ari zan gaiñetik,
ondamenera geramatenak
kendutzearren soiñetik;
bere tarteko belar gaiztoak
ondo ateraz zaiñetik,
izkuntzalari buruz argiak
ekin zioten oiñetik,
ta Ama Euskera biotza ostatu
eskeñi zigun Oñatik.

Arantzazuko Ama Birjiña,
aingeruen erregiña,
arantzan gaiñen zaude ta ez dezu
sentitzen arantzen miña.
Gure zorion billa saiatzen
zerade zu alegiña;
zenbatekoa ote litzake
zure poz ta atsegiña,
zaitzen gaituzun barrutiko ardik
alkar maiteak bagiña?

Bai, zure Seme artzai umillak
lurreraño egin bixita,
zerutik bera jetxi zitzaigun
giza-soiñekin jantzita.
Gabon gabeen apaltasunez
Belena zan iritxi ta
etxeko izkuntzan mintzatu gero
besteai paken utzita.
Berriro jun zan zer egin bear
genduen erakutsita.

Ondorenean bere ikaslean
mingaiña suzko ontzian,
Espiritua bidali zien
uso txurian antzian.
Itxaropenez zai zeudelarik
ezaugarri ura artzian,
goi-maitasunak idekitako
poz-iturriak an zian.
Une artatik beren Maixuan
gudari biurtu zian.

Lendik dagonak errespetoa
nai ta nai ez bear du,
Jesusen jarraitzalleak ortan
agertu ziran ondradu.
Erri guztitan zuten izkeran,
naiz beren biziak galdu.
Aita Santuak biotz barrendik
danen onean esan du:
Dijoanantzat ulert-erreza
meza bear dala azaldu.

Jaunan opariz eskeintza ori
egiten zuten latiñez,
bertara pozik urbiltzen giñan
naiz guk batere jakin ez.
Zer esan nai zun adierazi
bear ziguten gutxiñez;
orain ordea kristau bakoitzai
bere eran itz egiñez
joaten danak gaur entzuten du,
gogoz otoitzak egiñez.

Antziñetako gurasoentzat
sortzen zait milla naitasun,
lur au guretzat gordetzarren
oiek zenbat larritasun!
Geroztik izan ez degulako
bear ainbeste batasun,
orretxegatik ez dago emen
bear ainbat askatasun.
Ez ote degu izkuntzai benik
eusteko diña nortasun?

Ni baserrian jaio nintzan da
bizi naiz baserritikan,
eguzkiaren berotasunez
lurrak emate'UNETIKAN.
Mirari orren Egille danak
bazkatzen gaitu goitikan.
Sona aundiko gizon jakintsu
asko egonagatikan,
gure biotzan beste laguntzik
ez da sortu oraindikan.

Guztiontzako eguzkia ta
bakoitzai geren izkera,
danon Jabeak eman zizkigun
iñor joan gabe eskera.
Emen geraden arte guzian
izan dezagun aukera,
geren begiaz ikusi arren
asko oroitzen ez gera.
Erdera erdeldunentzat dala
eta guretzat euskera.

Nere ezpainañak lenen euskera
ziran jolasten asiak,
onen laguntzaz urratu nitun
ixiltasunan esiak.
Bein betirako biotz ta muiñañak
mintz zoragarritz josiak,
zenbat oroitza ditun berekin
gaztetako ikasiak.
Ondo ezagutu bear zinduzke
emengoa dan guziak.

Negu beltzean sokor azpian
dagon moduan garia,
erderan zamak gure izkuntza
ala daduka jarria.
Lertu nai eta ezin lerturik,
ai, onek zeukan larria!
Arantza mendin agertu zaio
erne-miñaren begia;
bere emaitzak eldu zai dago
aspaldiko Kantauria.

Jakiñak ez du ezer eskatzen,
ikasi ditezke danak,
bear bezela itz egiteak
ematen dizkigun lanak!
Gozotasunik geienekoa
erakutsi zigun amak:
Biraarik ez dun mintzo garbia,
arritzen dira geienak,
ezti utsa dan jardun-bide au
maita zagun euskaldunak.

Zeruko Argia, 1969.01.12.

Maite zagun euskaldunak

Lizardi zanaren omenaren ondorean. Dionisio lagunari

Nere barrengo alaitasunez
nago pentsatzen jarriya
urtiak duan aldi onena
duala udaberriya.
Gau illunaren ondorenian
agertutzian argiya,
une orretan txori txikina
daukagu abeslariya,
era berian egun txintako
asten da bertsolariya.

Bost eta erdiyak dira oraindik,
ezta eguzkirik agiri,
aideko doiñu zoragarriak
entzuten dira nunari.
Zure etxiaren inguruan gaur
bada pozkille ugari,
eskerrak eman naiean danak
eguna argitu dunari,
erakutsiyaz ze zor diyogun
egin giñuen Jaunari.

Dionisio aspaldikako
nere lagun zar maitia,
unuzkero guk amaika bertso
badegu alkarri botia,
bakoitzak bere poz eta penak
garbiyo esaten baitia.
Gure aurreko zarran oiturak
olaxe izanak dia,
bata bestiai agertuz garbi
norberan borondatia.

Zure osaba Orixe eta
koñadua Aranalde,
Euskal Erriko olerkariak
onenak oitxek bik daude;
irugarrena Dorronsoro da,
laguna degu bera're.
Gure erritan, ai, orrelako
maixuak asko baleude,
ez dakigunak ikasitzeko
premi aundiyan baigaude.

Nere partetik eman zaiezu
zorionik beruenak,
nola baitira aurren sariyak
irabazi dituztenak;
oso poztuak gelditu giñan
ikusten izan giñanak.
Guztiya ondo mereziya zun,
bai, gure Lizardi zanak,
euskerai bizi-poza eman diyo
egin zitzaion omenak.

Negu beltzean sokor azpian
dagon moduan gariya,
erderan zamak gure izkuntza
ola zedukan jarriya.
Lertu nai eta ezin lerturik,
ai, onek zeukan larriya!
Emen, Tolosan, agertu zaio
Erne-muiñaren begiyo,
itz baterako euskerarentzat
iritxi da udaberriya.

Lendik geria deguna aztuta
besterena ikasitzen,
gaurko egunian orrelakuak
asko dira ikusitzen,
gure izkuntza berdin gabe au
nastu eta itsusitzen;
bera ezpainetan dabilkigunak
iya baguaz gutxitzen,
lurrera laister eroriya da
guk ez badiyogu eutsitzen.

Jakiñak eztu ezer eskatzen,
ikasi litezke denak,
bear bezela itz egitiak
ematen dizkigu lanak;
goxotasunik geienekua
erakutsi zigun amak,
biraurik ez dun izkuntz ederra,
arritzen dira geienak,
ezti utsa dan jardun bidi au
maita zagun euskaldunak.

Gillermo Albizuren eskutik jasotako eskuidatzi batetik.



Bazterretxe-behekoa Behekone Garin.

Puntua jarrita

Ara emen puntu bat jarri ta osatutakuak

–Pernando Amezketarra
izan zan pobria...

–Beti ibilli oi zan
dirurik gabia;
berezko jakinduri
askoren jabia,
gizon atsegingarri
eta zelebria.

–Iparragirre Euskalerritik
urruti bizi izan zan...

–Alanbre ariyan soiñuarekin
edozein jartzen zun dantzan;
doiñu berezin eskolak
Gernikako arbolak
frutua zabaldu zezan,
euskal izkuntzan berri ematen
munduz mundu ibilli zan.

–Bertsolari jatorra
ote zan Xenpelar?

–Zeinek jarri du arek
ainbat bertso ear?
Arriyai eragingo
ziyokian near,
alako gizonikan
ez luke il bear.

–Zer esaten dirazu
Juan Jose Udarregiz?

–Pena daukat ikusi
ez nulako begiz.
Jainkuak emandako
doaiaren argiz,
Euskal Erri osua
bete zuan egiz.

–Berritsu antzekua
Pello Errotari...

–Ala aditu izan niyen
aitona zarrari.
Izan ezkeroz naiko
jan eta erari,
gau ta egun ez omen zan
ixiltzen kantari.

–Ezagutu al zendun
Pedro Mari Otaño?

–Ez nuan ikusi izan
iñun egundaiño.
Emendik juanagatik
Amerikaraiño,
euskera garbiyago
zebilkin guk baiño.

-Bertso bat bota biar
diyozu Bilintxi...
-Ezbearrak geiegi
zitzaizkan iritxi.
Kantak jarri zizkiyon
ainbeste neskatxi,
danentzako bazuan
lore ainbat pitxi.

-Bertsolari gozua
zala Migel Imaz...
-Txirritakin jarduna
milla bider bromaz.
Azkenerako biyak
okertuta temaz,
bi aldiz aipatua
zuten Santo Tomas.

-Jose Manuel Txirrita
Ernanin sortua...
-Amaika baso sagardo
barrenen sartua.
Il zan santu bat bezin
ona biurtua,
larogei urte ingurun,
bastante zartua.

-Basarri ta Uztape
oraingo onenak...
-Lasarte obia dala
diote geienak.
Lagundutzen badiyo
bere osasunak,
zartu baiño len orrek
autsiko'itu danak.

-Lasartek txapelikan
ez du irabazi...
-Osasunikan ezak
diyo galerazi.
Berak bear zuana
guztien nagusi;
gaixuak laguntzerik
ez al du merezi?

-Amabi bertsolari
orra izentatu...
-Ildakorikan iñor
ez nun ezagutu.
Biziya daukagunok
alkar ondo artu,
lagun izan da etsai
ez gaitzan biurtu.

Gillermo Albizuren emandako eskuidatzi batetik.
8/2: Migel esaten du, baiña Fermin bearko luke.

Nere ametsa

Izarrik ederrena
degu eguzkia,
berak argitutzen du
lurbira guztia;
zu berriz nere biotz
miñaren ezta,
betiko beretzako
nai zaitun gaztia.

Bere toki gozuan
ez dabilki pozik,
edukiagatikan
nai ditun kutizik.
Alper-alperrik dira
onentzako guzik,
ez luke nai zure
erraiñua baizik.

Beti ikusten dizut
arpegiya parrez,
orretzek jarritzen dit
biotza su garrez,
begiyak pozez eta
anima negarrez,
egunez pentsatzen da
ametsetan gauetz.

Askotan egoten naiz
nola litekian,
amarengandik sortu
ote zitekian
orrelako arrosik
arantza tartian,
neria izateko
egunen batian.

Arantza guztiyak du
loren bat beria,
andik ugaritzeko
bere landaria,
zerubak emandako
sari dotoria.
Zedorrek nai badezu
zu zera neria.

Arrosarik ez baita
arantzarik gabe,
neri biotz zulatzen
zu ari zerade.
Aspaldi egin ziñan
gaxuaren jabe,
eta ezin bizi da
iñolaz zu gabe.

Aspaldiyan zure zai
naizelako egondu,
garaia etorri da
baiña ezta berandu;
zure naitasunakin
nik ezin agindu,
biartzen bazera, bai,
pixka bat lagundu.

Ori ezta ala ta
ez egin parrikan,
ez det itzik egin nai
geio alperrikan.
Naikua dezu auxe
bakar-bakarrikan:
Esatia ez dezula
nere biarrikan.

Ori entzungo banu
eskerrikan asko,
esango nizkitzuke
zenbait itz egizko:
Ia biotz bigun oi
egin dan arrizko,
eta len baiño geio
maitatuz berrizko.

Bart arratsa neretzat
izandu da labur,
biyok izketan goxo
ari giñan samur.
Ametsa zan ala ez
ez nekien ziur;
esnatu naizenian
egin nazu agur.

Bertso-papera, *Imprenta Ayestaran* moldiztegian argitaratua, eta Giller-
mo Albizuren eskutik jaso.

Xenpelar il da eun urtera...

Xenpelar zanan omenez zerbait
astera noa izketan.
bertso batzuen bitartez nola
beste eskolik ez detan.
Bertsolaririk onena izanan
izena ixilik uzteetan,
nere denbora guztiarako
geldi ninteke kezketan.

Bertsolariai bere aitamenak
egokiena bertsotan
nik egitea litzakeala
pentsatu izan det prankotan.
Naiz ez izan Xenpelar zanan
antzik batere lan ontan,
al dedan ainbat saiatuko naiz,
itza ematen det ortan.

Entzule danak jakin bezate
jesuita bat badala,
bertso zar danak billatutzea
nai lukeana al bada.
Azterkalari asper gaitza da,
jakintsu bizkor da apala,
langillerikan baldin bada iñor
langille aita Zabala.

Atseden gabe jo ta ke dabil
utzirik ordu lasaiak,
neke guztiak aztutzen dizka
euskal jatorrin usaiak.
Muiñetaraiño miatzen ditu
aurretikoen sustraiak,
Jesukristoren dotrin berrian
erakusle dan artzaiak.

Etixerik etxe atea joaz,
erri batetik bestera,
aspaldi jun zan Xenpelar baten
aztarrenaren eskera.
Iritxia da Jainkoak daki
zenbat galde egitera,
eta azkenik berebiziko
bilduma digu atera.

Aurten eun urte nola diraden
gure Xenpelar il zala,
oraintxe bai ez dala geio
galduko bere itzala.
Aren bertsoen liburua orra
nai dunak kanta ditzala.
On Antonio, urte askoan
Jainkoak gorde zaitzala.

Nik eskuetan artu orduko
auxe da esan nuana:
«Guri izketan ari zaigu emen
orain gizaldi bat juana.
Xenpelarrentzat baldin bada iñor
jakin miñikan duana,
ikusiko du bere kondaira
iritxi dala gugana».

Liburutegin nabaitzen gendun
agertu danan utsuna,
berarengatik nola baitegun
garaipen asko entzuna.
Sukalde txokon orra berriro
lengo abots oiartzuna,
eta, Xenpelar, zorionean
badezu nork erantzuna.

Oso gazterik egin ziñaden
bertsoak moldatzen asi,
artutzen zendun gai guziari
ezarriaz milla grazi.
Zartu baiño len zuk baizenduan
goi saria irabazi,
Jaunak deitu zizun garaian
iñork ezin galerazi.

Ainbat gaitasun seaskatikan
zuri nola zetorkizun,
zenduen senaz bide ziurrak
oso ondo zekizkizun.
Itz laburretan jarri zenduen
orrenbeste ikaskizun,
ortarakoxe ainbeste urte
Jainkoak eman zizkizun.

Ogei eta amalautikan
amabostera tartean,
betiko atsedena artu zendun
sasoiko ziñan artean.
Zu bizi izan baldin baziña
beste ainbeste urtean,
ai, zenbat azi ereingo zendun
gure izkuntza maitean!

Baserrin jaio, baserrin bizi
baserritarren legera,
nekazaritza latzan mendean
izan zendun eziera.
Esan liteke Bertso Berriai
zuk emana asiera.
Zure lan oiek ausnartzen orain
gu pozik aritzen gera.

Itaiarekin ebaki eta
ote latza eta belar,
sortan bizkarren artu ta etxera
larre ta soroak zear.
Ganaduentzat bazka ta oia
karriatutzen Xenpelar
zebillenian, mutiko izanik,
egingo zun naiko negar.

Amar urtean otea jotzen
asia trabesarekin,
bei errapetan esne askorik
etzan bilduko aiekin.
Negu beltzean otzak dardaraz
adimen argiarekin,
jardungo ziñan arantz zulatuk
aztutzen bertsoarekin.

Giza tankeraz nolakoa zan
nai baldin badegu jakin,
or ikusten da berari bota
zioten bertso batekin.
Betik gorako aldero motxa
zentzu nabarmenarekin.
ezkerra eta eskubia nun
zeramazkian bazekin.

Ezur lodiak ez zituala
eta aragitan melar,
soiñez txiki zan jakintsu aundiak
ainbeste neke ta bear!
Langille batek olako sona
nola egin zezaken ar?
Alako gizon ospetsurikan
beñere ez luke il bear.

Bai, Xenpelar, zuk goi argi ori
zendun arrigarritzkoa,
alegindutzen zihan umorez
gaiñezten lagun urkoa.
Era berean gogoz aintzatur
Jaungoiko egiazkoa,
zugan baitzegon doai askoren
iturri dan berezkoa.

Bate bildurrik gabe esan det,
nigan ez dago ezpairik,
orain artean ez dala agertu
alako izar argirik.
Ura zan bezin serio eta
ura zan bezin alairik,
ainbeste ejenplo on eman zunan
pareko bertsolaririk.

Zirikatutzen panparroi xamar
norbaitek bazion ekin,
erantzuna azkar jaulkiko zuan
arrazoi sendoarekin.
Agortzen ez zan bertso-ixuria
oparo zeukan berekin,
garai artako on ustekoak
umil zebiltzan arekin.

Pesta alaigarri asitzen bazan
jende taldean aurrean,
parrez aguro jarriko zitun
danak lertu bearrean,
Bazirudien beti eguzkia
zegola bere urrean,
muin eman bear genduke oiñez
zanpatu zuen lurrean.

Serio jartzen zan garaiean
ain zuen mingain zorrotza,
negar malkotan urtuko zuan
arrizkoa dan biotza.
Martirioen penaz gaiñera
Jesukriston eriotza,
izugarrina azken juizioko
tronpeta soiñuan otsa...

Aren burutik sortutakoak
aguro ziran zabaltzen,
zar eta gazte, pobre ta aberats,
guztiak zituzten artzen.
Xenpelarrenak izan ezker
ez ziran gaiztoak saltzen,
erri kutsuzko txinpart berotan
zituelako azaltzen.

Gure mintzoan lendikan ez da
letra geiegirik izan,
irakurgaiak on da jartzea
ez dakinak ikas dezan.
Xenpelarrek au erakutsi zun
Bertso Berrien eskeintzan,
argatik Euskal Erri osoan
abegizkoa izan zan.

Txiki-txikitik ark jarritako
asko ditut ikasirik,
bein betirako ementxe dauzkat
buru-sapaian josirik.
Nork agertu du ainbeste itz neurtu
ain zentzumenez jantzirik?
Neretzat ez du beste iñork utzi
olako eredentzirik.

Eskolarikan ikasi ez da
alare danen maixua,
orduko letradu askok baiño
euskera geio jasua.
Kantuen bidez alaitzen zitun
etxea eta auzua,
atsegingarri zan guztientzat
zuen izkera gozua.

Orduan ez zan gaurko irrati
edota ikusgaillurik,
orduan ez zan izparringi ta
gaur dan ainbat libururik.
Bertsoak zitun erriak kuttun,
ez zan oraingo itxillurik.
Berri-emaillea banitz ez nuke
artuko beste ixpillurik.

Ain arduratsu zuk jokatzear
zer mesede izan degun!
Gure biziko gau illun asko
biurtu diguzu egun.
Burutapen bat dago neregana
zer egingo ote zendun,
guk zu bezela erakusle bat
aurretik izan bazendun?

Gizarte onek zure esanak
ain benaz ditu artuak,
zuk jarritako oiñarrietan
gaur asko daude oituak.
Puntzio edo pestak dirala
mezetaraiño deituak,
bertsolariak danen biotzak
jartzen ditu alaituak.

Euskaltzaindiak Xenpelar oroiz
sariketa du sortua,
ori dan bidez zenbait alditan
ni ere poza artua.
Maite-miña dun arantz zorrotza
biotzen daukat sartua,
iltzean Jaunak nai dezala
juatea bere gertua.

Ziñez eskatzen dana irixten dan
siñalea orra garbi,
zenbait alditan deitu zion ark
danon zeruko Amari,
bitartekotza egin zezaioren
guztion Aita Jaunari.
Azken orduan bai aditu're
gure Xenpelar onari.

Fede santuko siniskai oiek
ikuitzen zituanean,
ixpirituan su-gar bizia
zebilkien mingaiñean.
Milla zortzireun irurogei ta
bederatzi garreanean,
abendun il zan Sortzez Garbiko
Amar Birjin egunean.

Jaunaren graziz ordaiña artzeko
irabazien neurrian,
esku utsekin ez gaitzala agertu
Egillearen aurrian.
Bete ditzagun emen gelditzen
zaigun denbora apurrian,
ortantxe saiatu zan Xenpelar
bere bizi laburrian.

Bukatzerako zerbait geiago
itz bitan esate ezkeroz,
gazte denboran neke azpian
jardun zan otz eta beroz.
Ainbeste paper txuri beztua
bere bertsoaren lerroz,
eredugarri lan bikain eta
illezkorra egiña geroz...

Príncipe de Viana, 1970.V eta VI.

Pesta aundiak izan ditugu
bera jaio zan errian,
negu aurretik bukatu dira,
asiak udaberrian.
Kaleai bere izena jarriz
umil, ez arrokerian.
Seme prestuak nola eskertu
badakite Errenterian.

Izazpi-ri erantzuna

Bertso batzuek agertu dira
izenpetuak Izazpik,
lagun zar batek kantatu dizkit,
gero beste amazapik.
Apaiz orretzek lengo askoren
tankera aundirik ez dik:
Jainkoa eta aurren aitzekin
andereñoen atzetik.

Gaur zenbat buru ainbat aburu,
edo nai bada iritzi,
olako aukera datorrenean
esan gabe ezin utzi.
Mudantza aundiak espero dira
emen biar edo etzi.
Gu konpontzera bigarren aldiz
Jainkoak bearco jetxi.

Eguzki bero, illargi otza,
izar dizdiratzailliak,
ta gauden lur au orain artean
mudantz gabe ibilliak.
Sanson bezela gu indartuko
baldin bagiñu illiak,
gure mende egon bearco luke
guzti oien Egilliak.

Apaiz jaun batek bete nai badu
abogaduan utsuna,
argi ta garbi eman bear du
egitazko erantzuna.
Ta andereñoak badaki ondo
ezpada oso zuntzuna,
erlijioan oiñarritua
dagola gizatasuna.

Ez det pentsatzen Euskalerrian
andereñorik badanik,
emen daukagun erlijioa
nola dan ez dakianik.
Guraso eta gotzai buruak
aur ezitzea emanik,
ume txikiei erakusteko
ez ote dute almenik?

Erlijioa erakusteko
or dagoala eliza,
sinismen biziz Jesusi deika
gora jasorik kaliza.
Dana gezurra dala esanaz
asitzen bada apaiza,
beste mundura joan baiño len
merezi luke paliza.

Ez dakit nungo ordena duten
lengo jazkerak kentzeko,
batzuk oraindik badarabilte,
ez dira danak antzeko.
Sermoi ta kantun gogorik ez ta
gutxigo erreztatzeko,
nunbait bildurra dute erori ta
elizak azpin artzeko.

Azer morroiak dauden makutsik
oitura zarrei eusteko.
Fedea galdu al dute ola
Kriston esanak uzteko?
Gaur errez da ta pestarik pesta
dabiltz batekoik besteko;
zeiñen dotriña ote daukate
besteri erakusteko?

Danok dakigu udan loreak
bearrezko dula intza,
gizonak berdin animarentzat
Jaungoiko santuan itza.
Beroien esku artu dutenak
aur ezieran egintza,
txiki diranei pixkabanaka
egin ditezela mintza.

Oso joera bildurgarriak
baditu demoniñuak:
Bolara ontan apaiz askori
jartzen dizkien laiñuak.
Zeinek neurtu mingain batekin
egin lezazken daiñuak?
Aurtxo maiteen kupira izan
zazute, andereñuak.

Ikastolen zai egondu giñan
oso denbora luzean,
eta azkenik iritxi ziran
Elizaren babesean.
Bestela etzegin idekitzerik
orrela izan ezean,
berriz ekaitza badatorkigu
arrotu zaigun aizean.

Esaera auxe aspaldikoa:
Euskaldun bezin fededun.
Erakusten du gutar bakoitzak
nolakoa izan bear dun.
Euskalerriko kondaira ortan
ondo ikasi bagendun,
bere Jaungoiko bakarrarengan
zer sinismena izan dun.

Berdin pentsatzen duten personak
munduan bi ez dauzkatzu,
baiña zuk ala nai bazenuke
lagun bat emen naukazu.
Izazpi apaiz bertsolaria,
arren aditu zaidazu:
Geitxo esanda utsegin badet
barkatu bear didazu.

Zeruko Argia, 1970.11.22.

Biak zaindu itzazu

Alkartasun bikain bat
badu Gipuzkoak,
gordetzeko oitura
zar da legezkoak.
Pelotak iraun dezan
dira premizkoak,
orko jende leialak
ditut gogozkoak,
aurten dituzte beren
Eztai Urrezkoak.

Joku au itsatsi zan
euskaldun errian,
frutuaren sorrera
dago zuztarrian.
Pelota gelditu ez
dedin baztarrian
indarrikan daukaten
arte eztarrian,
kantatuko det gure
euskera zarrarian.

Txikia nintzanean,
bear nualako,
begirale bat bazan
nere ardurako.
Euskal joku maiteena
pelota dalako,
artxek ipintzen ziran
esna-ordurako
jostatu nedin oiñez
asi ordurako.

Gero mutil kozkortu
eta azitzian,
indarrarekin gogor
jotzen asitzian,
batzuetan aurrean,
bestetan atzian,
izerdituagatik
ajolik etzian.
Amaika aldiz jokatu
genduen utsian.

Iñoiz txanpon batzuek
irabazi nai ta
elkar billatutzeko
bagiñaden gai ta
guk pelota ainbeste
nola degun maita.
Euskera bezelaxe
au gurea baita,
biak zaindu itzazu,
Jaun Zeruko Aita.

Ibilli nai duenak
ondo osasunean,
eta jarraitu luze
gaztetasunean,
saio-aldiak egin
bitza al dunean.
Euskaldunak dituan
kezkak barrenean,
kentzen ditu pelotak
jotzen degunean.

Pelota partidun bat
dala aditzean,
ezin egon izaten
naiz nere etxean.
Eta begira jartzen
naizen bakoitzean,
nabaitzen det alako
poza biotzean,
batek besteai tanto
eder bat sartzean.

Batzuek erramintaz,
besteak esku utsik,
pelota ikustean
nagi danak utzik.
Ez daukat kirol onek
bear luken itzik,
ezin esan dezaket
gauza auxe baizik:
Pelotari izan nai
gendukela guzik.

Eskuz azkoitiarra
izan da aundiña,
pelotarien maixu,
gizon atsegiña.
Neurtzen zitun aurea,
txoko ta exkiña,
dejararik onenak
zortzira, alajaiña!...
Eredu zera, onak
asko dira baiña.

Beste arroniztar bat,
napar dotorea,
remontista abilla,
erne ta trebea.
Lurralde au da sortu
zunaren jabea,
zu berriz arte orren
eusgarri abea,
izandu ziñalako
danen erregea.

Urrezko letraz jarri
bi auen izenak,
izar danen artean
eguzki izanak:
Atano txapelakin
jokatzen zuanak,
ta Abrego lenengoa
zirriztari zanak,
mereziak dituzte
danen oroimenak.

Oroitarri eder bat
eginda arrizkoa,
pelotarin kolore
marmol zurizkoa,
neri iduritzen zait
dauda bidezkoa,
adierazitzeko
dala agizkoa:
Euskaldunak doai au
dula berezkoa.

Gillermo Albizu, Berriobeiti
Príncipe de Viana, 1975, IX.
El Pensamiento Navarro, 1975.09.14

Bertso Berriak

Jesus Maria Etxegarate⁴,
Izazpi ez ezaguna,
auxe da alkarri ulertu eziña
guri etorri zaiguna!
Pozoi utsezko eztenkada auek
sartzean biotz barruna,
ai!, neri beintzat aguro gau
biurtutzen zait eguna,
eta buruan jo naun arria
ez da izandu biguna.

Esan bezela, nere lagun bat
zure bertsoak kantatzen
jardun zitzaidan bere barrengo
kezka guztiak botatzen.
Garai berean erri minduan
arnas garbiaz mintzatzen,
zirika gisan alaxe zion:
“Andereñoak gustatzen?”
Ateraldi oi brometan zala
ez al diozu igertzen?

Eta jarraitu zuan izketan
esanaz era onetan:
«Emen mudantzan billa apaizak
dabiltz gogor da benetan.
Jaunari itza emandakoak
asko daudela penetan,
ainbeste urteko ikaskintzekin,
gaiñera eskola onetan.
Lo egon al ziran bizibidea
aukeratzeko unetan?

Izazpi, dana bete-betean
zeuretzat artu zenuan,
neri esana bertsoz jartzea
besterik egin ez nuan,
baiña ez iñor naigabetuta
ipiñitzeko asmuan;
norbait egonagatik arrixkun
ia erorin amuan...
Ez nago oraindik iñon izenik
esan gabeko damuan.

Zure aurka ni asi nintzala,
zer irudimen urria!
Ainbeste dakizuna izanda
nolaz zenduan jarria?
Nik zer dakit zu apaiz zaarra
edo zeraden berria?
Ez dakiñari kristonak esan,
modako sermoilaria,
animen artzai batentzat ori
ez al da negargarria?

Errukarria urteak bein
bat artutzean mendea,
ta sutarako berezko usaia
galdurik dagon mendea!
Ezin ukatu berriz kastatik
nola datorren kondea.
Zeure bertsoak besterik gabe
jartzen badezu dendea,
bilduko zaizu kirtenkeriak
gogozko ditun jendea.

⁴ Etxezarreta bearko luke.

Jauna eskutara jetxiko zaizun
mirariaren oroizko,
ai!, onuzkero zenbat gosari
egiña ardo ta ogizko.
Izazpi maite, zure Maixuan
apaltasuna noizko?
Utzi ezkeroz orain daukatzun
oinbeste itz erdoizko,
txukunxeago mintza al bazenu
egin zindezke obispo.

Gure artean orain bitarte
apaizak bazun ostatu,
Jesukristoren oiñordekotzat
oi gendun errespetatu.
Ona ez danik beatzarekin
ez nuke nai apuntatu.
Derrepentean dana aldatzera
batzuek dira prestatu;
obe dezute erriarekin
oso poliki jostatu.

Azkeneraiño eramateko
Kristo Erregen bandera.
nai eta nai ez jarri bearra
gurutzearen mendera.
Bestela azkar gure pausoak
egingo dute gainbera.
Bertso auengatikan iñor
ez bedi jarri minbera,
kofradikoa ez dan iñortxok
ez beza jaso kandela.

Emen Iruñan ikastoletan
asirik multzo ederrak,
ez dakite askok oien artean
egin zituzten okerrak.
Nolaz geiago alkarganatu
andereñoak ber-berak?
Sakabanatu azi zituzten
eskubia ta ezkerak.
Alaz ere ezta euskera galdu
Jaungoikoari eskerrak.

Itzaldi asko egiñak dira
orain bi urte ezkeroztik,
naparrei begik zabaldutzera
etorriak erbestetik.
Aur guztiak argi geiago
ikus zezaten gaztetik,
ontasun gutxi etorri zaigu
lengo bidea uztetik.
Eta orain zer? Gendun pakerik
ez dabilkigu geroztik.

Zuk berriz lasai ekin zenion
jakin gabe edo maliziz,
azkenengo au baldin badezu
alda zaitea iritziz.
Euskalerrri ta euskeran onez
nabil intentzio biziz,
asko ikasi ta gutxi dakiñen
beazunetik irentsiz,
batu gindezke alkarrri ondo
aditutzera iritziz.

Teolójia ikasia zu
zerade agidanean.
Erresumiñak kentzeko obeto
egos zazu barrenean.
Orren damurik ez dezu izango
azkena datorrenean;
maitetasuna eskeiñiz leial
asi zaitea onean.
Mesedez auxe eskatzen dizut
Jainkoaren izenean!

Zeruko Argia, 1971.03.21.

Langillearen kezkak

Gauza guzia ari
da galestitutzen,
lan-saria txikia
zaigu gelditutzen.
Gorraiakin nagusik
ez dute aditutzen,
langilleaz ez dira
asko kupitutzen.

Kideko bizi mailla
danentzat jar dedin:
Nai dunak txuleta jan
ta nai dunak sardin.
Guk eskatzen diegu
guztiontzat berdin,
jornalaz igotzea
bear dala egin.

Eta berak ematen
digute erantzuna:
Gutxikin geldi bedi
lendikan etzuna.
Nun da giza-biotza
ta nun da zentzuna?
Au al da gure Aita
Santuai entzuna?

Len asko duenari
zertan eman geio?
Ez al giñaden danok
esku utsik jaio?
Mundu ontan bi egun
eta ainbeste lio?
Pakeak ez al digu
geiago balio?

Joaten geranean
zerbait erostera,
iñork eztu galdetzen:
–Pobrea al zera?
Ez badezu pagatzen
bestean antzera,
ezer ekarri gabe
geldituko zera.

Batean lan egiñaz
gera denak bizi,
ez al degu soldata
berdiña merezi?
Salatari txatxuak
dauzkagu lenbizi;
oiek bear litzake
taldetik berezi.

Naiz izan ministroa
edo ikazkiña,
Jainkoantzat ez al da
bestien berdiña?
Iñortxok ez daukagu
gerentzako diña,
guztiok bear degu
norbaitek egiña.

Alkar artu dezagun
goi eta bekoak,
eskola ikasiak
eta gabekoak.
Eskallerak mail danak
nai ta nai ezkoak
dituen bezelaxe
gu bearrezkoak

Ez gerade ta ez inor
sasi ezkutuan
nagusiakin asi
bakarrik tratuan.
Utzi nai bagaituzte
erdi lumatuan,
argatik ez dezagun
etsi segituan.

Orain arte egiñak
dira nai dutena,
gu lasai gaudelako
dadukaten pena!
Oien arrokeriak
laister du azkena,
eman bearko dute
eskaten zaiena.

Gu ez goaz inori
ezertxo kentzera,
baizik arrazoi bidez
geurea artzera.
Lana egingo degu
betiko antzera,
nagusi, gizalegez
portatzen bazera.

Zeuretzat nai badezu
urtabe emankorra,
otseiñentzat etzaitz
izan egoskorra.
Gure egonaldi au
ezta orokorra,
ugazabak nai dunen
mozten du oporra.

Egillearen eskutik jasotako makinaz idatzitako orri batetik.

Ondo bizi zaitetz!

Urtebete egiña
izango da oso
bialdu nizkitzula
dozena bat bertso.
Ustez jarri nizkitzun
samur eta goxo,
orrenbeste denboran
egin gabe kaso.
Pilar, ez al dituzu
oraindikan jaso?

Ez dirade pasiak
bakarrik bi egun,
len giñaden bezela
guk nola biagun,
asarrerikan gabe
alkarrekin lagun,
zabarkerik utzita
itz egiñaz legun.
Zuretzako biotza
beti daukat bigun.

Urtebete asko da
olako peskizan,
pentsatzeko denborik
ez al dezu izan?
Igandez entzutera
juten naizen mezan,
Jaunai eskatzen diyot
komeni dan gisan,
geroztik erregutuz
zugatik elizan.

Pentsamentu bakarra
zu zera neretzat,
uste nuan giñala
biyok alkarrentzat;
begik betetzeko din
ez al naiz zuretzat?
Gutxin gutxieneko
erantzuna beintzat
mereziko nuala
iruditutzen zat.

Eta esango dizut
nola dan garbiro,
ikusi dezazula
guztiya argiro.
Zutaz pentsatzen jartzen
naizen aldiero,
naiago nuke baldin
bageunde aldero,
len baiño're maitego
izateko gero.

Gelditu be ari zait
lanian biotza,
zuriaren ondora
egiten nau bultza.
Ez al dezu entzuten
kolpiaren otsa?
Or zenduke aguro
irtengo balitza,
zurekin pasa nai du
munduko bizitza.

Zu bezin maiterikan
nik nola ez detan,
lenago ikusten giñan
gu sarri askotan,
asteko zazpi egunez,
lau edo bostetan;
gero zure etxian
erriko pestetan,
ain gustora ez nintzan
ibiltzen bestetan.

Aldatu zaigulako
bizitzako era,
alkarrendandik onen
urruti izatera,
gerta leike oraindik
biltzia batera;
zer egin badakigu
gutxi gora-bera:
Zu eta ni nolana
konponduko gera.

Alkar ondo artzia
degu bearrena,
osasuna izatia
berriz bigarrena,
saiatutzen danantzat
ezta palta lana;
oiek izan ezker
badaukagu dena,
laguntzaille degula
gure Jesus ona.

Axular aldizkaria, 1972.

Gustatzen zaidalako
zure pintasuna,
eskuetan daukazu
nere maitasuna;
zu bai zera neretzat
zoriontasuna,
aspalditikan zaude
ondo dakizuna
bi besuak zabalik
emen naukazuna.

Basarriyan ez bada
kaleko etxian,
egizko maitasunan
suaz biotzian,
loxintxaturik alkar
noizik bakoitzian,
borondate guztiaz
ala beartzian,
orrelaxen biziko
gera ezkontzian.

Iya jarri natzaizu
belauniko auspez,
jabetuko zerade,
noski, orrenbestez,
guztia garbi esan
dizut nere ustez.
Egun ori iritxiko
ote da ala ez?
Etortzen ez bada're
ondo bizi zaitetz.

Kukua eta txantxangorria

Bertso batzuek oso ederrak,
mami asko daukatenak,
nik irakurri berriak ditut.
baserritar jaun batenak⁵.
Kukua eta txantxangorria
eztaude alkarri etenak,
gaur askok baiño euskera zarra
obetogo dakitenak.

Txantxangorria negartia ta
bestea berriz alaia,
bakoitzak duten zereginetan
gogotsu oi dira saia.
Udaberrian sortu-errira
kukua dator lasaia.
Aguro asko artutzen dute
biak alkarren usaia.

Izadi onek dun egillea
guretzako da Jainkua,
geran guztioi zedoertako
doaia emandakua.
Euskerarekin gu poztutzero
etorritzen da kukua,
mututurikan gelditu arte
eztu egiten naikua.

Basetzekoa naizelarikan
zuaitz artean jaiua,
oso gerturik entzun izan det
pizti on orren oiua.
San Marzialak ondorenean
kendu naiean kiua,
txiki nintzala galtzak puskatuz
ondora iñoiz iua.

Guztien bixtan agertutzen du
dakarkien enpeiñua,
bertako arbol punta du maite,
eztu gogozko piñua.
Bere atzetik segika dabil
artu naiean tiñua,
kuku arraultz bat iritxi arte
iñude andereñua.

Ale aundia ikusitzean
arek artzen duen poza!
Nolatan esan papar-gorriak
zenbat egiten dun goza?
Alaitasunez beteta dabil
gure txoritxo panpoxa,
negar itxuran algara egiñez
aundi aldeko tranposa.

Malezi geitxon jabe ez ote da
txantxangorritxo txepela?
Bere umeen aita engaiñatzen
ezpaititeke bestela.
Alkar txandatuz arraultza arek
iraun dezala epela,
an sortuko dan seme ederra
biena balitz bezela.

Eskuratzen du kukua eta
iruzurtzen du senarra,
ain kupigarri lertzen baizaio
bi begietan negarra.
Emea danak zerbait nai badu
ori du egin bearra:
Laguna saldu, umeak galdu,
orrelaxe bear bada.

⁵ Segundo Kalonjerena. Ikus: *Loreak udan intza bezela* liburua, Auspoa 255, *Kukuaren otsa*, 88 orrialdean.

Txantxangorria euskaldun izan,
euskera maite benetan,
kukuari au esaten dio
jaiotzen dan egunetan:
Beti euskeraz kantatutzeko
joaten dan toki danetan,
eta kukua or dabil zintzo
emandako esanetan.

Berotu eta itz goxo aiek,
dagola narru bixian
esaten dizka, ama txikiak
dion maitasun bizian.
Beste lanikan eztu egiten
kukuak bere bizian;
zeiñen esana egin bear du
amarena izan ezian?

Txantxangorriak biotz xamurrez
gu nola maite gaituan,
guregaitikan bere umeak
goseak utzi zituan.
Kuku semea azitzearren
jarraitu dezan kantuan,
mundu guztiak entzun dezaion
garbi euskera batuan.

Bertsolarian gisa kukuak
kantatu eta jaten du,
egazti onen esperentzia
ondo ikusiko bagendu.
Ezer ezti pobreari kentzen
duanantzat ematen du,
erakutsiaz besteren bizkar
eztedilla iñor mantendu.

La Voz de España 1973.05.18 eta 19.
Goiz-Argi, 1973.07.15 eta 31.

Nik ez daukat emazterik

Triste antzean ikusten zaitut,
ote zabilta bakarrik?
Orixe dezu bide onena
ez egiteko okerrik.
Maite dezunik ez al da etortzen,
edo nai dizun jatorrik?
Gustokorikan azaldu arte
etzazu artu senarrik.

Nere laguntxo maitagarria,
leiala eta apaiña,
gure Jainkoak eskuz egiña
dirudizun imajiña.
Biotzetikan sentitzen dana
esateko da mingaiña.
Sinistu zazu etzaituela
maite iñortxok nik aiña.

Kendutzen eztan irudipena
daukat buruan sarturik,
esan ordua iritxi da ta
ez dago ixilik uzterik.
Zu senarraren zale bazera
nik ez daukat emazterik,
alkarrentzako egokigorik
ez derizkiot besterik.

Guraso onen alaba zera,
lendik ezagutzen zaitut;
aspalditxoan zure pausoak
izandu dira nik zainduk.
Ori dan bidez, goresmen danak
gaur eman nai dizkitzut,
zintzo ta umilla nola baitzeran
orretxengatik nai dizut.

Zeiñen bearra eta ona dan
alkarren maitetasuna!
Bera da gure biotzak duan
doairik aberatsena.
Baldin zuretzat ondo badator
neronengandik entzuna,
zu izango zera nere andrea,
eta ni zure gizona.

Gai dagoenak maitearentzat
ditun itzak loretuak,
ez du estutzen geroko izate
arantzaz inguratuak.
Bizi osoa eramateko
uztarri bati lotuak,
aldez aurretik ondo atera
bear ditugu kontuak.

Diruz aberats ez izan arren
saiatzen danak jaten du,
eta gu ere tankera ortan
egin gindezke konpondu.
Nik lan-saria ekarri eta
zuk pamelia mantendu,
kristandadeko lege santuan
bear genduke ezkondu.

Orretarako aldez aurretik
izketaratutzen asi,
ta bear diran prestamenakin
egun eder bat berezi.
Sakramentuen bitartez geren
biotzak alkarri josi,
orain daukagun maitasunakin
gero alkarrekin bizi.

Baiña barkatu bear didazu
ezertan badet utsegin,
nere zalantzan baldin bazeunden
nai nizun eman atsegin.
Jarduntziua badegu eta
argatik dizut itz egin,
denbora jua da alperrikako
damurik izan ez dedin.

Geren eskuan daukagunakin
zertako bizi egarriz,
alkarganatzen geran bakoitzan
batak besteai igarriz?
Gau illunaren zai egon gabe
bil gaitzen egun argiz;
urrena alkar ikusitzean
itz egingo degu berriz.

Príncipe de Viana, 1977, I-II-III.

El pensamiento navarro, 1976.09.25.

Batzuk aditu nai ez beraren izenik

Ikurrin gureakin
karta det artua,
irakurri det dana
ondo aztertua.
Gurasoen izkuntza
dezu baztertua,
erdeltasunarekin
zaude uztartua.
Utzi dit biotzean
arantza sartua.

Esanez nola dezun
izena aldatu,
bertso batzuek neri
zenidan eskatu,
Orra nere erantzuna,
ez zaitez damutu:
Euskerak euskerazko
izenak nai ditu,
izena ta izana,
au ondo aditu!

Ez badegu zaindutzen
gaur Ama Euskera,
gu aren egitazko
semeak ez gera.
Zapuztua daukagu,
ain dago minbera!
Auxe esan nai dizut
gutxi gora-bera:
Izena aldatu arren
zu lengoa zera.

Valladolidin dituzu
zeure ikaskintzak,
oinbeste buru-auste
eztu ikaskintzak!
Nola kendu ditezken
gaixoaren gaitzak,
osatu ditezkenak
eta sendakaitzak.
Euskeraz ez al daude
bear diran itzak?

Euskeran maitasunik
ez bazaizu pizten,
euskal izena artzeko
etzera irixten.
Besteren lapikoan
babarrun egosten,
oso ondo dagonik
ez det nik ikusten.
Asi zaitez, illoba,
euskeraz ikasten.

Len Joani ziñaden
eta orain Yone,
erriko urteko jaian
zure santu egune.
Bitartean badago
makiña bat une,
-Neskatx egin zerade,
gaur etzaude ume-,
ordurako idazten
asten zeran xume.

Orain arte entzuna
ez balitz naikua,
Yone, aditu zazu
azken aolkua:
Ikasitzea dala
bearrenezkua;
askok dirua dute
beren Jaungoikua,
neretzat mintzaiera
danen gaiñekua.

Eta danen artetik
lenengo guria,
Aitor-ek ezpainenetan
zintzo ibillia;
ikusiko banuke
arnasik gabia,
illunduko litzake
nere barrunbia,
lorez jantziko nuke
aren illobia.

Ontaz gogora naitzan
al degun maizenik:
Europan lenengoa
gurea izanik,
batzuk aditu nai ez
beraren izenik.
Ez derizkiot oso
ondo goazenik,
ez baitet uste euskera
gabe ezer naizenik.

Degun jardun-bidea
guri galerazi?
Geurean gure Ama
nai dute illerazi;
semeengandik ori
ez luke merezi.
Bakoitzak nai duena
dezala berezi,
euskera il ezkeronik
ez det nai bizi.

Príncipe de Viana, 1977, VII-VIIIIX.

Lagunari

Iruñatikan goiz atera ta
etorri gera Urepela,
antxe da nere biotzan poza,
antxe da jende tropela!
Arrazoiezko bertsoen bidez
eguzkitzen zun ospela,
gure Xalbador laguna izana
ez baitzan gizon txepela.
Bere aurrean danok erantzi
bear genuke txapela.

Príncipe de Viana, 1981, XI-XII.

Bearbada, auxe bearko luke emen: *Auxen da nere biotzan poza eta auxen da jende tropela.*

Itzala izan deiogun

Biotz aundia eta
beso zabalduak
napar jatorrak ditu
beti azalduak.
Urte auetan egon
gera zapalduak,
lengo ausardiaren
kemenak aulduak,
baiña euskera zarra
ez gaude galduak.

Aldizkari au zegon
oso ixildua,
batzuek zitalkeriz
azpira amildua.
Berriro geiengoa
batera bildua,
bakoitza bere itzari
arduraz eldua,
gogozko zaionari
duan bidaldua.

Idaz-gelan bezela
euskal sukaldean,
irakurri nai dunak
ortxe du aldean,
Iruñako Aldundiak
jartzen du bidean.
Ameriketaraiño
dijoa airean,
gure odolekoak
asko bait daude an.

Europar bazter baten
agertzen denari,
itzala izan deiogun
napar erriari,
sortutzen diralako
ainbat izkuntzari.
Obea da egia
esatea garbi:
Izan da ta izango da
euskeraren kabi.

Gure aiten aitonak
euskaldun izanik,
emen ez da arkitzen
besteren izenik.
Aien aurretikako
ezer aztarrenik,
ibai, ordeka, mendik
duten bazterrenik,
danak euskal bataioz
ikusten ditut nik.

Ez dakit dan emana
edo lapurtua,
bere osotasuna
dago apurtua.
Lenago aundi zana
txiki beartua,
atzerri aginteen
mende beartua,
Ego ta Ipar aldeak
erdibana artua.

Príncipe de Viana, 1982, I.

Aita Santua datorrela ta

Jakintsu askon iritzia da
gerra gainean degula,
nik auxe erantzungo nieke:
Gauzak itxura badula.
Aundik atzean gorde nai dute
aurrera boteaz aula,
esanaz norbait erakusteko
derriorrez bear dula.
Bere biziai eutsi nai dio
emen al dunak al dula.

Denak pakea mingaiñean da
nola piztu leiken gerra,
biotz barrenen daukagu nunbait
gorrotoaren su-garra.
Bekaizkeriak ekarrizten du
maitasunaren agorra,
lagun urkoai opa izatea
gelditzen bada legorra,
tximist antzera etor liteke
degun atsaren agurra.

Gu sortu giñan lur alde oni
deitzen diogu Euskadi,
euskalduna naiz eta zaiñetan
euskal odola nabari.
Atzerritikan mesede gutxi
ekarri digute guri.
Bere buruan jabe dana emen
jarriko balitz gidari,
aurkalarien bidera irtengo
nintzake pozik gudari.

Eskuidatzi batetik.

Zergatik emen ainbeste builla
eta oinbeste istillu?
Erri zar onen lengo eskubide
izpirikan ez al degu?
Lurbira onek beste tokitan
eguzkirikan ez al du?
Urteak dira besarka batez
Bergaran ginduzten saldu;
agindutzera beste ezertara
ezta iñor ona azaldu.

Ezbairik gabe guztiz ederra
izan bear du agintza,
beintzat askotxo artu naiean
dabil olako langintza.
Itzak ederrak aurretik eman,
besteri eska laguntza,
pake oso bat iristea da
danen gaindiko jakintza.
Zaindu ditzagun gauden lurra ta
geurea degun izkuntza.

Sei erri alde europatarrak
gaudenak oinperatuak,
goitikan bera elez ta legez
makurtzera beartuak.
Gure aienak artzai umillak
kupidaz ditu artuak,
ikasi eta geren izkeraz
guztiok bedeinkatuak
utzi nai omen gaitu bigarren
Juan Paulo Aita Santuak.

Barandiaranek soiña du

Ezkur jale batzuek
Ataungo basuan
ibili omen dira
txit modu gozuan,
Joxe Migelek omen-
aldia baitzuan.
Eta laguntza eskeiñi
itxura osuan,
maitasun gabekorik
an arkitu zuan.

Larogei ta iru urteko
apaiz jaun tentea,
iltzerik zauden zugaitz
igaliz betea;
Euskalerrria dezu
lenengo maitea,
euskera berriz aita
ta amaren dotea.
Ortik ere kendu nai
dizute partea.

Lotsagabea beti
egoten da trebe
edozer esateko
kupiririk gabe;
lenengoz ikastea
ez al zuten obe,
orrela jardun gabe
petralaren pare,
ta gero makurtzea
berangana noble?

Ezkurra jaten duten
enda ortakoak,
batzuk jazten dituzte
oiñetakoak,
gorputza estaltzeko
gero soiñekoak.
«Gorputza ez da soiña»
aipatutakoak,
oiek dira euskeran
etsai ziñezkoak.

Daramagun gorputza
ez omen da soiña,
guztiak ez ditugu
aditu alajaiña!
Izkuntza narrastea
beren zeregiña;
jakingo dute txino,
ruso edo latiña,
baiña euskerarik ez
ataundarrak aiña.

Munduko aberastasun
aundiña zartzia,
orrek ugaritutzen
du esperientzia;
jakintsurik geienai
orrela ausartzia,
alkaturik lau katu
erren iritzia.
Ori da beren aita
umetzat artzia.

Maixurik aundienai
zertan aurka asi,
gezur ta eztabaida
guztiakin nasi?
Len ere sutua da
makiña bat sasi,
olako basurdeak
bijoaz igesi,
geigo ez etortzeko
jar zaiegun esi.

Arritzekoak dira
bota dituztenak,
arrunt txunditurikan
utzi gaituztenak;
oien kirtenkeriak
ain dira astunak,
euskerarik jakin ez
euskal jakitunak.
Edozein gauza libre
lotsikan ez dunak.

Joxe Migelek astin
pikatxoi ta atxurrak,
billatuz antziñako
tresnaren apurrak,
aien tartean pizti
giza soin ezurrak.
Zertan ari zerate
esaten gezurrak?
Orrela mintza oi dira
izlari maltzurrak.

Jakitun aundietan
bera degu aundi,
beti or dabil ibai,
leize eta mendi;
egitazko euskalduna
su-garrez barrendi.
Beraren billa datoz
an eta emendi,
eskerrik txikienak
artuaz gugandi.

Jakin naiez bildutzen
dira ingurua
galdezka, entzutera
zure aburua.
Joxe Migel, guretzat
zera aingerua,
zuk bear zenduke izan
euskaltzain burua.
Jorratuko zenduke
euskeran zerua.

Zartaia kirtenetik
nai dute eduki,
Euskaltzaindia aspaldin
ez dabil egoki;
Gernikako Arbolai
altzumak ebaki,
nola egin leizkion
nai bada erabaki,
iñork baiño obeto
Ataungoak daki.

Ezker ta eskubiak
ez dabilta legun,
bata gogor jartzen da,
bestea ez bigun.
Gure Ama Euskera
dago triste ta illun,
“atxeak” mesederik
ez dio egin inun.
Joxe Migelek kentzen
lagundu dezaigun.

Berribeitin, 1973-gko uztaillean.

Príncipe de Viana, 1983, VII-VIII.

Udaberria, zoragarria, maitagarria

Txorien kantu alaiarekin
badator udaberria,
berdetasun da lorez jantzi-az
bizi geran alderdia.
Besteak beste diradelarik,
au toki zoragarria!
Emen jaio ta azitakoak
maita bear aberria.
Maitagarririk bada munduan
zu zera maitagarria.

Makinaz idatzitako orri batetik.

Eguzkia udaran

Eguzki begi-bakar aundia
danok ikusten gaituna,
urruti egon edo urbillen
orixe gure kutuna.
Argia eta berotasuna
biak batean dituna,
bata atsaren suspertzaillea,
besteak uxa illuna.
Alguztidunak maitasunaren
sinalez utzi ziguna.

Auxe sinistu bearra degu
geren izate guziko:
Eguzkirikan ez baldin balitz
ez giñakela biziko,
otza dagoen lurrean ezer
ez bailitzake aziko.
Jakiña dago au berotutzen
ez dala iñor asiko,
izadiaren ardatz zuzena
bera da lendabiziko.

Ogei eta lau orduz eguna
eta urtero udara,
oparotsua ekartzen digu
garai ontako bolara.
Nai duena itzalera jun,
nai dunak artu galdara,
aske dagona ibil diteke
bakoitza bere galgara,
nornairentzat pozgarrigo da
negarra baiño algara.

Laiño ekaiztsu beltzen ondoren
juan zan negu gordiña,
jaten gabean gosea eta
berorik ezan samiña.
Zanpatzen degun oiñ azpikoa
denontzako da egiña,
sasoi onetan maiz ikusten da
goian maindire urdiña,
eskeintzen dula guztiontzako
bere eskubide berdiña.

Gerok ezertxo eskatu ez ta
olako aberastasuna,
ta aldi ontako egun luzeak
dadukaten ontasuna.
Guri komeni zaiguna au da:
Beti zainduz osasuna,
bizi-bidea erreztutzeko
egiñik alkartasuna,
ezagutzea sorterriaren
legezko askatasuna.

Esaera bat zarra ta beti
berria dan bezin gazte:
Itsuen errin begi-bakarra
izaten dala alkate.
Gu birekin gabiltza baiña
ain indar gutxi daukate,
naiz esna egon argirik gabe
ez degu ikusten bate.
Gogoa ordea erne eguzkiak
printzarik duan bitarte.

Príncipe de Viana, 1983, agorrilla.

1983an San Fermiñak

Denok badegu esan-gaien bat
alako edo olako,
nik ere mintza nai nuke zerbait
ontan asi naizelako.
Larogei eta iruko jaiak
Iruñan diradelako,
Zaindariaren bedeinkapena
guztiontzako dalako,
San Permin beltza pesta zalea
bezin alaia zalako.

Makinaz idatzitako orri batetik.

Gerra santuaren itza

Errusin dagon gosearentzat
jatenaren billaka Kruz,
toki askotan jo du atea
daukan aginpiden eskuz.
Ameriketar lendakaria
bere begikoa da Bush,
biak elkarri Persi aldera
egiten ari dira bultz,
ez ur goikoa baldin balego
arrolio gabea uts.

Nobel saria jaso berri dan
orren gizon sonatua,
ez al da ibilli gerra nola asi
zabaldutzen mandatua?
Eguna jarri eta ordua
denbora siñaletua,
noiz izango dan apurgailua
goitik beera aillegatua;
aitzakitzako gosea artu
zurikeriz asmatua.

Berriobeitiko Gillermok.

Diario de Navarra, 1991.02.09.

Usoen gisan aidetik dabiltz
aruntza eta onuntza,
pakean dauden eguzkitara
eramateko ekaitza.
Jo ta puskatu, txirtxilduta utzi,
oso konponbide gaitza!
Sinismenakin an eske daude
Jaungoikoaren laguntza,
bedeinkatutzat darabilkite
gerra santuaren itza.

Barkuan sartu eta eraman
erru gabeko mutillak,
inguru dana zaindu dezaten
asterako iskanbillak.
Izango dira atxilotuak
eta billatutzen zaillak;
millaka asko zaurituakin
bizia galdu ta illak,
din-dan tristeak joko dituzte
eleizetako ezkillak.

Egunerokoa?

Egunean egunekoa izan dedilla, esan oi dute. Beraz, zer egokiago: *Egunerokoa* ala *Egunekoa*?

Pozaren pozez –bazan garaia!— eta laister ikusiko ote degun edo... eguneroko izparringi albistaria. Etor dedilla lenbaitlen gure senaren edo endaren gogo pizgarri.

Oraindik izenik gabea... Ona emen, bada, zer izen jarriko nukean:

Guk degun amets ori
da aspaldikoa,
ikustera elkarren
ulerpidezkoa.
Izan dedilla ao-
-sapai gozokoa,
ogi biguiñan pare,
izpar goizekoa.
Pozik artuko degu
dan *Egunekoa*.

Diario de Navarra, 1991.023.23.

Biotzetikan zer senti detan

Bi xagu alkar ezin konponduz
katuai jakian eske,
gaur era ortan zenbat dabiltzan
nik jakin nai nituzke.
Bide ortatik abiatzen danak
kontuk atera lezazke,
juez dagonan bibote oiek
ez dirala orrazten meke;
zigorra askok ola artzen du
burugabekerin truke.

Beian dagona bera jetxi ta
goien dagona gora altxa,
toki danetan berdintsu samar
ikusitzen det nik martxa.
Aundi nai eta iritxi ezin,
bera bada naiko gaitza,
berekoiaaren sokan lotuak
geientsuenak gabiltza.
Ortik askatu ta billa zagun
lengo euskaldun biotza.

Zenbat gauz eder ikus lezazken
begik zabaltzen ditunak,
guztiak bere eskutik dauzka
utsetik egin zitunak.
Gu danen jabe geran moduan
ibiltzen gera geienak,
ezer be etorri giñaden eta
alaxe joan bear danak.
Irentsi naian dabillen arek
alperrik dabilzki lanak.

Aberastea ederra dala
bizi're egin bear da ta,
beste gauzarik ez da aditzen
noranai abiatuta.
Al duan danak berea osorik,
bestena erdibituta,
naiz auzorikan gertunekoak
jarri gorrotoz beteta,
gaur egunean dirua ainbeste
ezta besterik maite-ta.

Nik lanarekin irabazten det,
ez det beste alderdirik,
osasun ona lagun detala
etzait urritzen ogirik.
Jaun eta jabe diran askori
ez diotet inbiririk.
Berekoia dan zikoitzetikan
ez dator gauza oberik,
goitiko elkorra baiño obe da
apala diru gaberik.

Bat dirutzea gerta liteke
loteriz edo bestela,
daukatenari eutsitzeakin
oixe arrazoi dutela.
Xoxikan gabe dauden txiroak
beian egon ditezela,
guztionezako jarria dago
eriotzaren itzala,
aundi-txikiak bear bezela
artxek berdindu gaitzala.

Izardirikan gabe zuaitzak
ez du izango lorerik,
ezer askorik eztu balio
begiak malko gaberik.
Biotzak eztu maitetasuna
baiño doai oberik,
aberatsaren esku legoke
ez izatea pobrerik.
Ori komeni etzaielako
dira emengo komerik.

Osasun ona duan ura da
munduko aberatsena,
garbi agiri da ori aztuta
geientsuak gabiltzana.
Diru geiena dunak askotan
ibiltzen da narratsena,
pilla aundia ikusitzean
geiagoren itsumena.
Orrelakoak nortzuk diraden
ondo nago antzeman.

Alkar lagunduz bizi besterik
ez gendukeana pozez,
batzuek arro ikusten dira,
besteak agertu lotsez.
Ez degulako bata bestea
ondo maitatzen biotzez,
zenbat mixeriz iltzen diraden
goseakin edo otzez,
ta beste asko okitu arte
leporaiño ase betez.

Ondo pentsatzen jarri ezker
auxe da diferentzia,
ea eskua sartu kolkoan
nun dagon kontzientzia.
Erantsik dauden bi laterriak
Portugal eta Prantzia,
ez al litzake danontzat obe
merkatuakoz batzia?
Irurak ala nai izan ezker
errez da alkar artzia.

Aberri auei lotuak gauden
zazpi senide euskaldun,
garai batean indartsu giñan,
gaur deguna ia galdun.
Galdezka gaude emen jaiok
eskubiderik ez al dun.
Ama Euskerakin mintz eder ontan
ezin al gindezken jardun?
Gure laguntzik ez baldin badu
laister gaixoa alargun.

Europar lenengoa bera da
jakintsuen iritzian,
orain artean iraun duana
Añamendin biotzian.
Indarrak junda gelditu giñan
Bidasoz erdibitziñan,
kanpoko izkuntza eta oiturak
sartu zaizkigu etxian.
Gernikako aitzan ezkur guziak
ondo gorde bear zian.

Aberri danak beren izkuntza
dabilte gaur mingaiñian,
ta bidezko da jarraitutzea
bakoitzak bere oiñian.
Iru Prantzian daude gutarrak,
lau gerade Espaiñian,
Ama Euskerakin nai gendukenak
mintzaera apaiñian.
Bere gorantzan lan au egin det
al nezakean aiñian.

Onekin buka bear det eta
iñola ezin ixildu,
miñez dagonak malko ixurtzeko
eskubiderik ez al du?
Izkuntzan alde danok onean
batera gaitezen bildu,
ta euskaldunok etzagun geio
denborik alperrik galdu.
Biotzetikan zer senti detan
ona nik garbi azaldu.

Uliamendiko kontrabandoa eta abar - Kontaerak

Gillermo Albizu

Leendabiziko pausoak

–Iritxi da zai geunden eguna idaztorratza astintzen aste-ko. Ta, esan nizun bezela, ondo irabaziko degu kontrabandoan bizkor jokatzan badegu. Zu ondo zaude ori zaintzen daudenekin, da nik onera arteko bidearen gorabeerak egingo ditut–. Itz auen tankerakoak izan ziran nik aurrena aditu nituenak.

Orain arteko auek esan dizkizut zuk ere zere burua kontrabandista sentitu dezazun, nik nobelista bezela.

Igaro dan denboraldi guzti ontan ez naiz zeregiñik gabe egon, irakurtzez beste geiagoren artean zuk atera dezun *Bosquejo de historia del bersolarismo*, aita Onaindiaren *Gure bertsolariak* eta Ion Etxaideren *Joanak joan* nobela txit gustagarri ori.

Bertoak mordoka jarri ditut; auntz ta ardikitik talde batean jarri, emezortziren tratuak egin pixkanaka-pixkanaka, udaberrian izaten baita ortarako aukerarik onena, ta bat bakarra neronek pentsatuta kendu det, bertoak dioten bezela. Beste zazpi nere gogoaren kontra ito ta akabatuak izan dira. Orain amar dauzkat; bakantze aundi xamarra, beraz.

Guk kastigu aundia izan bagenduan ere kontrabandoa-rengatik, uskeri bat zan guk egin genduana. Baiña nik esango dizut dan bezela, ta parregarrikeri bat irudituko zaizu. Ardatz mee xamarra izango dala derizkiot kurpil aundiak jartzeko. Dana dala, nik oso-osorik ipiñiko dizut aurrean, gero besterenak gogoratzen zaizkitenak, eta irudimenean sortzen diranak.

Ni mendiko ondarra atera ta saldu jarduten nintzan iru urte inguru aietan. Bi mutil neuzkan nere kontura, bat mutua ta bestea berritsu ixiltzen etzan bat, baiña langille purrukatua.

Nekeko lana zan da gogor jo bear izaten genduan, da tar-teka, gosariz ta meriendaz gaiñera, ardo tragoak noiznai. Egonaldi batzuk broman, nekea pixkat bat arintzeko. Aitzakitako zigarroa egitea ere ondo etortzen baita, berritsu ura erretzaillea baitzan, da mutuak ere esan bear zuana eskuz ta kiñuz adierazten baitzuan.

Orain, asten giñanean, gogotik jotzen genduan. Bateko arrantxoa egin, besteko zigarroa zala edo mutua kiñuka, denborak igesten zigun korrika.

Orduko lan-saria ematen nien lau pezeta mutuari ta bost besteari.

Gero, aparte, bost pezeta kamioi bakoitzeko iztunari, neroni ez banengoan ere enkargatutza egin zezan.

Ala, egun batean, irurok ari giñala, etorri zan gizon bat nere langille-buru egiten zuanarengana, esanez ala baiño aixago dirua irabazi zitekeela kontrabandoan, ta nerekin kontatu ote zitekeen.

Segituan erantzun zion baietz. Orduan arek esan zion neri ezer ez esateko. Aurrez ondo pentsatu bear baitira lan ortako pausoak. Ura bera leen asko ibillia baitzan.

Baiña itzaldi ori egin da begien ikusmiratik ezkutatu baiño leen gizon ura, mutil berritsuak neri esan zidan dana zan bezela: Zertara etorri zan eta zer esan zion.

Norbaiti zerbait esan nai badio, ta ez bada bera atrebitzen, ez da gauza aproposagorik, gordeleku txikia duen bere lagun bat billatzea ta dana kontatu, ta gero berari ez esateko esatea bezelakorik.

Jokabide orixe egin zuan leendabiziko mandatariak.

Gizon ura ostalaria baitzan, da nik urrengo egunean bertan esan nion, bazkaltzera joan nintzanean bere etxera, zer berri zerabilzkian, jakin-egarriz. Neri ez bazitzaidan ajolik gau batean da bitan lorik egin ezta ere, dirua irabaztearren, iñori kalterik egin gabe izatekotan.

Ostalari onek leendik ezagun zuan beste gizon kontrabandista-buru ibiltzen zan bat, Ondarrabian bizi zana, berez

naparra ta izen ok zituena: Jose Manuel Goñi, ezkondua ta leen bera karabinero izana.

Goñik egun batean esan zion ostalariari bere asmoen berri, ta koadrilla billatzeagatik bosteun pezeta emango zizkala. Ola bururatu zitzaion ostalariari nigana etortzea, aldamenetik galdezka asiz. Nik ordura arte kontrabandoaren izena besterik ez nekien, ez nola egin zitekeen eta ez zergatik zuan kontrabando izen ori.

Orain, aditu izan nion gerra ondoan nik neukan etxe ortara nola etortzen omen ziran Luzuriaga Pasaiakoa ta alemanen bat, beren emakume ta guzi, ta etxe orren nagusiak beste baserri batean bizi ziralako berak zeukaten morroi bat ematen ziela laguntzarako, geienez gauzez etortzen ziralako, ta oso pozik joaten omen zala.

Nik ez dakit zer emakume izango ziran, baiña jatekoa ondo ematen omen zioten morroi laguntzailleari, ta azkenez edariz zearo mozkortuta lo egiten omen zuan, da ez omen zan ezeren jakitun egiten edo enteratzen zer pasatzen zan; zerbait kontrabando zala bakarrik, ta ez zala iñork jakiterik komeni. Lan zail xamarra mozkor bati ixilik eukitzeko esatea, baiña al dan bezela ibilli bear, legearen kastigu barrenean dauden gauza oietan.

Ibillera oiek aditzeaz zerbait begiak zabaltzen asi zitzaizkidan, pentsatuz besteak leen egin izan bazuten, guretzat ere toki ura an zegoala, ta gaur edo biar zer gerta zitekeen. Menturaz, berriz ere alako gauzen eraman-ekarriren bat gerta zitekeela egin bear izatea, ta neri ere ardotik, eta batez ere sagardotik gustatzen zitzaidan, baiña jan da gero, ta au nion nerekiko:

–Ni jana ta edana ta diruarekin berenganatuko natxiotek, baiña beste tarteko sare oiek ez nezatekek lilluratu ta zurrutak menderatu.

Egun bat izendatu genduan, da an bildu giñan esandako ostalariaren etxera jarritako ordurako, alkar ezagutu bear gendunok: Goñi ta ni. Ostalariak bitartekotza egin zuan, da bereala bere zeregiñetara joan zan, gu bakarrik utzirik.

Goñik eskatu zituan bermuth eta banderillak. Aiek artuz leendabiziko izketaldia bukatu genduan, esanez beste egun batean joango zala itsas-ertz ura ikustera, ta aal bazan karabineroak erosi egin bear genituala, ni danekin nola ondo bait nengoan.

Esan bezela, andik zortzi bat egunera, aldez aurretik abixatuta, etorri zan bokadillo onarekin da zato ardo ederrarekin, denborapasa balebil bezela.

Erabaki genduan nun ustu txalupa, ta gero mendian zear mozorro oien billa asi giñan. Egunez bakarka ibiltzen baitziran, da noiz zein egoten zan banekian. Egun erdi bat bere usaian egiñagatik ez genduan arrastorik atera. Itxura zanez, itzalen batean eserita edo etzanda zeuden.

Urte mordoska baitzan alde aietan iñor etzala erori lan ortan zebillenik, ta berriak nola maiz xamar aldatzen bait dituzten, bertako jendearekin konpianzik ez artzearren, ta auek ez baidute ikusten ezer nabarmenik, oillo lokari sape-laitzik agiri ez danean kuidadorik ez dagoala bere txitatxoe-kin iruditzen zaion bezela, mugazain oieri egunez ez dagoala ezeren artu-emanik iruditzen zaie, leenengoa erori ta konturutzen diran arte. Egunez dabillanak aitzakizko tapagarriren bat eramaten baitu lan ortan. Gauez dabillena, berriz, katua eizean baiño ariñago ibiltzen da, ta eiztariak eiza zaintzen duan bezelako arduraz ibilliko da berari igesean, gau-txoriak dituan sen guztiak berekin dituala.

Ara, bada, leendabiziko oinkada eman txalupa nun ustu aukeratzeko ta izkilluduna erosi naiean, itza emanik alkarri zintzo jokatuko genduala, ta billatzeko nik beste iru-lau muttil. Erori ta ere, guk ez gendukala ezeren kastigurik; Goñi bera egingo zala gertatzen zanaren jabe. Arriskuko-une aldie-tan zama bertan utzi ta itzuli egitea izaten zala onena. Gaiñe-ra, nik aurretik utsik ibilli bear nuala, bertakoa nintzalako.

Ainbeste itz eta ibilli egin, eguraldi eguzkitsu batean itsas-aize ederra artuz, arkaitz baten gaiñean ogi tarteko eder bana jan, ardo beltzarekin oparo bustiz, ta leendabiziko kontrabandoaren ametsetan gelditu nintzan, urre-mina baten billaketa egin bagendu bezela.

Beti berean dagoanak, edo besteak dabiltzan bidetik ateratzen ez danak ez daki gero zerbait izateko itxaropen onek zer poz duan. Nik geroz ta obeto ikusten det mendigaiñik goienetaraño igo naiko arrixku oietan zergatik ainbeste galtzen diran. Beren barruan alakoxe sentimena nabaitzen dutelako, iñori gaitzik egin gabe zerbait lortu litekeelako, orain baiño leen gizon ausarditsu askok egin izan zuten bezela.

Guk, sentiera orren ezaupiderik ez degunok, ero iñozotzat jotzen ditugu, ezer ez dagoan mendira bidean beren biziak uzten dituzten asko. Gerok ezagutzera iritxi ez geran gauze-kin besterik juzgatu ta neurtu. Itsua koloreak aukeratzen astea moduko tankera. Olamoduzko izkera ta bakoitzari berari komeni zitzaizkan moduko juzgaerak egin zituzten gugatik, zer genbiltzan agertu zanean.

Lurrean busti ta beroarekin landarea azitzen dan bezela, gauzarik bidezkoena deritzait bizia ta osasuna duanak zerbait beti goi aldera begiratzea, jan da lo bakarrik egin gabe. Ori jakin bear luke bekokian bi beatzentsat tokia duan guztiak; ta ixildu nadin, asi ta segituan lertu gabe.

Karabineroen txakurrak

Oillo mordoxka polita edukitzen nuan baserri ortan. Berak sartu ta atera egiteko etxe paretak leendik zulo bat zeukan.

Zakurren bat asi zitzaidan gauez oillo jaten. Jan baiño ere akabatu ta mazpilduta utzi. Nabarmena zan goserik etzuala ura egiten zuenak. Ango karabineroak bazituzten beren zakurrak, ama iru umerekin.

Umeak bazituzten bi urte inguru, ta nolaz esan buru egiten zuanari aien juzgua egiten nuala? Naiz ni ziur egon, uraxe naikoa nuan nagusi ta mendekoekin asarretzeko.

Zerbait pentsatu bearra zegoan, bada. Sartu ta atera egiteko zulo ortan tranpa bat jarri nuan. Sartzen bazan, naiz oillo guziak akabatu, etzeukan ateratzerik.

Lan ori egiñez amabostaldi bat pasatu zan. Baiña etzan ezer erori, gaitzegille ori ezkutatua izango zalako. Uzten asi nintzan egunero tranpa jartzeko lan ari, ta noizik beinka jar-

tzen nuan, apropos artara joateko bide asko xamar baitzan, lanean nekatu ondoren.

Toki danetan ikusten diran bezela, iru txakur senide oiek desberdiñak

ziran. Bat zan aundi, eder ta bizkorra; ta, gero agertu zanez, oillotara joaten zana bera. Beste bat, askoz txikiagoa ta xoxo utsa. Kolore berekoak ziran, baiña aita batenak etzi-ruditen, ama ukatzerik etzegoen ezkerero. Irugarrena, oien bien tartekoa.

Leenago esan dan bezela, egunez mugazain bat egoten zan; baiña gauean bi bikote ateratzen ziran beren zakurrekin, ta aiek alde banatara zatitu. Alde batekoak artzen zituzten zakurrik umeetan onena ta txarrena, ta bestekoak, ama ta erdikoa.

Gaueko zomorro auek bazekiten, edo esanda neuzkan, oilloekin gertatzen zanaren berri; baiña etzidaten aintzat artzen edo kasorik egiten. Berak egiten zutena zan beren buruzagia zaintzea noiz etortzen zan. Ori, berriz, gutxi gora-bera aurrez jakiten zuten, eta aiek bezelaxe nik ere bai.

Itsas-ertz orrek aientzat elizako aldare nagusiko pake santua gordetzen zuala zirudian, ta alaxe zan. Bi txakurrekin bakarra egoten zan zentinel, ta bestea lo, trankil asko. Gero, gau erdian, bestea txandatu goizera arte.

Emengo zorionak gutxi irauten du, ta aientzat ni sortu nintzan etsairik biurriena. Batetik, beraiekin ondo egotea komeni zitzaidan, nigan sospetxarrik egin etzezaten. Ta bere-tako egokienaren billa nenbillen erosteko, lasaiago lanean ibilli gindezen. Baiña oilloen galera zeini ordainarazi?

Goñirekin egon da lau-bost egun ziran, berebiziko euriak bota zituala. Ni illunabarrez ez nintzan joan da tranpa jarri ga-be gelditu zan. Urrengo goizean, aziendak bazkatzera nijoalarik, berrogei ta amar bat metrora etxetik, oillo bat zegoan txikituta. Andik baserrira bitartean, beste sei edo zazpi berdin.

Bide ondo artan bazegoan oien txabola txiki bat, eta lau txakur oietako txikiena antxe zegoan etzanda, gauean busti ta bertan gelditua otz-berotuta, ateratzeko bildurrez. Ain bai-

tzan ergel da otsana ta soin gutxikoa. Naiz ez izan gaiztoa ta zer ikusirik etzuana ango oilloekin, gaixoak ederki pagatu zuan besteen pekatua, kulpa aundirik gabe.

Ikusi nuanean nola zegoan bakarrik etzanda, polliki-polliki alde eginda, etxera joan da zaku bat ekarri nuan. Zeozer jateko eskeñiz ta ondo-ondo itz egiñez, atzaparrak botatzeko bidea egin nuan, ta gero zakuan sartu ta etxera eraman. Arkumea bezin apala zan ura, ta xoxokume bat baiño iñoxenteagoa, otso amorratu odol-giroa baiño okerragoko zan zakur gaizto baten errudun egiñik.

Eguerdian joan nintzan esatera beren kuartelera nola neukan etxean preso arrapatuta, nai bazuten ikustera joan. Sinisten zutela esan zidaten, baiña arritzen zirala ura izatearekin ainbeste kalte egin zezakeana. Nik baiño obeto bazekiten, bai, zeñek egindako lanak ziran aiek.

Nola etzegoan an buru egiten zuana, ta nik ere etxean eukiarekin ezer ez nuan aurreratzen, ta naiz alkarri ez esan ura etzala bagenekienik, preso neukan iñoxente ura eramango niela esan nien.

Illunabarrean, egun guztian goseak eduki ta kartzelaz aldatu genduan, beste zortzi egunerako kuartelean lotuta edukitzeko, komandante egiten zuana etorri zan arte, ta bereala nere esku utzi zuan bere sententzia. Nai banuan akabatuko zutela. Ura baitzan gutxien balio zuana, ta ortara nerekikoa egiña zeukaten beren ustez.

Baiña nik ere nola banekian ura etzala, ta ura kentzearekin ezer aurreratzen etzala, ari indultoa emanda berentzat obeto gelditzen nintzala, neretzat berdin zan ezkerro, erreparo pixka bat edukitzeko esan nien, ain txakur gaztea iltzea lastima zala-ta.

Ori egiteaz izugarrizko amistantzak egin nituan danekin, da beren arteko gora-bera guztiak kontatzen zizkidaten barkarka zeudenak. Ondoena gaudenean ere iñor ez baikaude konforme, ta aien artean berdin pasatzen zan.

Txakur iñoxentea indultatzearekin, nere satisfaziorako, oilloen sartu-irteneko zulo ondora eraman da sekulako jipioia

eman zioten, ezeren zer ikusirik etzuan txakur koitaduari, geiago ara arrimatu etzedin. Amaika olako edo olamoduzko jokabide egiten da mundu txiki ontan.

Nik oilloteგიаз neukan naiko lanbide une artan. Besterik arrapatzen ez banuan, leengo arrixkuan nengoan. Barruan arrapatzen banuan ta eraman ez, segituan pentsatuko zuten nik neukala.

Eramaten banien, berriz, txarragoa bizirik utzita, ain es-timatua zeukaten, danetan onena zalako. Il bear zala esaten banien, aserretuko zitzaizkidan.

Ortan nenbillela, gauza bat bururatu zitzaidan: Tranpa neukan zulo artan, pita-ari ikusi eziñazkoarekin amu bat jartzea aragi trontxo batekin.

Pentsatu ta egin. Geroz ondo zaintzen zituzten beren za-kur oiek, baiña aragi-usaia aditzearekin joan zan bat eta, barrura naiz ez sartu, an zegoan aragi-puska irintsi zuan. Amua nola zuan barrenean, nik ez dakit berak ortzekin ala norbaitek kutxilloren batekin moztuko zuten pitazko ari ura. Baiña andik amabost egunerako pixkanaka-pixkanaka aul-tzen joan da txakurrik onen da gaiztoen ura akabatu egin zala ta geiago etzala oillorik paltatu.

Aprobak

Gogoan nerabilkian Goñik emandako enkargua mutillak billatzeko. Nerekin ari ziranak, nola ziran bat mutua ta bestea berritsua, etziran lan ortarako egokienak. Mutuari illunpetan zer adierazi kiñuka? Ta besteari zeinēk ixillik eutsi egunez?

Beste bi billatu nituan, bat kalean ezkondata bizi zana, ta bestea baserri batean, markesaren kontura, bere anaia aministradore ta arekin morroi zegona.

Goñik egin zidan ikustaldi bat eta eman nizkan nere be-riak: Nola zuten gure gau-etsaiak txakur bat gutxiago, ta orrekin erruz poztu zan. Besteak ere kendu egin bear zitzaiz-kiela zion. Oso errexa baita arria tira ta eskua gordetzea. Gero esan nion bi mutil banituala konformatuak. Laister izango zala ta prest egoteko esan zidan.

Ni egunero pamiliko etxera joaten nintzan. Igande illuntze batez Goñi etorri zitzaidan, esanez gau artan egin bear genduala lana, ta biok etorri giñan trenean Herrerara. Andik abisatu bi mutil itza eman zutenei, ta gauean amabiak aldean abiatu giñan laurok batean mendiz itsas aldera. Arrixkuko lekura iritxi giñanean, au da, goardietara. Orduan ni ogei ta amar bat metro aurretik jarri nintzan, ta beste irurak atzetik jarrai, begiz argi ta belarriz ernai.

An topatu izan banintz bertan zebiltzanekin, nik gau onak eman da goi xamarretik itz egingo nuen, edanaren paper pixka bat egiñez, egitzailleak entzun zezaten nere abotsa ta berak ezkutatu zitezen.

Joan giñan tapa-tapa leenago aukeratu genduan toki artara. Itsasoruntz begira jarri giñan, ia olatuak ondoraño irixten ziran, txoko batean; baiña goi aldera belarririk kendu gabe.

Asi zan gure Goñi jaun ori linterna piztu ta itzali, piztu ta itzali, irugarrenez piztu ta itzali, ta alto eman. Iru-lau minutuan egon da leengo lana berritu. Era ortan bost bat orduan.

Ezeren arrastorik nola etzan agiri inundik, da egun-txin-taren siñaleak asi ziran agertzen, da egonari bukaera emateko, leen iru aldiz bezela, bi aldiz egiten zuan linternaren siñalea, onekin adieraziz bagoazela. Ortara, noiz zer egin alde aurrez itz eginda egon bear da barkuan datorrenekin.

Beste iru-lau txanda era ortan egin zituan ordu laurden bat inguruan, da etxera bidea artu genduan, aruntzean bezela bueltan ere ni aurretik nintzala, ango arrixkuko lekutik alik eta alde egin arte. Berriz ere nik itsas-aldera jo nuan nere orko etxera. Iñora joateko etzan ordu aietan trenik, eta urrengo egunean ortara ez nuan etortzen lanik.

Andik zortzi egunera berriz berdin egin genituan gure pausoak eta etzan ezer agertu. Ez dakinak, ikasteko, eskolara ere joan-etorri asko egin bear du; ta ala ere, ikasi ezker, gaitz erdi.

Guk bi gautako ibilli uts aiek ez genekian zergatik ziran. Eskola-umea bi goxorekin engaiñatzen dan bezela, gu bi itze-

kin ixillarazten giñun Goñik. Kargatu bear zuten lekuan goardiak egongo zirala edo itsaso txarra egongo zala, edo beste punturen batera joango zirala deskuidatuta.

Ori guztia etzan egia, baizikan zan gu nola giñan lan ortan berriak, batez ere Goñirekin, da arek gure leendiko berririk etzekian, nai izan zuan gu aprobatu zer bidetatik jotzen genduan, batez ere mingaiña ixilik edukitzen genekian. Gilzarik bearreneko bat mingaiña baita lan ortan.

Gau illun izartsu batean

Ikusi zuan bi ibillaldietan zer posturatakoak giñan, da azkenekotik amabost egunera prestatuarazi giñun irugarren aldiz. Bera etorri zan beste amar mutillekin, da irten giñan gaueko amaiketari, orduetan al zan justuena ibiltzearren.

Egoteko arrixkurik ez dagoan tokia obe baita, ta bidean zenbat minutu bear genituan bagenekian ondo ibiltzera, eta beti ondo ibiltzeko kontuak atera bear dira. Bestela, askoz obe da pausorik ez ematen asi.

Aurrekoetatik beste bide-laister batzuk artu nituan, ainbeste lagun ikusita. Zentzu geiagorekin ibili bear zala zerbait tek adierazten zidan. Denbora berdintsuan iritxi giñan txalupa ustu bear zan tokira.

Bi goiko bidean alde banatan jarri mugazaiñak zaintzen, ni biai aldizka begiratzuz zintzo zeuden beren eginkizunean. Leenagoko bi alditan bezela, asi giñan gau illun izartsu batean itsaso zaratatsuari kiñuka. Ia ordurako aurreko bi gauetan izan giñanak maixu eginda geunden lan artan, leendabizitik prueba egiteagatik ta gero lagunei txanda egin bearra zegoalako, zigarro erretzen mutil koxkorretan asten dan bezela, leendabizi bizioz edo kutiziz, ta gero obligazioz ta ezin utziz.

Esanda zegoan orduan da gu joan da ogei bat minutura agertu zan txalupa, altamarrean barkua utzita. Bertatik soka bota ziguten da, batek arekin eusten zion bitartean bestek ustutzen ari giñala, leendabiziko kontrabandoaren bataioko bendizioz busti ta bedeinkatzen giñun itsaso geldi egon eziñak.

Azkeneko, txalupatik ustua arroketatik gora igo ta arrantxoa egiten gelditu giñan. Urontziko zaindariaekin (patriarekin) beste lan batzuk etorri ziran kontrabandoarekin batean.

Aiek ustu genituan, bat berriz txalupa barkura erama-tera joan zan itsas-erdira, ta beste irurak gurekin gelditu.

Logale aundirik gabe, osasun onarekin da apetitu ederrarekin ango arrantxo ura egin ta ekin genion geren lanari. Nik artu nuan amar-amabi kilo pixatzen zuan pardeltxo bat, ta gaiñerakoak bakoitzak aal zezakeana, ogei ta amarretik asi ta irurogeira arteko ori. Zer bulto ta zer borondate edo zer indar edo norberak zenbat lezaken, aal zuanak aal zuana egin bear.

Egin bear danean agertu bear da zenbat lezaken, ta ez tabernan, baxoerdiak edandakoan. Ta gizon aukera dagoanean, onenak izaten du eskea, ta ixilik eskupeko sariren bat geiago. Zamalari ona bada, estuasunean bidea nola ebaki aztertzeke ere txarrena ez da. Gordean dagoanik iñork ez du ikusten, da garaian agertu bear bere trebetasuna.

Leenengo bide-gurutzean zeuden goardian zaintzailleak. Nik txandatu nituan, aiek ere zama artu zezaten; ta ala, danak batean zetozela sumatu nituan, jetxi nintzan berengana bidea libre zegoala esatera, ta neroni jarri betiko oiturako tartearrekin aurretik, eta mendigaiña arrapatu genduan guztiok, artzai ta artalde otsan batek beren txakur zaintzallearen esana egiten duten bezela.

Gain artan bide bat dago ta andik azpikaldera berreun pauso edo oinkadara utzi genituan azpitarako ebakita zegoan zakarrarekin estaliak.

Arrantxoa egin genduan tokian oraindik asko gelditu zan, ta gaiñera kargarik aundienekoak. Ia danak burni gauza: Automobillen kanbio, puente, palier, korona, piñoi, rodillo, direkzio, tanbor, llanta ta abar ta abar. Besobakar bat bazan da arentzat galleta lataren moduko arintxeagoak.

Baiña etzegoan iñola ere danak artzerik, eta bertako ingurumarian gorde ta utzi genituan piezarik aundienak. Goiza

bazetorren da oraindik lan asko, ta arin ibili bearra, iñor ez akordatzeko.

Artu bakoitzak bere zama ta eldu giñan, ni aurretik nintzala leenengo, ta berak, gaueko bikoteak, goardiak batzen ziran bide-gurutzeraiño. An ezer etzegoala ikusita, aurrera betiko martxan.

Gau oskarbi izartsu bat zan, ta egoaize epelak itxoginaldian izardia ain goxoro ezkutarazten zuan. Ikusten zan udako egun bero erreenetako bat zetorrela, ta egun aietan itsas-aldeko egaletatik gaztain zepa ta ote mordoskak dantzaz jartzen zituan aldizka.

Gizona leku illunean oitzen danak, askoz geiago ikusten du ibili ez danak baiño. Ala ere, belarri ernea da gauzarik bearrena gauean, ta danak onak izanda ere guztien bearra zenbait garaitan.

Esan bezela, ikusten zan udako egun bero erreenetako bat zetorrela, ta egun aietan itsas-aldeko egaletik ganaduen azpitarako zakarretan zebiltzan baserritarrak, ta oso goiz joaten ziran. Bi jornadatan igotzen zuten gurdikada bakoitza ganaduarekin bi parerekin.

Bi gurdi kargatzeko lau igo bear, da goiz asi bearra zeukaten, alako aldapetan eguzkiaren beroarekin itoko ez baziran. Gain-gaiñean zeukaten kargalekua, ta gero andik beren etxeetara zortzi bat kilometro bai bazituzten egin bearrak, ta nai ta ez goizari eldu bear, oia arin utzita.

Belarriak zutik ibiltzen dira ta, naiz urruti xamar izan, itzaien aida otsak eta gurdi kurpillen arri koxkorretiko trankatekoak entzuten asi nintzan, da atzeko lagun zamatuei beretara joan da entzunaren berri eman nien, esanez nola etorriko ziran zakar billa, ta ala leku egokiren batean gordezko, beren ondora iritxi baiño leen.

Itz auek esanda, bi saltotan nere oiturako aldera jarri nintzan, da an asi naiz izketan oso goitik da euskeraz. Ori entzun zutenean, atzekoak uste omen zuten ber-bertan giñala, nola zan ain denbora gutxi joan giñala ta ain garbi aditu, egoaize epelaren laguntzaz.

Beren azpikaldean arri-pilla izugarriak zeuden, garai batego silleria eramaten zuten kondarrekin eginda, garo ta sasi ta otez estaliak, ta bat-batetan an beren buruak gorde zituzten ain azkar.

Baiña bat, esan bezela, besamotza izan. Etzuan zama astuna baiña buelo dexentea. Berdin-berdin sartuko zan inpernuko atetean.

Ura ere saltaka zan, da besteak bezela ezin moldatu es-tuasunaren mendetik ateratzen, da arrastaka ta bueltaka arri-pilla gaiñean atera zituan lata-ots ederrak. Nik garbi asko aditzen nituan.

Baiña nerekin zegoana etzan ezertaz oartu. Irurogei bat urteko gizon eldua zan, eta nik oso altu itz egiten nion ezer etzezan aditu aien zaratarik; ta ikusi ez zitzan, berriketaldia luzarazi.

Zetorren egunaren ta egin bear zuan beroaren kiskalzioak aurrez agertzen ziran. Bien bitartean, itzaiak bazetozen beren aida! ta ooo!, ta gurdien trinki-tranka otsean. Aiekin egonaldi motxa egin nuan, ala komeni zalako.

Parean pasa ziran bezela, irten ziran arri gaiñetik eta saskara tartetik, ango ote, lar da elorrien muinkada zorrotzak artuta, arantzaz josiak, baiña kontent ura besterik etzanean.

Larriak begiak argi ditu, miña urritzen du ta kemena indartu, odolak berotu, bildurtia korajetsu biurtu. Baiña ortara iritxi egin bear da. Koska asko daude or igaro bearrak. Ori ez da nai ta ez gudaritzara joatea bezela. Or norbere borondatea ta besterenak danak bear dira.

Alegia, asko dira, ni orain ari naizen bezela, idaztorratz onekin oso pizkorrak, ta gau arratsean ta bizkarreko zamarentzat oilloa baiño ere euliagoak; ta nik ondo dakizkitan beste batzuk, mingaiña erabiltzen bestetan ez dakitenak.

Egia esan, mingaiña erabiltzen, eta ez ondo itz egiten. Ondo itz egitezkerok, gaizki itz egin gabe egoten jakin bear da, ta ori ikasi ez duanak, ta ondo ezin itz egin duanak, zer egin lezake?

Nik oiei danei esango nieke, gau batez benik dijoztela, iñork ametitzen baditu, kontrabandistak lanean dabiltzan tokira, ta gero jar dezala paperean ikusi duana, ez egin duana, izki-egille au eskuetan edukitzeko kemenik badu, ta orduan ez dituleen bezela edo aurretik bezela gauzak ikusi edo neurtuko.

Ala, berriz bizkarreratu, bakoitzak bereak artu eta aurrera, mutillak! Zenbaitek esango du aurrera jarraitzeko bildur galanta izango genduala.

Bildurra ezagutzen duanik ez bedi joan kontrabandora, eta gordeketa ura ta arantza-zulatu aiek etziran izan indartzeko indizio batzuk besterik.

Orain sarri ikusten ditugu telebistan zirikatzeke zezenak, eta bizkarrean jartzen dizkaten dotorezi oiek; eta zaldiaren gaiñetik sartzen dizkioten akuilluaren muturreko azkon zorrotzak, ez dio leen da gero baiño beroago ta sutsuago jartzea besterik egiten. Konparaziorako, berdintsu gertatzen zaio olako eskapatatxoak egin da min pixka bat artzeak eta ondo iritzeak bere zaiñetan gizonaren odola duanari.

Orixe aurrera egin genduala, ta ezer geiago gabe alako estuasun ta txistakoak artuta gaiñera. Iruditzen zitzaigun ainbeste neke lorik gabe ta izterkada aiek artu ezkerero, gerok genduala arrazoirik geiena. Bero aundi batean erlauntzeko erle mizto zorrotzari ezta baiño zaillago zan orduan guri generamakiana kentzen, ta geren ernetasun biziz ta berdingabeko gogoz ta borondatez, ala, iritxi giñan aurrez izendatutako kamio ondoko baserrietxe batera, ta an utzi ekarri genituanak; eta berriz leendabizi igo genituan aien billa joan giñan, da guk utzi bezela zeuden.

Artu bakoitzak leen ekarri zuana, baserri ondoan danak batean utzi ondo gordeta, naiz gau guztia esna ta lanean egin, ta aurreko gaua ere lorik gabe.

Bidea ta gure etsaia zaintzen etzan lorik etortzen, ta ordua arte egindako lana ondo joateak ematen zuan pozak nekearen astuntasuna arintzen zuan.

Gaueko estutasunik latzenetan nora begiratu bear dan erakusten diguten urrutiko eguzki txikiak, illargi-itaiarekin

batean, goiz oskarbi artan bazijoazen pixkanaka ezkututzen, gertuago ta aundiagoko argiaren aginpideari obedituz.

Oraindik itsasoko palasten otsa urrutira irixten zalarik, lurreko ta aideko biztanleen zarata ta iskanbilla zegoan bitartean, nor bere etxera gizonki sakabanatu giñan, zetorren eguneko nekeari besteetan bezelaxe arpegi emateko pozturik, ta “ori egiten badet, bi gizon banauk ni” geron bururako esanez.

Nekerik aundiena pozarekin naastuta zenbat arintzen dan jakiteko ez da kontrabandoan ibiltzea bezelakorik. Au irakurtzen duanak, bera ibilia ez bada, ez du aintzat artuko; baiña zerbait ibili danak, ori egi aundietako bat dala garbi aitortuko du.

Gaua oe zuri ederrean igaro bagendu bezela, lan-orduetan joan da geren leengo egunetako martxan jarraitu genduan, ta alde aietan euli bat geiago izan zanik ere etzan iñor konturatu.

Leen esan bezela, tresnarik astunenak arroketatik gertuko arkaitz ondoetan gordeak zeuden. Nik banuan astar gaizto bat, ta lera bat egin bi olekin da an jarri nuen burni oieta-ko bat azpian, da gaiñean zakarra arro-arro, sokarekin lotu geiegi estutu gabe ta ola nere etxean gorde nituan danak. Bestela, zeuden lekuan norbaitek billatzeko arrixkua bait zeukaten, da etxean gordeta astoak eta nik bakarrik gene-
kian zama aren berri.

Azkeneko berakada ekarri nuanean, astoa askatu baiño leen etorri zitzaidan alderdi artako buru egiten zuan sarjento komandantea, nola jarduntzio aundia gendukan alkarrekin. Ni ikusi ta sartu zan etxe barruraino, ta lerako zakar gaiñean exeri. Azpian kontrabandoa zegoan, da asko miatu gabe billatzeko moduan gaiñera.

Ala izketan geundela, oartu etzedin an zer zegoan, ta luzatu ezkerko bazitekeen burniaren gogortasuna sentitzea, astoa nola baitzan gaiztoa, nik nai nuanean ostiko egiñarazten nion, ta euliren bat joan balitzaio bezela, or jarri nuan ostikoka, besteak nola ikusi gabe, neroni mutur aldetik nintzala, exerita ura zegoan aldera ostikoka ta atzeraka eramanez.

Ikusi zuanean aren gaiñera zijoala, azkar alde egin bear izan zuan. Arek jakin izan balu, jakin, zergatik altzarazia izan zan, bere mendekoei ematen zizkien ain ordena zorrotzak eta bera, alajaiña, ipurtezurrarekin kontrabandoa ikuitzen zuala egon da oartu ez, ori jakin izan balu, bere partetik kontrabandista guztiak apusillatzeko firmatuko zuan pozik.

Arek zekian ainbeste ta parregarrikeri ori egin olako gizon bati? Arek kontrabandistak jotzen zituan munduko gizonik txarrentzat. Arek bera bakarrik ibili nai zuan ibai-ertz guztian oillarki, ta etzan konturatzen, kontrabandistarik ez bazan, aren bearrik etzala, an txori-izugarri ibiltzeko, ta etzan jabetzen erretzen zituan boltixerrak kontrabandoan ekarriak ziranik.

Amak ekartzen dizkan goxoekin ume bat txoratua egoten dan bezela, gaueko ordu aurreratuetan sarri egon oi zan bere konfiantzazko lagunen gonbitak artu ta kontu kontari, oitura zuan ostatuetan. Etzitzaion buruan jaiotzen bere lagunik jatorren ustekoak kontrabando lanarekin zer-ikusirik izan bear zuanik. Aren zaindaritza (bijilantzia) zeukan lekuko, bere mendekoak ustez ondo lotuak zeuzkan, beren egin bearrean zabartu etzitezen. Auek egiten zutena zan aal zutenik ondoena bera zaindu, bere pausoak ondo neurtu. Aiek ango kontrabandisten ibilliak Jesukristorenak bezela jotzen zituzten, alegia, leenago pasatako edo gertatutako kontuak zirala.

Eta kontrabandoan zebillenak berak esanda noiz ta nun da nola ta zein ordutan ikusitako aztarrenekin, agintari zipotz ura, lasai asko egoten ziran ain zeatz aren berri jakitean, ta kontrabandistentzat ain pozoia (benenoa) zan. Arekin konfiantza zeukan ura kontrabandoan ibili zitekeenik etzuten sinistuko zeruak lurra jotzea baiño geiago.

Berarekin naiz itz asko egin, mutillengatik ez baitzion ez ondo ta ez gaizki esaten, da ezer esaten ez duanari eldubiderik etzaio billatzen.

Ola, bada, gutxien enteratzen zana geiena agintzen zuana zan. Pattar-edale amorratua baitzan, bein esku bateko beatzak diran baiño geiago jiratzen zituanetik, barrengo ixil-kutxa ustutzen asten zan, da zekizkianak eta etzekizkianak an esan bear izaten zituan danak.

Mutillak gero jakitun egitean, dana garbi. Pozaren pozez, aiek ere dana esaten zuten, gau guziko inguru artan ematen zituan oinkaden berri, eta danak bapo, naiko pattar edanez.

Bere agindupekoak ain zintzo billatzearekin, bere burua etzeukan errespeto gutxiko gizontzat. Mendekoak, berriz, alkar txandatur lo egiten zuten, da gau luzea erdiratu.

Ortan bikoteak ondo etorri bear izaten zuten. Oiek ere, beste asko bezela, batzuk asarre alkarrekin izaten ziran, da beren faltaz biak esna egon bear. Olakoak bata bestearen erruari zioten errenkurarik geiena, ta ez kontrabandistari.

An genbiltzanak bagenekian zer aldetara jokatu bear zan. Etzegoan aurrena pentsatu bezela erosten zertan ibilirik. Etxe barruko kontuak azaletik ez baitira ondo ikusten, da nik beren berriak ikasi nituan ezkerro etzegoan beste ezertan ibili bearrik.

Guk aien berri bagenekian, da aiek gurerik ezer ez. Orduan gure lanik zaillena zan, aiek berak alkar zaintzen zebiltzan bitartean, guk tarte ura arrapatu, ta danok gau-tapaki illunaren azpian bakoitza gure aldera lanean saiatu, ta egun gezur-agerlea zetorrenerako danok apalki ixildu, zildaiarekin mingaiña lotuta.

Orratx egitazko kontrabandistaren egitekorik ederrena, iñor ezertan zikindu ta naastu gabe bere nekez ta jokaeraz diru pixka bat eskuratzeko.

Baiña alako ta bestelako arrosa koloreko bideak arantzak inguruan izaten ditu, ta komeni da iñoiz aldizka gogoratzea gure erlijioiko muiña sortutako amabi apostoluak ere etzirala berdin jokatuak, eta gaurko munduan ere bakar aren izenekoak tarteka maiz sortzen dirala.

Argatik, Goñi gazte sasoikoa zan, baiña kontrabandista zaarra, ta ala zion bera bizkarrean miña artuta zegoala ta ezin zezakeala ezer eramane. Bera baitzan kontrabandoko Judas bideak ondo zekizkiana, ta bera uts-utsik ibili oi zan, ta guztia tarteko bizkarketariak ondo zaintzearren, iñork etzezan ezer illunpetan gorde.

Ni aurretik artzai bezela joaten bait nintzan, ura atzetik artxakur zintzo bezela zebillen bere zeregiñetan, danak oartzten ez baziran ere. Egun batzuk bazijoazten eta etzan iñor agertzen. Nik an eukita ezer ez neukan, da Goñi ikusteko modua egin nuan, esanez nola neukan astoa ta garo berria astoarekin nola eramaten nuan arrandegira, ta ekarriko nituala aal nituanak.

Esan da egin. Burniz ta garoz beteta, lau-bost astokadatan bat ez besteak eraman nituan. Leenen astoa kargatu nuanean illunbistan burni ta garoz, nik joan bear nuan bidean bere txabolan goardia zegoan, da ni aren aurretik ez pasatzeagatik, ondoan zegoan sagastitik abiatu nintzan.

Sagasti barrenean belaze aldapatsu bat zegoan, da asto maltzurak, alako aldapa ikusi zuanean, da karga astuntxo berarentzat, or bere burua bota dit, edo erori zan, goardia zegoan lekutik berreun bat metrora zuzenean jota, ta dana beraren bista-bistan.

An ziran komeriak! Altxatze ezkeroz, askatu ta karga kendu egin bear nion; ta, ortan asi ezker, besteak aurrez aurre ikusten. Orregatik komeni zitzaidan nola edo ala denbora pasatzea illuna etorri arte, ark ez ikusteko. Arekin baneukan jarduntzioa, baiña galdetzeko ere ez nintzan bide txarrean jarri.

Zer egingo ta inguruan bazegoan garo geiago, ta berriz biltzen asi nintzan igitaiarekin. Buelo txikia baitzuan, naiz karga geiegi izan, da goardia, ala ikusi niñunean, an abiatu zan neregana, astoa lurrean erorita ez niola kasorik egiten da neroni garo geiago ebakitzen, zer gertatzen ote zan jakin-miñez.

Aiek danak gazteak ziran, da egun guztian bakarrik oso aspertuak egoten ziran itsas-ertzeko mendi bazterrean, norbaitekin itz egin naiez edo zer ikusi zalantzan. Txingorri bat izanda ere zerbait baita, besterik ez dagoan tokian.

Neri kuidado geiago ematen zidan, garoa ebakitzeak baiño eskua ebaki gabe erabiltzeak. Arek zer egiten zuan begirik ez bait nion kentzen zear-begiratuan, da garoa ere ebaki egin bear itxura egiteko.

Une estu artan nola salbatu pentsatzea gauzarik zailena; baiña aizezko poltsa bat zenbat eta estuago egin da orduan da azkarrago ustutzen dan bezela zulorik badu, gure buruak ere zenbat eta estutasun aundiagoan arkitzen dan, orduan da gauza geiago pentsatzen du.

Illuna ere gaiñean zan, da denbora zenbat eta geiago pasa, ura komeni zitzaidan, gau-estalkiaren babesa edo laguntza nualako onena.

Baiña batetik bide asko neukan egin bearra, illuna gaiñean da astoa erorita, ni garoa ebakitzen, beste bi biko-teak (parejak) beren txakurrekin ia gertu, ta leen zegoanak ingurumari artan gertatuen berri ziur gauerako zetozenei eman bear.

Ta or abiatu zan nigana, egun guziko bere eginkizuna amaitzeko unean. Ni ere zai nengoan, zepoa disparatzeko egoten dan antzera; ta, ni nola arkitzen nintzan belardiaren ertzean garoa ebakitzen, beste iñundik etzeukan joaterik belazetik baizik, ta belaze orrek sakon bat zeukan.

Ala, ura an sartu ta begien ikusbidetik ezkutatu nintzan bezin laister, astoari egin nion kargaren moldaketa, alperrikako arri aiek kendu ta bi aldeetan da erdian jarririk, gaiñetik garoz ondo estali ta sokaz loturik. Asto nekatua etzan aserre ala arinduta leengo kargaren erdiarekin; da ni, berriz, alako arriskuak erabili ta ala ateratzearekin.

Pozaren pozez ez nekian nun nengoanik ere. Eraman nituan besteak utzi genituan lekura. Ango baserritarrekin itz-aspertu bat egin da etxera bidea artu nuan.

An topatu nuan illundu ta ordubete pasara gaueko goardia, bakarra, bestea lotan bait zegoan; da, nik ura ondo nola nekian, da iñori ez esateagatik neri etzekiten nola ondo egin.

Olaxe, ondoko egunetan, astoa arintxeago erabiliz eraman nituan eun bat kilo inguruko automobilien puente bat ez besteak. Gero itz egin nuan bi bertako aurreko egunetan ibili giñanekin, da irurok joan da ekarriko genduala, ta baita egin ere.

Nola giñan iru bakarrik, aurretik iñor jarri gabe, irurok alkarrekin joan giñan. Ta ustegabeen guk nai ez genduana-rekin gertatu bagiña? Ankak astindu bear.

Ortarako ordurik egokiena aukeraturik, loak geienbat jotzen duana, goizeko ordubietatik lauak arte ori. Oso gau goibela zan, baiña illargi betea zegoan, da guk joan bear genduan bidea errez sumatzen genduan.

Utsikako bidealdia egin da zama astun ura artzeko eseri ta osasun da patxara ederrean urdai azpikoarekin ogi-tarteko bana jan da zato-ardo beteari estutualdi sendoak eman ondoren, belarriak bero-bero jarri ziran garaian, geren lanari ekiteko prestutasun osoan geunden irurok, eta nola jokatu ura leku-aldatzeko?

Kilometro ta erdiko bidean etzegoan konfiantzarik. Batek aurretik joan bear zuan derrior. Ni aurretik nintzala, leenago esandako erara, goitikan itz egiñez atzekoak akordatuko ziran; baiña alako tresna maketsa gordetzeko, itsumustuan nola erabili estutasunik gertatzen bazan?

Alkarrekin egin bear genduan lanari asiera emateko, erabaki arek bere bukaera izan zezan, zatoari arnasa luze baten tartean estualdi barren ixurkor bat arrerazi ondoren:

–Auxe dek biderik onena –nik esan nion bietan gazteenari–. I joan adi aurretik, ta au ire ondoren. Nik artuko diat bakarrik zama ori.

Baiña nere esana etzuan ondo artu aurretik joan bear zuanak. Aurrekoak arpegi eman bear baitu, ta berak ziona:

–Ni oiekin topatzen banaiz, nik zer esan? Ta, gaiñera, ik bakarrik nola eramango dek?

Bien bitartean, irugarrena ixilik zegoan. Lanik errezena berea baitzan: ezer ez bazan gertatzen, utsik joatea bakarrik; ta, ezer bazan, berriz, korrika etorri nigana ta neri lagundu bizkarrean neramakiana gordetzen da gero bera ezkutatu.

Baiña kontrabandora ez da iñor okerrik gertatuko zaiola pentsatuz joaten. Bestela iñor ez litzake joango. Ta gauaren illuna ta bakardade motza bere lagun dauzkan gizona oso trebe jartzen da. Bein leendabizikoan ondo ateratzen bada,

korajez jazten da, indarrez ugaritu, buruz zentzutu, mingaiñez ixildu, belarriz ernetu, ankaz pizkortu... Ortarako, sabelari ere berea eman bear zaio.

Oriek ola izanik, zer esaten nuan ondo nekiala erantzun nion:

–Arriskuko bide au pasa arte nola edo ala nik eramango diat; ta ik esan akiek biar goizean zuen etxera segara joateko abisatzera etorri aizela, ta orrenbeste denboran nere zai egon aizela ate joka, ta ez naizela agertu. Parrandan gaupasa ibiliko naizela seguru asko; ta, berak ikusten banaute, esateko goizean egun-txintarako joan nadilla. I izketan ari aizen bi-tartean, guk anka egingo diagu.

Nere iritzia baieztu zuten, da bien arte eldu ta gerrietara altxa, bi aldetako tanborretatik eldu ta ni erdian, aiei lagunduz. Gero makurtu ta bizkarra azpira sartu ta zabalka artu; au da, bi bizkarretan.

Gaztea aurrera joan zan eun bat metroz, bestea atzera-xeagotik ta ni tapa-tapa, eun kilo inguruko akuillu burnizkoa bizkarrean nuala, erdi-bidetik. Aurreraxeago, aldapa aundi xamarra bi pendizen tartean zegoan, geuk joan bear genduen gurdibidea.

Nekatzen ere banijoan, astuntasun arekin ankak motel-tzen asi zitzaizkidan, da inbutuan bezela sartu bear nuan esandako tarte estu artan, da an jaulkitzen zidan buruak itxogin bear nuala aldapa barrenean, gero aalik eta azkarrena andik ezkutatzeko.

Ala, nere aurretik zijoanari adierazi nion, gerok bakarrik genekian modura, ezpaiñetan aizearekin ateratzen genduan otsaren bidez. Illunpean ots ori aditu ta ez badu ezer ikusi, ez dakianak ez dio igertzen zeñek egiña dan, aideko, pertsona edo lau ankakoak.

Erantzun zidan entzun zuala. Nik berriz egin da orduan etorri zan. Bein egin izan banio etzan etorriko. Ondo goazen agiria zan. Baiña, bi egitearekin, esan nai zuan bazala zer-bait. Arek berdin egin zizkan aurrekoari, ta biak antxintxika biurtu ziran nigan:

–Zer da? Zer da? –galdetuz

Esan nien nekatuxea nintzala, ta pixka bat itxoinda, berriz, azkar egingo genduala unerik txarren ura.

Nik esanak ondo arturik, neri zama jetxi bezin laister, arin asko aurretik zijoana bere barrundatzeko lekura joan zan. Bien bitartean bestea nere ondoan zegoan, ta aldameanean bazegoan *Iturriotz* izeneko iturri txiki bat presko askoa, urte garai guztietan berdintsu ixurtzen zuana; ta an lau oiñean jarri ta ur-trago ederra egin ta arnasa pixka bat lasatu, ta nekearen astuntasun bolararik aundiena aldendu zanean, berriz artu nuan bizkarkada ta abiatu nintzan aldapa goitik, tximistak arturik.

Zer gauza dan sasoi!... Ta nekatzeko kupira gabe jar-tzea!

Etz dira poz danak janketa ta pestazko billeretan izaten. Gau ixillaren kolkora ixuritako izerdi tanto mardulak ere biotza asko lasatu ta sendotzen dute. Berez ortarako zerbait bada.

Alaxe iritxi giñan bildurrik gabeko toki bazter batera, atsedenaldi bat egiteko asmoz. Nere saiets-ezurrak pilarmunikaren auspoa bezela ireki ziran. Ura lurrean utzi nuanean artutako deskantsuaren gozotasuna jakiteko ala ibili egin bear da leenengo. Bestek esan da adituarekin ez dago nola-koa izango dan antzik ematerik.

Arkaitza bezin osasun gogorra, arria irensteko moduko apetitua, otsoa esku utsekin burukatu ta txikitzeko moduko trebetasuna ta kementa atzaparretan, eguneko egin bearrak bukatu ondoren loaren orde z gauez alako zanpatuak artuz ibili ta ala ere zenbait begi ikusbide bista onekoen ikusi eziñak ezereztzat jotzen da mingain pozoidunak beren kiratsaren erreak ezarri ta erantsi nai; ta, ori guztia jakiñik, apalki gauez umil da ixil badabil, ez al da gizonki jokatzea?

Baiña, zoritxarrez, bera ortarako gauza edo din ez danak kalterik aundienak egiten ditu askotan. Inbiria minbizia baiño ixillago ta aurrerago barruan sartua egoten da askotan, ta daukanak berak ez dakiala gaiñera. Argatik, besterik eta bere burua ondatzen ditu bekaizkeriz dabillenak; ta be-

rak zabaltzen duan lurrin txarra, lurrera eroritako ura biltzen al bezin zail.

Ala, eserita jarri, izerdia legortu, zatoan oraindik bazeoan biotzaren bixigarri pixka bat eta beste bi-iru txurrupa egin, da berriro abiatu giñan geren bidean aurrera.

Orain beste biak artu zuten batera bizkar banatan, bat bestearen atzetik zirala. Ortara neketsuago izaten da, alde batetik bakarrik artzen baita pixu guztia. Baiña gizon bakarrak ez eramatezkero, alaxe joan bearra zegoan.

Gaizki artzen dan zama txikia ere astun egiten da, ta laister nekatzen ziran, naiz bi izan da sasoi ederrekoak gaiñera. Ni orduan sartzen nintzan bien erdira, ta aienetik nere bizkarrera aldatzen genduan lurrera jetxi gabe. Bi bizkarretan artu itzaiak akuilluaren antzera ta tira aurrera.

Olaxe alkar txandatur iritxi giñan besteak utzi genituan baserrira, ta an eztabaida atera genduan. Gau artako nekeari gogor egin genion bezela, geren itzari gogor eusten saiatu giñan.

Ibillaldiaren oroigarria izateko ziur jakin nai genduan zenbat ote zan aren pixua. Nere lagunak zioten eun etzala, ta baietz nik. Aztu bait zitzaidan zegoan tokitik artu nuanean zeinën aixa jasotzen nuan; da korrika ere nola prueba egin nuan, estuasunik izaten bazan bidean, berarekin iges egin nezakean ikusteko.

Eztabaida amaitzeko, amaiketako bat apustu egin genduan; nik irurona pagatu edo aiek bien artean iru. Au zan, salda ta bina arraultza litro bat ardorekin. Etzegoan estuasun aundirik.

Esanak esan, eskuak jo, baserri artan zegoan baskulara eramane da eun kilorako bat eta erdi palta. Ni gelditu nintzan galdu ta triste, ta denbora berean pozik, egin bear artan nik bakarrik ekartzen nuanarekin. Beste biak batean izanagatik nola nekatu ziran garbi agertu zalako. Aiek nekatzeaz poztu, beraz? Ez, jauna. Beste biak baiño bakarrik indar lan geiago egin nuala ta anken gaiñean nenbillen zerbait banintzala nere begiz ikustearekin.

Dirua baita emengo pesta-jartzaillerik nagusiena, ta begi onez ikusten ez duan bat gainetik edo gorago badago, arek oso lan txarrak emango ditu; ta ondatu al badu, ez dago erlijiorik ta iñoren aolkurik ezin eramanaren gaitza sendatuko duanik; ta bere begi txarrez ikusten duana mendekoa badu, arek jartzen dituan neurrietan errendi bearko du ta kitto.

Ondo baiño obeto atera zitzaigun, bada, leenengo barku-kada kamio ondora eramateko lana; ta gure gordailuaren ixiltasunak azitzen zigun poza etzan nolanaikoa.

Bi nagusiren lana eraginarazi ziguten, Goñik gero agertu zuanez. Batenak gauza arin xamarrak ziran, lore-azi, botika ta aduanakoa asko ordaindu bear zanetatik. Dana burni gauza bestearena, automobilien piezak.

Leenengoak eraman zituan azkar asko ta berea eman ere bai Goñiri; ta onek berak ekarritako beste mutillei ere ta itsa-soko lana egin zutenei ere bai. Baiña besteak, eguna joan da eguna etorri, astea joan da astea etorri, illa joan da illa etorri, automobil-pieza aiek ezin zituan saldu ta Goñiri etzion pagatzen, da Goñik ere ez guri, ainbeste aldiz esan ondoren oso gaizki zeudela ainbeste denboran ala. Egun batez etorri ta esan zigun saltzeko nai bagenduan, da eman zizkigun bakoitzaren prezioak.

Ori esan zigunean, garaje batera segituan eraman genituan, baserritarrei arriskua kentzearren, da bai Goñiri abisatu ere. Orduan onek beren nagusiari esan zion da azkar asko etorri ziran biak, guk saldu ta berak ezeren probetxurik gabe geldituko ziran bildurrez.

Nola ixilik ekarritakorik etzeukaten reklamaterik, ondo gordeak zeudela esan arren, etziran ikusi arte lasaitu. Gara-jeko nagusiak erakutsi zizkaten danak, eta ez bereala, baiña berakin konpondu zan. Arek segituan ordaindu zizkion beren jabeari; onek Goñiri bidekoa, ta Goñik guri.

Gau aietan da astoz egindako lana, zenbat?

Gatzarentzat adiña ere ez. Ala ibilita, neri zazpireun peze-ta, ta beste bieie bosteun bakoitzari. Loari ostutako denbora irabazteko mordoxka pollita, asko ez bazan ere.

Artzen dan gutxienak ere poz eman oi du, ta ola bukatu zan gure leenengo ekitaldia, komeriantek bezela urrengoan obetoxeago jokatu ta geiago ateratzeko itxaropenez.

Kontrabandoan nastutakorik
ez dala gizon piñikan,
nei ez dit beste ezertxok eman
onek ainbeste miñikan.
Ori esaten ez da asiko
bera ibili danikan,
neke azpian gaua igaro
utsein be lan egunikan.
Ia beste bat nun billatzen dan
orrela dabillenikan.

Azarikeriak

Zer gertatu zan, bada? Guk genekiana esana dago.

Bi gau igaro ta etorri da eguna. Zer ote da ikusi bear deguna? Zentinelak jarri dituztela itsas-ertz ortako bide-gurutze guztietan, mendi dana goi ta be miatzen dabiltzala beste batzuk, ta guk bi tokitan gordeak billatuak izan dirala, aixa gaiñera, ainbeste gizonen anka-arrastoz.

Irugarren gauerako alkarri esan genion etzegoala ezer egiterik, eta geldi egotea obe zala. Ni gauean ondo illunduta joan nintzan etxera; ta, atzera asko begiratzen ez banuan ere, nere belarriak aditzen zuten atzetik bazala norbait.

Egun guzian ez nintzan agertu, ta ordura arte nere zai egonak ziran ango bide ondoetan gordeta. Ni joan nintzan, etxe-ondo guztia goardiz beteta zegoan. Baziran petralkeriak esaten ari ziranak, baiña beren nagusien aginduz ixilarazi zituzten, ta gauean lo egiten utzi nazatela ta urrengo egunean goizetik eramateko kuartelera.

Bi kamioikada goardi igo omen ziran gau artan guk gordeta utzi genituanak ekartzera joango giñalakoan. Aiek zituzten gogo edo asmoak ziran koadrilla guztia an arrapatzekoa, il edo zauritu aal zana aal zan bezela. Baiña ortara joanak

ziran, ta gelditu bear izan zuten beren eskuetara joan ziztaien uso elbarritu batekin.

Zortzi auntz jetzi goizean, aien esneak nagusiaren etxean utzi ta joan nintzan, bi eskuak lotuta, aitorra egitera. Ustez gure biziari eusten dion eguzkia bezin zintzo ibili geren eginbearretan, da Japoiko bonba atomikak egin zituan kalteen erruduna baiña aundiagoa banintz bezela, beren eskuetara joan nintzan. Eiz elbarria an sartu ninduten legoien kaiolan, kuartelean.

Batere zakarkeririk gabe komandante batek ekin zion jakingo nuala an zein ibili ziran, ainbeste pieza ekartzeko, neuzkan txakurrak konturatuko zirala derrior, da esateko baldin banekian, da saritua izango nintzala; artean garaian nengoala, gero jakingo zala, baiña nik lana aurreratuko niela, ta ola polliki-polliki eraso zidan.

Baiña nik, arek zenbat ate ainbeste maratilla egiten nizkan billa. Nola nere martxak jarrita neuzkan, ondarrarekin auntz, ate, oillo, antzar, untxi, asto, txakur ta katu...

Etzidan eldubiderik billatzen, da auxe esan zidan, pentsatzen zuala ni ez nintzala ibiliko, baiña jakingo nuala andik lan artan ibiltzen zirala. Ori baietz, baiña ez niela nik kasorik egiten. Bada, esan zidan obligatua nengoala aien berri ematera. Nik, ez nekiala olako legeen berririk; ta azkenik au zion: *Que todo ciudadano estaba obligado a saber*, da ala joan zan.

Beste iru edo lau txandan-txandan, bakoitza bi edo iru aldiz etorri ziran, da gezur batzuk tartean berai arrapatu nien. Ondarroan beste bat agertu berri zan, da ni an nintzala ta ia gezurrarekin egia ateratzen ote zidaten.

Eztarrian jarri zitzaidan alako korapillo bat. Esan nai nuana ere ezin irten zitzaidan, ta neregandik etzuten aditzen berak nai zutenik. Orduan neretzat berdin zan miña eman ala ez eman. Desapioak baziran baiña etzidaten eskurik erantsi; ta, nere itzetatik nola ez nintzan aldatzen ta ia danak galde berdintsuak zekarzkiten ta danai berdintsu erantzun, ta iñork ezer atera ezin zuan, orduan buru egiten zuanak ni

etxera bialtzeko esan zien, da beretako tenienteari joateko nere etxea miaztera, ta beste terrenoko nagusia eramateko.

Orduan nik esan nien arek ezer etzekiala. Joan balitz, arek esango baitzuan, garbi baitzekian dana; ta, asunto artan sartzea ezer zer ikusirik gabe gaizki artuko zuan. Irurogei ta amar bat urte bazituan, da komeri oietan sartu balitz, gu-reak egin zuan.

Goñik bezperan etzidan erabaki bat onik eman, da azke-neko uneraiño eldu giñanean, erremediorik etzegoala ikusi nuanean, gu lau zein giñan da Goñi zein zan esan nien. Ura egin genduala, baiña, *la primera y la última*.

Ala, joan da beste bi auzoko gizon ekarri testigutzarako, ta tenienteak neri baimena eskatu sartzeko ta nik baimena eman. Buru gaiñekoak kendu ta kaska utsean beetik asi ta goraiño miatu zuten, ezer arkitu gabe. Bertan partea egin zuan, testigu ta beste goardi ta danok izenpetu genduan; berriz kuarteleratu giñan, da an zai nengoala nere txanda etorri arte, nik goizean esana ondo gogoan jaso zuan bat etorri ta esan zidan:

–¿Con que la primera y la última, eh? Y aquello que hicisteis en el mes de setiembre?

Dana esana zegoala igerririk:

–No era en setiembre; era en agosto.

Nere txanda zala ta esan zidaten X-ek esan zuala; ta an jarriak nik, nai ta ez, besterik esan gabe, baieztu nituan, da gauerako alkarrekin jarri detan X orrekin etxeratu nintzan.

Gu lau giñan bertakoak. Morroia leenbizi bidali zuten eta ura bakarrik etxera joan zan. Baiña laugarrena gu ikusi ta nunbait ezkutatu egin zan. Zergatik? Guk ez dakigu oraindik.

Gurekin zebillen zaragi puztu aren koñaduak, bere andrearen anai ta beste aizparen gizona ta Goñi leenagoko denboretan alkarrekin gau-lan ortan ibiliak ziran, da asarretuak alkarrekin etzuten itzik egiten.

Beste bat ere bazuten tartean. Ori ta Goñi ondo konpontzen ziran aldi ontan. Berrero alkarrekin asteko asmoz

zebiltzan. Azkeneko lan ontara etorria zan leenengo egu-
nean, baiña bigarrenerako zerbait barrundatu zuan ta
etzan agertu.

Zer naaspilla da emen? Goazen astiro.

Aspalditxo ontan lana urritua zegoan. Lanaren urritasu-
na baiña ere, erori izanak or eta emen, ta berriz toki aietatik
asteko langille berriak bear zuten izan; da, berriak billatu ta
asterako denbora joan egiten da.

Ortan oituari etzaio luze iruditzen, da besterik ikusita
oraindik egon ezin geiago, ta bere kontrario bat ari dala iku-
sita, berriz, bi alako.

Gure nagusi jartzera ia iritsian, artaraiño aizez puztu on-
doren, andrearen errira joan da babarrunak irakiten jarri
zituan. An bertakoak oiñez ikasi orduko ortan ibili izan dira-
nei aurrea artu ta erakusten. Alajaiña, toki ederrean ezkillak
jotzen zebillen.

Egitazko kontrabandista bada, aiderik gertuenak eta la-
gunik aundienak ere ez ditu jakiñean jarri bear. Bi edo iru
jolasalditan dana atera zioten bere koiñaduak. Agertzen zuan
aundinaikeriz ta ao-zabalez, zekian guztia ustu zien.

Koiñaduak jarri zituan jakin-miñez, bere burua ainbeste
aunditu ta azi bearrez, dana bere eskuan baleuka bezela edo
bere mendean bagenbiltza bezela. Itza eman zien ziur jakina-
raziko ziela noiz lana egin bear genduan.

Aiek esan zioten nola jokatu beren kontsejuz. Goñi zuri-
katu zuan ta or biurtu zaigu lagun uste ta ixpi. Ortarako
aproposa baitzan izan ere, galtzak soiñean erabiltzea merezi
etzuana. Gonak ere baziran aren diña, arako bizkarkada as-
tun ura artzerako irutatik ixilik egon zan ura.

Arrosik ederrenak arantzak gertu izaten ditu, ta gizartean
ere olako ozpingarri batzuk ez dira paltatzen. Naiz kalte aun-
diak ekarri, ala komeni nunbait.

Ara nola oretu zuten Goñiren lagun izan ziran aiek lanik
egin ezinda zeuden bitartean begiz ikusi ezin zutena zebillen
eginkizunean segidan arrapatzeko bidea.

Leen ainbeste aldetara aipatu degun mingain jariotsuari ixpi deituko diogu ontaz aurrera. Era ontara erabaki zuten gero erdibituko zuten opilla egitea.

Atzerago esango degun bezela, etziran orduan oraingo legeak. Gu erorita ere Goñi egiten zan errudun; gu gelditzen giñan berrizko beztuak (*con mucha*), baiña kastigu gabe.

Ondarrabin bizi ziran kontrabandista aiek nai zutena zan Goñi ondatzea, ta berak ezertan agertu gabe, inguruko mugazaiñekin ondo gelditu. Beren koiñadua nola zan ixpitzarako ohea bizkarketa latzerako baiño, azkar igarri zioten ontzat artuko zuala aiek ziotena.

Aldi artan sarritan joaten zan andrearen jaioterrira. Ager-tu ere egin nai, bada, lan arek ondo ematen zuala; ta bat ondo ikustean, askoz lagun da laguntzaille geiago izaten baitu; ta ur-gaiñeko aparra ain erreza, berriz, aizeak nai duan aldera eramaten.

Berak uste baiño obeto ezagutzen zuten bere koiñaduak ixpi berri au, ta bazekiten beren esanetara jarriko zutela.

Ondo datozen aideak izan oi duten ikustaldi pamili artekoa egitera joan zan egun batez, otordu oparotsua egin ondoren, txanpaiñaren bedeinkazioak artuz zeuden garaian, deitu zioten bere bi koiñaduak ta onela mintzatu zitzaizkion:

–Goñik egiten duan lan ori guk artuko diagu. I jarriko augu mutil danen buru, ta guk ainbestexe irabaziko dek.

Ori entzun zuanean, etzuan ezer erantzuteko astirik artu edo izan. Nola zan andre-zulo, joan zitzaion deitzera, ta etortzeko azkar da beste txanpain bat ekartzeko. An ere etxekoen gaiñetik bereala jarri zan, da lauren artean an moldatu zuten ixpitza nola egin. Au da: Goñiren abixo danak berak artu, ta guri ezer esan ez azkeneko unera arte.

Ni nola nengoan ondo bertako goardiekin, igual jarriko bait nituan iñor etortzen zan zaintzen berak, eta etzan kome-ni aiek pentsatu zutena egiteko, nai zuten goardiak eta gu danok batean arrapatu, tartean Goñi genduala; ta ortarako zer jokabide asmatu?

Leen eroriak baitziran koiñado aiek, da gauza ez arin asi zedin. Bere emazteari irten zitzaion etxean nola zeukaten bere anai gaztea, ura joango zala esatera noiz genduan lana egin bearra, ta bi koiñaduetako bat joango zala arekin bertako mugazaiñetara, ta salaketako irabaziak tokatzen zan *tanto por zientoa* danen artean banatuko zutela.

Bere gizona, xpi zerria gain da azpi, joango zala beti bezela besteen tartean, ta iñor etzala konturatuko. Tartean emakumeen itzak gizonentzat edo jatenarentzat gatza ta piparra bezela izan oi dira, ta alaxe izan ziran kontsolagarri bere emaztearen itzak zaragi buruaundi arentzat. Lo zorro batetik esnarazi balu bezela musu aundi bat eman zion, esanez:

–Zuk gurekin kontrabandora etorri bear zenduke.

Gezurra diruditen itz auek, egizko zentzudunak artuak eta jasoak daude. Eginkizun berri artan asteko ain batera bildu ziralako, eskuak jo alkarrri, beste botilla bat txanpain barru utsean jarri ixpia bataiatzeko ta poz betean bukatu zuten egun artako jarduna.

Andik lau aste ta erdira zan xpi maltzurak bere burua ta gu saldu bear ginduan gaua. Ordurako neri aginduta zegoan etxean zeukan koiñadua joango zala gurekin. Ala, bere bear bagiñan ta argatik ari ta beste bati esan genien egun artan, da guri agindu zigun joango zala seguru. Geroztik esan baitzion koiñado ixpiak nora joan bear zuan, da orduan gelditu zan guri agindua betetzerik ezta, esaera dan bezela, txapel batekin bi buru estali eziñik.

Etxeko koiñado ta arreben esana egitea zuan bearrena, aiekin bizi bear zualako, ta pamiliko zan ezkerro. Naiz gogoz kontra aien esanera jarri bear izan zuan, da joan zan. Bai, joan egin zan, beste koiñado Ondarrabikoa artuta ango mugazain buruarengana, ta arek izenpetuarazi zion salaketa, ta agindu zion berak etorri bear zuala kontrabando ori nun zan erakustera.

Etzuan alakorik egin nai, ta zion guk ikusten bagenduan, lagunak izanda, zer esan bear genduan beragatik. Mugazain nagusiaren erantzuna: Egoteko lasai, guk ez genduala ikusi-

ko ta, gaiñera, eskupeko ederra emango zitzaiola, ori ziur izatearekin. Baiña egia ote zan aren mandatua? Zertan joan bear zuan arek bere lagunak salatzeraz? Edo iruzur egitera-ta ote zan joana, arek esaten zuan tokira bijilantzia bidali ta beste alde batetik lasaia egin zezaten?

Olako gezur-zuloen berri ondo ikasiak egoten dira lan ori zaintzen dauden mugazaiñak, eta etzioten irtetzen utzi alik -eta Irungo muga-etxeke poliziak etorri ziran arte. Sartu zuten berekin kotxean ta etorri ziran gu arrapatzera.

Gau guztia gure zai egon da ez ikustearekin, urrengo egun guztian giltzapean eduki zuten. Aren barrenak ederrak egongo ziran. Bere artean esango zuan leenagoko mutil koxkorrena: Inpernuko deabru guztiak baiño biurriagoa bera ta besteak jotzeko maixuari makilla eder bat eraman, ta maixuak berari leendabizikoak eman.

Leendabiziko gauean Ondarrabiko kontrabandista ta bere koiñado gure ixpi zurutuaren ametsak gaizki irten zuten. Urte batzuk leenagotik lan asko egin zuten ingurutsu artatik gau erdian, goardiz alkar artuta. Denborak ziran ain sonatua egin zan leku ura gauez pakean bizi zala. Guk andik kilometro ingurura ustutzen genituan, ta beste bide batetik joanda.

Arako neguko ezer egin ez genduan gau artan ibili giñan gure oiturako ta orain esan degun bien erditik. Bietan utsik ibili giñalako ta gertuago bait zegoan naiz bide txarragoa egon, azkarrago joateagatik, nik erabakitzen nuan nundik nora jo, aurretik jakiten nualako izkilludunak nun zeuden ta nola joka ziteken.

Ixpiak bazekian nun ustuko genduan, baiña nundik ibiltzea erabakiko genduanik ez. Bere koiñado salaketa-erama-leak ziur etzekian nun zegoan gure txaluparen ustu-lekua, ta gauen gure billa etorri ziranak uste zuten leenagokoen tokitik ibiliko giñala, ta ala egin zituzten beren zelata guztiak illunpetako aizearentzat.

Ixpiaren koiñado azari zar aieri gau artan damurik egitas-mua oker atera zitzaian. Bestela, ederra egin zuten: Batetik,

berak ezertarako agertu gabe, besteren pekatua aitortuz induljentziak irabazi; gure aldeko goardiak ere zearo ondatuta utzi, ta beren aldekoekin gaur edo biarko ondo gelditu, ta azpitik saria artuta gaiñera.

Baiña an ezeren txintik ez sentitzean oso asarreturik joan ziran, ta aurreko egunean salatariari lagundu zion koiñadua ere giltzaperatzeko agindua eman zuan ango buruak. Ordu-tik asi ziran gauzak naasten da bazterrak astintzen.

Egitazko ixpia eraman zuten, da, zuzenbideak gaizki eman zitualako, egun guztian koiñado guztiak illunpean da bakarka eduki zituzten, aurreko egunean apal da lagun artu bazituzten ere.

Legamiak ogia arrotu ta azitzen duan bezela, berai gauean egindako parregarrikeriak burlatzat ta gorrotozko apen zitalak aidetu ta beren onetik atera ta batekoz beste aidatu ziztuan, da benenoz betetako ozpin-galdera ustu ta arantza zorrotz ugari egin zizkioten. Aiek ere gizonak izaki, ta gizon danak biotza eduki, bada.

Berai gauean egin zienaz gogorazi zien gu bere lagunak izan da era ortan saltzea ondo etzegoana, naiz aiek berak gu arrapatzeko jarriak egon. Nola zan diximulo ohea ixpia gurekin etortzea, juxtu-juxtu ordurako iritxi zedin utzi zioten.

Guk aditu genituan txakurren leendabiziko zaunka aiek etziran guri egiñak. Berakin zeudenak ere etzekiten zeini ari ziran. Gu, utsik aurreko egunean gordeta utzitako kontrabandoa artzera jetxi giñanean, berealaxe jarri ziran ondo gordeta, guk zamarekin pasa bear genduan bide ondoan. Irundik etorriak xpiaren koiñaduekin, antxe aukeratu guretzat erorleku egokia beren ustean. Ixilik eta arin zebiltzan, baiña nere arkaitz-gaiñeko txakurrak sumatu zituan.

Txapel arrotza ezagutu ta zaunkaz ekin zion, da ori mirari bat bezela izan zan. Ordura arte, gauez lana genduanean etxera ekartzen nuan zaunkaz asi etzedin. Baiña gau artan, nola nengoan ankatik zauritua, ezin ibili nintzalako, ez nuan ekarri ta eskerrak ari. Kanpotar aiek besteren etxean azaiña aundiak eginda ezarri ziran, da ia bai ederrak egin ere.

Zorrotz zakurra zaunkaz asi zanean, bertako goardienak ernetu ziran, ta geroz ta gertuago zetorkien. Gordeta zeuden lekutik irten egin bear izan zuten. Bestela, balaz an josiko zituzten, da gu une artan gentozen utsik, iges egin asmoz.

Aiek zeuden baiño alderago sartu giñalako besteen txakurretara, ordura arte bi aldetara zaunkatzen zuten, baiña besteak geldi zeuden, ta gu bagentzen.

Ia txakur oiekin bateratu giñanean, guk ez genekian baiña gure zai zeuden bidegurutz ondoan. Ni bertan gelditu ta nere lagunak korrikari eman zioten. Esana dagoan bezela, atzetik segilariekin.

Zakur aiek ez baziran ainbeste aurreratu, edo leentxeago etorri bagaña, gure zai zeudenak nola lekuz aldatu ziran, guri asiko ziran altoka. Eta guk igesari ematean atzetik tiroka, ta bertakoak nola ziran ain gertu, aieri.

Asi ziralako, auek erantzungo zioten, ta gu, esku-utsekoak, alde egingo genduan aal genduanok, ta izkillu-otsak etziran ixilduko, alde batekoak bestekoak menderatu arte.

Alkarren berririk etzutelako, izkillu-astintze negargarria ia sortu; ta guztia ixpi kapoi baten billaukeriz. Kapoia, bai, andrea bai ta ez baitzuan umerik. Ortarakoxe ere balio etzuana zan. Zertarako da alako gizona?

Oraindik geiago. Goñi gizon bezela zebillen gurekin. Baiña Goñi? Goñi ez. Otso ta paltso zuria. Ixpi ura, alegia, ogei ta bat ardiren tartean zebillen *zurittoa* baitzan, iñork igarri gabe.

Artzaiak, artalde batean aker bat badu, illunpean argi bearrik eztu ura billatzeko. Berak botatzen duan usaia nainkoa du sentitzea, ta aixa arkituko du. Baiña gure ondoan zebillen aker kapoitu ari ez genion usairik artzen, aker zikiroak ez baidu usairik; ta bere makurkeri beltza gezur zuri tartean gordetzen zekian.

Guk lana egin da dirua irabaztea generamakian gogoan, da berriz diot: Alakorik iñork egin bear zuanik etzitzaigun jaiotzen.

Naaspillak

Zer gertatu zan, bada? Guk genekiana esana dago. Geren buruak ia egitazko kontrabandistatzat jotzen genituan. Ori azio dexentea baitzan sekula ibili ez dan batentzat. Alako diru mordoska jasotzea, ta gaiñera zer egin genezakean zeñek jakin?

Gure buruko ametsak bertako illeak baiño ugariagoak ziran. Diru arek baiño egintza arek ala irtetzeak geren asmoetan geiago sendotzen gindun, ta gau oskarbietan ikusten ziran ganbara urdiñeko izar xuri guztiak guri lagundu naiez zeudela zirudian.

Iñoiz aldizka beretakoren bat lekuz aldatzen bazan, gu obeto ikusi naiez edo olako zerbait izan zitekean.

Eguraldi txar da ekaizdun goibeletan garbi ikusten genituan lan orrek dituan alde samin da mingotsak. Or ibiltzea etzala udaberriko egun atsegiñetako jolasketa alaia. Baiña, zana zala, zetorrena artzeko prest jarri giñan.

Gure Goñi jaun ura maiz etortzen zitzaigun, neregana beintzat. Makiñatxo bat ordu galduarazi zidan, ta dana zan, guk zerbait irabazi bagenduan, arek geiago jaso zualako ta gutxiago nekatuta.

Lan asko egin bearko genduan berriak ekartzen zizkigun, ta laister asiko giñala ta egoteko gertu. Ura nagusi aundiekin itz eginda etortzen zan, da aiek, batzuek leengoekin segitzen da besteak negozio onek dituan artu-emanak moldatzen zebiltzan arte, Goñi utsik gelditzen.

Alako batean, ia ziur zala egin bearra ikusia zegoan garaian, nik etxe-nagusia jakiñaren gaiñean jarri nuan, esanez leen nola egin genduan da berriro ere izango zala egin bearra. Nik ezer esan gabe agertu bagiña, gaizki artuko baitzuan da badezpada ere obe zalako.

Olako sekreto esatearekin ontzat artu zuan, ta jarraitzeko. Ortarako komeni zala morroia ere gerokin artzea, ta ura ere konforme. Nere atzetik ibiltzeko aproposa baitzan, ta koa-drilla atzeragotik etor zedin, denbora geiago izan zezaten gorde

edo iges egin bearrik bazan. Ta milla aitzaki bagenduan goardiei zer esan asmatzeko, egunero an genbiltzalako.

Gaua nai zuan tokian paseagatik, morroiak egunezko bere lana ondo egin ezkeru nagusiari etzion ajolik. Iru-lau egunetan, gaur izango biar izango, argi egon ondoren, iritxi zan eguna neguko eguraldi trakets gogorrenetako batean. Ango kazkabar ta aize aldagoitsu ta ekaitzak etzuten kaburik. Oitura genduan bezela, ia ain ikasiak geunden lekuetan bakoitza jarri giñan. Nere ta koadrillaren tartean baserriko morroia.

Ori etzan txiki ta asarre, kontrabandisten bigarren mailan jarria bere burua ikusi zuanean. Bere eginbearra erakutsi ta ain arretaz artu baitzuan ainbat arrisku berekin zituan egin bear ura.

Leenetako ez beste bidez joan giñan gau artan; ta, betiko tokira iritxi giñanean bezin azkar Goñi asi zan bere oiturazko linterna kiñuak egiten.

Gau guzia ala igaro alako erauntsi ta aize astinduak artuz itsas-ertzean, da goiza alderatu zanean, egoera triste aren ondoren lo bat geiago ukatu geren buruari ta ezer egin gabe. Aruntzean bezela onuntzean ere. Arriskuko bide danak egin genituan, da urrengo egunean beti bezela lanari jarrai.

Gero jakin genduan, itsaso txarrarengatik, au da, bat-batean txartu zalako, ezin etorri izan ziran gu geunden lekura txaluparekin, ta beste toki batean, aal zuten bezela ustuzuten, berriz eramango ez bazuten.

Itsasoko zenbat gauetako ibillerak baditu arrisku latzak; ta bildurrarekin egunez egingo ez lirakean gauza asko illunez egiten dira.

Gu geiago joan gabe ordukoa egin zuten, ta gau artan naiz ez ezer egin, Goñik jornaltxo eman zigun, zortzina duro, ta berrizko ere gelditu giñan irrikatzen, ta asi ziran gure pentsamentuetan kontrabandoko bideak irekitzen.

Erabat artaraxe asi bear genduala, gure ametsik nagusienak eta jardunik geienak ziran nola egin zitekean; da baita ere Goñiri esan arek ekartzeko itsasoz ta kamioan jarri bitartekoa egingo genduala.

Gaiñera oso erreza zan guretzat. Gauean ustu barkoa, nola zegoan naiko iñaurkin itsas-eskiña aietan, ebakita jarri ta ganaduarekin zakar tartean, bizkarrez baiño errezago iñor gutxierekin da disimulo obean egin zitekeen.

Or genbiltzan geren kontrabando-kontuetan. Gure bizibidea loratzen zijoan irudia artzen genion. Baiña loreak gertuan arantzak izaki, ta askoren artean zein izango dan miñik geien emango diona, ulergaitz eta zail.

Lora billara abiatuta
arantza tartera jausi,
artzen dun miña zenbateiño dan
ezin leike adirazi.
Sendatutzeko laguntza bear
ta guztiak jun igesi,
erori danai bera bultzatzen
geientsuk ditut ikusi

Amaikak esan du onezkero: Kartzelara sartu badute, zeozer egin dualako izango da. Ezer egin gabe ez da iñor joaten kartzelara.

Kontrabandoa nik ez dakit zer dan, baiña edozein moduz ere nazioarentzat kalte aundiko gauza, edo emen bizi garrantzatsat, agian, guk uste baiño txar geiago ekar lezakeana. Kontrabandora joan gabe ere lanerako gogoia duana bizi ditekete beste edozein lanetan saiatuta.

Zer da kontrabandoa? Asiko gera menditik, alegia. Egur-ikatzak baso aundiak dauden lekuan, da langille aukera, ugari egiten dala ta aldameneko nazioan egur gutxi badago, edo langille eskasia, an garestiako dagoala geiago kostatzen dalako, merke dagoanetik garesti dagoanera eramatea da bat. Ikatz ori ez al dago naiko neke ta izerdi ixurita etorri berriz geiagori txupatzeko eman gabe?

Urrengo, ardiak. Gerrateak, urak ondarra bezela gizonak eramantzen dituan tokietan, utsik gelditutako lur alperrik dau-denak ardiz bete nairik badatoz, merkeago-edo saltzeko dau-denak erosi ta badaramazki mendirik mendi; zeini dauka artzai orrek kontu eman bearra, leen ordaindu baditu?

Mandoak, lur-lanetan jardunak, tramankuluen ugari-tzeaz zer egiñik gabe gelditu diranak, aragitarako utsa balio dutenak, bide txarrak dauden basoetan lana egiteko premizko duanak erosita daramazkianak, ez al du munduko bizta-leentzat bearrezko gauza bat egiten?

Komertzio sal-erosketa dendetan daudenetik muga-e-txeak, aduanak, euneko eun kentzen badu, oni ordaindu gabe mendiz edo itsasoz ekarrita, emen merkeago jartzeak ez al du on aundi bat egiten?

Itsasoan dabiltzan arrantzaleak beste aldekoekin ezin al lezateke trukatu edo traturik egin berak arrapatutako arraia-rekin?

Oiei esaten zaie kontrabandoa, ta oientzat daude jarrita lege zorrotzak.

Zein dira egitazko kontrabandista aundienak?

Arria tira ta eskua gordetzen dutenak. Arrantzaleak arrai txikia arrapatzeko sare estua jartzen duan bezela, jende xea eror dedin, berak sare aunditik lasai igarotzen diran bitartean zer egin asmatu dutenen batzuk, oso jaun aundi itxuran ezer gertatu ez balitz bezela dabiltzanak, bat billatu lan ori egingo duana ta orrek itsasoko ta oiñezko ibiltariak pixkanaka billatu uskerizko ordaintza baten truke, ta ondo dijoan bitartean nola ez jarraitu?

Ta erori ezkeron onako jaun fariseotar oiek bakarrari berea ordaintzen diote, ta bakar orrek beste guztiei ortzak erakutsi ta kaixo, motell! Naiz bizi guztiko ondatuak batzuk gelditu, danen gaiñeko jauntxo eskuz ezer ikuitu ez duan zuri oieta-koak berrizko ere gelditzen dira zuri, mantxarrik gabe ta gezur-zulo estaliak.

Erriko zergak kendu zituzten bezela, kendu bitzate probintzietakoak, ta betor lenbailen *Mercado Común* edo askatasun da batasuna. Itxi bitzate gorrotoa sortzen duten gerra-tearen atea, ta zabaldu pake-usaia darion lanerakoaren gogoak, goseak dauden erri aietaraiño luzaturik egoak.

Nik ezagutu nuan ikazkin bat aberastu zana, ez mendiko lanarekin, kalean zeukan ikatz almazen batekin baizik.

Almazenetik aberastu, nola? Pixuan lapurtuta? Ezta pensatu ere. Pixuan ondo ematen zuan, ura botatzen baitzion lasai. Beste esneketari bat berdin. Jakiña, ura botata esango du zenbaitek. Ez, bada, jauna. Litro erdiko neurri berria erosten zuanean, ondoa ireki ta be aldetik jaten zion, da gero estañuarekin berriz erantsi. Esne ona ematen zuan, neurri betea. Beste paltarik etzuan, txikia izatea. Zualako Judasekin partea sumatu zuan artea, ta errez izan zuan aberastea.

Arakin batek, edozeinazienda klaserekin, lepotik txuletak eta espaldatik xerrak ateratzen zituan.

Beste tratolari batek abere zar guztiak gaztetzen zekian aldi motx baterako. Idi ta bei zaarrei adarrak leundu. Ortz berririk? Nik ikusita etzuan jarririk. Esne-beiak saltzerakoan, bere errapea betetzeko adiña esne etzuanari aizea sartu, erostunaren begi betegarri.

Baserritarrak, etxera dirua eramatearren, arraultz onenak gaiñean, babarrun berria gaiñean, zarra azpian; sagar ta udare onenak bistan, ustel kaskarrak gordean. Dendariak gauzarik ederrenak eskaparatean ikusgarri, ta tabernariak edariarekin egiten dituan milagroak Jesukristok ardoarekin egin zuana baiño aundiagokoak.

Nagusiak langilleari aal duan lanik geien egiñarazi ta gutxien ordaindu, eta langilleak aal duan gutxiena egin. Emakumeak gizonezko danak atzetik segika atsegin ditu. Gizonezkoak, bere gogoko duan emakumea aukeran nai luke.

Ta zenbat olako millaka egitazko kontrabando legeak aintzat artzen ez dituanak?

Nere buruari esan dakiodan: Ixildu adi ta goazen bukaera ematera asi degun ariari.

Ikuillu-atxurra

Negua iraulia zan da martxoaren aurren edo bigarren eguna. Baserriko nagusiaren etxean morroia ta ni ari giñan, nik eman da arek gurdian jarri. Zakar pillaren azpian zegoan, ikusten etzala, ikuillu-atxurra ortzez gora; ta alako batean or ankatik sartzen det.

Une artantxe gizon bat azaldu zan guregana, ta geren gauetako laguna bera, kalean bizi zan ezkontuta. Abisuarekin zetorren, alegia, gauean egin bear genduala lana. Neri abisorik onena ikuillu-atxurrak eman zidan gau artan pausorik eman ez nezan.

Ni ari nintzan lana etorri berriak bukatu zuan, da alkarrekin joan giñan baserrira, ni anka lurrean ezin jarriz. Leendabiziko senda-lana laguntzako aretxek egin zidan. Olioa erre ta arekin ondo zulatu ingurua erre.

Leenengotik oso minbera izaten da leen zauritua berriz olio z erretzea, baiña sistima oberik etzegoan; da antxe arkitu nintzan zaurituta ta olio z erreta, gero saldu bear ginduzten eskuetan, da ain esku ta mingain leunez igurtzia.

Gauerako baitzan salketa egiña, ta ez joatearekin tiroa okerreko lekutik irten zitzaion. Azpi-lanak egin zituan bai Goñirekin ta bai Goñiren kontrarioekin. Berak ezer ez baleki bezela gurekin joan.

Gu oraindik begiak ondo zabaltzeko geunden. Olakorik egin zitekeenik ezta bururatu ere. Baiña lanak berak erakusten du nola jokatu, ta pixkanaka zuria beltz biurtzen da.

Nola edo ala ni joatea komeni zan, bada, iñolako moduz lan ura egitezkerok. Ni ezergatik ezin nintzan ibili; baiña ni gabe ezer ezin zezaketen egin, da bizia daukagun arte aal dana saiatu egin bear. Eskubiko ankaren erdian nuan sartua, ta ankaren orpo aldetik trapuz lotu ta altxagarria jarri oiñetakoaren barrutik anka aren gaiñean bota nezan. Miñak min, ibili bearra zegoan pin.

Ala, gaueko amaiketarako izendatutako lekura bildu giñan, ta lentxeagotik zergatik ez aditzera eman alako lana izanda? Gu bertako lautako bakarra danon gaiñetik jarri nai zualako, Goñi aurrena bete zuan zurizkerizko itzez, andik etortzen ibili gabe urrutizkiñez berari abisatzeko, ta guri esango zigula zeregiñaren berri, ta guri momentuan esatea naikoa zala.

Goñik bere asmoak ontzat artzearekin ardo zaragia aizez beteta bezela arrotu zan, da berrogei ta geiago urteko ume baten iñozokeriak nabarmentzen asi zitzaizkan.

Gau artan lan asko zala egin bearra ta bi geiago billatu genituan, gurekin batean joango ziranak. Bietan bat azken mandatariairen koiñadoa, bere etxean zegona, ogei urtekoa, ondarrabitarra.

Garrapoika ardoa ta ogitartekoak ekarri bitartean jardunaldi mikatza izan nuan Goñirekin, aurrez ez jakitearekin, ez nekialako gau artako bidea nola egongo zan berririk; ta, beste aldetik, ibiltzeko moduan ez nengoalako.

Zana zala, abiatzea erabaki genduan. Ni, beti bezela aurretik, errenka, makilla baten arrimoan, Nere atzetik, aurrekoan bezela, baserriko morroia; ta atzetik, Goñi, berekin etorriekin, amasei, eta leengo bi lagun aiekin emezortzi. Beste bi berri etortzeko ziranetatik, bakarra, gure lagunaren koiñadua palta. Ogei ta bat guztiok.

Ondo baiño obeto iritxi giñan itsaso musulariari gau onak ematera, betiko txulo artara. Bi goien leenengo bide-gurutzean gelditurik, ni auen ta beekoen tartean nenbillen danen berri ikusten.

Nik ez nuan gau artan zamarik artu, ez nintzalako gauza.

Lau txalupetan ustu barkoa ta arrantxoia egin. Goiza gerturatzen asi zan, da erabaki genduan bizkarkara bana ez besteak antxe gordetzea urrengo gauean eramateko, ta alaxe egin ere. Bakoitzak bere zama artu ta goruntz abiatu giñan, geren oitura genduan bezela. Gaiñeko bizkarra jira ta bertan ebakita zegoan zakarrez estalita utzi genduan, goiza argitu baiño leen ezkuta gintezen.

Leendabizi utzi genituanak nere etxeko lurretan zeuden, da azkeneko auek etxe-nagusia bizi zan baserriko lurretan.

Leenagoko artan egindako neke gogoangarriak eta ibillera gozagarri ta zoragarriak aztu ziran, beraz. Nere anka oiñazetua bere onean etzegoan. Urrengo egunean lanerako ez nintzan gauza.

Eguna aal zanik gutxien nekatua pasa, berriz, aurreko gauean utzitako lanari eltzeko; ta, esan bezela, danok zintzo bildu giñan, aurreko gauean etorri etzana ez besteak. Ura zergatik etzan agertu? Oraindik ere ezjakiñean nago;

baiña nere belarrietako euli txarraren burrundak etzuan alde egiten.

Ala, betiko eran ekin diogu geren ibillerari. Iritxi giñan leenengoak gordeta utzi genituanetaraiño; bakoitza asi zan berak eraman bear zuanari eldu ta bizkarrean jartzen, aal zuan posturarik onena billatuz; ta oraintxe abiatzera goazela, gau-zomorroen txakurren zaunka. Utzi lurrean artutakoak eta jarri gera zaintzen, ta geroz ta gertuago datoz.

Nik iru txakur neuzkan, da danak asten dira aien zaunkari zaunkaz. An atera zan txakurren zaunka-otsak, gero mendien oiartzunarekin, ingurumari aiek danak txakurrez beteta zeudela zirudian.

Nere etxe ondoko bidetik ibili giñan ordura arte; ta, ni beste iñora joateko nola ez nintzan gauza ankagatik, andik alde egiten asi giñan, da zenbat eta gertuago aien txakurrak bertaigo ta beroago zetozen. Orduan nere lagun guztiak, inbutuan sartu zirala ikusirik, ni bertan utzi ta bide galdutatik aal zuana aal zuan tokira iges egin zuten anketako otzagatik.

Orduan aiei segika aien txakurrak joan ziran, da berak atzetik. Baiña armadunak baiño geiago korritzen da esku utsean gelditu ziran.

Nere txakurrak zaunkaz jarraitzen zuten, alako zalapartarekin arrotu ziralako; ta etzuten gure billa zebiltzanak pentsatzen txakurrak zaunkaz ari ziran tokira iñor etorri bear zuanik. Bestela, aixa asko arrapatuko zuten uso elbarritua. Ez bait neukan iges egiteko kemenik.

Ni sumatu nindutenean, etxeko zaunkalariak ixildu egin ziran. Nik orduan da geiago zaunka eraginarazi nien laiñezatuz, etzitezen konturatu orduan etxeratu nintzanik, ta bat askatu nuan da gau guztian etziran ixildu beren salaketan.

Ni nengoan etxetik ogei ta amar bat metrora zegoan bidean, batera ta bestera gau guztian etziran gelditu gu arrapatu nai ginduztenak.

Oso errenditua nengoan da, etzanda jartzean, lo kuluskak jotzen ninduan, baiña ankako oiñaze ta lagunuen kezkek etzidaten lo egiten uzten.

Goiza alderatu samartu zanean, da argitu baiño leenago, zerbait egiteko, beian arroketan zeuden ogei gizon aietxen billa jetxi nintzan, errenka arroketaraiño. Geren gaueko seña bereziak egiten nituan, baiña etzan ezereen aztarranik inñundik, da polliki-polliki ta kezkatu etxera biurtu nintzan.

Nere txakurrak

Izena *Tik-tak* zuan zakur batek. Au etxean edukitzen nuan. Beste bat, aldameneko arkaitz-gaiñean lotuta, *Zorrotz* zeritzaiona. Ta irugarrena, *Ekarri*, beti nerekin erabiltzen nuana.

Etxekoa aundi ta zaunka gutxiko ta sen izugarria zuana zan. Egunez eltxorik etzan igaroko ark ikusi gabe. Gauaren illunak ingurumari guziko zantzuak belarrietan sartzen zizkan. Sudur onekoa zanez, suman jartzen zanean, azkar igartzen zion zein aldetakoak ziran. Garai batean mendiko betizuak arrapatzen erabiltzen zituztenen arrazakoa. Gorria, lau ankapuntak zuriak, mutur beltza, kokotzetik asi ta azpi guzia zuria, isats motza, belarri tentea, gaztetatik erakutsia ta amaika mandatu egiña.

Arkaitz-gaiñekoa, beltz illetsua, anka motz, soin-tronko luzekoa, demoniño guztiak baiño gaiztoagoa, otso txakur ta atzekoz naastua. Bere ernegazioz, egunez gordean da ixilik egoten zan. Baiña gauez, batez ere, goardien txakurrak ezin zituan inguru artan ikusi. Bera lotuta ta aiek libre ibiltzea ezin eraman nunbait. Aien oinkadak (pausoak) gauean obeto zain-tzeagatik egunez lo egiten zuan. Gauean goardiak zakurrik gabe baziran, etzien zaunkarik egingo. Baiña bikoteak (parejak) beti eramaten zituzten ta beren agintariak ez. Orregatik, beren ustez, auen onerako zegoan ura an. Bestela, kenduara-ziko zidaten; ta, gaiñera, besterik inñor arrotzik sumatzen bazuan goarditakoa etzanik, gogor salatzen zuan. Bere mutur luzeaz subea baiño zorrotzago mintzatzen zekian, zima zitalezko txarkeriz. *Tik-tak* dalakoak amaika amorrazio eman zion da zenbait odol bero alditan orzkaizo ederrak artuta gelditu ere, oso il gabe, bestearen errukiz, ziur asko.

Irugarrena, txakur bitartea, ez aundi ta ez txiki, jostalari utsa, zarpa ugariko ta ille garrantza edo gorritzka, ta emea. Izketan ez beste guztia bazekian. Egunez danak lagun zitu-tuan, baiña gauez? Sentitzen bazuan untxi, gizaki edo beste txakurrik, zaunka nabarmenez adierazten zuan, bere zintzo-tasunez. Mesede ugari egiña zan. Zenbait aldiz gaueko biko-teak beren ibilgune barruan zeuden jakiteko bialdu ta garbi asko aztarrana ekarri izan zidan.

An ez bazeuden, lasai etzanez zai jarriko balitz bezela, sarritan nerekin egonda. Ala erakutsia baitzegoan. Ta, an bazeuden, alako kezkazko antsi ta imentzioak egiñez. Gaueko ibillaldi guztietan nerekin eramaten nuan, ni baiño aurre-raxeagotik zala, ez urrutiegi ta ez gertuegi, atzetik zetozenei garaiz adierazteko estuasunik zanean, da naiko denbora izan zezaten beren buruak ezkutatzeko.

Beltzak

Egille onak gizonari, eguzkiaren bero au guztientzat ber-din, neurririk izendatu gabe, bere printzen argiak mugarik ez duan bezela, maitasunaren aundiz askatasunik zabalena lur-rean bizitzeko eskeiñi zion.

Tamalez, bata bestearen oinkadak neurtzera iritxi gera, ain neurri estu ta parregarriekin ainbat tokitan. Urrutira joan gabe, Espaiñiak erantsita dauzkan ezker-eskubitara begiratuta, beste guztiari alde bat utzita, Prantziri ta Portu-gali.

Azkeneko ontakoak langille purrukatuak izanik, ta alde guztietan ain estimatuak, Prantzira joan nai ta ez uzten. Zer korapillo dago or? Batean jatena urri ta bestean lanerako besoak palta, ta zergatik ez alkarrekin konpontzio bat egin langille auek batetik bestera joateko?

Giza-iltzailleak balira baiño okerrago ibiltzen dira, ta ixil-ka joan bear.

Goñiren bitartez gizon bat etorri zitzaidan estu ta presa-ka. Muga-inguruko jendeak portugesei *beltzak* esaten diote, euskerazko itz au besteak ez ulertzeagatik. Gizon onek berro-

gei ta amar langille *beltz* eramateko bideko eginkizuna artua zuan. Bakoitzari kentzen zion garai artan zortzi milla laurleko (pezeta). Ortik egin bear zituan bere joan-etorri guztiak. Baiña bera zebillen ibilleratik aldatu bearra izan zuan.

Zer gertatu zitzaion? Bera konpontzen zan mugazaiña lekuz aldatu ta berria etorria zala, ta arekin ezertan asteko oraindik berri ta derrior nola edo ala egin bear, beltzak beren etxeetatik atereak baitziran, Leen mendiz bezela itsasoz pentsatu zuan. Aldiko amar ekarri kotxean da, danak etortzean, urontzi batean eraman aiek.

Aldiko amarnaka ekartzea egin zitekean, baiña goardiak bertan ibiltzen ziran zakurrekin, da ainbeste gizonen usaia azkar artuko zuten, ainbeste denboran toki batean bazeuden.

Ta auxe asmatu genduan: Nik banuan Donostian aleman albaitero ezagun bat, da ari esatea txakur emea berotzeko, alta jartzeko, umeak arrerazteko. Zer egin? Ark emandako pastilla batzuk irintsiarazi nizkan da ark esan bezela jarri zan.

–Orain nola asiko gera? –galdetu zidan estu zegoan gizon arek. Nik erantzun nion:

–Uste det lanik zaillena egin degula.

–Ori ala balitz, obe litzake –esan zidan.

Azkenik era ontan erabaki genduan: Aldika amar ekarri egunero, aal bazan; noiz da zer ordutan iritxiko ziran garaiz abisatu ta ni joaten nintzan ostatura; gaueko amabietatik goizeko laurak arte etorri bear zutela, ta ni moldatuko nintzala.

Goardiei esan nien nere *Ekarri* nola zegoan ar-miñetan, da zaletasun orrek amabost egunetik ogeira irauten die, ta, alegia, beren zakurrei kontu ez bazieten artzen, iges egingo zietela. Ni zein bidetatik ibiliko nintzan esan nien; da, ala, alde artara joaten etzieten uzten iges egin bildurrez.

Nik beren oinkadak ondo zaintzen nituan, da *Beltzen* abisoa artu aurretik txakur *Tik-tak* eramaten nuan ostatura. Ni joaten nintzan gau-zomorroen ibillerak zaintzera, ta ostalariak txakurrari lepoan jartzen zion mandatua artu zuan.

Erakutsitako bidetik zuzen asko an etortzen zan au. Lan au beti illundu ezkeroztik egiten zan. Ola, gau bakoitzean amarnaka, lautan sartu genituan berrogei. Ganbaran belar ondua zabaldu ta ogia ta ur utsarekin ixil asko an egoten ziran, purgatorioko animak balira bezela, lanera joateko egun zoragarri aren zai.

Goardien txakurrak ondo artzen zuten aien usaia; baiña emetako antsiarena zutelako etzieten alderatzen uzten.

Leen esan det *Beltzak* ogia ta urarekin bakarrik egoten zirala. Baiña batek bazuan sardin lata bat, ta etzuan idiki nai lanean asi arte. Baiña gosearen tentazioak menderatu ta asi egin zuan.

Asi bazuan asi, or intosikatu zan. Zer egin orain? Ara etxean naiko komeri. Iñora ikustera joan gabe, medikua ekarri.

–Baiña zeñentzat –esango zuten an zeuden goardiak–. Astoarentzat ala txakurren batentzat?

Aientzat albaitea bear, bada. Bera berriz zutik ibiltzeko etzan gauza. Mantzanilla ura eman genion, baiña berdin zan arentzat. Lertu bear zuan gora ta beera. Jaiotzea beste kulparik izan ez ta ibillera ederra; ta guztia, bizitzeko lana egi-teagatik.

Bearrak gauza asko erakusten du ta luzaro egoterik etze-goan, bertan ilda ikusi nai ez bagenduan. Ala, ardi beltz bat banuan da ura il nuan. Ankak eta burua utzi narruari ta gaiñerako danak kendu. Berriz belarrez bete barru guztia, josi ta, osorik balego bezela, ariñago izateagatik, kristau *bel-tza* jarri astoan, da ardi beltza bere gaiñean, aal zan txukunena ta pollikiena, azpikoa gordetzen zuala, ta goardia zegoen ondoan pasatu ta arratsalde erdian eramane nuan sendagillearengana.

Goardiak galdetu zidan ardi illarekin ikusirik:

–¿*Qué, has matado la oveja?*

–¿*Qué va! Ella se ha caído de las peñas y se ha roto el pescuezo* –esan nion.

–Y ¿a dónde la llevas?

–A la carnicería.

Ta ala zion:

–Ya podías llevarla a nuestro cuartelillo.

Eskerrak asto gaiñeko beltzak etzuala erderaz ezer entenditzen.

Sendagillea ezaguna nuan da dana garbi adierazi nion, ondo atenditu zezan. Bere etxeko oean sartu ta berealaxe litro beteko suerozko indizioa iztarretik eman zion. Ura bertan utzi ta astoarekin etxeratu nintzan.

Egun artan etziran etorri palta ziran beste amarrak. Urrengo egunean, besteak bezela etxean sartu genituan. Orain etxetik ur-ontzirakoa egitea palta zan.

Gau ta egun etxetik itsas-bidera bistan egoten ziran goardiak, ta nola igaro aien ikuspidetik, ara begirik kendu gabe egoteko agindua bazuten?

Au aspalditik janda neukan nola egin. Bigarren gauerako itsastarrei esan nien zer garaitan da zer lekutara etorri, minutu baten okerrik gabe, ta ala egin zuten.

Era ontan *beltzei* mintzatu nintzaien: Egunezko ta gaueko goardiak txandatzen ziran une artan, berak ikusi gabe ni joango nintzala beren ondarretik, txakur emea katetik artuta; ta aien txakurrak sentituko zutela, ta orain beste aldera zaunkatzearekin, alde artara goardiak joango zirala.

Esan da egin. Ango eguneko konsignak ematen da entzuten ari ziran bitartean, an zegoan orma-sastraka, ta nik ardien aitzakian jarri nuan esien kontratik *Ekarri*, ta biok instant batean ezkutatu giñan.

Ankak ezin jaso, zuzenean itsas aldera jo nuan. Azkar joanagatik, arroketara baiño len aien txakur batek arrapatu ginduan.

Mota guztietako emeak, umeartzeko guraz daudenean, berengatik arra lelotua uzten duten legez, an gelditu zan emearen bidez bere trebetasuna galduta, ain errespetoko zan txakur aundi ura.

Ni nerearekin itsasora sartu nintzan, leendabiziko igari ta gero arrocketatik eta aal zan bezela, ur-ontzia etortzeko zan lekuraiño.

Bosteunen bat metrora andik irten lurrera, jo etxera, jantzia aldatu ta berrogei ta bederatzi *beltze*kin berriz ur-ontzira. An sartu aiek eta gaur arte. Ez ditut geiago ikusi.

Bitarte ortan, ni leenengo jetxi nintzan bide artan beera joan da itsas-ondoan zebiltzan mugazaiñak. Ni txakurrarekin uretara sartu nintzalako, an galtzen zitzaien usaia aien txakurrei.

Zer ote zan zalantzan zebiltzala ara ta ona, beren izkiliuak sutzeko prest jarrita, len esandako aldera sumatu zuten ur-ontzi koxkorren bat nola atera zan. Illun zegoan ta ezin zuten ezer ikusi.

Ikusten ez duan begiak ez duala negarrik egiten, baiña belarriak zerbait sentitu badu kezka beti gelditzen da. Ola gelditu ziran aiek ere, esku utsean da kezkaz beteak.

Andik bi egunera, Prantziko Anglet-eko itsasoaren ukalondoan lurreratzen ari zerala, jendarmeak arrapatu zituzten, ta danak ostera beren etxeetara eramane, espetxez-espetxe aldatuz, iru-lau illabeteren buruan.

Gaixotuari, ondo jarri zanean, esan genion nola joan ziran bere lagunak. Bi urteko umeak bezela egiten zuan negar. Gero esan genion nola arrapatu zituzten, ta orduan, bere sendi guztia galdutako guraso bat balitz bezela, leen baiño ere malko sentikorragoak ixurtzen zitzaizkion bere lagunetaz kupituta.

Sendagillea ere oso biotz samurtu ta errukitu zan gizon koitadu aren bizi garratza ikusita, Sendagai danak, bere eginkizunak, bertako egona ta joan-etorri guztiena xoxik etzion kendu.

Ainbat eskeiñi egin zizkan *beltz* gizarajoak, baiña etzion ezer artu.

Oraindik geiago. Sendagille jaun prestu arek lanerako agiria atera (*cart de travail*), artu bere kotxean da zuzenean Prantzian lana egin bear zuan tokiraiño eramane zuan.

Beltz arek, leen samiñez negar egin bazuan, orain malko mardulagoak irtetzen zitzaizkion ain suerte ona beretzat ikusita.

Sendagillari, beste batzuen diru guztiak baiño gozotasun da atsegin geiago eman zion bere etxean sartu zan *beltz* errukarri ura ain ondo ta pozez uzteak.

Beartasunean laguntzeak ainbeste balio duan dirurik ez baita, ezta gizona alaitzeko biotza asetzea bezelakorik. Alkarrren premiz bizi bagera ere olakoak oso banakatan izaten dira.

Banaka oietan uzkur egiteak ekartzen ditu norberetzat kalteak, itxi dizkiolako onbideari ateak.

Orduan gertuan ibilitako gizaki aiekin nere gogoan bat egin nuan. Sarean erori ziran aien samiñak, eta pozkidaz bete zanaren zorionarekin alkarturik, naiz geroztik ikusi ez aietakorik.

Nere itzak balio baldin balu, agintariei esango nieke askatasun pixka bat geixego uzteko lana egin nai dutenei.

Aidekoa ta urekoa, aal duana aal duan tokian ibili leike. Lurtarrak mugak eta sareak jartzen dizkiogu. Bakoitzak beretzat iñork ez; danak besterentzat, ta danok sare barruan gaude. Gu erori giñan batean, da bertan arrapatu betean.

Beste batzuek negozio aunditxoetan sartzean edo gauza gaizki ateratzean. Beste zenbait politikarengatik. Ainbat zaar da gazte, batez ere gazteak geiago azidentez. Ikusten ez diran sare asko daude; erori ta gero, danak garbi agiri dira.

Danok arriskuan gaude, beraz, ta erortzen danari geient-suak esaten diogu, lagundu bearrean: «Ez al uan ikusten?». Ta, iñoiz irtetzen bada, beste sare batzuk bota gaiñetik. Auek bai ez dirala ikusten. Mingain pozoia darionak zabaltzen ditu ezkil-ots txarrak.

Olakoak merezi ditu moztutzea mingaiña da beste zuztarrak. Ta azkenik iñor ez da gelditzen eriotzaren atzapar lapurrak daukan sarera erori gabe. Bitarteko sare ta sare-jartzaille, danak artxek biltzen ditu.

Oilloak

Nik oso arraza oneko oilloak neuzkan batzuk, da aien arraultzak gorde egiten nituan eskatzen zuanari emateko. Batzutan eskatu ainbeste ezin osatu izaten nuan, da sobratzean jaso egiten nituan, aurrena zetorrenari emateko.

Baiña naaspil batzuen ondoren jendea nigandik izutu zan. Arkume bat ikusi ta otsoa dala iruditzen baita, ez du arkumeak izuaren errurik, irudipenak baizik. Ala ta guztiz, oilloak arraultzak egiten zituzten, da nik danak jaso.

Nere etxeak bi ate zituan, da atzeko aldekoa, erdiz bekoa, zirrikituarekin egoten zan, ardi edo auntzak sartu ta atera zitezen.

Erori giñan ezkeroz nola ez bait nintzan gaez an gelditzen, goardiak lasai zebiltzan, da danak nere kontrarako alkar ondo artzen zuten, da gauetan ate artatik sartu ta etxe barruan egoten ziran.

Ala, arraultza pilla an ikusi zutenean, artzeko eskubidea balute bezela, asi ziran batzuk artzen aldiko pixka bat, ta azkenerako danak. Ni ezer esatera ez nintzan ausartzen, da Gabon gauean oillarra ta bost oillo il da jan zituzten. Ni ala ta guztiz ere ixilik nenbillen. Zeiñen erreza dan eroritako enborrean ezpalak ateratzea!

Baiña bear baiño geiago ateratzen badira, ta danak surtara bota, gar aundiegia egiten dute, ta alaxe gertatu zan. Gu erori giñanean, kaboa etorri berria zan da etzuten kastigatu. Baiña gu ibili giñan lekuan serbizioa zuan bitako zaarrena illabetean itzalean eduki zuten zabarkeriagatik, *por negligencia en el servicio*.

Ura etorri zanean, aren txinpartak etziran gozoak, leen lagun bagiñan ere, bere burua ala engañatua ikustean, ta miñik aundiena illabeteko giltzapeak eman zion. Orain nere kalterako etzekian zer egin. Kaboa zearo bete zuan nere aurkarako, ta nere oillo, arraultza, etzeko egur da artzeko modukoa zan guztiarekin, artzeko beren eskubidea zuten, ez iñork emana. Baiña nik ezertxo ere ez esaten, da aintzakotzat artu ere ez ango litxarkeri aiek. Bazijoan denbora ta asi nin-

tzan kaboaren andre ta bere aizpari esnea eramaten. Ontan, egun batez, kabo orrek esaten dit arraultza ta oillo aien kontua. Nik aztuta neukala uste zuan, da ez aditua bezelatsu egin nion, neri zerbait saltsa billatu naiean zebillelako.

Leenago berak nere kalterako esan zituan itz batzuk ere gogoan neuzkan, da garbi asko ezagun zuan barren betearekin zerbait esan naiean zegoala. Baiña nik nola ez nekien zer, ez nintzan askorik piatzen.

Aren izketarako gogo sutsu ta eutsi eziñezkoa ikusi arren, ni andik aienatuarazteko zerbaiten aitzaki billa ote zebillen.

Berriro ere, ondoko egun batez, or ekin dit serio baiña umil; ta, ala jarri zanean, nik zeaztasun guztiekin zer da zenbat ziran garbi esan nion, da uste det dexente estutu zala. Bera ango lapur danen buru baitzan, ta serbizioko garaian otordua egin da etxe barruan juergan ibilitakoa. Neregatik danak libre ziran, beren artean okertu ez balira.

Geroago aitortu zidanez, beren artean sortu zan gorroto bizia. Estu ta larri etorri zitzaidan, esanez:

–Guillermo, vamos a ultimar aquel asunto de las gallinas.

Ta garbi mintzatu zitzaidan. Nik aurrekoan esan bezela zala ta ordainduko zidala dana. Baiña mesede bat eskatuko zidala bere andre ta semeagatik. Nik zan bezela esaten banuan, galdua zegoala. Jantzia kentzen ez bazioten ere, urruti desterratuko zutela, ta betiko beztua geldituko zala, *con mancha en la hoja de servicio.*

Leenago neretzat itz min da ozpintsuak bazituan ere, ederki gozatua ta umil ta xuabe jarri zitzaidan. Emen gerok azke ikusten geranean, beerago dauden lotuak eroriak edo altxatzerik izan ez dutenak oso aixa neurtzen ditugu, gerok darabilkigun neurriarekin. Baiña danoi etortzen zaiugu ordu bat bestek neurtu bear gaituana, batzuei leentxeago ta besteei geroxeago, ta orduan dira kontuak. Nork bere arrazoiak balio ez ta bestek egiten duanera konformatu bear.

Geren oiñazpiko lur au sutan jarriko balitz, uretara putzura sartuko giñake; ta, putzuan gaudela, ito baiño leen,

naiz burni guritua izan eltzeko moduan, eskuak berari ezarri, azkeneko erioan bagaude larri.

Jaiotako guztiok il bear degulako muga oietara iritxi bearean gera, batzuk bizieran edo bizibidean gabiltzala, eta beste guztiak eta danak bizi onen amaieran. Baiña guztiok bai noizbait. Ez da iñor oiek ezagutu gabe ario esanda egan zeruratzen.

Orrelaxe, usterik gutxien zuan garaian, iritxi zitzaion kabo ari ere bere burua besteren eskuetan utzi bearra, ta zeinnetan gaiñera? Berak leen berak zuan ondamendirik aundienak ekartzen alegiñak egin zituanarenetan. Ark zer merezi zuan orduan? Berak egiñaren ordain justua? Geron egiñaren ordain neurriarekin askotan geldituko giñake errukarri.

Olaxe arkitu zan, bada, gure kabo jaun leen gizatxar zan zeken ura; arrunt xotildua ta galtzak bere lanekin, bere etorkizuna nere gain utzita. Zein aldetatik agertuko ote zan leen jotako trumoi aien erantzuna entzun zai.

Bazekian nik ez nuala aiengatik trumoi-otsik aterako; baiña baita ere bazekian trumoirik gabeko tximistak dituan argi, bizitasun da sua nere barrenean gordeak neuzkala, ta oiek iges egingo ote zidaten edo agertuko ote nituan bildur zan. Naiz ari kalte egitearren ez izan, nere barruko karga ustu ezkeru, bere azpian lertuko ote zuan?

Bere kezkatagiko arrak eztenkatzen zuan, esaten ziolarik: «Oraintxe artuko dituk txerrimuniak ordaiñetan». Aritik zintzilika ezpatak zerabilzkian balantzak erori ta arrapatuko ote zuten zituan zalantzak.

Aldi artan kezka utsetan bizi zan. Etzuan jaten, etzuan lorik egiten, baizik edan ta erre. Batekin busti ta bestearekin legortu egiten zan garaian, ez zitzaion oartu nerekin obe zuala etsai txar baiño aingeru biurtu.

Leenagotik bapo alkar artu ta ainbeste ezegiteko egin zizkidaten, ustez lagun ziran arte, ta lagunik aundienak asarretzean etsairik okerrenak izaten.

Kaboak bere etxera bildu bearra zeukan, pamiliko aita zalako. Beste bere laguna urrutitik etorria zan, da an bere

pamilia utzita emen etxe-bizitzarik etzeukalako, naiz ezkondua izan, bere burua mutil libre balitz bezela azaltzen zuan, da or neskatx bat berari begira jarrita zuan. Kaboari beste ainbeste egin naiaren gogoa sortu zitzaion, ta au da gertatu zana: Azaburu bat kabitzen dan eltzean bi sartu nai badira, lertu edo azkar gainez egingo du, ta orixe gerta zitzaien bi liztor mizto zorrozduan aieri, eskubiderik etzuten lekuko ezta miazkatu nai zutelako.

Berekoitasunaren indar maltzurrez astindu zituzten alkarren arteko utsak, eta gelditu ziran bata bestearenganako gorroto makurraren txinparta gorri biziak agirian sua zeriotela.

Kaboak ezin eramán zuan bera bezela ezkondua ta bera baiño mailla beeragokoa andereño baten borondatearen jabe izatea. Au etzebillen bere lagunari kalte egin nai ziolako, ezta ere gezur borobillak sinistatuz zebillen inoxente ari mesede egin naiez. Bakar-bakarrik, leen esan degun ezti-leku osoaren errege izan nai zualako, naiz bere etxean eduki legezko ezkonkidea.

Baiña etzuan iritxi. Neskatx tolesgabe ari kaboak garbi adierazi zion ordura arte engaiñatzen zebillenaren berri, bere barrengoak ixillean gordeta, artatik ondo ezaguturik bien asmoak zer ziran bata bestearen aitzaki egiñez. Bietan iñork etzuan geiago aren alderdirik izan, orduan zerabilzkian ametsak loratzeko, ta beren ezkontza bidegabearen zaletasunak ekarri zizkien samintasun garratzak irentsi bear izan zituzten, alkarri aal zuten apentzarik txarrenak egiñez.

Joxekutz

Joxekutz bataio izenez deituko zitzaion mutil bat jaio zan 1927ko maiatzaren 3an, Gipuzkoako erri txiki batean, Orexako Aritzondo baserrian, aita Praisku ta ama Kaxintagandik. Senideetan zazpigarrena zan. Bost anai ta arreba bat zaarragoak.

Bi gurasotan ama zan bertakoa; aita, berriz, ezkontzaz etorria.

Maizterrak ziran. Urtero Santo Tomasetan errenta txintxo pagatzen zuten beren kapoi ta guzti, ordaiñez nagusiaren esker ona bakallau batekin jasoz, oitura zaarra zan bezela usuarioan.

Beti bezela urte artan ere joan zan bere diru-mordoska entregatzera nagusi prestuari. Baiña urte artan ustegabeko ostikoa eman zion nagusiak; alegia, etxea saldu bear zuala ta erosi nai bazuan, bera zala leenengo. Ezin bazezakeen, be-rriz, beste norbaiti eskeiñi bearko ziola.

Erantzun zion, eskerrik asko, baiña etzitzaiola irixten ba-serria erosteko diña diru; pamili gaztea zeukala ta jateko asko ta irabazteko gutxi zeudela. Baiña mesede bat eskatzen ziola: Erosten zuana beste aberats bat baldin bazan, esateko, pamilia kozkortu arte beintzat bertan bizitzen uzteko; erostu-nak bertara bizitera joan nai bazuan, besterenik ez bazan ere, Jaungoikoaren errukia izango al zutela.

Nagusi jaunaren erantzuna izan zan zuzena ta betea. Se-me txikienak komunio aundia egin arteko epea erostunari berak eskatuko ziola, ta bien bitartean jarrai zezala lasai ta trankil lanean.

Geroztik etzuan Praiskuk leengo lanerako pozik. Perizalea ez bazan ere, zortziro asi zan ganaduaren prezioaren gora-beerak eta beste etxebizitza berri billa edo galdezka.

Etorkizunaz pentsatzen alako buruausteak zerabilzkian bitartean, Joxekutz ez beste seme-alaba guztiak serbitzera morroi ta neskame bidali zituan, gaixoak gazte askorik, man-tenu truke baiño asko geiagorik gabe.

Aita-amaren maitetasun beroa ta senideen goxotasun biguiña utzi ta besteren etxeko eskoba ordetza egitera, zaa-rrena amalau urte bete gabeko neskato koskorra, ta beste guztiak saski batean sartzeko modukoak.

Joxekutzek sei urte besterik etzitian, lau palta komunio aundia egiteko; ta, eskolara joan bearrean da dotriña ikasi orde z bei-kontuan ibili bear izaten zuan.

Esan bezela, Praiskuri lanerako gogoak joan zitzaizkan nagusiaren abisu ura artu ezkeroz, eta lurra gorrizteari uz-

ten asi zan, da ala beiei bertan lanean janarazi belaze ta soro geienak.

Txomin

Beren auzorik gertueneko baserriak Gain-alai zuan izena, urrutiko gaillur asko ikusten baitziran bertatik. Ango etxe ontan bazan beste azi-muga artutako mutil bat. Egunero uda ta negu, eguraldi on da txaar, beren beiak larrera eramaten zituzten.

Aritzondo terrenoekin peante zuten sail bat, Basoaundi izena zuana, kasko batean. An aizerik etzan paltatzen urte osoan egun bakar batean ere. Eguzki aldetik urki zaar batzuk zeuden; laiotzetik, berriz, pago motz mordoska bat; auen tartean, lubaki aundi batzuk, antziñako gerrateetan egindakoak.

Dozena erdi bat bidetxior mutur batetik besteraiño alde-rik alde, Naparroatik ardoa bizkarrez ekartzen zuteneko mando-bideak. Mugarri barrunbe guztia, arbola azpietatik aparte ote zaarrak artuta zegoan, berak baiño bi alako altua-goak bai aixa.

Etxean marruz ixiltzen etziralako, aize sana artzeagatik edo gosea aztutzearren ez dakigu zergatik, baiña egunero bere bisita egiñarazten zien.

Mutil onek Domingo zuan bere kristau izena, etxeako Txomin deitzen bazioten ere. Txomin onek, bei-zai zegoala, aideko askoren kantuak aditzen zitualako-edo, izugarritzko gogo zuan puntu bakarreko bertsoak botatzeko. Ola zuan oitura, zana zala erantzuteko. Iñork esaten bazion:

–Kaixo, motell! Zer degu, Txomin?

–Gaur ere gosea ta sabeletik min.

Besteak bertsoz erantzuten bazion, beti bera azkena gelditzea gustatzen zitzaion.

Udaberriko egun batez, bera eserita zegoan lasai itzalean. Zegoan pagoaren gaiñean kukua ari zitzaion kuku ta kuku. Berari begira jarri ta Txomiñek ekin zion: Bazetorrek amaika i bezelako kaiku.

Beste txori mota bat ere bada, txortxintxa edo pinpiña deritzaiona. Oso mintzo zorrotza du. Umeak dauzkan kabira inguratu ezker, arra ez da ixiltzen ere. Uste gabe bat-batean ala asi zitzaion txoritxo ori: pin-pin da pin-pin. Arentzat ere sortu zuan:

–Ik ez dek ixilduko Txomin.

Zaunkaz ari ziran zakur guztiei etzien pakean uzten:

–Au-au egiten al dek? Ni bat nauk, ez lau.

Beste auzoko gizon bat andik zijoalarik, bein ala esan zion, nola ez bait zeukaten jaten askorik beiak zebiltzan tokian, berak baiño altuagoko ote punta zorrotz tarte oietan. Eskerrak argal da plako zeudela ta aixa kabitzen zirala edozein zirrikitu txikitán.

Orduan ere aizegorriak bi begiak atera bear zituan da zirikatu nairik, gizona:

–Bei auek bazeukatek naiko aize otza ta otea.

Txomin beti bezela burutik argi zegoan da urdailletik garbi, ta bere erantzuna:

–Gosea izutzeko oberik bai ote'a?

Gizonak:

–Tripa jartzea belarrez betea.

Txominek:

–Ortxe ari dira sartzen danak batea.

Gizonak:

–Aize onek ere izango dik, bada, nunbait atea.

Txominek:

–Baiña ixterik ez dago, nola duan botea.

Bei gaixo aiek bazuten naiko penitentzi zenbait aize bolarratan, larre tokiko ote zulatuak artzen da beren ezurrei zutik eusten.

Neguan etzuten manta edo estalki bearrik izaten, oztu ta erroidea edo errapeko miña ez arrapatzeko. Illea tente erabiltzen baitzuten, bizkarreko koskak, saiets-ezurak eta errapea ondo tapatuz.

Ezur ondoko aragiak indarrrik geiena izaten duala esaten dute, ta ala bear du izan alako illea azitzeko ta jaten geiagorik gabe arekin biziari iraurarazteko.

Bigantxa bat bazuten Txordo izena zuana, bere bizi guztian umerik egin gabea ta susaldu ere etzana.

Egun batez, Aritzondoko Praiskurekin topaturik, jakitun egin zan zer zan ona beiak susaltzeko: Baba erreak ematea. Txomiñek proba egitea pentsatu zuan. Etxera joan zan bezin laister gurasoei esan zien jakin zuanaren berri ta bere asmoa.

Aitak gogorki erantzun zion ea nundik eman bear zion, berentzat diña juxtu zeukatela-ta.

Babarrun berriak etorri bitartekoa amak katilluarekin neurtua zeukan, egunean zenbat jarri jakin zezan. Txomiñek, berriz, ume bat ikusi nai zion Txordori.

Etxean etzuten iñoiz beirik jeizten, esne askorik etzuten eukiko ere ta. Danak txekorrei edaten uzten zieten, zeukaten pittina.

Baiña Txomin, batez ere maiatz aldean, bapo txixportu oi zan. Lanean zebiltzala, beiei titia artu eskuekin ezpainenetan punta jarritz, ta bapo sabela esnez berdintzen zuan. Argatik ibiltzen zan udalde guztian kirkirra baiño geiago ixildu gabe.

Alde ederra zeukaten bei umatu berriaren bi esne edaleak, bat ikuilluan ama noiz etorriko marruka, ta bestea pagoen itzalean txori kantariei siñuka.

Ala pentsatu zuan, Txordo umatzen bazan, esne geiago edateko era izango zuala, ta etxekoei esan bear ziela berak jan bear zuan babaren erdia erre ta Txordori emateko.

Esan da egin, gutxienez iru illabetean, babak kastatu xamartu ziran arte, Txomiñen babaren erdiak Txordok jan ziotuan, danboliñean erreta. Ikusirik etzala berotzen, bere amorrazioan urrengo egunean berebiziko jipoia bizkarretik pentsu legorra akuilluz eman zion.

–Nik jan bear nituan babak janda ez aizela susa jarriko? –esan da esku batekin isatsetik eldu ta besterekin jo ta jo–. Babak ez baaute berotu, nik berotuko diat iri bizkarra.

Polaiñak jasoarazi zizkion da egun artako otzak kendu ere bai.

Txomiñek espero zuan babak bukatu baiño len mugiaraziko zuala, baiña kukuak oker jo zion. Labe otzak berotzen denbora asko bear nunbait.

Aidekoen gisa, bere poz eta penak kantatuz errezago esan edo ustutzen zituan Txomiñek, ta barrua lasatzeko bertso batzuk Txordori atera zizkion. Leenengoa:

Aurten beteak ditu
emeretzi urte,
ogeigarrena eztu
oso aparte.
Albaiteruai eman
bear diot parte:
baba erreak mellik
egin ez diote.
Neretzako kalte;
banego alkate,
lepotik bi kate
jarriko nizkake,
lotuta egon dedin
umatu arte.

Onean ez bazan txarrean umea eragiñaraztea pentsatu zuan. Baba erreak emateari utzi zion ezkeroztik luzaroan eguneroko pentsu legorra bizkarretik artu bear izan zuan.

Arako Xenpelarren bertso ura askotan kantatu oi zuan:

Ori umatzian
esnia etxian,
gazta abatsian,
gazura arratsian.
Belarrak gizenduko
du maiatzian.

Txordorekin bere mandamenturik printzipalena ori zuan:

Belarrak gizenduko
du maiatzian.

Da:

Neroni esnez ase
ori umatzian.

Txomiñek zionez, Xenpelarren betroiaren antz irudi berekoa ta kasta ta arrazakoa derrigor bear zuala izan Txordok. Bat ernari esperantzekoa ta bestea antzu edo aketza. Nolanai ere, biak uztarrarian lotzeko kide modukoak. Batek dio:

Lurrera botatzen du
elbiaren kargak.

Eta bestek:

Ezin jasorik dabil
daduzkan illak.

Biak epoka batean tokatu balira? Ai zer nolako pareta Usurbilgo arri aundiari eransteko. Bi bertsolariak itzai jarrita, beren beiekin izango zuten beste bertso parra eragiñarazteko batzuk ateratzeko gaia. Esango zituzten epelak.

Txomiñek arreba bakarra zuan, bera baiño bi urte zaarrra-go. Beren garaira iritxi ziranean, aitag, guraso onak egin bear duan eran, garbi adierazi zien, ortarako deituta, semea-ri etxean gelditzea, Euskal Erriko oituraz, tokatzen zitzaiola. Baiña ortarako leenbaitleen andregaiia billa zezala, ta alaba Arantxak, berdin; ez bazuan senargairik, ortan ibiltzen ziran uztargilleetako⁶ bati berak esango ziola.

Txomiñek azkar erantzun zuan bazeukala.

-Badekela?

-Bai.

-Zein dek, bada?

-Etxezabaleko Begoña.

Aita arriturik gelditu zan, ain etxe oneko ta neskatx ederraz mintzatu zitzaionean.

⁶ Ezkontzak antolatzen dituztenak, *Casamenteros*.

–Ta aspalditik tratatzen al dek berarekin? Edo noiztik zerate alkar-maiteak?

Pentsatzen luzaro egon gabe, erantzuna:

–Txikitatik.

–Obe, obe.

–Nik leendabiziko ikusi nuan une beretik maite det, eta uste det berak ere maite nauela. Alkarrekin topatzen geroan da izketan asi ordukoxe bi masaillak gorri-gorri egiten zaizkio, ta otsan-otsana gelditzen da, ta ortan antzematen diot. Berari galdetzera ez naiz oraindik atrebitu, aserretu edo ezetz esango didan bildurrez. Baiña anai Xantirekin konpian-tza aundia det. Koiñao bagiña bezela ibiltzen gera biok; da ari urrena ikusten detan bezin pronto galdetuko diot arreba Begoñari esateko nerekin ezkontzeko konporme al dagoan.

Urrengo igandean zortzitako mezan izan da alkarrekin juntatu ziran Txomin da Xanti, gosari txikia egitera biak, leen ere askotan joan oi ziran bezela. Ostatura sartu ta zerbait jan edan egin zuten, gailletak eta naastutik. Naastu au izaten zan Loidi ta ardo txuria erdizka basora, edontzira, bota ta artzen zutena. Itzak aixa etortzen asi zitzairenean, Txomin asi zan bere gorde-kontuak xamurki jaulkitzen.

–Bazirudik biok koiñaduak gerala.

–Ta ez al giñezkek izan?

–Ori gure esku balego bai.

–Ori gure esku zegok, bada. Guk nai ez badegu ez gaituk izango.

–Ta nai badegu, ziur al gautxeudek?

–Besteren batek ere nai izan bearako duala?

–Begoñak, alegia?

–Ik arreba dekan ezkerro, esango al diok nerekin ezkonduko al litzaken?

Xantik ondo bazekian Begoña nola begira zegoan, baiña, naiz ta lagunak izan, Txomin deusik jakin gabe gelditu zan Xantiren aotik. Bakarrik auxe zan esan ziona:

–Bakoitzak beretzako uztar-lagunaren billa norbera joan bear dik. Ori zuen egitekoa dek. Nola edo ala edorrek biotza-
ren ispillua agertu bear diok.

Ala, lagunaren kontseju edo aolkuz karta eskutitz bat bidali zion bere kutun bakarrari, itz auek jartzen zizkala:

“Begoña maite-maitea: Gauza bat galdetzera natorkizu. Auxe bakarrik jakin nai nuke. Nik, zuk ego-
sitako babarrun gorriak janez bizi izateko gogoia daukat. Nerekin kabi batean lo egiteko konporme al zaude zu?

Leenbaileen erantzun mesedez. Ondo bizi.

Ikusi arte leendabizi. Eskerrik asko”.

Begoña Etxamunoko Erramun seme zaarrenarekin lantant-zaletua zegoan. Baiña Etxemunoko maiorazkoari begietatik etzitzaion sartzen Begoña Etxezabalekoa. Onen maite-miñari etzion jaramonik egiten Txomiñek bezela.

An zebillen Begoña andereñoa burua txoriz beteta, oiñezkorik nai ez ta zaldizkorik etortzen ez. Ama Birjiña ta santu guztiei nobenak egiten da pixkanaka-pixkanaka gaztearoko lore-usaiak galtzen.

Bien bitartean, Txomin zai zer erantzun artuko ote zuan.

Etzion batere erantzun. Ori baiño okerrago oraindik: Leen ain lagunak ziranak, gero, gauza txar bat egin balu bezela, ezta begiratu ere geiago.

Denboralditxo batean alkarri itzulka antzean ibilita or alkar jo dute bi lagun zaarrak, Xantik ta Txomiñek, ta baita gizon bezela alkarri itz egin ere, egitazko lagun baitziran, gutxi bezela.

–Aizak, Txomin, egia al dek ik diokana nere arrebari?

–Egia dek, bai, ik dakiken bezela.

–Bada, bai al dakik zer esan didan? Ire karta txikitu egin zuala. Zer pentsatzen dekan, ura iretzat dagoala? Edo zer burutaziok eman diken? Ea txoratu egin al aizen.

–Bueno, bueno. Naikoa diagu. Euli bat belarrira etortzen danean azkar sentitzen dek. Baiña eskerrik asko, egia badiok.

–Egia dek. Gaiñera, i ta ni nola geran lagunak, nik ditudala kulpak; nik esan diatela zirikatzeke.

Olako komenentzia ta aukera eskuetan zai dagoanari jarztea, diamantezko erregalia egitea baiño garrantzi geiagokoa da, da erantzupide motz orrek oso grazi gutxi egin zion Txomiñi, ta bere artean ala pentsatzen jarri zan:

“Itz oiek erantzuten dituanak zer esango ote du, zartaia kirtenetik bere eskuz artzen duanean, iñoiz gizona tabernatik lagun artean egon da berandu xamar datorrenean, edo uste gabe geitxo edanda edo gaitz eginda? Emakumeak beti arrazoi izaten dutela, baiña ez oraingoan orratik. Ni pobrea banaiz ere, ikusiko diagu, bada, zein markesekin ezkontzen dan ori ere”.

Txomiñen aitak uztargillearekin alkarrizketa bat izan zuan, seme-alabak nola lagunberritu bearrez zeuzkala adieraziz. Semea etxerako, alaba norabait enpleatzeko.

Uztargille orrek era ontara itz egin oi zien beragana zetozen guztiei, egoki ta legun kontsejuak emanez. Ola asten zan:

–Nik erakutsi egingo dizut nun dagoan eta zein dan. Gero zuk ikusi bear dezu komenentzi ori komeni zaizun ala ez. Ezkontzen diranak bakarrik nere lana ordaintzen didate, ta pozik gaiñera. Baiña naiago det nik ori kobratu baiño zuek urte askotan zorioneko ikusi.

Alako itz gozoezin danak pozten zituan da gustora utzi. Gero asten zan:

–Alako tokitakoa, alakorentzat; beste olakoa, beste olakorentzat. Au, leengoan etorri zan arentzat...

Uztargille oni ezkontza onak eragin da bere bidez egin zutenak kontent utzita pama edo izen ona zabaldu egiten zitzaion, ta besteren zorionetik zetorkion berari zoriona ta sari ona. Orren billa erabiltzen zituan iñork antzemango etzizkion trikimanejuak.

Nola edo ala lotu egin nai, iñor bazetorkion. Txomiñi eskeintzen zion ezkon-laguntzakoaren ispillu aurea erakusteko bitartekotza olatsu egin zuan:

–Iretzat bazeukat neska bat etxea berea duana, iru-lau bei aixa mantentzeko terrenoekin, mendia ere oso bertan duala ardi mordo batentzat.

Zeuzkan alderdi on guztiak azkar azaldu zizkion urteen berri ixilik utzirik. Txomiñek ogei ta sei urte zituan, da neskak ogei ta pare bat izango zituan Txomiñek ametsak egin zituan ikusi baiño leen. Nai orduko etzitzaion etorri Txomin gizarajoari bere biotz-kilimak baretzeko eguna.

Bi gazte batean baldin bazituan, berealaxe lotuarazten zituan uztargilleak; baiña bat zaarra bazan, orduan naiko komeri. Gazteak gogoz eta bearrez etortzen ziran. Zaarrak ere bearra bazuten, baiña ainbesteraiñoko gogorik ez, eta ondo pentsatu nai izaten zuten alde aurrez.

Aal zuanik azkarren zaarrak enpleatzen saiatu bearra zeukan, beroaldia oztu baiño leen. Gazteak, pixka bat itxogitako ere oraindik bazuten denbora.

Amar egun aurretik uztargilleak Txomiñi esan zion noiz joan bear zuten, beste guztiei bezela, zuan oituraz mintzaturik. Alegia, bizarra txukun mozteko, bekaiñetako ille luze okerrak ere bai, kokotea zer esanik ez. Gaur eguneko modarik ez baitzan orduan. Ta aurpegi, lepo ta belarriak ondo garbitzeko. Bere diplomaziaz esku arteko artu-emanaren bizigarri: “Garbitasuna *no tiene* berdintasuna”.

Olako berezko esakera egokiz, garai artako gizon aundizat zeukaten, da beraren eskuetan jartzen zuten askok beren zorionaren itxaropena.

Jarraitu zion esanez azkazal beltzak itsusi ematen zutela; ezkontzako soin jantzia, trajea, eginda bazeukan ura jartzeko, ta biak joango zirala.

Bi egun aurretik neskaren etxera joan zan aditzera ematera nola ekarriko zion mutilla. Aurpegia ta belarri-koxkak ur beroarekin garbitu ta ondo orraztu ta belarritakorik politenak jartzeko, ta soiñeko politena edo argiena jantzi.

Egun-txintarekin atera ziran. Oiñez joan bear zuten da urruti bait zegoan Txomiñen ameslekua. Goiz berandua zan, urruti antzetik bistatu zutela Etxetxuriko txapel gorria.

–Ikusten al dek arako kaiola xarmant polit ura?

–Bai.

–Uraxe dek gu joan bear deguna.

Txomin, pozaren pozez, ixilik ezin egonik jarri zan, ola ziolarik:

–Txori ona dagoan kaiola dirudi, ta asi nadin kantari.

Nere ametsetako
kabi atsegiña,
txuri-gorritz daukazu
gaiñetikan soiña.
Barrenian balego
aingeru apaiña
maitatuko nauena
nik berari aiña!

Orduantxe biziko
nintzake pozikan,
zeruan baiño ere
obeto kasikan.
Mundu ontan ez nuke
nai beste gauzikan,
oraindik gabe nagon
saietsa baizikan.

–Kaiola ona dirudilla diok? Bai, motell, bai. Kaiola ta txoriak etzeukatek aitzakirik. Gustatu ezkeror etzegok or konpondu eziñik. Erakutsiko diat zenbat sail daukan ere.

Inguruan etzeukan beste etxerik, eta egun artan beintzat sail aundiak zituan, uztargillearen ezpaiñetatik.

Bidexior batetik gora igo ziran da, andik bee aldera begiratuta, ziran baiño berdiñago ematen zuten ingurumariko koskak eta barrutiak. Goi-goieneko muga baiño beeraxeagotik gaikaldeko azkena noraiño zegoan erakutsi gabe, beeraka jetxi ziran.

Udaberria zan da xixak ere bildu zituzten. Uztargilleak bazekian ondo ango berri ta nun izaten ziran, leen ere askotan ibilia baitzan egun artako moduko mandatuekin. Pañuelo txuria atera txamarraren patrikatik, amak ederki plantxatuta eman ziona ta xixak andregaiari eramateko txukun asko jarrita.

Ori ikusita, gero zer galdera ta atentzios nolako arretaz zebillen, uztargilleak ustez seguru zuan egun artan kaiolako txoriarentzat laguna.

Txomiñek zorrotz miatzen zituan belar beltzunerik ikusten ote zuan, erregali itxurazkoa eramateko. Etxetik ez baitzuan ezer artu, ta motxa iruditzen zitzaion esku utsetan ara agertzea. Egokiago zerizkion maitetasuna agertzeko zerbait losintxa egitea.

Ala, xixa billa zebiltzala ia etxe ondo xamarrean, auntz zuri bat zegoan katean lotuta, adar izugarri luzekikoa, ondoan arkume txiki bat zuala. Ainbeste adarrekin da arkumearekin auntza ikusita, Txomin arrituta gelditu zan. Nola zitekean?

–Begira, esango diat nola dan. Auntzak, zenbat eta zaarago, orduan da adar luzeagoak izaten dizkik, eta urteko koska bat egiten zaiok. Goazemak ikustera. Bat, bi... ta beste adarrean ere beste amabi, ogei ta lau.

–Ez, alde batekoak balio dik bakarrik?

–Eta bestekoak ez?

–Bien artekoak.

–Zer da orduan bien arteko ori?

–Biak erdira jota, ik eta kaiola ortako txoriak bezela. Ara, onek adar batean amalau eduki balitu ta bestean amar, bien erdikoa, amabi. Ezkontzeko ere ori egin bear dik. Urteetan aldea dagoanean, bienak erdira jo ta, jendearen esamesari kasorik egin gabe, leenbaitleen alkartu ta kaixo, motell!

–Ta arkume au amabi urte ditualako izan al du?

–Ez; bein ainbeste zaartu ezkeror, ez ditek ez arkumerik eta ez antxumerik izaten. Baiña udaberrian esne-berritu egi-

ten dituk eta au eraskiña dek, beste baten arkumea erosita ekarri ta azitzen ari dana. Konparaziorako, neskak kopetan erretenak asi ezkeru, esan nai al dik goraka badijoala indartzen edo egurra suak erreta ketan joaten dan bezela? Ez, goraka urtetan. Ta aiek ere ez al dute balio izaten besterena azitzeko bestetarako? Bai; oraindik masaillak ximurtzen asi arte. Ta gero ere, naiz bererik izan ez, beste batena azitzeko aixa balio ditek, eta zenbaitek berea baiño maiteago gaiñera, naiz besterena izan. Orrek ez dik ainbeste inportantzi urte batzuk geixeago izan edo gutxixeago izan. Sanoa ta langille zintzoa baldin bada, ori aixa arreglatzen dek.

Eta makilla altxa ta siñalatzen zizkan inguruetan zer barruti ta zer larretoki ederrak zeuden. Bien bitartean, kaiolako txoria leiatillatik zelatatzen zegoan.

Iritxi ziran etxe ondora, atea kax-kax jo zuten, aimaria, ta bigarren aldiz jo bearrik gabe an agertu zan arpegi alaiarekin etxean zegoan bakarra.

–Egun on, etxeakoandre.

–Bai zuei ere.

–Zer moduz? Ondo?

–Bai, Jaunari eskerrak. Zuek ere bai?

–Bai, andrea.

–Alde auetatik, beraz?

–Zu ikustera etorri gera.

–Ondo da. Pasa zaitezte aurrera.

Txomiñi begiak zabaltzen asi zitzaizkan, da susmo txarrak sortzen; baiña ezer nabarmendu gabe leentxeago bildu zituzten xixa berriak eskeiñi ziozkan, leialtasun maitekorra azalduz, esanez mesedez ar zitzala, bere alabari emateko bildu zituztela-ta.

–Nere alabari?

–Etxean ez badago, etortzean ikusiko ditu.

–Alabarik ez baitet.

–Zertara etorri gera orduan?

Txomin, bekozko beltzarekin, uztargilleari zorroztu zitzaion.

–Au bera dek iretzat aukeratu detan neskatilla.

Guraso legor berekoi eskubidedun bat balitz bezela, jaun baten ausardiz ta itzalez moztu nai izan zuan.

–Nere ama baiño zaarragoa da ta au neri erantsi nai besteren umeak ekarri ta azitzeko?

Lotsagabekeritzat artu zuan.

–Txarra al dek, berrogei ta amalau urte besterik ezta? –garrazki ta mindu antzean zion uztargilleak.

Berak irurogei ta zortzi urte egiñak zituan da andereño ura gazte loreko bat zala iruditzen bait zitzaion. Uztargille ori ezkon gabea baitzan, da Txomiñek zapla bota zion:

–Nere aitzakian zuk zedorrek etorri nai zenduan. Or daukazu, bada, ta nai dezuna egin berarekin. Or konpon, da ni banijoa ni!

Bakarrik alde egin zuan, atzera asko begiratu gabe alik eta ezkutatu zan arte. Kilometro erdi ingurura gogoratu zitzaion pañuelo txuria an utzi zuala. Ainbeste duda-muda erabili ondoren, kasorik ez egitea erabaki zuan.

Bere maite-ametsak ain uts ateratzearekin etsipenez asmo benetako bat artu zuan etxera bidean zijoala: Etxeko lanak arreba eta aita-amari utzi ta udaldi artan basora joatea diru pixka bat aurreratzerara, ta gero berak, uztargillerik gabe nai zuana billatzeko din izan zedin.

Bi aizkora erosi errementeriari ta Iratiko basoetara joan zan negura arte. Irabazbide ona zegoan an, baiña latz xamarra. Goizean eguna argitzez jeiki ta illundu arte. Bazkalondoan ordubeteko siestatxoa.

Olaxe eguraldi on da txar, jai ta igandez eguerdiraiño bakarrik. Nagusiaren kontura ari ziranak baziran alde bat artutakoak, meza apaizentzat utzi ta egun guztian jardun oi zutenak.

Basoko borda edo txabolak egurrez antolatu oi dira, ixuri aundia eman da gaiñetik lur-zotalekin tapaturik, urik sartu

ez dedin. Etzauntza, berriz, txillarra edo iratzea edo iñostor garoa. Ori koltxoi bezela, nai zuanak nai zuana artu.

Lau urtez joan zan, lau udalditan. Dirua irabazten zuan, baiña neguan etxera etortzean, bat aitzaki ta bi aitzaki, etxetik aixa anka egiten zuan, ara joan bearra edo lagunen bat etortzen zitzaiola edo. Zenbat eta gutxiago orduan da gogo gutxiago etxean lana egiteko. Ori ez da arena bakarrik.

Basoan iru otordu izan oi zituzten: Goiz beranduan bat, eguzkia ordu zala; arratsalde-erdi aldera, bazkaria; ta irugarrena, gauean.

Aideko kantariekin batean lanean asi ta aurreneko jator-dura arte luze egin oi da, ta bakoitzak nai zuana eduki oi zuten beren pardeletan: Gazta, txokolate edo beste kontserbako zerbait, bakoitzak berak gogoko zuana. Ogi ta ardoa naikoa bazuten nagusiarenetik egun gutzian, lo egiten zuten estalpean.

Iru otorduak izan oi zituzten baba eta urdaiarekin, oliobaratzuriekkin errea gainetik botata, ta kitto. Ortatik bai naikoa. Naiko baba, naiko ogi ta naiko ardo. Ortik aurrera, nai zuanak nai zuana bakoitzak bere patrikatik.

Arratsaldea luze egin oi zan ezer artu gabe. Nagusi egiten zuanak zato ardoarekin bizpairu aldiz bixitatzen zituan, bakoitzari tragoxka bana emanaz, ogi-koxkor batekin, lanerako bizitu zitezen.

Goizean altxatzeko bestek esan bearra bazuten ere, illuntzean illun da nekearen azpian beren gisa gelditzen ziran, danak bateratsu borda aldera bilduz.

Olatsukoa izan zan Txomiñen leenengo udaldiko basoko langintza, ta gerozkoetan alde aundirik ez.

Urteak ziran Aritzondoko maizterrak atera bear izan zutela, ta beeko erri batean bizilekuz jarri ziran. Joxekutz gudaritza edo soldaduska bukatua zan. Etxegintzan jardun oi zan ogibidez. Txomin da biak, bei-kontutik asi ta auzotar ziranaz oso lagun maiteak ziran; da, basotik etortzean sarritan bildu oi ziran alkarrengana.

Txomiñek udan irabazitako diruak neguan geienak jorrazten zituan, lanik egin ez ta kastatuz. Ori bide koxkorra zala antzeman zion, da Joxekutzekin batera etxegintzan asi zan.

Negu ura dana ala igarota, udan sartu ziranean berak ari ziran lekutik gertu baso bat, au da, piñudi aundi bat botatze-ko subastan atera zan itsas-ertzean; bota ta kamioiean jarri kargatuta.

Txomin ondo trebetua zegoan baso-lanetan, da berak bakarrik artu zuan lantegi dana. Leenengo egin zuana zan txabola edo borda dalakoa. Iratikoa baiño dotoreagoa zerbait, kamioetako brea biltzeko ontziak, bidoiak askatu ta aiekintxe. Etzanlekuak ere emen beste modukoak. Kaia ur-bil zegoan da arrantzaleen sare atzera utzitakoak jarri bi egurren gainean da etxeko koltxoien inbiririk gabeak ematen zuten.

Txomin bere mutillekin emen bertan egoten zan. Gero esango ditugun trozoetako koadrilla danak gauez nora-ara alde egiten zuten. Beraz, baso aundi artako jaun da jabe, gau ta egun, Txomin zan bere lagunekin.

Emendik kalea gertuxeago izaki ta jaten pintxeago eman bearra zegoan mutillei. Otorduak babarekin, jaki pusketa ona ta postrea; gauean patata da gainetik tortilla edo arraia. Neguan, otz zanean, nola ziran danak baserritarrak eta etxean erleak zituztenak, oierakoan ogi-kozkor banarekin ezti pixka bana, gaueko otzari gogor egiteko, txapa mee aren azpian gaua luzea baitzan. Danak etzuten izaten, baiña, lagunak nola ziran, zeukatenak etzutenei ere eman da zegoa- netik erdibana egiten zuten. Goizetan kafea ta pattar gorritik txurrua bana, gosaldurteko. Gero gosaria ta bazkaria, esan degun bezela, babarekin.

Leenengo uda geientsua basoari erdiz erdi kamiona sartzeko bidea egiten igaro zuan zortzi mutillekin. Auek danak naparrak ziran, berarekin Iratin leenago jardunak. Negua iritxi zanean, itz egin zuan koadrillak zituzten batzuekin ta beste danak batera sozio jarduten ziranekin. Bakoitziari mar- katu bere trozoa ta bost koadrillataraiño iritxi ziran, bakoitza

beren trozoan. Txomiñentzat leen bidea egiten bota zituan diruen ordaiñak orain etorri zitzaizkan.

Koadrilla auetan bat izaten zan nagusia; baiña baziran danak nagusi edo nagusirik etzutenak. Leen esan dan bezela, egiten zutenarekin danak berdin, sozio.

Beste nagusi auek jornal bat eguneko ematen zioten mutil bakoitzari, ta berak esterio kontura kobratu. Zenbat eta geiago egin, orduan da geiago irabazi. Mutil zebiltzanak, berriez, asko egin edo gutxi egin beti berdin.

Txomiñek trozo auek berak artu zuan prezioan eman zizkien esterioko. Ainbeste lan egin bideak egiten da nola zitekean arriturik gelditzen ziran, da oso pozik jardun ziran koadriletako nagusiak; ta nagusiak ala zebiltzanean mutilak ere bai. Nolaz eman zezakean ezin konprenitu zuten. Esan ezkeru oso erreza zan, beste gauza guztiak izan oi diran bezela.

Piñu oker da neurritz irixten etziranak tabloi ta olak egiteko, papelerarako baitziran, metro bat luzean moztu ta zurututa roillotan. Tartean zeuden aundi guztiak markatuta jarri ta bertan utzi bear zituzten; gero Txomiñek materialetarako botatzen zituan, da errex auekin irabazten zuan danentzako diña.

Esan dan bezela, tartean gelditzen ziran aundi ta onenak, eta botatzen ari ziranak ikusi bear zuten aiek jo gabe nola bota. Baiña askotatik danetakoak izaten dira, ta koadrilla oietan baziran batzuk ajola gutxikoak; ta, deskuidoa zan aitzakiz, apropos zutik utzi bear zan ari erantsitzen zienak eta kuku egin da zutik geldiarazten zituztenak.

Zergatik ori ordea? Gero, markatutakoa ere bota eta zenbat eta aundiagorekin esterioa azkarrago egiteagatik. Solamente beste koadrillakoak oartzen baitziran nola kuku egin zuten.

Egun santu guztirako kanta bat izaten zan danak kuku ta kuku, alkarren abotsa entzunez. Besteren oker ibiltzeak danok nola mintzarazten gaitun, alako alaitasun bat bezela nabaitzen zuten Txomin ez beste guztiak. Gazteak alaitasuna

nai izaten baitu nola edo ola. Gero, basoaren oiartzunez mundu guztiko kukuak an ari zirala esan zitekean.

Tartean asturiano bat eta andaluz bat ere baziran. Aiek ere iseka ta burla egiten euskeraz azkar da oso ederki ikasi zuten. Euskal izkuntza esaten duten bezin zailla ez da izango ikasten nunbait.

Garai artantxe izan zan leendabiziko Espaiñiko aizkolarien txapelketa. Garaille, Garziarena izan zan; bigarren, Baleztena; irugarren, Korta; ta laugarren, Arria.

Napar auek berak ere aizkolari politak ziran ta apizio izugarria zuten, ta Garziarena geiago iñork autsi bear zuanik etzitzairen iruditzen, oberik iñun izan zitekeenik etzuten uste.

An ta emen bazebillen bateko apustu ta besteko premio, jo ta danei irabaziz. Ondo kontatzen zituzten zenbagarrena zuan da noiz da nun. Batek ala zion:

–Orain ere irabazi dik biren aurka Donezteben. Amalau-garrena dik bat bakarrik galdu gabe. Ori anken gainean da-goalarik, ez dik iñork menderatuko.

Txomiñek, preskura guztiarekin:

–Ai, napar koxkorrak! Oni irabaziko diona jaiota zegok.

–Jaio berri bada bazegok pixka baterako, ala Jainkoa!

–Jaio berri edo jaio zaar, ikusiko dezute nola jango dion azkar.

Ta ala gertatu. Luxia irten zitzaion Donostiko zezen-plazan apustu aundi ta oroigarri artan gailen. Garziarena txapeldun jarri zan ezker, alako aize batek jo zituan naparrak. Txomiñi ere ezarri zioten gaitz ori dexente. Geroztik, apalondoko errezoa ori izan oi zuten, beren Garziarena, beren aizkora ta beren apustua.

Igande goizez, aurrenengo meza entzun ondoren, eguerdira arte lana egin oi zuten; baiña beren artean apusturik bazan, zerralariak aizkolarien kontra, edo bat aizkoran da bestea korrika, eguerdiarte pestan bezela akordatu gabe joaten zitzairen, da materialik ederrenak askotan jo ta txikitzen zituzten.

Txomiñi etzion arek penik ematen, besteren kuku egiteak bezela baso ta egur nagusia. Urruti bizi zan da etzuan ikusten aiek zer alperrik galtze egiten zuten, da ikusten ez duan begiak malkorik ez.

Bere mutil napar batek batean Txomiñi desapiota bota zion, bentaja emanez. Naparra aizkolari dotorea zan, baiña askozaz indar gutxiago zuana. Sei enbor irurogei ta amabost zentimetro bueltan zituztenak naparrak; eta Txomiñek, bost.

Bosgarrena Txomiñek aurretik bota zion amabi minutuz azpitik, da janketa eder bat egin zuten danak alkarrekin galtzaillearen kontura. Orain esan dezagun erdiak zirala alde batera ta besteak bestera. Alde batekoak birena pagatu, ta besteak duan.

Jateko garaian edo ondoan bertsorik etzitziaren paltatzen, da Txomiñek bei-kontu zebilleneko lepotik zeukan burua, ta emen berak botatako bat jarriko degu:

Naparruatik etorri eta
desapioka asia,
pentsatzen zuan egingo zula
berak nai zuan guzia.
Aizkoran ondo badaki baiña
apustun ez ikasia,
geiago danai bentaja eman,
bazun naiko pantasia.
Zuk orren errex menderatzia
uste al zendun nausia?

Lau kantoiko arri bat bazegoan berak lo egiten zuten txapazko palazio aren ondoan, da iñork etzuan bizkarrera jasotzen. Txomiñek leendabiziko jasotzen zuanari nai zuan ainbesteko txuleta eskeintzen zion. Naparrak bazuten indarra, baiña maiña palta.

Egun batez bera sasoiz sentitu zan, da gerriak sartu ondo, naparrak egiten etzutena, ta berak jaso, alajaiña, danen bistan; da, jakiña, txuleta berak jan, bere burua gonbidatuta, danei parra egiñez.

Naparrak Txomiñi zepo asko jartzen zien. Apustu kontuan danak alkar artzen baitzuten. Baiña ezin arrapatu izaten zuten.

Beste batean, zutik zegoan piñu lodi bati begira jarrita esan zien:

–Nik au amar aizkora-kolpetan botako nitek.

Asi ziran danak parrez, gutxieneko eun kolpe baiño geiago bear baitzitian.

–Baita amar baiño gutxiagotan ere!

Ez ta bai ala jardun ondoren:

–Apustu egingo dizuet nai dezutenari. Aunitz aundia duk, baiña etzeratela atrebitzen beraren gaiñean egotera, nik amar aizkolkazo eman da aurrera. Ta ezta bost eman da ere.

–Zer arraio aize eman da botatzeko asmoa izanen dik?

Ta azkenik:

–Nik lau aizkora-kolpe eman bitartean ezetz bere gaiñean egon!

Ezetz eta baietz, danentzako aparia, bakarrik danen kontra. Eskuak jo zituzten, bat igo zan gaiñera, Txomiñek artu zuan bere gustoko aizkora, ta alde batetik eman zizkan bi aizkolkazo, beste aldetik beste bat, gora begiratu ta:

–Zer moduz ago?

–Ni ondo!

–Ez baaiz aspertzen nik laugarrena ematerako...

Ta martxa.

–Orain ere arrapatu gatxetik!

Ez baitzuan laugarrenik eman.

Beste igande batez ordu kontua atera zuten. An ez baitzegoan urrutikuskiñik. Batek goizeko ordu bata aditu zuala ta geroztik etzuala begirik itxi, ordu guztiak aditu zituala...

Txomiñek etzuala sinisten, ezin litekeela ta balitekeela, apustuarekin bukaera. Danentzat bazkaria. Ez dala gizonik

goizeko ordubatean esnatu ta egun berean orduak bi aldiz adituko dituanik.

Ez ta bai! Eskuak jo ta asi dira nola litekeen da ezтитеkeen. Goizeko ordubata, arratsaldeko ordubata, goizeko seiak, arratsaldeko seiak, egurdiko amabiak, gaueko amabiak...

–Eeep! Ez egun berekoak!

Txomiñek irabazi au ere. Oraingoan ustez polliki arrapatu zuten, baiña an ere etzan erori.

–Aizak, Txomin, portugesak in Prantzian arrapatu xendarmeak eta au esango balitek, zer egingo uke: Parisen bi animala artu bear ditukela, bat mesede egiten duana ta bestea kalte egiten duana, bestela, espetxera sartuko autela. Biekin, iñun utzi gabe, Espainiako mugaraino etorri bear dek; baiña emengo mugazainak bi animalarekin arrapatzen baaute, multa botako ditek. Zer artuko ituke? Txomin, asma zak ori kontrabandista izan nai badek.

–Ori tontoenak asmatzeko ere ez dek zailla: katua ta xagua.

Goiz jeikitzen danak burua argi edukitzen du, ta danen arte azkenerako bai zailla jarri ziotela:

–Pelota partidu batean, gorriak aurretik joan da ogei ta bana berdindu. Zein da aurretik, Txomin?

–Biak berdin.

–Ez.

–Bai.

–Sakea duana aurretik.

–Ez. Partidua tantoka joaten dek.

Beren eztabaida bukatu gabe, basoko lanak bukatu zituzten. Bota zuten piñudi ortako lurretan, terreno barruan, gain-estalkia eroritako etxe zaar bat zegoan, da Txomiñek bertako nagusiarekin tratua egin zuan. Berak legorra jarri ta lur puska bat etxe inguruan izendatu ta errentan artzeko, bei pare bat eta ardi batzuk beste oillo batzuekin jartzeko asmoz. Txanpon batzuk aurreratu baitzitian azkenengo baso-lan ontan.

Bertatik baserririk urreneko alabarekin bere gazte-konturik eta ametsik ezitsuenak zerabilzkian. Ez leenago bezela

uztargille arenakiko antzera. Bazirudian egi biurtuko zala berak zerabilkian burutapena.

Basetxe eder bateko alaba,
bere izenez Pantxika,
libre zanean Txomiñengana
joaten zan antxintxika.
Alkar maiteak ziraden eta
etzebilkiten txantxika,
kristandadeko lege garbian
etzuten ezen mantxika.

Ikusten ez duan begiak malkorik ez duan bezela, kanpai ixillaren otsak ez dio belarriari adierazten. Leendabizitik dala landa galantak baldin baziran ere, baretzen da urritzen zijoan beren esanaia. Ia ezkillak nagitu ta gelditu ziran. Salatakiak berria nai izaten du, ta beti batekin jira-biraka ezin ba jardun, da danak zearo mututu ziran Txomiñen gora-beerataz bere basoko bakardadetik gizarteratu arte.

Oinkada bat emango degu, ta pauso ori emateko uneontan bi bertso kantatu:

Mingain luze askoren
mizto narrastuak,
nunai utzitzen ditu
bere arrastuak.
Onaren ondamena
nai luke gaiztuak,
alperrik garbituko
ditu ark eskuak.

Bere erru txarraren
ondore samiñak,
iñori mesede ez,
askorentzat miñak
ekarri izan ditu
jarduntza zikiñak;
ara zer alderdi dun
lerdozko mingaiñak.

Ogibidearen galdez aroztegi bateko lantegira joan zan Txomin, ta langilleen buru zegoanaren erantzuna, alakorik gutxien bururatzen zitzaiona izan zan: Etzutela ezkondurik artzen. Ezkondua iruditu nunbait.

–Ez naiz ezkondua.

–Etorri ziñezke orduan.

Bere baitan zion: “Ezkondurik ez artzeko, zer matrikula edo arazo ote dago emen?”. Inolaz ezin antzemanik gelditu zan, baiña luzatu gabe ta azkar jakiñaren gaiñean jarri zuten leen an ari ziran beste langilleak, zergatik esan zion enkargatuak gauza ura. Alegia, enkargatua ez beste danak ezkongabeak zirala. Bakarrik zegoalako emazteduna, zorioneko *puntuak* bakarrik jasotzen zituala; ta beste ezkondu bat sartu ezkeru bien artean banatu bear, da gutxiago tokatzen zitzaio-la bere zati edo partea.

Txomin pameliko aita izan balitz, ara zeñen ederki gelditzen zan, punturik ezik, irabazbiderik ere gabe, enkargatuak puntu-diruak jasotzeagatik. Lagun urkoaren familia goseak iltzen utzi.

Berea egin ezkeru ajola gutxi; ta, ala ere, gauean lasai lo egingo zuan, bere etxerako zerbait on egin zualakoan; ta, gaiñera, kristau zintzo ta katolikotzat eta elizkoitzat bere burua edukiko zuan.

Bera etxe ederrean bizi zalarik lasaitasun guztiekin, bere kristautasunak etzion pakean uzten, ikusita nola kanpotar asko zetorren, sukalde batean bi ta iru pamili sartzan zirala ta logeletan danak naastuan egon bearra zutelako.

Aien txirotasunak, pobreziak, etzuan mintzen, aien etxee-tako zaar-gazteen arteko kuixidade txarrak baizik. Ori ez litzake ametitu bear. Dijoaztela etorri diran tokira. Bere seme-alabak dotore jantzita goieneko ikastetxera; aienak, berriz, ez garbitu, ez jantzi ta ez eskola. Gero, alkarrekin jostatzen. Zer ikasi bear zuten beraren zeruko aingeruak, beste etsaikumeak ziruditen barrabaskillo beltz aiekin? Zenbat fariseotar biurtzen dan bein kukurruku goi xamarretik jotzen asi ezkeru!

Ondo zerizkion, beraz, ezkonduak lanerako ez artzea, ta etzerizkion ondo gau legorra ain pillatuan besteak egitea. Ta ori enkargatuak; nagusia zertan aipatu? Bein goi-maillak arrapatu ezkeru, beeko xeak errez menderatzen baitira. Gaiñekoak nai duana egiteko eskubide duan bezela beekoak ez dauka ezertarako ere. Alde guztian traba ta eragozpenak; eta bakoitzaren nortasuna aitortzeko ordua ez al da iritxi? Argi ibili ditezkeela uste det Kubakoa gerta ez dedin.

Ara, bada, gure basomutil trebea, urteetan bakarrean bizi izan zana kale gorrira bildu; ta amar orduan lana egiñez askorik ez baiña zerbait diru gelditzen zitzaion, zintzoa baitzan.

Kaleko bizitzak etzuan ondo artzen. Lotu gabe lotuta egoitea zala zeritzaion, leengo mendi-aize garbiaz gogoratzean. Amets batean bizi zan, da txanpon batzuk aurreratzean zer egin erabaki zuan. Zegoan erritik aldamenara borda batekin lur mutur bat errentan arturik, ara zer egin zuan. Beti basoa ta mendia baitzituan ametsetan da buru biotzetan, Otañok sorlekua zuan lez Ameriketean, da or erosi ditu bi ardi, ta geroxeago arkume txiki bat, axurixo bat.

Ardiak esnetsuak ziran, baiña ortzak palta zituzten. Sorro-belarra ta pentsua ondo jaten zituzten, baiña mendirako etzuten askorik balio, an larre motxa ta gogorra izaten dala; ta orregatik merke antxean erosteko modua izan zuan.

Gero, leen esan dan arkumetxoa oso txikia. Ardi batek bixkiak egin artzai bati ta ama argal xamar egon nunbait, eta bientzat ainbat esne ez. Bat aundixeagoa izaki ta ark esnerik geienak edaten, da txikiena ta kaxkarrena gutxiena edanda gelditu bear. Aietan ere indartsu ta gogorrena nagusi, ta erkin zipoztua merkatura saltzera.

Uraxe erosi zuan Txomiñek bere ardi ortzik gabeari eransteko, ta uraxe izan zan gero saldu bear izan zuana, zeukan barrutia itxi gabe zeukalako, ta guk amalau aapaldi bertsoz eskeiñi genizkion. Gertakizun ori zala bide ainbeste kutizi egin zizkion animalitxo ura, saldu bear izan zualako.

(Ikus *Zeruko Argia* astekaria, 1965-eko dagonillak 8, XXVIII urtea, 129gn zenbakian. Bi bakarrik jarriko ditugu emen)

Izardian furiaz
bi ardi erosi,
beste axuritxo bat
nioten erantsi,
eta bien esneak
ari eranazi;
bazka aukeran jarritz
pentsuakin nasi,
artalde bat osatzen
ola nintzan asi.

Kulpa geiago gabe
gaixoa iltzera,
kutxillo zorrotzakin
zegonan etxera.
Ia eraman nuen
damututa atzera,
pena sartu zitzaidan
nere biotzera,
argatik ez nintzan jun
bere eriotzera.

Galdera auxe egingo dute askok: Baiña ainbeste maite bazuan, zertarako saldu zuan? Itxi bearreko sail ori ixteko din diru etzeukalako.

Ordurako beste arkume mordoskatxoa ere erosi baitzuan, merke-bolara zan bi edo iru alditan, ta mendira zijoazten artzaiei beste jaiο berriak ara eramateko gauza etziranak, ain gazte ziralako. Txikiak ziran baiña sanoak, ta launa anka baitzituzten, da lagunduz denborarekin etorriko zirala-ta.

Ikusten dan bezela, bat nun oitua dan ara jotzen du, ta Txomin beti gora begira zegoan. Goiko errekatxotako amorraiak ur garbiena nai izaten duan antzera, goiko aize mea zitzaion gogoko, ta ez beeko ibaitako amorrai aundien gisara zenbat eta ur zikiñagoa ta orduan da tripa sabel betegarri geiagorengatik pozikena.

Kale aldeko biztanleak era berean ikusten zituan bizi ziralara, danak ez bada ere geientsuak, goitarren antzik eta guxtiagorik gabe beintzat. Zenbat eta negozio edo artu-eman geiago, orduan da geiago gelditu eskuetarako.

Pixkanaka-pixkanaka itxi zituan bere ardi ta arkumeak zeuzkan lurraren mugak edo barrutia, belar-meta bat egin zuan negurako eta pixka bat arnasa lasaitzen asi zitzaion. Ogei ta amar burutaiño jarri zituan aundi ta txiki nola edo alako, ta pentsua jaten erakutsi zien gazte guztiei txikitatik asita, ta neguan besteren barrutiratu gabe pentsu ta belar onduz. Edateko ura jarriz, bertan negutu edo bazkatu zituan, lantegiko lanari jarraituz ta iñoren laguntza aundirik gabe.

Ta lagun batzuen bitartez bestek esandako zenbait maixiaketa adituz, noizik beinka gibelesko miñaldi batzuk izanagatik danei aurpegi aurre emateko ausardia izan zuan.

Neguak etzuan gorroto txarrik agertu, ta uste baiño ariñago igaro zuan. Udaberri legor xamarra baiña egoaize epelarekin etorri zan, da beste berrogei ta amar txiki, aundi-xeagoko ta bildots eta ardi edo arkazte azi bereganatu zituan, guztitara larogei.

Aietatik amabost kendu, aurrerako gutxien balio zutenak, eta irurogei ta bi urruxa ta iru aarirekin ia artalde koxkor bat osatu zuan; ta bigarren uda ontan geiegikeririk ez baiña danentzat aiña jateko bere barrutian izan zuan; ta dana itxi zualako iñork zaindu bearrik gabe, gaiñera.

Lurra bero dagoan bitartean beti zerbait jaten atera egingen da; baiña neguan zer egin? Txikiak azitzen ari ziran. Irurogei ta bost ao-zulo bete bear ziran, belarrik etzeukan ontzeko aurreko udan bezela, danak ezetan jan baitzituzten, daki-gun bezela. Kale gorrian bizitzeko koadrilla aunditxoaren jabe egin zan, da aren izketako jardunak etziran izaten zineko artisten aipamenaz, batzuren batzuek ala esango bazuten ere, beren itzontziko eutsi eziña arindu naiez.

Gaiñera, saletxean, edo dalako borda ortan danak sartzeko lekurik etzeukan. Uda zan arte, edo negura arte, or nunbait.

Ateari zulo bat egin baitzion txikiak sar zitezten, euria zanean da gauean lotarakoan da goizean pentsua jan zezaten. Aundiak indarrean zeuden da berak biltzen zuten berentzat adiña; baiña esne gutxi edan zuten arkume gaixoei ondo lagundu bearra zeukan.

Aldizka edo iñoizka gure Txomin euskaldun zaarren oituraz eta bere animaren eskabidez aitorketa egin da jaunartzeraz joan oi zan, da geientsuetan aitorle batengana.

Luzatu gabe apaiz jaun ori jabetu zan gure Txomin buruz askatua zegoala, ta etzeukala euskaltasuna beste aitzakirik. Au da guztia: Euskaldunak berez bere jatorriko izaera eta sorrerak eman dion berezkotasuna, menditar izatea edo mendigoizale sentitzea. Bere begiak argiaren jabe egin zira-nean leendabizi ikusi zituzten mendiak nola ez maitatu?

Jakiñik osasun sendoaren oiñarririk aundiena mendiko zailtasuna eta soin-azal da barruko alaitasuna bertako goitar kutsuak daukatela, bertako gaillurrik goienean, puntarik puntaenean dagoala pake usairik ederrena, antxe dagoala bere Egillearengandik gertuena, antxe abestu lezakeala abotsik gartsuenean, beste mintzaerakoen belarrietatik urruti, iñor mintzeko bildur gabe, biotzetik biotzera Jaun da Egille bakarrari:

Iñoiz ez naiz egondu
Zugandik ain urre,
esku bat luza nauzu
nola naizen zure;
ludian bada ainbat
zillar eta urre,
oiek lurranak dira,
Zu zerade gure,
arnasa bai ta ezin
bizi naiz ni zu be.

Neri eman zidazun
ama euskalduna,
Zuk jarritako izkuntza
ezpaiñetan zuna.

Jauna, ni naizenakin
egin nai dezuna,
ezin irintsirikan
nabil beazuna,
negarrez ikusirik
pozez bear zuna.

Txomiñen aitorle ori baserri bateko semea zan. Bi arreba kalera ezkonduak zituan. Lan-sari ona irabazten zuten beren senarrak, gazte ta osasuntsu ziran da lana egiñez; baiña alkarren odol aideak egitazko pakearen zorionean bizi ziran.

Anai zaarrena, maiorazkoa zan aldetik etxera ezkondua zegoan. Zortzi seme-alaba zituan, da zaarrenak amabi urte guk izendatzen degun une ontan. Gurasoak urtez aurreratuak eta baserrietan neke asko izaten da. Argatik gaurko neskatxak ez dute oruntz ezkondu nai.

Apaiiz on arek bere familia ondo ta beragandik gertu ikusi nai zuan. Kalean etxebizitza bat billatu zuan, baserriko anaiak ura erosi zuan, gurasoak ere zaartzaro erosoagoa izan zezaten, da gazteak ere erderaz ikasi ta eskolatu ta ogibide egoki bana izan zezaten.

Anaia lantoki neke-arin xamarreko batean sartzeko moduak egin zituan, beste jauntxo batzuen bitartez. Oni etzioten eragozpenik jarri ezkondua zalako, Txomiñi enkargatu arek bezela. Bitartekoak billatu ezkerro dana konpontzen baita.

Ara, bada, Txomiñek bere jornaltxoak bakarrik jasotzen zuan. Baserrira utzi zuan apaizaren anaia ia bakarrik zegoan baserrian lanerako. Orain, berriz, bere lan-ordaiñaz gaiñera zorioneko puntuak jasotzen zituan, da orra leen sendi osoak lan eginda baiño orain bakarrik geiago irabazi ta danak bizi erosoagoarekin.

Apaiiz jator batek zenbat on egin lezakean! Txomiñi erakutsi zion bere jaiotetxea, ta maizter baserri ortaraxe joan zan, bere irurogei ta bost buruko artaldetxoarekin.

Lurraren erdiak bezelatsu alanbraz itxi zituan bere lantegia utzi gabe. Baiña ezin zezakean jarrai ortan. Ordubete

bear baitzuan oiñez bidean, ta erabaki zuan oso erabat bere etxean gelditzea lantokira joan gabe.

Egun batez, enkargatutza egiten zuanari, lotsaz egon gabe, zapla esan zion nola etzan etorriko lanera.

–Zer dala-ta?

–Badakizu nola esan zenidan ezkondurik etzendutela ar-tzen?

–Da ezkondu egin bear al dezu?

Kopetillun, baiña umilki, Txomiñek:

–Baliteke.

Enkargatuak:

–Emen etzaio iñori galerazten.

–Naiko galerazia dauka gutxi irabaztearekin.

–Gutxi iruditzen bazaizu, eskatu iozu nagusiari ta mentu-raz zerbait altxako dizu.

–Nagusia nagusi danak berak altxatu bear du, langillea eskatzera beartu gabe –ain serioki Txomiñek.

–Nai badezu, neronek esango diot. Badakit zutaz oso kontent dagoala; ta, gaiñera, egun gutxiz onuztik berak esan zidan geixeago ematea merezi zenduala.

–Eskerrik asko. Nik bukatu egin nai ditut emengo kon-tuak, eta zerorrenzat neri eman bearreko puntuak.

Geiagorik gabe utzi zituan lantegia ta lantegikoak.

Zorioneko puntuen bidez kalera datoz baserritar asko. Orien alderdirik ez daukaten beste zenbait, lantegiz alda-tzen dira. Kaletik baserrira, Txomin bezela, oso gutxi edo iñor ez.

Pameliari jartzen zaion era ortako laguntzarekin, base-riak geiago ustuko dira bete baiño, ta bertako gaurko maiorazkoak bakarrik gelditu bear, or badaude edo atzerri-tik ez badute lagunik ekartzen. Benetan ituna da, baiña egia.

Ta beti onela izango ote da? Orixe asmatzen gaitza edo zaila. Aldiak izaten dira. Gerra-aurre, gerrate, gerra-ondore-

na ta pake-garaia. Orain pake santuan gaude, ta gaiñera gerra baiño gosetea leenago etorriko dala esan diteke. Ta orduan zer?

Zera, oletako tximinietatik ez dala ogirik irtengo kearen orde, ta lurra daukanak eta bertan saiatzen danak andixek izango duala zer jana beintzat.

Erleak eultza eztiz betea baldin badaukate, negua aixa igaro oi dute; baiña eztirik gabeko eultza ta jatenik gabeko kale-etxe eder pitxiz betea alkarren antzekoak dira.

Zer etorkizun izango an asmatuko duanik ez da; ta, ori bururaturik, Txomiñek, badaezbada ere, segurutik jokatzea zerizkion, da ala jo zuan baserriruntz, bere jatorriz ala izanik, eta goi ta be danetan oitua, ta daneko berri jakiñean. Alaz ta guztiz, bere odolak eskatzen zion aldera eraman zuan bizi-pozaren billa, bere biotz kilimari ezin eutsiz, ta kaleko bere lagunartea bertso auekin amaituz:

Soroairi etzaie
jasotzen barrenik,
eltzekaiak aiña nork
asetzen barrunik?
Askok ez baitakite
zer dan bearrenik,
jartzen ez dutelako
naiko babarrunik,
argatik egiten det
ainbeste barau nik.

Baserriak gelditzen
ari dira utsik,
iñork eztu entzun nai
ango aize otsik.
Kalera ez badator
lurretik jan gauzik,
asko luzatu gabe
illobira guzik.
Ori gerta baiño len
ni banoa pozik.

Nere sorleku baserria da,
asabak nekazariak
ziran batzuek, eta besteak
mendi gaiñeko artzaiak.
Txindi askorik etzuten baiña
biotzez bai alaiak,
astean zintzo lana egin da
ondo ospatuaz jaiak;
aien bizitik artu nituen
bear nitun ikasgaiak.

Agur, uri ta giza-lantegi,
ola ta gaiñontzekuak,
mendiko aizea eta bekua
ez dirade antzekuak.
Neri osasuna indartutzen dit
goi-urrin biotzekuak,
barazki, igali gozo oriek
dirade aipatzekuak,
gazta, aragi, arraultz ta ondoren
datozen perretxikuak.

Ondo pentsatzen jarri ezkerro,
gure lurreko bizia
alai gabiltzan garaian ezta
iruditutzen luzia.
Ordu batzuen gorabera da
emen daukagun guzia,
osasuna ta pakearekin
baturik Jaunan grazia,
zein eder diran mendi aldeko
eguzkia ta aizia!

Biziari iraun azitzezkeroz
lurrak ematen diguna,
bazkatutzeko bear du izan,
ori danok dakiguna,
Arnas bideai komeni zaie
aize garbi ta leguna,

gaillurretara pozik jungo da
egitazko euskalduna,
euskera ortik sendotutzen da,
ortxe du kabi kutuna.

Txomin epaillearengana

Udazken sartu berrian, eiztariak lainoetara sarri begiratu oi dute, tortola, galeper, uso, txoloma edo erbitarako zertatik joko ote duan eguraldiak.

Ain zuzen, agorraren 29an, igandea, San Migel eguna. Gau izartsu oskarbiaren arnas-lurruna, goizeroko intz eta basura, ixiltasun gozo paketsua ingurumari guztian lurrari ezarria zegoan.

Goiz-arratsari eldu ta bi eiztariak zakur banarekin gainak artuak zituzten. Goitik egoizea nabari zan, epel da atsegin; bee aldeetan preskotasun sano ta bizi alaigarria.

Alako intzarekin zakurrak erbi-usaia azkar artzen dute, eta *jin-jaun*, *jin-jaun* aguro ekin zioten beren arrastoan, artean illun zegoalarik. Berengana deitu ta katetik artu bear izan zituzten, alde egingo ez bazuten erbi ondoren. Ez baitzan oraindik ondo ikusten.

Ala zijoaztela, pago zabal baten azpian gizon bat eserita zegoala oartu ziran. Alderatu ziranean, egun onak eman da izketatik ezagutu zuten zein zan: Tximela bertsolaria, perretxiku biltzera joanda, eguna argitu zai zegoan, ezpainenetan errekiña zigarro bat zuala.

-Zer egiten dek or?

-Ementxe, motell, eguna argitu zai, inor etortzerako perretxikurik billatzen ote detan eserita lasai.

-I goizetik ere bertsoarako? Nik tabernan bakarrik uste niken aritzen intzala.

-Ni nabillen toki guztietan beti bertsoan. Leendabizi ikusten detan perretxikoari ere bertsoa botako zioat.

-Zer bota bear diok? Ez digukela guri bat botatzen...

–Bat? Bat bakarra? Badakik Tximela asten errezago dala ixiltzen baiño. Naiz goiz illuna egon, baziiek:

Eguzki zoragarria,
ekar zaiguzu argia;
pago azpian eseri ta
zure zai nago jarria.
Goiz zale da eiztaria
dirudila azaria;
baiña Tximelak danoi aurretik
gaur artu dizute goia.

–Ta paperak ere bazeuzkak, nai badezute erosi bina peze-
tan. Bi pezeta zer dek, bada? Bi baxoerdi. Emen, berriz, ogei
bertso perretxikoenak. Kantatuko dizuet nai badezute. Ik ere
ar zak, tonto zaarra.

Ori besteari esan da an ekin zion kantari. Luis Rezola
“Tximela”, Tolosan jaio ta Billabonan bizi zanak jarritako
ogeatatik aurreneko ta azkenekoa jartzen ditugu emen.

San Blasen jaio eta azia,
etxe atzean basoa,
oiñez ikasi nuan orduko
perretxikuta pausoa.
Ordutan antxe bildu ta bildu,
atozka amatxo gaixoa.
etzaitut aztu, goiko paria
ain zuan toki goxoa.

Orra ogei bertso berri nereak,
izena dute laukuak,
aspertu naiz ta lotara nua,
bukatu dira gaurkuak.
Biotz-biotzez opa dizute
Tolosako San Blaskuak,
danori on egin deizutela
aurtengo perretxikuak.

–Lau pezetarakin berrogei bertso, zer nai dezute merkeago?

–Aiba durua ta kobratu biona.

–Bueno, beste bat emango dizuet pezta orren truke ta kitto.

–Tximela beintzat dagoaneko asi dek xoxa biltzen.

Da besteari parra eragiñarazteagatik egiten zuan parra algara maltzurra bukatu baiño leen tximista bezin azkar an ezkutatu zan erbi bat larrean gauzez jaten ibili ta bere kabira, Txomiñen ardi-barrutira, alanbrezko esia pasata. Artean egun-txinta erabaki eziñik zegoan da alperrik zan aren atzetik abiatzea.

Beste egonalditxo bat egin da ondoren Tximelak perretxi-ku billa alde egin zuan, da bi eiztariak beren eiza-bidea artu zuten era ontan: Bitako bat erbia sartu zan ondoan gelditu, nola zuan ura eguneroko janera joaten zan pasoko bidea; ta bestea bi zakurrekin zabal aldetik joan atze aldera, ta aurrean artu eta ekarriko zuala, ta antxe arrapatuko zutela.

Alkarri lagunduta alanbre esia gaiñetik eragin zion batek, eta besteak zakurrak gaiñetik barrura eman zizkion, bera kanpoan arma eskuetan zuala erbi zai geldituz.

Txomiñen oia egun artan goiz oztua zan. Aurrena mezara joaterako ardi ume artuak edo aariz gurutzatuak beren gaueko etzauntza lekutik belazera bidali zituan, da aari, artantzu edo arkeria jarri gabeari, alea bizigarri eman da elizara garaiz iritxi zedin.

Askok ez uste arren, artzai onak badakite aariak ardiak umeak artzeko garaian ondo zaindu bear dirala, ustez indarreko egon arren. Bata bestearen leian larrean dabilzanean bear ainbat ez baitute jaten, da gogorrenak besteri uzten ez diolako ta bera gauza ez dalako, askotan ardiak antzu gelditzen dira. Alaxe, bada, ustez danak ondo ordenatuta edo komeni zaiena emanda.

Txomin kaleratu zan, batzuk ganbeletan jaten ari ziran bitartean. Belazera eraman zituanak, berriz, intz aundia nola zegoan etzanda ausnarrean marra-marra ari ziran.

Ta aireko pizti argi xotillak ain kantu edo abesti alai ta zoragarriak zeiniek ederrago alegiñean adierazten zituzten

garaian, eguzkiari leenen agurra norberak egin naiez, ardi otsan aien urbil da abeslari aien txiruliroak entzunez, txillar-ondoko almitz tarteko kabi xabalean penditz baten gainean etzan zan, gauzez ixil da bakarrik janean ibili zan erbi belarri erne, anka luze bizkorra, zetorren egun argia pakez lo gozoan igaro zezan. Baiña etzuan alako zoririk izan gaixoak.

Eguzkiak leenengo printzak mendi-muturrean agertu ordukoxe eiztaria an zan gainean bi zakurrekin, ardi guztiak izutuz. Ardi aiek ez baitzeuden oituak beste artaldeetako asko bezela inungo zakurrik ikusten, beti bertako barrutian egoten ziralako ta erio-suan danak alde banatara jo zuten, al zuanak al zuan tokira.

Ta erbia ere bai andik kanpora; baiña ez leenago etorri zan bidetik. Istant batez ango aldiak egin zituan.

Zakurrak ere jarraitu zioten itxiturako esira arte oso gertutik; baiña an oso zirrikitu txikiak egon da zakurrak ezin igaroz zebiltzan bitartean oso urrutiratu zitzaien.

Barrengo eiztariak irten egin nai ta ezin zuan. An arkitzen zan esola bat autsi ta alanbre batzuk etenda irten zan. Eiztariak ez dio begiratzen eizari besteri. Olako une estu batean itsututa bezela gelditzen da, besterik ezer ikusten ez duala. Bestela galdetu eiztari purrukatu bati zer duan naien, janke-ta (bankete) eder bat edo erbi bat berak izkilluz botatzea. Azkar esango du azkeneko au.

Intz aundia nola zegoan, zakurrak erbi usaiaren arrastoa zuzen zeramakiten, da ala ezkutatu ziran alde aietatik eiza zijoan aldera danak. Eguzkia indartzen ari zan bezela egoaize epela azi ta arrotzen zijoan, da goizeko ezetasunak azkar lehortu ziran.

Txomiñen artaldea oso aztoratuta zebillen, da etzuten muturrik lurtean ezarri nai. Ala zer suma dabillena argi ibiltzen da ta edozer ikusten du, ta bat or akordatu da alanbre esia irikia dagoala ta an dijoa kanpora. Ura ikusi zutenean baita besteak ere atzetik. Ondoan auzoko prantzibelar-soro bat zegoan. An bai azkar beren ao-sapaiak gozatu zituztela eta ijara ederrak jarri ere, arranek eypadu.

Baserritarra danik ez da izango au ez dakianik, prantzi berdea beroarekin jaten duten ganaduak, ta batez ere egoaize denbora sargoiarekin, zeñen errez aizatzen diran.

Txomin kaleko aldia egin da eguerdi alderako etxeratu zan, da ia danak lertuan arkitu zituan. Indarrean zeudenak, geiena jan zutelako, okerreña. Ala, bazekian leendik esnea zala ona aizatua pasarazteko, ta zazpi bakarrak akaatu zitzaizkan.

Aren tripetako miña etzan nolanaikoa izango, ta ara zer sendagai edo laguntza izan zuan auzotik. Inbiria ta ezin eramana alde guztietara zaiñak emana dago, ta araiño ere bai. Txomin baserri ortara joateaz ez baitzan askorik poztu auzotar ori, etxe artakoak alde egitearekin bertako lur batzuk egoki zetozkion da uste zuan alderdirik gabe gelditu zalako. Beste ingurukoekin marmarrean asiak zeuden, esanez:

–Olako artzairik ez diagu ikusi. Orrek xixtima berriak atera zizkiguk. Artzantza errez egin nai dik orrek.

Ala uste bazuten ere, xixtima berria ez baita ori. Batere munduko berri dakianak, toki askotan nola jartzen dituzten gaurko egunean ikusi edo jakin bear luke, orain baiño leenagotik asita gaiñera, ta ez ardiak bakarrik, baita beiak, zaldiak, beorak eta beste geiago ere.

Etzitzaion biotzik asko errukitu, artzaiak zazpi ardiren galera izan zuala ikusita, auzoko prantzi berde-jabeari. Txomin bere etxera joan zitzaion, alkarrekin konpondu egin bear zutela esanez. Baiña bekozko beltzarekin aurkitu zuan. Etze-goan bi paxientxiarekin gozatzeko tankeran. Ikusi orduko ekin zion:

–Zer uste dezu, artzaiak orrela izaten dirala? Ardiari bes-teren soroetan janarazita zedorri parrandan ibiliz? Ez, konpañero, ez. Ordaindu bearko dezu larrutik.

–Gizona, gizona! Neronek izan det kalterik asko ta etzaitzez orren aserre jarri. Auzo geranez, alkarrekin ondo eramanda obe degu, ta esazu zer bear dezun.

–Zer bear detan? Gutxi esaten badizut, biar bertan be-rriz botako dituzu gaurko larretokira; ta, arreta obea jar

dezazun, bereala esango dizut zenbat: Amar ardirekin bei batena ainbeste jotzen da gutxi gora-beera, ta irurogei ta bostek sei bei ta ardiak ainbeste. Nai badezu, buruko eun laurleko (pezeta); ta, nai ez badezu ori eman, nik pentsatuko det zer egin.

–Neri asko iruditzen zait. Nai badezu, esan dezunetik lautatik bat oraintxe bertan emango dizut.

–Nik esana ez izatezkero ez det deusen bearrik.

–Nik ez dizut, bada, eskeñia baiño geiago emango.

–Ori esatera etorri al zera?

–Ni eman nezakeena eskeintzera etorri naiz.

–Biar itz egingo degu juezaren aurrean.

–Nai dezunaren aurrean.

–Biar, eguerdiko amabietan, berarekin izango naiz.

–Ni ere ordurako joango naiz.

Alkarri agurrik egin gabe partitu ziran.

Erri ortan *juez de paz* deritzaionerako izendatua kanpotik etorritako bat zegoan, sudurpeko bizar luzedun anka erren bat, eletrizista, radio konponketa, erretratoak atera, oiñetako konpontzaille, praktikante, emagintzan da albaiterotzan daretan zekiana.

Leen aipatutako bi gizonok joan zitzaizkan auzia erabaki zezan. Guztia arretaz entzun ondoren, galdera au egin zien:

–*¿Ustedes de antes tenían algún rencor o alguna diferencia?*

–*No, señor* –biak bat-batean.

Txomiñi zorrotz begiraturik, juez bat bezin legor mintzatu zitzaion:

–*Yo a usted no le conozco, pero a este señor sí. Todo el calzado que les arreglo, esta familia me lo paga bien; y tengo la seguridad de que le ha pedido lo justo. Además, usted está obligado a cuidar de su ganado o a pagar los daños y perjuicios. Y se acabó. ¿Tiene algo que alegar?*

–*Sí, señor.*

-Diga.

-Yo tenía mi ganado bien sujeto, pero a mí me han perjudicado. Han roto la alambrada y he perdido siete cabezas.

-¿Y sabe quién ha sido?

-Según me han dicho, unos cazadores.

Orduan juezak:

-Bueno, le doy el plazo de un mes, y si dentro de treinta días no averigua usted quién ha sido el malhechor, le pagará a este señor, delante de mí, lo que le pide o me lo entrega a mí. Y nada más. Adiós. Y otra cosa: deje los alambres tal como están, sin tocarlos.

-Sí, señor.

Ala, alde banatara sakabanatu ziran Txomin da bere autotarra. Laguna zuan ezkerro perretxiko billatzailearengana joan zan Txomin, bere gora-beerak esatera, eiztari aiek zein ziran jakin naiez, ta arek leenbiziko itzetik:

-I boboa aiz, motell.

-Zer bada?

-Zer bada? Ik esan bear ioan, bizarra kentzen ez dakian ezur beltz ari ez dala ainbesteko kaltea ardiak egin dutena. Aiek jartzeko tasatzeko gizon bat, ik jarriko dekela beste bat, eta aiek erabakitzen dutena eman da kitto. Zertarako ainbeste tontokeri? Ta emendik illabetera neronek lagunduko diat. I bitartean egon adi lasai.

-Baiña bien bitartean esia ez ixteko esan zidak.

-Ori ere bai? An ez baago berriz joan ditezen esan dik ori, eta leenbaileen ordain dezaioken eskatutakoa. Baiña ori erre-meitzen erreza daukak. Barruragotik ixtak, alanbre berria jarritz.

Ta alaxe egin. Zenbat ate, ainbeste maratilla. Erri baserri-tsuak diran lekuetan bertako oiturak ondo dakizkiten juezak jarri bear lituzteke, naiz izenpetzen edo pirmatzen ez jakin.

Badira Euskalerra zaarreko baserri banatuetan zentzu oneko ta arrazoi zuzeneko gizon nortasuna duten kristau

zintzoak, perretxiku-biltzailleak Txomiñi erakutsi zion bezela erakusteko, ta zer egin ondo erabakitzen dakitenak, usategi batean kabiroirik sartu gabe.

Udazkenean, baserri geientsuetan edo askotan abelgorriak larrera ateratzeko oitura izaten dute, ta Txomiñen auzokoak berdin egin oi zuten. Bost bei, bi idi ta asto bat zituzten; ta, eguraldi ona zan guztietan bein sega jartzeari utzi ezkeroz alik eta izotzak asi bitarte jakiña izaten zan egunero-ko ango martxa.

Juezaren agindua errespetatu zuan Txomiñek bere barrutiko esia ez ixtearekin, da baita egin ere lagunaren kontseju ona, beste alanbre berria eraman da barrurago jartzearekin. Antxe gelditu zan, bada, larre mordoxka bat ardien aldetik itxia ta auzoko mugaren aldetik une batean sar-lekua zuala.

Nola etzuan iñork moztutzen oso belar gozo ta tentagarria jarri zan illabete ingururako, alde aietan elikatzen zan erbia ere bota baitzuten, ta zein eiztari izan ziran lan auek jarri zituztenak billatzen etzan lan zailla.

Baiña nola salatu perretxiko-biltzailleak bere lagunak bazituan? Ta nola utzi Txomin perretxiko biltzailleak laguna bazuan? Bi egun palta ziran juezak jarritako plazoa betetzeko, ta bat edo beste egin bearra zegoan.

Egunero, leen esan degun bezela, auzo ortakoak gana-duak larrera ateratzen zituzten, ta egun ortan aita perira joana, edo ama etxean ez, ta mutil koskorrak atera bear izan zituzten beti bezela beren ikullukoak.

Atetik atera aala, danak zuzen-zuzen alkarren atzetik bata besteari segika, alanbre tarteko belar berri goxo artanxe sartu ziran. Umeak, berriz, umekeritan ikulluan, gorde-gordeka jostatzen, kirik batek eta kirik besteak.

Esnetan zeuden beiak a zer nolako errapeak jarri zituzten! Idiak, naikoa jan zutenean alkarrekin burruka saio bat egin da bertan jandakoa birritan aoan gozatuz, ausnarrean zanga-zanga etzan da ari ziralarik, astoak eguzkiari ortzak erakutsiz, arrantza aundi bat egin zuan, da orduan oartu ziran etxeko mutikoak azienda guztiak okerrean zebiltzala.

Bai Txomin ere sailletik danak ateratzerako an agertu zan. Anka-joko ariñarekin joana zan da biotzaren taupadak gogor jotzen zuten bitartean buruz pentsatzen zegoan:

–Nere epaia onekintxe erabaki dek.

Esan da izan. Urte-garai ontan edo urte-muga ontan, eguna azkar illuntzen da, ta kanpoko lanak argiarekin bukatu edo utzi. Txomin apari-merienda legea betiko eran egin da etxe-barruko lanetan astera zijoala, atea *tan-tan* jo zuan norbaitek.

–Zein da ? –barrutik.

Eta deitu zuanak;

–Ni naiz. Ezagutu nauzu?

–Bai, bai.

–Zurekin itz egin nai nuke.

–Sar zaitte.

–Gau on.

–Berdin.

–Aspaldian zurekin itz egin naiez nenbillen, da ez gera iñoiz ala eratu.

–Alaxe da.

–Batek nai ez badu, aunitz zailla da biak batzen.

–Etzenduan nai ala?

–Nik ala zuk?

–Nik nai izan ez banu ez nintzan etorriko.

–Ta nik nai izan ez banu, ez nuan aterik idekiko.

–Ori ere bai?

–Ta zer dakartzu? –Txomiñek, apala zalarik, jauntxo bat balitzan lez zorrozki begiratzuz.

Gure gizontxo kanpotarrak etzeukan besteren ardiak prantzi berdetara sartu ziranean bezelako arrokeririk. Gizona besterik azpian ikustean aizez puztutzen baita; ta, bere burua bean ikusten duanean, umildu.

–Badakizu epailearengana joateko eguna gaiñean dala. Zer ikusi zalantzan nengoan aspaldian da argatik etorri naiz,

konpon bagindezke. Esan didatenez, gure ganaduak gaur sartu omen dira zure sailletan, eta alkarrekin lagun bear degu aurrera ere, ta ez dakigu noiz alkarrena beartu gindezken. Usterik gutxienean, agian.

–Zuk diozun guztia ondo baiño obeto dago. Baiña badakizu nola agindu zidan epaille jaunak esi-puskatzailleak eramateko; bestela zuri bere aurrean ordaintzeko edo bere eskuetan uzteko zuk eskatzen zenduan dana. Nik bitatik bat egin bearra daukat, eta nik emango dizut zuk eskatu guztia beraren aurrean; eta gero, andik ateratzean, zuk emango didazu neri nik eskatu guztia.

–Zenbat eskatzen dezu, bada?

–Amar ardiak bei batena esan zenduan. Nik zuri, sei bei ta erdina, ta zuk neri bost bei, bi idi ta astoarena, zazpi bei ta erdina. Konforme?

–Konforme.

Ogei ta amargarren egunean perretxiku-biltzailleari kasorik egin gabe Txomin joan da zana zan bezela eskatutako guztiak eman zizkan epailariari. Onek orduan txartela izenpetu zion, da Txomin patrika arinduarekin etxeratu zan.

Biamamonean, auzora joanik, topatu zuan gizon pakezale-tua; ta, erakutsirik emandako diruaren ezaugarria, buruko eun pezeta, au da, 6.500 laurleko, sei bei ta erdi balira bezela, berak 7.500 ordaindu zizkan, bei batena geiago. Adiskide ta auzotar on bezela alkar agurtu zuten eta olaxe paketu ziran.

Andik zortzi egunera juez pake-jartzaillearengana joan zan, Txomiñek utzitako diruak jasotzera; ta, epailleak zuan eskubidez, euneko ogei ta bost –lautatik bat– kendu zion artu bear zuan pillatik. Ara zer-nolako porru-aziak atera zituan gure baserritar zikoitzak.

Jose Inazio Albizu

1915.05.10

Gerratea, familia, andregai

Milla pasa ta bederatzireun
amabosgarren urtian,
ni jaio nitzan maiatzak amar
zituen egun batian;
Garin deritzan barrio bat'a⁷
Beasaingo partian,
netzat izan dan eunik aundina
ura da orain artian.

Bost urterekin etorri giñan
Urnietako partera,
lenengo eskola Larburura ta
urrena Kintalanera⁸;
andik urrena gero errikuan
asi artian lanera,
estudian batzuek aiña
gastatu gabiak gera.

Gure jaieko dibertitzia
meza nausi ta bezpera,
pelotan egin saio bat eta
illuntzerako etxera;
lanak eginda afaldu eta
errezatu ta oiera.
Gazte denboran izugarrizko
istorikuak ez gera.

Nei gurasuak ze esaten ziren
beñere etzait aztuko:
lagun onakin junta nedilla
eta txarrari uzteko;
txar bat bakarra naikua zala
beste guziak nasteko,
aurreko danak onak zirala
eta onari eusteko.

Gure guraso maitagarriak
zuzenak ziran gogotik,
aien animak egiñak ziran
lore usai gozozkotik;
dana ein zuten Jainkua eta
semiaren onagatik,
oraindik ere laundu naiean
or daude beira zerutik.

Guraso onak aldegin zuten
betiko ezin bizi ta,
oiñordekuak gu nola giñan
itsu-aurreko utzita;
aurrera nola bear genduen
garbiro erakutsita.
Erderaz ikasitzeko baiña
euskerari eutsita.

⁷ Bat ta : bat da.

⁸ Eskola ematen zuten etxe xaar baten izena. Mozotegiko Anjela Arrue zen hango maistra, 1924an.

Amairu urtekin asi nitzaden
tratuakin Donostia:
ollasko ta ollo, koneju ta uso,
arraultza eta esnia,
fruta, berdura, urra ta intxor,
etxian zegon guztia.
Amari sosak zintzo ekartzen
izanagatik gaztia.

Amaika bider Donostiara
juanda nago kontentuz,
ni baiño obeto munduan iñor
etzala bizi pentsatuz;
neskatx ederrak ere baziran
eta aiekin jolastuz,
amaika parra eiten genduan
geren ipui eta kontuz.

Ni zenbat aldiz jeikia nagon
pozikan asko goizian,
Donostiako nere buelta
egingo nuen pozian;
gaztia izan, odol berua
eta sasoi gorputzian,
asko pentsatu gabe ain bueltak
nola etorriko zian.

Buruausterik aundiena zan
nola parra egitia,
ala geiltzala etorri zitzaun
Españiko gerratia;
eta orduan akabatu zan
nere ondo izatia.
Makiña batek ein zuan negar,
etzuten nai ni juatia.

Zazpi urtian ibili nitzan
ta ezagutzen ninduten,
«Errezatuko dizugu, Jose»
danak esaten zidaten.
Ez nula uste ainbat nai zidatenik
etxian esan nioten,
damutu leitzan neri esana (sic)
negarrez asi zitzaienten.

Aguazil jaunak nei eman zidan
gerra juateko ordena,
kontseju au zan orduan aitag
neri eman ziradena:
«Jakin bear dek Santo Kristo au
igatik ilda dagoena,
onen dotriña bete bear dek
emen ikasi dekena».

Itzik esan be neri baietza
aitak entenditu zian,
ta berak ere sinisten zula
itzik gabe esan zian;
nere kolkuan ibili nuen
gero gerrate guzian,
eta nerekin ote neraman
beti begiratzen zian.

Ama gaxua negarrez zegon,
etzuen ematen pozik,
ta aitag berriz bazirudien
zeguela ondoezik;
burutik bera beira anaiak,
etzadukaten jolasik,
alde banata ezkutatu ta
etzidaten egin itzik.

Atia itxi, matillai eman
ta egin nuen aitaren:
«Zeruko Ama, lagun zaidazu
berriz sartutzeko emen;
gure Jainkuak bakarrik daki
gu zer ikusteko gauden».
Osasun ona eta bizia
eskatzen niola arren.

Etzan faltatzen Eibar aldeko
kaiñoi ta bonbazo otsik,
aien dardarak neri illiak
jarritzen zizkidan zutik;
atsekabe ta albiste txarra,
iñundik etzegon pozik,
zeiñen txarra dan erakusteko
nik ez det billatzen itzik.

Egun aietan zer pasa nitun
beñere etzait aztuko,
naigabe aiek netzat zeudenik
nik ez nuen sinistuko;
alako miñik berriz ez al da
gure etxera sartuko,
otsoik gaiztona ala ikusita
ni ez nitzake poztuko.

Alako martxa ta esperantza
danak galduta utzirik,
ta okerrena berriz bizia
ari batetik zintzilik;
une batian etzan arintzen
naigabiaren pisurik,
danak utzita juan bearra
zeguan ixil-ixilik.

Adios, nere erri maitia,
adios, neska gaztiak;
adios, andre eta gizonak
ta nere lagun guztiak.
Adios nere ilusio ta
ondo izateko ustiak.
Nik banituan naikua lanak,
eztakit zuten bestiak.

Penaren karga galantarekin
atera giñan erriti,
beti pentsatzen zer paradero
ote zan bizi berriti;
orretaraiño josi ginduzen
munizio ta armati,
kanta ta bulla ugari baiña
animo gutxi barruti.

Eman ziguten biña muda ta
manta eta kapotia,
bizi berrian gogoz asteko
ori zan gure dotia;
ikasi gendun arrastaka're
muskarran modun juatia.
Ala juateko beartuta're
ona baitzan jakitia.

Asturiasko Picos de Europa
dira mendi izugarrik,
eta Jakako Pirineotan
eztu kendutzen elurrik;
ibiltzen dira otso ta artzak,
basaurde eta azarik,
aik pasa giñun kapotia ta
manta batekin bakarrik.

Manta bat eta kapotia zan
gure oia ta tillatu,
beste babesik etzan ezer'e
naiz ta denbora mudatu;
metro ta geio ziran elurrak
ere giñuzen topatu,
ta zenbateko jelak ziranik
guk ez giñuzen neurtu.

Len zenbat giñan, orain ainbeste,
mordo bat falta onduan,
bala bearrik debillak eztu
alako bizimoduan;
arria baiño gogorragoko
osasunakin naiz juan,
guk bagiñuzen naikua lanak,
geiago ezin genduan.

Gu frentetikan gatozenian,
beñere etzait aztutzen,
salbokondutorik bagenduen
iñork etzigun eskatzen;
seiñale gendun nola gebiltzan
edo nundikan getozen,
ekartzen gendun arpegiakin
azkar ezautzen ginduzen.

Lenengo aldiz permisuakin
etorri nitzan Bizkaitik,
ta ordurako izugarriak
aituta zeuden nigatik;
egundo beñe karta tristerik
ez nuen egin frentetik.
Nigatik txarrik ez pentsatzeko
arren Jaungoikuagatik.

Lenengo golpez gelditu giñan
erdi mutuan bezela,
pozez ta penaz bata bestiai
itzik asmatzen etzala;
nik esan nien asko zan baiña
geigo esaten zutela,
bestien berri nik ez nekila
baiña gu ondo geiltzala.

Aiek negarrez eta ni parrez,
ura're teatrúa zan:
Gerrak nai nula nik segitzia
baldin ura gerra bazan;
bestien berri nik ez nekila
gu nola ondo gebiltzan.
Gezurra esanda begira nola
zerua irabazten zan.

Pena ta poza biak batian
gurekin ziran juntatu,
alako biotz samur aieri
nola ez disimulatu?
Beakin zuten naikua lana
aiek, arranepolatu!
Guregatikan izan zituzten
makiñatxo bat olatu.

Gure izketak ganbiatzeko
goatu zitzaidan neri:
«Naiko sardua edan biau ta
onenetikan ekarri».
Binbitartian ni ikuillura
juan nitzaden kantari,
eta belarra bota nioten
txekorrari ta beiari.

Sagardu ori puru-purua
oso ederra zeukaten;
nik esan nien guk ardo onak
asko giñula edaten,
baiña neretzat alako gauzik
ezer etzala izaten;
atsalde dana pasa genduan
jan da kontuak esaten.

Orduan amak era onetan
itz egin zion aitari:
«Au nunbait ere eztabil ondo,
eskeletua dirudi;
morua baiño beltzago da ta
beiratu onen zarpari,
miserable bat einda dago ta
ezta isiltzen kantari».

Aitak erantzun bazekiala
gu oso gaizki gailtzala,
baiñan askotan ori geroko
mesede izaten zala;
Jaungoikoari eskeintzeko ta
Ark ordainduko zitzala,
txarki pasiak aprobetxatzen
arren ikasi nezala.

Nik esan nien: «Suerte bat-ta
ez ditekena aldegin,
gure Jainkoak firmatua du
gu bakoitzari zer egin;
errezatzia ona da baiña
etzazu negarrik egin».
Arrek etzaukan deskantsu onik
naiz-ta guk egin alegin.

Nere ama onak berekin etzun
gaurko askok aiña laiñeza,
baiñan alare etzuen izan
oso zartzaro erreza;
gero eskertzen juanda izan zan
Arantzazu ta Lurdesa.
Nere esker ona zeruetara
emen lurretik ar beza.

Kontraatakia etorri zan da
neri odolak irakin,
eta eskuak erre nituan
fusil gurituarekin;
agintariak saritu nairik
nik egin nuanarekin,
lau eguneko bidaldu niñun
Bizkaitik permisuakin.

Gure etxian au etzekiten
nik ez nioten esan da,
eta etziren eskuik ikusi
azpira jartzen nizkan da;
pasa nituen neriak ta bi
oso erriak nauzkan da,
amak ez nuen jakiterik nai
penaz urtuko baizan-da.

Lau egun aiek motxak ziran da
bukatu ziran seituan,
ama neria etzan geratu
lanian da errezuan;
etzakit zenbat meza atera
ta promes egin zituan,
baiña utzi ta juan bearra
etzegon arren eskuan.

Atera nitzan bostekua ta
laztan on bana emanik,
parra algara lasai egiñez,
ez nien eman nai penik;
len utzi nuen toki artara
nola nijuan jakiñik,
nere artian esaten nuen:
«Eztit geiago gauz onik».

Ni egun artan bai etxetikan
triste atera nintzala,
iruitzen zitzan otz-bero aitan
iraungo zunik etzala.
Batek jotzia naikua eta
balak ebia bezela,
andik bizirik etorritzia
milagro izango zala.

Naiago nuen ara juan baiño
Adarra mendin gelditu.
ezkurra jan da kanpuan lotan,
eta ez aruntz abitu;
gau eta egun mokoik jan gabe
tiroka gera aritu,
baiñan alare beti suertez,
beiñere ez nitzan eritu.

Balientiak tabernan asko,
bertara juanda gutxi,
arrokeriak umildutzeko
eztet oberik ikusi.
Mendira jo ta lau eun balen
agoniz kamillan jetxi,
ta arritzekua etzan batere,
an etzitekian bizi.

Adarra mendi oso bajuan
utzitzen duten mendiak,
gau eta egun ordu guzitan
nik egin ditut goardiak.
Ai, ango otzak eta elurrak
ta brisa beldurgarriak!
Jantzi gutxi ta surikan gabe
ikusi giñun gorriak.

An baziraden mutil jatorrak
kastellano ta euskaldun,
etorri gabe an geratuak,
gurekin juanak ordun.
Aiek lurpian gelditu ziran,
gu emen gabiltza mundun;
suerte iguala ez gendun izan,
arrisku berdiña gendun.

Beste anai bat ere badet nik
or ederrak ikusia,
artian emen txofer gutxi zan
ta ura zegon ikasia;
tokatu zaion lendabiziko
tanke alemana artzia,
gero berakin pasatu zuen
gerrako ekaitz guzia.

Toro⁹ deritzan erri aundi bat
tokatu zitzaun artzia,
fortunatu zan gure anaian
konpañiya etortzia;
aietako bat nik ikusi ta
zein ziran ezagutzia.
Pasa ta gero oso errez da
kontu aiek esatia.

⁹ *Toro* errian etzan gerrarik izan. Beste erriren bat izango da. Izena
naastu duela, alegia.

Bata bestiai idatzi gabe
etzan pasatzen asterik,
ta aspaldian ez nun ikusi
nere anaia maiterik.
Eta an zegon potajiakin
ez ematearren penik,
ondo-onduan beira egonda
ez nion egin kasorik.

Lendik nakien juaten zala
tanke número tres-ekin,
gain eta azpi su ta garretan
an oi zan tiro otsakin;
oso gertutik ikusten nuen
nola zijoan Joxakin.
Oraindik pena etorritzen zait
ura pentsatu utsakin.

Tanke atzetik juan giñaden
aieta ainbat bidian,
zulo galantak eginda zeuden
ondo gordeta lurrian;
beren tanke ta kaiñoi zarrakin
millaka gizon aurrian,
aita juatia ez da jakiten
zer dan probatu artian.

Armamentua naikua eta
etzuten falta gizonik,
era arretan etzan munduan
aieta sartuko zanik;
atzera igesi abituta're
berriz etzegon gauz onik.
Bertan tiroka gelditu giñan
luze-luzian etzanik.

Euzkia zegon sua bezela
ain berotasun errian,
lurra're berdin azpiti gora
ango toki legorrian;
arri kozkor bat billatu nuen
jartzeko buru aurrian,
egun guzia tiroka etzanda
pasatu nuen lurrian.

Erre bear da mokoik jan gabe
egarriz ta auleriak,
ta ke tartian anaia ere
ikusten zuten begiak.
Ango tiruak, ango aienak,
ango il eta eriak!
Ez dakit zenbat kulpa genduen,
ikusi giñun gorriak.

Bean ortxe ta juanda etzanda
tiroka egun osuan.
Egiten zuan beruarekin
batek erre bear zuan;
suerte bat zan eritutzia
toki onian bazuan,
aragitako balazo batek
inbiri ematen zuan.

Tanke barrenen anaia gaizki,
ni berriz petxu librian,
millaka bider ordun bezela
eriotzaren aurrian;
il da eritu ez dakit zenbat
nere ondotik juan dian.
Gerra nai dunak ikusi beza
nolako bentajak dian.

Gero gabian agindu zuten
puiñalarekin jartzeko,
ordena zala nai eta nai ez
mendia ura artzeko;
otsuen gisan saltatu giñan
an zeudenak tragatzeko.
Etzegon iñor, aldegin zuten
beldurak arrapatzeko.

Pasa giñuzen jela galantak,
elurak eta beruak,
bata bestiai tira genizkan
esku-bonba ta tiruak.
Il da eritu eta gaxorik
aldegin zuten morduak,
baiña nerekin etzuten lanik
izandu kamilleruak.

Pena ta poza biak giñuzen
guk gerra bukatutzian;
balio eztun zatar moduan
makiñatxo bat il zian.
Aik'e bakoitzak falta ederra
utziko zuten etxian.
Zeruko Aita, aien erruki
izan zazu biotzian.

Kaiñonazuak edo granadak
anketan neri lerturik,
ta ke tartian gelditzen nitzan
iñola ezin itorik;
kia juatian zerbait ote nun
gorputzian beiraturik,
eta beiñere ez nuen izan
metrallaren ikuturik.

Aurreko puntan ibili nitzan
iya iru urte luzian,
jakin nai nuke neri tiriak
zenbat milla tiro zian;
ainbeste bala-txistu aitu ta
iñork ikutu etzian,
nik milagrotzat artua daukat,
norbaitek laundu baitzian.

Zorioneko gerra dala ta
degun oinbeste istori,
neriak baiño aundiagoak
aditu dizkat askori.
Nik pasatako neke samiñak
ez dizkat opa besteri,
askoren orde z kontatzen ditut,
eskertutzen det nik ori

Nere gerrako pauso guztiak
soldadu batenak zian,
batek alegin egin bear du
dijoan toki guzian;
nik an ibili baiño naio nun
askoz geratu etxian.
Beste biderik ez nun da ez det
kargarik kontzientzian.

Barkatzen diet neri tiruak
tira zizkidatenari,
ta barkatzeko eskatzen diet
nik tira nizkatenari.
Nik bezelaxe naiko zioten
aietzek beren amari,
txarki nai eta gorroto gaiztoz
ez nion tira iñori.

Osasun ona ekarri nuen
Jaungoikoari graziak,
nik dedan ditxa etzuten izan
nekin juan ziran guziak.
Guk pasatako neke samiñak
eraman zitun aiziak,
Jainkuak ondo artu bazitun
aztuko dira guziak.

Ainbeste otz-bero, ainbeste gose
eta ainbeste egarri,
gerra bizian gau ta eun tiroka
ibili giñan elkarri.
Orain zartu ta ajiatuak,
ez dakite gure berri,
argatik jarri ditut bertsuak
orduko oroipengarri.

Nere lagunak ni bezelaxe
dudikpe ziran zartuko.
baziran aitan jator askuak,
beiñere etzaizkit aztuko.
Didaliko'izkat abesti auek,
diruik eztiel artuko;
nola ibili giñan goatziaz
etzaizkit asarratuko.

Jaiotakuak artaz azterik
iñori etzaio gustatzen,
asko giñan da esaten asi
orduko dira aspertzen.
Bertsotan pixkat dakitelako
ni zein en ederki naizen.
Ondorenguak ditudan arte
norbait ariko da letzen.

Gerra bukatu, pasiak pasa
eta bagatoz atzera,
gau eta egun gure zai zegon
amai lepotik eltzera;
makiñatxo bat gelditu dira
baiña bagatoz etxera.
Akordatu ta negar malkuak
zetozen begi ertzera.

Nere amakin gero etxian
biok aurrerikan aurrez,
arrek gajuak busti ninduen
beraren malko ederrez.
«Pasa dizkiat ederrak, Jose,
ilko auteken bildurrez,
gaurko eguna ez dek iritxi,
motell, nik nai bezin errex».

Biotzez maita ditzagun amak
guztiak onak dira ta,
baiña onena nor beria da
mundu guzia jirata.
Gure gorputza eta arnasa
berak emanak dira-ta,
bere besora etorri nitzan
ainbeste tiro tirata.

Gerra guzian nere kolkuan
ibili nuen Jesusi,
ama neria esker ematen
era onetan zan asi:
«Zerekin patu bear dizut nik
auek diralako bizi?»
Aren otoitzen medioz nintzan
dudikpe berriz iritxi.

Bi seme eman gerrarako ta
arentzako erasuak,
sano ikusita zerekin patu
arrek etzakin, gaxuak.
Zer ote ziran arek guretzat
egin zitun errezuak?
Aztuta bazter ez al du eukiko
gure Jaun errukitsuak.

Zerbait nai banun lagundu nai ta
artu ninduen bakarrik:
«Esaidak, Jose, iñun ezertan
egin badek gauza txarrik».
«Ez, ama, oi ez, Jaunai eskerrak,
nik ez det odol mantxarrik,
alde guzitan eztegu egin
ondo eitia besterik».

Eta jarraitu nion esaten
nei gertatu zitzaiztanak,
neregatikan bizi zirala
bestela ilko ziranak.
«Ondo goguan artu nizkizun
zuk nei askotan esanak:
Gero damurik etzula izaten
ondo ibilitzen zanak».

Kontzientziak neurri berdiña
kalian eta mendian,
gure Jainkuak bakarrik daki
gerran zer pasatzen dian.
Zenbaitek itzak ederrak eta
demoniñua gordian.
dirua eta gerrak onak ira
oik jakiteko nor dian.

Noizbait andik'e pasatu bear
gauza onik ez bestela,
txarrik aitu ta etortzen ziran
zein giñan etzakitela.
Zerbait emanez ondo itz egin,
aien anaiak giñela,
ta nora juan esaten giñen
kristau umillak bezela.

Zenbait lasairek kontzientzirik
nola izaten ezatuan,
pagatu zuten eroi ziranak
olakuaren eskuan.
Orain amaikak egon beaute
nai ta ez trantze estuan,
egin zituzten bekaizkeriak
iñola ezin aztuan.

Makiña batek egon bear du
orain gero ta larriyo,
egin zituzten astakeriak
diradelako meriyo;
kontuak eta gezurak eztu
Jainkoarentzat baliyo,
zer egin duen bere ordaiña
denboraz emango diyo.

Nik iru dauzkat oso goguan
beste guzien gaiñetik,
zenbat kostata nola bizirik
atera ziran nigatik.
Nunguak ziran, zer egin zuten
geroztik ezer ez dakit,
baiña Jainkuak eiñak ziran da
orrekin inportik ezti.

Ill eta gero ezer eztala
askotan aritutzen da,
Jainkuarekin oso urruti
dabiltzan batzuk esanda.
Nai eta nai ez gaiñian degu
ori ikusteko txanda,
eta eztegu asko galduko
emen umillak izanda.

Millaka urte jua ziranak
kondenatuta emendik,
iñon laguntzik eztute eta
artan dijuaz oraindik;
guk aientzako esaten deuna
esango dute gugatik,
ori gertatu baiño lenago
jakin dezagun aurretik.

Nere iritziz gure albu
zulo bat aundia dago,
eroitzen dana an juango da
gero eta azkarrago;
ta zenbat eta azkarrago jun
orduan da bakarrago,
ta beti ala jarraituko du
iñun mugik ezpaitago.

Dana jakin nai ta ezin jakin
austen ditugu buruak,
ta gauza oiek eztitu jartzen
oso garbi liburuak.
Baiña sinistu bear ditugu
dotriñaren aginduak:
Ejenplotxo bat jarriko'izuet
zer diran misteriuak.

Amak alaba izango balu
leiza zulu
bularrarekin azi ta esan
or goien zer gauza dian.
Lurra ta ura, sua ta aizia
eta txoriak aidian,
baiña ark eziñ ezer pentsatu
berak ikusi gabian.

Lana eskeintzera
Erriko Etxeko komisioko
bi gizon gure etxera,
argi laneko gizon bat falta
ta lana eskeñtzera;
juntatu eta itz egin degu:
«Zurekin goatzen gera;
Joxe, etzera gaizki izango
gukin etortzen bazera».

«Eskerrik asko, akordatzia
eztezute egin gutxi;
baiña jornala txikia dago,
orrekin ez leike bizi».
«Nai ezteunen bat etorriko dan
beldurrez genduan etsi,
an asi gogoz lanian eta
oi gure eskura utzi».

Konformatu ta era onetan
asi nitzaden lanian,
eta soldata jarri zidaten
tokatzen zitzaidanean;
negoziua jarria neukan
buruan da mingaiñian;
orregatikan gero utzi nun
iruitu zitzaidanean.

Gerra guzian irabazi ez,
jakiña beti gastuan,
ta diru asko ezin eduki
iñola ere bankuan.
Taberna eta denda txiki bat
elizan ondo-onduan,
lana egin da zintzo ibiliz
danak moldatu nituan.

Nai nuen izan aita antzekua.
ura etzan kobardia,
eta ama zan bezelakua
berriz nai nuen andria;
ama maitiak zeruetatik
egiten ziran goardia,
eta bera zan bezelakua
neretzat zeukan goardia.

Nere amaren iguala da
ta beriakin berdiña,
kontseju onak ikasia ta
bera jaiotzatik fiña.
Biotz-biotzez eskertzen zaitut,
zeruko Ama Birjiña,
zergatik neri eman didazun
dezun aingeruik aundiña.

Nik ezagutzen nituan ordun
neskatxa jator askuak,
oietako bat niganatzeko
ziran nere errezuak.
Txuri-txuriak ziran orduan
egan zebiltzan usuak,
zakarkeririk bate gabiak,
umillak eta gozuak.

Egun batian Lasarte aldeko
lineak aberia zun,
argirik gabe nola bait zeuden
konpondutzera nitzan jun;
martxua zan da euzkia ere
oso berua eiten zun.
Egun artako pasadizuak
begira nola ditugun.

Bakar-bakarrrik postien puntan,
iñor besterikan ez nun,
etorri eta: «Egun on, Jose,
esan laguntzik nai dezun».
Poste gaiñetik nik itz egin da
zuk lurretikan erantzun,
gaur nolakua ziñan eztakit,
bista kendutzen zidazun.

Nik esan nizun ez nula ezautzen
neskatxa eletrizistik,
baiña onenak bear zutela
nai ta ez mundu guzitik:
«Neretik baiño argi obiak
juango'ira zure eskutik.
Ez al ziñake onuntz iyoko
obiak jartziagatik?»

«Nik jarritako argiarekin
ez dezute ikusiko,
ni punta ortan bost minutuan,
Jose, ez nitzake biziko;
nik zer bildurra dioten orri
etzenduke sinistuko,
milla pezeta aginduta're
ez nioke ikutuko».

Aberiaren atzetik juana
ni ez nebillen txantxetan,
egiten zuen beruarekin
antxen izardi patsetan;
txerria il da tripak garbitzen
ari zan zion itzetan:
«Amaiketako pixkat eiteko
etzabiltz toki txarretan».

Botil sardua atera zidan
platerka gibelarekin,
eta serbitzen bera zan berriz
arpegi alaiarekin.
Atzera nola egingo nion
nedukan goguarekin?
Amaika bider gogoratzen naiz
amaiketako arekin.

Beira Jainkuak zeñen ederki
gauzak zuzentzen dituan,
nik esan nion nobio asko
aber izandu zituan.
Nik andre on bat falta nuela,
aber etorri nai zuan,
edo besten bat ni baiño obia
lenagotikan bazuan.

«Beñere ez tet izandu eta
ez det penarikan artzen,
gaur dan euneko mutillarekin
batere ez naiz fiatzen;
kontua pranko artu arte ta
geio eztira goatzen.
Bakar-bakarrrik naio det bizi,
ez gizonakin sufritzen.

«Gobernatutzen badakit eta
sasoikua ta gaztia,
gustatutzen zait lana eginda
txanponak irabaztia.
Baldin zu artzen baldin bazaitut
neretzako emaztia,
ezti gozotan pasako degu
munduko bizi guztia.

Gazte denboran ni izandu naiz
bate jolastu gabia,
sosik ezpau're ez tit inportik,
ona nai nuke andria;
orixe dala iruditzen zait
nere zorion bidia,
nik daduzkaten lar-sasi auek
lore biurtuko dia».

«Jose, olako izketarikan
eztiot aitu ñori,
etzazula uste oiek seituan
aztuko zaiztala neri:
nik mutil on bat eskatzen diot
Lezoko Santo Kristori,
ta nai badezu aurrera segi
esan zaiozu amari».

«Zurekin emen iruditzen zait
zeruan sartu naizela,
zukin batian bizitzeatik
juango nintzake kartzela.
Neri biotza kendu didazu
kutxilluakin bezela,
zeorrek erantsi zazu mesedez,
penaz ilko naiz bestela.

Gogua baukat, aizu, Isabel,
zuri jartzeko poltsera,
naiko dirua ekarriko'izut
diruz gustatzen bazera;
balio aundiko gauzak zakuka
ekarriko'itut etxera,
erregerekin baiño obeto
nerekin biziko zera.

Baserri zabal bikain onetan
jaiotakua zerade,
eta zu zera bertako izar
dizdiratzaille ta lore;
eta gaur zeran bezelakua
izango zera gero're,
zure auetik entzun nai nuke
maite didazula ere».

«Andria lana danakin utzi
ta tabernara zuazte,
gaur dan euneko mutillak, Jose,
oso gaiztuak zerate.
Nik zure berri pixka bat bakit,
zintzua zera gaur arte,
nik etzaitut, ez galduko baiña
oraindik etzaitut maite».

«Ondo artzen det gaitz pentsatzia
nik ori emakumian,
nola-olako gauzak pasatzen
diran gaurko egunian.
Seguro nago naiko'idazula
beste inork ez aiñian
nolako biotza ona daukaten
ikusten didazunian.

Nik arrebarik ez nuen eta
bakit zer dan sukaldia,
nai al zenduke proba eitia
nork egin giso obia?
Mimo guzitan edukiko det
nik artzen dedan andria,
lenengo ona ni izango naiz
danak gaiztuak badia.

Oliorikan onenetikan
lasai zartaira botata,
aragia're gaztiarena
xamurragua oi da ta;
zuk giso ona egingo dezu
baiña galanki kostata,
oi baiño geio guk baidatze'iu
erremediorik ezta-ta.

Lepotik kendu okela eta
jan dute gustora asko,
mutellak: "Auxe ederra zio
solomillua dalako".
Merkiak jartzen ikasi nuan
onikan ez nualako,
txikitan zailtzen ikasitzia
ona da zartzarorako.

Gastu aundirik ez tet egiten
neretzat ljuarekin,
pozik ordia Donostiara
juango nitzake zurekin,
butik oiñera jaztiagatik
pitxirik ederrenakin,
zuri begira egon ditezen
zeraden politarekin».

Bi ordu t'erdi pasa nituan
nik bi minutu uste ta,
nere onduan nedukalako
negon ainbeste poztuta;
mundu ontako kristaua zala
negon ezin sinistuta,
erri guzia argirik gabe
neukala ere aztuta.

Ikusirikan argirik gabe
erri guzia neukala,
nik esan nion Irubidera
jayian juango nintzala;
baita ark ere agindu zidan
ura ere juango zala:
«Adios, Jose, ordura arte,
ondo-ondo juan zaitzala»

Nik esan nion: «Zerekin patu
bear dizut gosaria?».
«Zuk ezekiñ ez ta guri ona
bota zaiguzu argia».
«Nik alegiñak egingo ditut.
esaten dizut egia;
eskerrik asko eta adios,
aingeru zoragarria».

Nere Jainkuak nai izan zuan
ni egun artan juatia;
ni an nengola eskale batek
amai jo zion atia,
eta platera atera zion
potajez bete-betia.
Gurasotatik txikitatikan
ola ikasiak'tia.

Ez nengon lasai erri guzia
argi be zegon artian,
sasoi neukan da etorri nintzan
korrika laster batian;
nai ordurako ez nintzan sartu
transformadoreko atian,
egun guzia pasatu nuen
biotza bete-betian.

Gerran ez gendun elkar berririk
ezagutzen ez giñan da,
an ibiltzeko naiago nuen
nai zidazula jakinda;
baiña Jainkua oso ona da,
ola obeto izan da,
jakin bazendu nola nenbillen
zu penaz ilko ziñan da.

Lagun bat nuen sastria eta
traje bat nion eiñazi,
nere korbata pintuarekin,
zapata berri ta guzi,
etorriko zan uso txuria
ez juatiagatik igesi.
Nere artian ibiltzen nuen
bakiñatxo bat malezi.

Luze samarra egin zitzaidan
Irubidera juanda,
lauretarako an bait nengoan,
bostetarako esanda.
Ez nuen utsik egiterik nai
bein itza ala emanda,
lasaitu nintzan ikusitzian
nerbiososo nengoan da.

Urrutitikan ikusi nuen
izar polarra bezela,
neska txiki bat apain-apaiña
neregana zetorrela;
ematen zuen Zeruko Amak
berberak egiña zala,
ura etzegon baztartzetikan
naita bat sartu kartzela.

«Arratsaldeon, Jose» esanda
esku txikia luzatu,
arren politik munduan zanik
beñere ez nuen pentsatu;
neri biotza soldeatuta
bezela zidan peatu,
eta oraindik bera maitatzen
beñere ez naiz aspertu.

Nik esan nion barkatutzeko:
«Dantzan ez nuen ikasi;
lanian eta parra egiten
besterik ez dakit kasi.
Baiña biotza ona izaten
iñork ere ez nau autsi,
baiña zu zeran politarekin
zugana jua zait igasi».

«Zuen izketak ederrak dira
baiña ezkondu aurrian,
mingaiñak oso legunak eta
etsai gaiztua gordian.
Ezagututzen ditut nik asko
gaurko gizonak zer dian,
nik alegiña ingo'izut baiña
ez nazu asiko txarrian.

Nik otoitza egiten diot
gure Zeruko Amari,
gure aita dan bezelakua
arren emateko neri;
gaurko mutillak bizio asko,
gorroto gutxi lanari.
Bizi ederra emango dio
deskuidatutzen danari.

Ona edo txarra bizi guztiko
artzen da egun batian,
negar eitia alperrikan da
gero denbora juatian.
Baldin konturik ezpa'ezu izan
ezkongai zeran artian,
gero zeorrek pagatuko'zu
zere bizitza guztian.

Kristau faltsuak gozo aundia
artzen dio gezurrari,
eta mundantzak etortzen zaizka
biotzik ez duanari.
Ona ta txarra juntatzen baita,
erruki diot onari.
“Lotsagabiak beti arrazoi”,
esaera zarra da ori».

Nere aingeru zoragarria,
naukazu oso poztua,
zu olakua nola zeraden
daukat ezin sinistua.
Ama Birjiñak ibili zuen
au egiteko eskua,
bestela ezin ditekena da
orren fiña ta justua.

Egan zebillen uso txuria
orra eskura ekarri;
nik ikusiko baldin banio
oi eramaten urari,
salto ingo nuke nik beragana
naiz-ta ez jakin igari;
gure Jainkuak suerte berdiña
eman dezaigun biori».

«Jose, nik beti maiteko zaitut,
zera ona ta noblia,
gaurko euneko mutillak asko
diraden baiño obia.
Nik nai nuena ori bera da
naiz-eta izan pobria;
nik alegiñak ingo dizkitzut,
esaten dizut egia».

«Nik ama antzeko andria eta
zuk aita antzeko gizona,
geren denboran beti ori da
biok eskatu deguna.
Orain aurrera eskatu zagus
pakia ta osasuna,
lenago sasi ziranak lore,
auxe da edertasuna!

Barku belero bezela naiz ta
zu zera berriz aizia,
zuga txarrikan ez tet itxaro,
egin nai dezun guzia;
alare ezta, noski, izango
guk nai deun bezin luzia.
Gure Jainkoai eska zaiogun
urte askoko bizia.

Olatu asko artutakua
nere belero ontzia,
baiña oraingo sari onekin
nei ordaindu dit guzia.
Aurrera ere beartuko naiz
baiña ez nago etsia,
gure Jainkoai eska zaiogun
guretzat pazientzia.

Jende onakin asi nitzan da
atera zaizkit ederki,
nere iritziz neronek mezi
dedan baiño're obeki;
denetatikan dauzka Jainkuak,
maite gaitu biotzeti,
eskatzen zaion bezelakua
pozik ematen du beti.

Maitatzen diot andriari ta
bere tarteko danari,
ta berak ere maite nautela
azaltzen dirate neri.
Betiko zorra egin nioten
aitari eta amari,
oien bitartez etorri baitzan
nere pitxi eder ori.

Barkaziua eskatzen diet
egin badiet utsikan,
neretzat onak izan dirala
esateko ez tet lotsikan.
Oietako bat ikusitzian
jartzen naiz oso pozikan,
merezi duten esker ontzeko
ez tet billatzen itzikan.

Gustatu oi zait begiratzia
bezperatikan biarko,
bakar-bakarrik martxa ederra
jarria neukan orduko.
Nik banekien neskatxa arek
ez niñuela galduko,
ni baiño kezka gutxiagokin
iñor etzan ezkonduko.

Isabeli

Isabel, zoriontsu
egin nazu neri,
mesediak egiñaz
erri danari;
egunak baiño leno
eraso lanari,
gero egun guzian
salto eta korri;
saltsa gutxi jarri,
itzak ondo neurri,
zintzo eta garbi,
zuzen eta argi,
zuretzako kejarik
ezta etorri.

Egunak baiño leno
lanian asita,
danak lo daudela zuk
dezu bisita;
iñorentzat ez dezu
aterik itxita,
sentitu ordurako
an zuaz jekita;
arpegi polita,
biotzetik maita,
danai ondo nai ta,
berez bear baita;
oi zerezkua dezu
ta ez erosita.

Zu zerade onena
emen danetatik,
bat eztan modukua
milloietatik;
eskerrik eztezula
zuk jakiñagatik,
ondo egingo iozu,
etzazu inportik;
or zabiltz gogotik
danen onagatik,
faltarik zugatik
ez izateagatik.
Amaika einda juango
zera mundutik.

Pentsatzen egoten naiz
ni nere artian
zure sentimentuak
nolakuak dian;
urtu ein naiko dezu
alakon batian,
lasai gelditutzeko
dana ematian;
bien bitartian
badira tartian
eskertu partian
sartu be atian
lagun egin diranak
beste batian.

Diruarengatikan
zuga ez nitzan jun,
lenbiziko itzetik
ori esan nizun;
zuk baiño biotz obeik
iñork netzat etzun,
nik goguan daduzkat,
ez dakit dakizun.
Zuk esan ziazun:
«Esan zer biazun».
On ein nai ziazun,
etzabiltzan lizun;
santa bati bezela
sinistu nizun.

Gauza bat aberatsa
sortua lurretik,
lingotiak da einda
urre gorritik;
bat etorriko balitz
Ameriketatik,
guztiak eskeñiaz
saltzeko zugatik,
ez nuke diskutik
uzteko eskutik,
zu bezin politik
eztator ezertik;
nik etzaitut salduko
diruan gatik.

Saiatu naiz alegin
ni auek moldatzen,
nere ondorengiak
jakin dezaten;
norbaiti ez bazaio
bertsorik gustatzen,
azalakin errezak
daduzka tapatzen;
jakin nairik bazen
nola izan naizen,
aritzeko letzen
aukera dit jartzen;
barkatu ta ainbestez
ditut amaitzen.

Egillearen eskuidatzietatik

Gerratea

Beste kopia bat.

Bere bizitzaren zati oiek berak kontatzen ditu egilleak beste libreta bategan ere. Bertso batzuk errepikatuta daude, baiña merezi dute ona osorik aldatzea.

Milla pasa ta beatzireun
amabostgarren urtian,
ni jaio nitzan maiatzak amar
zituen egun batian;
Garin deritzan barrio bat da
Beasaingo partian,
berrogei eta amalau urte
daduzkat larunbatian.

Bost urterekin etorri nitzan
Urnietara aldera,
lenengo eskola Larburun eta
urrena Kintaleanera;
ta gero berriz maisu zarrakin
asi artian lanera,
batzuek aiña estudioan
gastatu gabiak gera.

Gure jaieko dibertsioa
meza nagusi ta bezpera,
pelotan egin saio bat eta
ilun aurretik etxera;
lanak eginda apaldu eta
errezatuta oiera.
Gazte denboran izugarritzko
istorikuak ez gera.

Gurasuaren mende etxian
ta apaizarena elizan,
zinera ere ez nitzan juaten
beldur gaiztua ote zan;
erderaz ere gutxi nakien,
euskeraz itz egiten zan,
gaurkuak duten aiña malezi
gurekin orduan etzan.

Nei gurasuak ze esaten ziren
sekulan etzait aztuko:
Lagun onakin junta nedilla
eta gaiztuai uzteko;
txar bat bakarra naikua zala
beste guziak nasteko,
aurreko danak onak zirala
eta onari eusteko.

Kazuela on bat amak askotan
jarritzen zigun etxian,
danok bertsoan gelditzen giñan
kalera juan ezian;
gure etxian aurre aldian
dagon bide-gurutzian,
gure bertsuak aitzen gustora
amaika egoten zian.

Danok pozikan ari oi giñan
ta berez jaio bear du,
beste anaia Gillermok ere
oso ondo moldatu oi du;
badakizute bertsuak jartzen
onen-onenen malla du,
ta aurrez aurrera oso ona da
eztarri txarra ezpalu.

Amak kazuela ona jartzen zun
ta nei gustatzen jatia,
bertan armatzen genduan pesta,
zertako iñora juatia?
Beti kantari ibiltzen nintzan,
nunbait izaki gaztia,
orain ai naizen trakets auek'e
orduak ikasik dia.

Amaikak jo ta oieratzeko
ta ezin bertsorik bukatu,
ama erritan etortzen zan ta
parra oi zitzaion lertu.
Etsai gaiztuak giñala eta
gurekin zeñek burutu?
Aldegin zuten txolarte oiek,
berriz eztira biurtu.

Maldiziorik etzekiten da
etzuten esan gezurrik,
errosaiua egunero etxian,
beñiere ez utsein mezarik.
Kontu izan gero iñoi utsegin
beti ondo egin nairik,
aientzat duda baldin bazegon
guretzat ezta zerurik.

Gure guraso maitagarriak
zuzenak ziran gogotik,
aien animak egiñak ziran
lore usai gozozkotik;
dana ein zuten Eleizarentzat
ta semiaren onagatik,
ta oraindik ere lagun naiean
begira daude zerutik.

Mundu ontatik alde egin zuten
betiko ezin bizita,
oiñordekuak gu nola giñan
itsuaurreko utzita;
aien izkuntza guk utzi degu
iltze gogorrez josita,
eta mingaiña mozten diogu
zerbait esaten asita.

Guraso aiek zaiñetan zuten
odol berbera daukagu,
ta asiera nungua zuten
apelidutik dakigu.
Gure grazi au onra da eta
mundu onetan gutxik du,
estimatutzen eztegelako
negar bizitan dauzkagu.

Aingeru jantzin emen dabilta
Luzifer eta Pilatos,
etxeko lagun aundi eginda
emengo euskaldun gaiztoz.
Eztira asko konturatutzen
oiñazez dagon amatxoz,
baiña oraindik aita bizi da,
egun estuak badatoz.

Euskaldun aiek usteko dute
kontzientzia dutela,
beren izkera galduagatik
inportik etzaiotela;
beste munduan sinistu gero
ear(¿) guartuko dutela,
erakusteko aber nun degun
aiek eman zigutela.

Amairu urteko asi nitzaden
anaiakin Donostia,
koneju ta uso, ollo ta ollasko,
arrautza eta esnia,
fruta, berdura, intxor da gaztaiña,
baserrin zegon guztia,
amari sosak zintzo ekartzen
izanagatik gaztia.

Beñere ez nuen parrandik egin,
sekula ez nitzan mozkortu,
dirua banun patrikan baiña
beñere ez nuen gastatu;
edozeinetan launtzeko pronto
eta bertsuak kantatu.
Lana galanki eginda baiña
bizi nitzaden kontentu.

Amaika aldiz zeñen pozikan
jeikia nagon goizian
nere launakin parra puska bat
an egiteko pozian;
txarrik etzuen batek pentsatzen
eta sasoi gorputzian,
zeñek sinistu aien bueltak
nola etorriko zian?

Ni zenbat aldiz Donostiara
juana nagon kontentuz,
ni baiño obeto munduan iñor
etzala bizi pentsatuz.
Neskatx ederrak ere baziran
eta aiekin jolastuz,
amaika parra eiten genduen
geren ipui eta kontuz.

Ala biar da gero etorri zan
Espaiñiko gerratia,
eta orduan akabatu zan
nere ondo izatia.
Ta nabarmendu zaien bakoitzai
zidaten borondatia;
makiña batek ein zuan negar,
etzuten nai ni juatia.

Gutxi ezautzen nituen askok
eman zidaten eskua,
bat nazkantia izan ezian
au etzan arritzekua,
edo bestela batek bear zun
oso legor da arrizkua.
Batek zamakin paraderu ark
ematen zuen izua.

Gure guraso maitagarriak
au erakusten ziguten:
Ondo eiteko eta damurik
gero etzala izaten.
Jaungoikoari eskeiñitzeko
probetxu izan zezaten,
aitzeko ondo guri on bear
ari zirala esaten.

Donostiara amaika bider
nago gustora juana,
ango pausuak sinistu gero
penatarako zirana;
gure Jainkua beti probetan
ibiltzen da guregana,
ta eskubiakin ematen digu
ezkerrez kentzen duana.

Zazpi urtian ibilli nintzan
ta ezagutzen ninduten,
«Errezatuko dizugu, Jose»
danak esaten zidaten.
Ez nula uste ainbat nai zidatenik
etxian esan nioten;
damutu zitzaiz ederki esana,
negarrai eman zioten.

Aguazil jaunak nei eman zidan
gerra juateko ordena,
kontseju au zan orduan aitak
neri eman ziradena:
«Jakin bear dek Santo Kristo au
igatik ilda dagoena,
onen dotriña bete bear dek
emen ikasi dekena».

Neri baietza itzik esanbe
aitak entenditu zian,
baita berak'e sinisten zula
itzik gabe esan zian.
Nere kolkuan ibilli nuen
gero gerrate guzian,
eta nerekin ote naraman
beti begiratzen zian.

Ama negarrez zeguan eta
etzuen ematen pozik,
ta aitak berriz naiagatikan
ezin egin zuen itzik;
burutik bera beira anaiak
etzedukaten jolasik,
onen urrengo bertsuarekin
orain goatuko gatxik.

Esan detana, ama lertzen da
aitak etzeukan indarririk,
anaiak berriz ezkutatuta
utzi ninduten bakarrik;
nik anparua nai nuen baiña
eskatzia zan alperrik.
Ai, Jaungoikua, au zergatik da?
Nik eztet egin okerririk.

Atia bildu, matillai eman
ta egin nuen aitaren,
«Zeruko Ama, lagun zaidazu
berriz sartutzeko emen.
Gure Jainkuak bakarrik daki
gu zer ikusteko gauden».
Osasun ona eta bizia
eskatzen niola arren.

Gure guraso maitagarriak
elizkoiak ziran izan,
gure etxian errosaiua
eunero errezatzen zan;
ta egun aietan esaten zana
gure izenerako zan,
gerra artatik bizirik eta
sano etorri geitzan.

Etzan faltatzen Eibar aldeko
kaiñoi ta tiruen otsik,
aien dardarak neri illiak
jarritzen zizkiran zutik;
disgusto eta atsekabiak,
iñundik etzegon pozik,
erakusteko zeñen txarra zan
nik eztet billatzen itzik.

Egun aietan zer pasa nitun
sekula etzait aztuko,
disgusto oiek netzat zeudenik
nik ez nuen sinistuko,
otsoik gaiztona ala ikusita
ni ez nitzake poztuko.
Norberak daki bere berri ta
au bertatik det moztuko.

Adios, nere lagun maiteak,
adios, neska gaztiak;
adios, nere elusioak
ta ondo izateko ustiak;
adios, nere erri maitea,
bukatu dira guztiak.
Danak utzi ta tiro aitzera,
ok dira pauso tristiak.

Alako martxa ta esperantzak
danak galduta utzirik,
ta okerrena berriz bizia
ari batetik zintzilik;
une batian etzan arintzen
naigabiaren pisurik,
tiroka aitzera juan bearra
zeguan ixil-ixilik.

Penaren karga galantarekin
atera giñan erritik,
beti pentsatzen zer paradero
ote zan bizi berritik.
Ortzetaraiño josi giñuzen
munizio ta armatik,
kanta ta bulla ugari baiña
animo gutxi barrutik.

Manta bat eta kapotia zan
gure oia ta tillatu,
beste babesik etzan izaten
naiz-ta denbora muatu;
metro ta geioko elurra're
izan oi genduen artu,
ta zenbateko jelak ziranik
ez genituen negurtu.

Orain oinbeste, lenago ainbat,
mordo bat falta onduan,
debillak eztu bala bearrik
olako bizimoduan.
Arria baiño gogorragoko
osasunakin naiz juan,
naikua lanak bagenituan,
geiago ezin genduan.

Beste anai bat ere badet nik
or ederrak ikusia,
artian txofer gutxi zan emen
ta ura zegon ikasia.
Lendabiziko tanke alemana
tokau zitzaion artzia,
gero berakin pasatu zuen
gerrako ekaitz guzia.

Eman ziguten muda bat eta
manta eta kapotia,
bizi berrian gustora asteko
auxe zan gure dotia.
Mendik altunen punta-puntara
or ta juatia¹⁰
zeiñek siñistu orrenbeste lan
besterik gabe eitia?

Guk Terueldik Balentziara
ai genduen abantzia,
Toro deritzan erri aundi bat
tokatu zitzaun artzia;
fortunatu zan nere anaian
konpainia etortzia,
aietako bat nik ikusi ta
zein ziran ezagutzia.

Bata bestiai idatzi gabe
etzan pasatzen asterik,
nik aspaldian ez nun ikusi
nere anaia maiterik.
Eta an zegon potajiakin
ez ematearren penarik,
ondo-onduan beira egonda
ez nion egin kasorik.

Lendik nakien juaten zala
tanke número tres-ekin,
gain eta azpi su ta garretan
an zegon tiro otsakin;
oso bertatik ikusten nuen
nola zijuan Joxakin,
gurutzari laguntza eske
estutzen nion ortzakin.

Eztakit nola atera nintzan
sano eun artan andika,
ez gero pentsa atake artan
izandu zanik bromika;
nik anaiari kaso'in banio
ez gendun gauza onika,
naiz berdiña ez konparatzeko
Jesus eta Beronika.

Euzkia zegon sua bezela
ain berotasun errian,
azpitik gora beste ainbeste
ango toki leorrian;
arri koskor bat billatu nuen
jartzeko buru aurrian,
egun guzian tiroka etzanda
pasatu nuen lurrian.

Gero gabian agindu zuten
puiñalarekin jartzeko,
oi dena zala mendia ura
nai eta nai ez artzeko;
otsuen gisan saltatu giñan
anguak tragatutzeko;
etzegon iñor, aldegin zuten
beldurrak arrapatzeko.

Neri puiñalak dardara txarra
eiten zidan barrenian,
baiña sartzia etzan pekatu
kontrariua danian.
Ura salto eginda¹¹
aldeginda zeudenian,
egun bateko bizia geio
gurekin genduenian.

¹⁰ Eskuidatzian ezin irakurriak puntuz ezarri ditugu.

¹¹ idem.

Egun artan an etzan gosetzen,
etzegon janan bearrik,
uran tantorik etzeguan da
ler egin biar egarrik.
Gure barrengo suspiriua eta
guk gendeduzkan larrik,
balarik gabe makiñatxo bat
juan zan orrekin bakarrik.

Ura tankian barrenen gaizki
eta ni petxu librian,
ordun bezela zenbat alditan
eriotzaren aurrian!
Il da eritu Jainkuak daki
zenbat ondotik juan dian,
gerra nai dunai esango dizkat
nolako bentajak dian.

Tanke atzetik juan giñaden
aieta ainbat birian,
zulo galantak eginda zeuden
ondo gordeta lurrian;
beren tanke ta kaiñoi zarrakin
millaka gizon aurrian,
aita jutia ezta jakiten
zer dan probatu gabian.

Fusillarekin aurreko puntan
gerrako urte larriak,
jela ta elur, otz eta bero,
gose eta egarriak.
Ango tiruak, ango aienak,
ango ill eta eriak!
Eztakit zenbat kulpa genduen,
pasa giñuzen geriak.

Nik banituen lagun jatorrak
kastillano ta euskaldun,
etorri gabe bertan geatuak,
nerekin juanak ordun.
Gusto guztirik eztago baiña
ementxe nai degu mundun.
aik ez dutena guk badegu ta
aber istimatzen degun.

Jaungoikoari esker
nik pauso¹²
Ta beti ondo atera nitzan
naiz eta ibili larri.
Martxa txarrikan ezertxo ere
ez nun gerratik ekarri,
bizi bea'unik ezta iltzen, da
ni're bizirik etorri.

Izugarriak pasa giñuzen,
esan detana gutxi'a,
jaio giñala beste kulpikbe
ura pasara artzia!
Gendun sasoirik onenerako
guretzat zegon martxia,
amaika bider goatu nintzan
gure ama ta etxia.

Neri biotza txit samintzen zait
goatzen zaiten orduan,
nik aginduta mundu ontatik
bestera etziran juan.
Atrebitzen naiz ni esatia
aiek daudela zeruan,
tiroka aituta amaika otoitz
gabian eiten genduan.

¹² Eskuidatzian irakurri ezin.

Ala ibillita zeñiek sinistu
batek gaur nola bizi'an?
Jakín nai nuke ník zenbat milla
tiro nei tiriak zian.
Rasponazorik txikienikan
ez nun izan gorputzian,
ník milagrotzat artua daukek,
norbaitek laundu baitzian.

Nere gerrako pauso guziak
soldadu batenak zian,
batek alegin egin bear du
dijuan toki guzian.
Tiroka gogor ibilia naiz
alako gerra luzian,
eskaporikan ez nun da ez det
kargarik kontzientzian.

Barkatzen diet neri tiruak
tira zizkidatenari,
ta barkatzeko eskatzen diet
ník tira nizkatenari;
ník bezelaxe naiko zioten
aiek'e beren amari,
gorrotuakin ník gaizki nai ta
ez nion tira iñori.

Okerrik banun lagundu nai ta
artu ninduen bakarrik:
«Esaidak, Jose, neri ezertan
egin badek gauza txarrík».
«Ez, amatxo, ez, Jaunai eskerrak
ník eztet odol mantxarík,
alde guztitan eztegu egin
ondo eitia besterík».

Jarraitu nuen amari esaten
neri pasa zaizkidanak,
neregatikan bizi zirala
bestela ilko ziranak.
«Ondo goguan artu nizkizun
zuk nei askotan esanak:
geroko penik etzula izaten
ondo ibilitzen zanak».

Ama guztiak maite ditzagun
biotzez, onak dira ta;
baiña onena nor beria da
mundu guzia jirata;
gure gorputza eta arnasa
arrek emanak dira-ta,
bere besora etorri nintzan
ainbeste tiro tirata.

Ni etortzian gerra pasata
amarekin aurre-aurrez,
arek gajuak busti ninduen
beraren malko ederrez:
«Pasa dizkiat ederrak, Jose,
ilko induten bildurrez,
gaurko eguna eztek iritxi,
motell, ník nai bezin erre».

Su ta garretan antxe tiroka
beaien auko zuluán,
eta egiten zun beruakin
batek erre bear zuan
ke tartian an
noiz baiño noiz joko zuan.
Ortik pentsatu nolako egun
ederra izagun nuan.

Gerra guzian nere kolkuan
ibilli nuen Jesusi,
ama neria otoitz egiten
orrela zitzaion asi:
«Zerekin patu bear dizut nik
Jose zaidalako bizi?».
Otoitz egiten aren barrendik
nik eztet iñor ikusi.

Lenengo aldiz permisuaikin
etorri nintzan Bizkaitik,
ta ordurako izugarriak
aituta zeuden nigatik;
astero karta bialtzen nuen
animoz beteta betik,
ildakuaren tartian antxe
tiroka aituagatik.

Nei gurasuak esaten ziten
otoitz egiten zutela,
ta aien errezuaren indarrez
artian bizi nintzala.
Esan nioten esaten zuten
ainbesteraiño etzala,
bestien berri nik ez nekila
baiña gu ondo geiltzala.

Esan dizutet gezurra esanda
nola anima salbatu,
alako biotz samur aieri
nola ez disimulatu?
Berekin zuten naikua lana
aiek, arranepolatu.
Arinduazi nizkaten penak
naiz-ta neroni kargatu.

Aiek negarrez eta ni parrez,
ai!, ura teatrua zan,
gerra nai nula nik segitzia
baldin ura gerra bazan.
Bestien berri nik ez nekila,
gu nola ondo genbiltzan,
gezurra esanda begira nola
zerua irabazten zan.

Postura ontan itz egin zion
orduan amak aitari:
«Nunbait ere au ez dabil ondo,
eskeleto bat diruri;
morua baiño beltzago da ta
begira onen zarpari,
miserable bat eginda dao ta
ezta isiltzen kantari».

«Arpegi latza ekarri'u onek
badu naikua miseri,
baiña kejarik txikienikan
etzaio aitzen Joseri.
Goguarekin egongo aiz ta
lengo mayian eseri;
kupel gorritik ekarri zazu
sagardua ta baso bi».

Aitak esan zun bazekiala
gu oso gaizki gailtzala,
baiña inpernura juandakuak
okerrago zabiltzala.
Jaungoikoari ofrezitzeko
ta santu eingo nintzala,
gaizki pasiak aprobetxatzen
arren ikasi nezala.

Pasa giñuzen izugarriak,
esan detana gutxi'a,
nunbait egiña zegon guretzat
eramateko gutzia.
Gendun edaderik onenian
ura pasara artzia!
Amaika bider goatu zitzan
nere ama ta etxia.

Jaungoikoaren zigorra zan oi
ta gure okerrak dia,
txiki askokin aundi bat ein da
gero sortu gerratia;
norbera ona, bestiak txarrak,
etsaian gezurrak dia,
lanik ein gabe ondo bizi nai
dunaren errematia.

Jaiotakuak artaz azterik
iñori etzaio gustatzen,
asko giñan da esaten asi
seituan dira nazkatzen.
Bertsotan pixkat dakitelako
ni zeñen ederki naizen,
berreun urtera ne kastakua
norbait ariko da letzen.

Amets bat

Bart arratsian amets egin det
nolakua dan zerua,
beñiere ez nuen pentsatu eta
banaukan jakin-gogua;
ez nuen uste orren eskasa
zanikan gure mundua,
karamelo bat goxorengatik
saltzen deu geren burua.

Oso ederki ibilia naiz
ni zeru eder orretan,
tarteko danak bisitatuaz
beti parrez ta brometan;
etxian inñor izan ezpanu
geldituko nitzan bertan,
egun guzian geroztik nago
esnatutako penetan.

Belaze bat 'a¹³ paregabia,
etzan ikusten mugarik,
alfonbratuta bezela zeuden
koloretako belardik;
eta aidian jostatzen zeiltzan
egan arrai eta txorik,
ta itsasora sartuta ere
etzegon ito bildurrik.

Otso ta artza, legoi ta tigre,
zebiltzan danetatikan,
salto ta brinko danak jostatzen,
etzuten eiten kozkikan;
zekaten jantzi zoragarriai
ez nion kendu bistikan,
an zan legoirik aundienari
musu eman nion pozikan.

¹³ Gauz bat'a: gauz bat da.

Zeiniek ez daki zeru goietan
milloika asko daudela?
Ta zeinen garbi ikusten degu
etsairik eztaukatela!
Ogei urteko pareja onak
sinistu maite dutela,
aiek alkarri maite diote
pareja orrek bezela.

Munduan onak ziradelako
dabiltza pozez aseta,
buruausterik beñiere ez tute
etsairik eztaukate-ta.
Misteriorik aientzat ezta
jakintsu utsak daude-ta.
Millaka urte juaten zaizkie
minutu batzu uste ta.

Nola oiera bat lasai juan
etsaikerian pasata?
Ondo eginda oieratzia
poz geiagoko gauz bata.
Ona izaten gaiztua baiño
bate zallago ezta ta,
zeru ederra gozatzen dute
ta ez ainbeste kostata.

Aurrera juanda egondu nitzan
urrena Aitorrerekin,
euskaldun danok degun odola
eman zigun aitarekin;
serio zegon eta sufritzen,
bildurtu nitzan arekin.
Galdetu zidan emen euskera
aber zer moduz genbilkin.

Nei koloriak zuritu ziztan,
ematen zuen Jainkua,
nik esan nion: «Gure euskera
bastante dago lur jua;
baiña ai dira eskola berrik,
jendia konturatu'a,
berez ain da aberatsa ta
altxatuko du burua.

Gure aitonak itz egin zuen
oso kopeta bezturik:
«Ezta munduan oraindik sortu
garbiagoko izkerik;
maldizio ta izkuntza txarra
eztakianak besterik,
beñere ezta ikusi naiko
begien bistan euskerik».

Lotsa da baiño gure artian
badauzkagu euskaldunak,
beren semiai euskeraz eiten
utzi nai eztiotenak.
Aitorrek tinta gorriarekin
artuta dauzka izenak,
beraren Ama saltzen baitute
ori egiten dutenak.

Sinistu ezin ditekera da
gizonaren gorrotua,
bate inportik eztiotela
naiz galdu lagun urkua;
txanpon batzuek badira pozik
naiz utzi izurratua,
justizirikan ezpalegoke
aztuta dabil Jainkua.

Gu emen nola poztutzen geran
gu elkar izurratuta,
baiña azkenik geok patzen deu
txanda etortzen zaigu-ta;
Judasi eman nai arrazoa
Jesus onari kenduta,
ta beti gaizki irtetzen degu
txarrak onikan ezta-ta.

Garbi bizi nai duen kristauak
edo kontzientzi gozoz,
onetik zerbait iritxiko du
baiña ezer ez gorrotoz;
beste munduan an dauzkagu zai
Luzifer eta Pilatos,
zuzen ibiltzen eztanarentzat
egun estuak badatoz.


Gure aurreko guraso zarrak
askok etzuten eskolik,
euskera garbi-garbia zuten
ta etzakiten erderik.
Emandako itza ondo beteta
etzuten firma bearrik,
guri begira ez ote dute
zeruan eiten negarrik?

Gure aurreko euskaldun zarrak
ziraden jende nobliak,
gaur dan eunian gu emen asko
geraden baiño obiak;
aien oiturak ankaperatu,
artu ditugu berriak,
lotsik eztuna gaillendu da ta
iya egin du guriak.

Guk Japonguak telebisioz
ikuste'itugun bezela,
seguru nago guri zerutik
ikusitzen digutela;
azaletikan etsai ederra,
barretikan ustela,
gezurrarekin baliatzen da,
eztu balio bestela.

Illargiraiño jua diru ta
gu emen elkar igasi.
Estudiua badaude baiña
onik eztute ikasi;
gezurra dirui nola ez geran
munduan obeto bizi,
kondena zagun Luzifer eta
segi zaiogun Jesusi.

Egillearen eskuidatzietatik



Jose Inazio, emaztea eta haurrarekin.

Xenpelar zanari

Lagun zaidazu, aita Xenpelar,
bizi zerana zeruan,
zure ejenplua zabaldu nai det
premia nola daguan.
Gerrari ezetz, ta nai zunari
bala sartzeko buruan,
bi ukabillak gora jasota
gogor esaten zenduan.

Mundu ontako gertakizunak
zeduzkan ezaguturik,
esaten zuen armaz autsita
etzala eiten pakerik.
Santu itxuran nola zebiltzan
etsaiak lagun arturik,
gazte gazterik mundutik joan zan
biotza penaz lerturik.

Pobria zan da eskolik etzun,
berezko argia baizik,
ankaperako eztira iristen
dabiltzan jakintsu guzik.
Bertsolariak, arren saiatu
eta ez izan perezik,
au guk zabaldu bear biegu
naiz ez irabazi sosik.

Españin gerran aurreko puntan
ni iru urte luzian,
milloika tiro ta bonbazuak
eta anguak an zian;
ainbeste bala-txistua aitu ta
iñork ikutu etzian,
nik Xenpelarri errezatu ta
bizia salbatu zian.

Salbadoria badakizute
nola il zan gurutzian,
ta Xenpelarrek beste penarik
etzuen eriotzian.
Nere barrena lasaituko da
danak ontara jartzian.
Pake santua ikusi nai det
emen da mundu guzian.

Egillearen eskuidatzietatik

Ibillaldia

Valladolid-en gabian
egon gera lotan,
Salamankan goizian
orain amarretan.
Isabel, lasai egon,
ez kezka txarretan,
oso gustora nabil
paraje auetan.

Salamankatik atzo
onuntza jo gendun,
Cáceres-en zein ondo
gaba pasa degun!
Etxetik aldegiñik
biar iru egun,
atsegín aundiz nabil,
lastimaz alargun.

Gertatu zaidalako
urrutiratzia,
orduan da bertago
dadukat etxia.
Isabeltxo Intxausti
nere emaztia,
ikusteko asko det
noiznai lo artzia.

Kontseju bat, Juanito,
bertatik igana:
errespetatu itzak
arrebak ta ama;
eta gogo bizitan
egin biak lana.
Ortxe dadukak ire
ikuskizun dana.

Atzo Cáceres-tikan
Mérida ontara
etorriak gerade
gabian lotara;
bertako festak dira,
erri polita da,
bai ederki jarria
legerikan bada.

Marka pasatu zitzan
Mérida-n gabian,
mutil izugarri bat
pasata parian;
gutxienez kana bat
bazan zabalían,
etzala alakorik
Euskadi danian

Pentsatzen jarri nitzan
ni nere artian:
Ari nork irabazi
eder ta fuertian?
Ezin ase bertago
ikusi artian,
ta euskeraz asi zitzan
auba betian.

Huelva-n lo egiten
gera luzituak,
ondo artzen gaituzte
Andaluzikuak.
Emen ere badira
klase guzikuak,
badirudi gerala
oien etxeakuak.

Or beti bustia
ta emen eurik pe,
bazar guziak emen
oso legorrik te,
auxe esango nuke
bate bildurrik pe:
orkua askoz naiago
dela ta dudik pe.

Egillearen eskuidatzietatik.

Nere maiteari

Aizazu, Mari Kontxi,
kontseju neria,
orain zuk ere egin
biazu zeria;
al bada ez baztertu
euskaldun jendia,
orain artekuetan
onenak oik dia;
naiz izan pobria
langille trebia,
biotza noblia,
balio doblia;
dirua ona da baiña
gizona obia.

Lagun batekin pasa
biazu mundua,
ark ona izan dezala
biotz ondua;
baldin bada mozkorra
edo ta txorua,
naiz ta etxiak izan,
naiz izan dirua,
zertarako ua?
Biar da gogua
eta anparua,
ain da luzarua;
izan bei zu bezela
ona ta ondradua.

Mari Karmen Albizu
nere ye-ye beltza,
nik esanagatikan
zuri txori-kutxa,
zu txit polita zera
ta etzera motxa;
saltzen dezu esnia,
baita're arroltza;
izkille zorrotza,
ta zure biotza,
zerade on utsa
ta etzera putza;
errian kanpeona
zure gorputza.

Zu Isabel Herrero,
gure etxequak
jenietan gera
alkar antzekuak;
zure urak eztira
ez usteltzekuak,
ta zu bezelakuak
zure atzekuak;
biotz onekuak,
klase aundikuak,
ez nolanaikuak,
txit primerakuak;
grazi au eman zizun
gure Jainkuak.

Eskumiñak eman
ama Doloresi,
eman gabe uzterik
eztu merezi;
mundu ontako berri
ondo du ikasi,
ta famelia're bai
ederra azi;
ondo erakutsi,
eten edo autsi
lana egin azi,
ori da lenbizi:
musurik eman gabe
umerik ez utzi.

Malagatikan zuri
nere abestia,
aizazu, Isabeltxo
nere emaztia;
eun auek neretzako
txit motzak ezta,
gauza bat ona daukat:
lotan sinistia;
zure orraztia
ta zure jaztia
abeko ezta,
ta gorputz guztia;
zu zera neretzako
ebia ta eguzkia.

Gauza bat aberatsa
irtena lurretik:
lingotiak ola einda
urre gorritik;
bat etorriko balitz
Ameriketatik,
guziak eskeiñiaz
saltzeko zugatik,
buelta nigatik,
tirua burutik,
zakurra ondotik,
bai bildurragatik;
nik etzaitut utziko
diruagatik.

Zu emakume fiña
alde guzitatik,
on egin gabe etzaude
lasai ezergatik;
zeretzako ezer ez,
dana iñongatik,
merituak zuretzat
mundu onetatik;
zeran marrokitik
eztia abetik,
zerua begitik
dezun arpegitik;
laztan bat emate'izut
biotz erditik.

Zugana diru billa
ni ez nitzaden jun,
lenengo itzetikan
ori esan nizun;
iñork biotz oberik
neretzako etzun,
nik goguan dadukat,
ez dakit dakizun;
zuk esan zidazun:
«Esan ze biazun».
On ein nai ziazun,
etzabiltzan lizun;
santa baten itxura
artutzen nizun.

Nik biotza saltoka,
nai luke aldegin,
zuk ortik al diozu
oni otsegin?
Korapillua daukat,
ezin det itz egin,
zuretzat oroitzia
neretzat atsegin;
ez det nai utsegin
zu zeradenakin,
nai nuke alegin,
zuretza egin,
zu neretzat bezela
zutzat izan nadin.

Samintasun danetan
zukin badet parte,
metro batera nago
naiz egon aparte;
egia esateko nik
eztet lotsik bate,
zu beste iñork eztit
nei biotzik bete;
gudari bat tente,
emango det frente,
egingo det fuerte
bizi naizen arte.
Agur, nere pinpoxa,
eta gero arte!

Egillearen eskuidatzietatik.